

# 2011-2014ko UNIBERTSITATE PLANA

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# 2011-2014ko UNIBERTSITATE PLANA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

**Argitaraldia:** 1.a, 2012ko martxoa

**Ale kopurua:** 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Internet:** www.euskadi.net

**Diseinua:** Divaor Studio, SL

**Fotokonposizioa:** Divaor Studio, SL

**Inprimaketa:** Centro Gráfico Ganboa

**ISBN:** 978-84-457-3231-1

**Lege gordailua:** VI 86-2012



# AURKIBIDEA

orriald.

14 2011-2014KO UNIBERTSITATE PLANA AURKEZTEKO-GUTUNA

17 AURKEZPENA

23 1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA
26 1.1 Euskal unibertsitate-sistema
28 1.2 Euskal unibertsitate-sistemaren plangintza
31 1.3 Jaurlaritzaren beste plan eta estrategia batzuekiko harremana

35 2. INGURUNEKO ELEMENTUEN ANALISIA ETA SISTEMAREN KOKAPENA
39 2.1 Plan eta araudien eragina
45 2.2 Ingurune ekonomiko, sozial eta instituzionalaren dinamikei buruzko gogoeta
50 2.3 Sistemak egituratzeko eta horien lehentasun estrategikoak ezartzeko ildoak zehaztea
60 2.4 Euskal unibertsitate-sistemaren adierazle eta ratioen alderaketa beste unibertsitate-sistema batzuetakoekin
70 2.5 Euskal unibertsitate-sistemaren erronkak

79 3. 2007-2010EKO UNIBERTSITATE PLANAREN EBALUAZIOA
82 3.1 Edukien deskribapena eta barne-koherentziaren balorazio orokorra
87 3.2 Aurrerabidea helburu nagusietan: balorazio finalista bat
88 3.3 Helburu estrategikoen ebaluazioa
99 3.4 Unibertsitate Planaren bidez garatutako jardueren analisia: balorazio operatibo bat
118 3.5 Sistemaren egituraketa
124 3.6 Unibertsitate Planaren oinarriak

127 4. 2011-2014KO UNIBERTSITATE PLAN BERRIAREN OINARRI ESTRATEGIKOAK
130 4.1 Misioa eta helburuak
131 4.2 Estrategia

orriald.

139 5. JARDUERA-PLANA
144 5.1 Ekimenen hedapena jarduera-programen arabera
167 5.2 Ekimenen sailkapena ekintza-motaren arabera

177 6. PLANAREN GOBERNANTZA
179 6.1 Kudeaketa-, jarraipen- eta koordinazio-organoak
190 6.2 Finantzaketa
197 6.3 Jarraipen-sistema

205 7. PLANA ABIARAZTEA

211 ERANSKINAK
214 A.1 Estrategiaren jarraipen-adierazleen deskribapena
217 A.2 Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen programa-kontratuak
217 A.2.1 Euskal Herriko Unibertsitatea
219 A.2.1.1 Prestakuntza arautua
222 A.2.1.2 Arautu gabeko prestakuntza
223 A.2.1.3 Ikerketa
225 A.2.1.4 Transferentzia
227 A.2.1.5 Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa
229 A.2.2 Deustuko Unibertsitatea
230 A.2.2.1 Prestakuntza arautua
233 A.2.2.2 Arautu gabeko prestakuntza
234 A.2.2.3 Ikerketa
236 A.2.2.4 Transferentzia
238 A.2.2.5 Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa
240 A.2.3 Mondragon Unibertsitatea
241 A.2.3.1 Prestakuntza arautuko programa-kontratua
244 A.2.3.2 Arautu gabeko prestakuntza
245 A.2.3.3 Ikerketa
247 A.2.3.4 Transferentzia
248 A.2.3.5 Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa
249 A.3 Ekarpen Arruntaren eta Inbertsiorako Urte Anitzeko Planaren jarraipen-prozeduraren deskribapena
251 A.4 Akronimoen zerrenda
252 A.5 Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak onartutako ebazpena
253 A.5.1 Ziurtagiriaren eranskina

# IRUDIEN AURKIBIDEA

1-1 irudia. Euskal unibertsitate-sistema . . . . . . . . . . . . . . . 26
1-2 irudia. Unibertsitate-planen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 29
1-3 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren harremana Jaurlaritzaren beste politika batzuekin . . . . . . . . 32

2-1 irudia. Euskal unibertsitate-sistemaren inguruneko elementuak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 38
2-2 irudia. Euskal unibertsitate-sistemaren kokapena zehazteko analisiaren egitura . . . . . . . . . . . . . . 39
2-3 irudia. 2015eko Unibertsitate Estrategiaren inplikazioak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 42
2-4 irudia. Unibertsitate-sistemen plangintzan erabilitako tresna nagusiak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 51
2-5 irudia. Kontrol eta jarraipeneko tresna nagusiak Europan . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 53
2-6 irudia. Goi-mailako hezkuntza-erakundeen finantzabideak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55
2-7 irudia. Unibertsitate-sistemen lehentasun estrategikoak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 59
2-8 irudia. Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan eta I+G arloan BPGarekiko, 2008an (%) . . . . . . . . 61
2-9 irudia. Ikasleko per capita gastua BPGarekiko (%). . . . . 62
2-10 irudia. Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan BPGarekiko iturburuaren arabera: publikoa eta pribatua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63
2-11 irudia. Gastu publikoaren banaketa (%) goi-mailako hezkuntza-erakundeetan: erakunde publikoak, erakunde pribatuak eta familiak. 2008. urtea . . . 64
2-12 irudia. Gastuaren banaketa (%) goi-mailako hezkuntzan irakaskuntzaren eta ikerketaren artean. 2008. urtea. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 66
2-13 irudia. Espainiako erreferentziako unibertsitate-sistemen oinarrizko magnitudeak. 2007. urtea . . . . . . . . . 67
2-14 irudia. Espainiako erreferentziako unibertsitate-sistemen funtzionamendu-ratioak. 2007. urtea. . . . . . . . . 68
2-15 irudia. Espainiako erreferentziako unibertsitate-sistemen prestakuntza-eskaintza. 2007. urtea . . . . . . . . . 69
2-16 irudia. Inguruneko elementuen analisia . . . . . . . . . . . . 71

3-1 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planaren ebaluazioaren edukiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 82

3-2 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planaren helburuak eta jarduera-esparruak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 83
3-3 irudia. Planaren edukiak, bi mailatan egituratuak . . . . . 84
3-4 irudia. Unibertsitate Planaren helburuak bultzatzeko tresnen ikuspegi orokorra . . . . . . . . . . . . . . . . . 85
3-5 irudia. Unibertsitate Planaren gobernantza . . . . . . . . . . 86
3-6 irudia. Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana hobetzeko ahalegina erakusten duten adierazleak eta jarduerak. . . . . . . . . . . . . 96
3-7 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planean Euskal Herriko Unibertsitaterako ezarritako finantzaketa-esparruaren mekanismoen deskribapena . . . . . 101
3-8 irudia. 2007-2009ko Unibertsitate Planaren bidez Euskal Herriko Unibertsitateari emandako finantzaketaren laburpen ekonomikoa . . . . . . . 102
3-9 irudia. Langile-gehikuntzaren gauzatze-maila, 2007-2010 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 103
3-10 irudia. 2006-2010eko Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programaren finantzaketa lehen bost urteetan . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 104
3-11 irudia. Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Planaren gauzatze-maila . . . . . . . . . . . . . . . . 105
3-12 irudia. Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2010 aldian. . 107
3-13 irudia. Programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2009 aldian. . . . . . . . . . . . . . 108
3-14 irudia. Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2010 aldian. . 110
3-15 irudia. Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2010 aldian. . 111
3-16 irudia. 2007-2009 Unibertsitate Planaren finantzaketaren gauzatze-maila tresna-motaren arabera . . . . . . 115
3-17 irudia. Programa-kontratuen funtsen banaketa jarduera-eremuka. 2007-2009 urteak . . . . . . . . . . . . . 116
3-18 irudia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funtsen banaketa euskal unibertsitate-sistemako eragileen artean, eta partiketa eremuka. 2007-2009 urteak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 117
3-19 irudia. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen gastuaren finantzaketa-iturriak. 2008. urtea . . . 121

4-1 irudia. Estrategiaren egituraketa eta hedapena . . . . . . 130

4-2 irudia. Xede-helburuen eta helburu estrategikoen arteko erlazioa . . . 131

5-1 irudia. Estrategiaren eta hedapenaren arteko harremana . 142
5-2 irudia. Unibertsitate Planaren ekintzak eta horien antolamendua programaka . . . 144
5-3 irudia. Irakaskuntzaren Berrikuntzarako Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 146
5-4 irudia. Irakaskuntzarako Trebatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 149
5-5 irudia. Hirueletasuna Bultzatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 151
5-6 irudia. Ikerketa Bultzatzeko Programako jarduera guztien ikuspegi orokorra tipologiaren arabera . . . 154
5-7 irudia. Ikerketa Bultzatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 155
5-8 irudia. Ikerketa Nazioartekotzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 158
5-9 irudia. Zientzia eta Teknologia Hedatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 160
5-10 irudia. Unibertsitatea-Enpresa Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 162
5-11 irudia. Ikasleei Laguntzeko eta Ikasteko Sarbidea Errazteko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 164
5-12 irudia. Unibertsitatea eta Gizartea Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena . . . 166
5-13 irudia. Sistemako Ekintzen sailkapena . . . 169
5-14 irudia. Jarduera-Programen eta Programa-Kontratuen arteko erlazioa . . . 171
5-15 irudia. Jarduera-Programen eta Programa-Kontratuen arteko erlazioa . . . 173

6-1 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren kudeaketa-, jarraipen- eta koordinazio-organoen eskema . . . 180
6-2 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren gastu-helburuak Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako hezkuntzan . . . 191
6-3 irudia. Euskal unibertsitate-sistemaren finantza-baliabideen jatorria 2011-2014 aldian . 192

6-4 irudia. Eusko Jaurlaritzatik datorren euskal unibertsitate-sistemaren finantzaketa 2011-2014 aldian . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 193
6-5 irudia. Urte anitzeko finantzabideak bultzatzeko aurrekontua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 194
6-6 irudia. Obrak eta horietarako inbertsioak . . . . . . . . . . 195
6-7 irudia. Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana sustatzeko aurrekontua 2011-2017 aldian . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 195
6-8 irudia. Unibertsitate-sistemaren aginte-mahaiaren egitura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 198
6-9 irudia. Sistemaren adierazleak: ahalegin-adierazleak . . 199
6-10 irudia. Sistemaren adierazleak: emaitzen adierazleak . . 200
6-11 irudia. Estrategiaren adierazleak . . . . . . . . . . . . . . . . 201

A.2-1 irudia. Baliabideen banaketa programa-kontratuaren arabera Euskal Herriko Unibertsitatean. . . . . . . 218
A.2-2 irudia. Baliabideen banaketa programa-kontratuaren arabera Deustuko Unibertsitatean . . . . . . . . . . 229
A.2-3 irudia. Baliabideen banaketa programa-kontratuaren arabera Mondragon Unibertsitatean . . . . . . . . . 240
A.3-1 irudia. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntaren banaketa azalpenen arabera. 2011-2014 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 249
A.3-2 irudia. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntaren jarraipen-adierazleak . . . . . . . . . . . 250













## 2011-2014KO UNIBERTSITATE PLANA AURKEZTEKO-GUTUNA

**Isabel Celaá Diéguez**
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

2011-2014KO UNIBERTSITATE PLAN BERRIA EGIN, onartu eta aurkezteko prozesua burutu ondoren, orain argitara eman behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan oraingo eta etorkizuneko unibertsitate-politikaren gida estrategikoa izan dadin.

Behin baino gehiago lehendakariak eta nik neuk, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua naizen aldetik, berretsi dugunez, ezagutza berria, ikerketa, sortzearen aldeko lehentasunezko apustua egin du gaurko Eusko Jaurlaritzak eta, halaber, gure gizartearen lehiakortasunarengatik premiaz behar diren errotikako berrikuntzen iturria izan daitekeela uste du. Ezagutza hori jakintzaren adar desberdinetan gertatu behar da, eta ez bakarrik jarduera ekonomikoari lotuago daudenetan, haien etorkizuna eraikitzeko prozesuan kontzienteki, era solidarioan eta libreki parte hartzeko gaitasuna duten herritar ikasiak behar baititu gizarte oparo eta iraunkor batek.

Gaurko krisia gainditzeko eta sozialki zuzenagoak, ingurugiroari begira iraunkorragoak, politikoki demokratikoagoak eta ekonomikoki oparoagoak diren gizarte horiek markatutako ildoan hazteko gai den euskal gizarte baten erronkaren zerbitzuan jarri behar dute instituzio guztiek beren jarduera baina euskal unibertsitate-sistemak oso ardura

berezia du. Egin beharreko aldaketen liderrak izango diren profesional gazteak prestatu behar ditu, profesional horiek beren prestakuntzan garapen zientifiko eta teknologikoak exijitzen duen mailan gaurkotua izan dezaten goi mailako prestakuntzaren zati handi bat eskaini behar du eta behar dugun ezagutza sortzeko ardura duten ikerketa-talde gehienen lana erraztu behar du.

Lehenengo aldiz euskal unibertsitate-plan batek sistema osorako estrategia bat du, baita osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzerako ere. Goi Hezkuntzaren Espazio Europarrera arrakastaz sartzeko aukera emango dioten neurriez gain, beste neurri batzuek gure unibertsitateen ikerketa-jarduera eta apur-apurka nazioarteko bihurtzeko prozesua kuantitatiboki eta kualitatiboki sustatu nahi dituzte. Neurri horiekin batera, beste batzuk sartu dira, gure unibertsitateek bizitzan zehar gauzatu beharreko etengabeko prestakuntza-jardueretan parte-hartzea sustatzeko. Halaber, kontratu-programa espezifikoak dituen lehen unibertsitate-plana da, unibertsitatearen gizarte-ardura, genero-berdintasunaren aldeko eta premia bereziak dituzten pertsonei arreta emateko politikak, besteak beste, bezalako gaietan unibertsitateen hirugarren funtzioa garatzen laguntzeko. Azkenik, gure unibertsitate publiko handiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, kontratu-programei lotutako finantziazioaz gain, eraikinak eraiki, eraberritu eta hornitzeko hainbat urtetarako inbertsio-plan handia du, era eraginkorrean eta zorroztasunez funtzionatzeko aukera emango dion ohiko finantziazio baten konpromisoarekin.

Halaber, plan hau aurrerapen handia da unibertsitate-politika hau gauzatzeko orduan eta horretarako erabili diren fondo publikoetan egon beharreko kontrol eta gardentasunari lotutako guztian. Aurreikuspenen arabera, helburu honekin, eta lehenengo aldiz, Euskal Herriko Unibertsitateak kostuen kontabilitate analitiko homologatua izango du eta, era berean, plan honen jarraipena behar bezala egiteko eta kontuak emateko behar diren tresnak (urteko txostenak, adierazleen kontrol telematikoa…) garatuko ditu.

Eta hori guztia plan hau egitea ahalbidetu dutenen antzeko lankidetza-estrategien bidez lortu behar da, gure hiru unibertsitateen parte-hartze konprometituarekin eta Zientzia, Teknologia eta Berriztapenarena bezalako beste plan instituzional batzuekin izan beharreko koordinazioarekin. Plan honetara helburu hau ere sartu da: euskal unibertsitate-sistemak parte-hartze handiagoa izatea i+g-ko jardueretan gauzatzeko eta egiteko aukera emango duten fondoak eskuratzeko prozesuan, edo ekintzaileen bokazioa duten unibertsitate graduatuen sustapena.

Plan honekin, Euskal Unibertsitate Sistemaren legeak xedatutakoa bete ez ezik, aurrekontuen aldetik zailtasun handiak ditugun une hauetan partaide izateaz harro nagoen Gobernuaren konpromisoa ere berresten dugu, gure unibertsitate-sistemari ematea erabaki genuen lehentasunarekin.



# AURKEZPENA



# AURKEZPENA

EUSKAL GIZARTEAK, GARATUTAKO GIZARTE GUZTIEK bezala, zenbait kultura-, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronkari egin behar die aurre, eta, erronka horiei erantzuteko, beharrezkoa da zenbait estrategia eta plan abian jartzea. Goi Mailako Hezkuntzaren esparruan, 2011-2014ko Unibertsitate Planak erronka horiei erantzun nahi die, euskal unibertsitateen ahalmenean oinarrituta, eta haien hiru xedeak kontuan hartuta: irakaskuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia.

Premisa hori oinarri hartuta, alegia, prestatzea eta ezagutza sortzea baliabide eta balio gehiago izango dituen gizartea sortzeko, 2011-2014ko Unibertsitate Planak:

- Bere egiten ditu europar araudi eta orientazio nagusien aginduak, argi eta garbi zehazten baitute zein den hezkuntzaren eta ikerketaren erreferentzia-esparrua: pertsonen, ideien eta proiektuen zirkulazio askerako gunea, zeinean beharrezkoa baita integratzea.

- Bat dator gobernuaren beste estrategia eta plan batzuekin aipatutako erronkei aurre egiteko beharrezko jarduerei dagokienez, eta, batzuetan, bere gain hartzen du azken erantzukizuna, esparru horretako erantzule den aldetik, eta, beste batzuetan, jokaera instrumentalago bat hartzen du, beste arlo batzuetan emaitzak lortzen laguntzeko balio duena.

- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek euskal gizartearen beharrei erantzuteko beharrezko irakaskuntza- eta ikerkuntza-eskaintza izateko aukera bultzatzen du.

- Inplikatutako eragile guztientzako erreferentzia-esparru bat finkatzen du, helburuei eta eragileen arteko harreman-esparruari lehentasuna ematen dien ibilbide-orri baten bidez.

Aipatutako aurrekari horiek ikusita, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren xedea argia da: *Euskal unibertsitate-sistemaren garapenari bultzada estrategikoa ematea eta sistemako eragileekin adostutako jarduera-esparrua zehaztea, gai izan daitezen euskal gizarteak prestakuntzan, ezagutzaren transferentzian eta sorkuntzan dituen erronkak eta beharrak betetzeko, eta eragileok nazioartean aintzat hartuak izan daitezen, kalitate handiko irakaskuntza eta ikerketa egiten dutelako, batetik, eta gizartean arduratsu direlako eta kudeaketa eraginkorra egiten dutelako, bestetik*.

Horretarako, 2011-2014ko Unibertsitate Planak lau xede nagusi zehazten ditu Euskal Unibertsitate Sistemarentzat; lehendabiziko hirurek unibertsitateen eginkizunekin dute zerikusia, eta laugarrenak eginkizun horiek beharrezko zorroztasunarekin eta kalitatearekin bete ahal izateko baliabideekin.

Lehen helburua honako honi lotuta dago: *Behar diren aldaketak behar besteko sakontasunez egitea, euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzan dituen gero eta behar handiagoei erantzuteko, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeak sor ditzakeen aukerak baliatuz*. Zalantzarik gabe, helburua ez da berria, jasota baitzegoen aurreko planean, baina beharrezkoa da aurrera jarraitzea. Esparru honetako lehentasunen artean, hirueletasunaren alde egin izana da azpimarragarria, eta hori ez dagokio Goi-mailako Hezkuntzari soilik; aitzitik, hezkuntza-ziklo guztietara zabaltzen da, Eusko Jaurlaritzaren jarduera-ildo nagusietako bat baita.

Bigarren helburuak ikerketarekin dauka zerikusia; zehazki, honekin: *Ikerketa-jarduerak nazioartean duen oihartzuna eta aintzatespena areagotzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan aktiboki parte hartuz*. Gure unibertsitateen ikerketa-jardunak beharrezkoa du kalitatean, produktibitatean eta kanporanzko irekitasunean aurrera egitea. Horretarako, besteak beste, ikertzaileak prestatzea eta talde bikainei nahiz bikain izateko bidean daudenei laguntzea funtsezkoa da, eta horretara bideratuko dira esparru honetako jarduerak.

2011-2014ko Unibertsitate Planaren hirugarren helburuak argi azpimarratzen du unibertsitateen kokapena, euskal gizarteko erreferentziazko elementu gisa, ezagutza, balioak, jarrera kritikoa eta gogoetarako gune bat eskaintzen baitizkiete gure gizarte aurreratuari eta ezagutza gero eta sakontasun handiagoz lantzen duen enpresa-sareari, Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea sisteman lidergoa hartuta. Esparru honetan planaren bidez egin beharreko jarduerek zerikusi argia dute ezagutza bere adierazpide guztietan gizarteratzearekin eta, bereziki, enpresen sarearekiko harremanarekin. Alde horretatik, inguruneko zenbait elementuri buruz egindako azterketa baliagarria izan da egiaztatzeko ezagutzaren transferentzia unibertsitateen eta, ondorioz, plan honen eginkizun nagusietako bat dela.

Bestalde, hau lortu nahi da azkeneko laugarren helburuarekin: *Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bat bermatzea, irakasle, ikertzaile, teknikari eta kudeatzaile bikainenak erakarriz, prestatuz eta atxikiz, eta baliabideak era bidezko, eraginkor eta gardenean erabiliz*. Hitz batean, jarduera guztien kalitatea hobetzea erarik eraginkorrenean eta gardenenean. Izan ere, beti beharrezkoa bada ere baliabideen kudeaketa egokia arduraz gauzatzea, orain, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren indarraldiaren hasieraren ezaugarri den atzerapen-testuinguru honetan, ardura horren premia askoz handiagoa da.

Helburu horiek zehaztean, aldez aurretik egindako azterketa-lanean eta 2011-2014ko Unibertsitate Plana lantzeko fasean, parte-hartzea oso handia izan da, eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek ezin ordainduzko laguntza eman dute. Unibertsitate horiek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariekin batera, batzorde betearazle bat sortu dute, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren definizioa etenga-

be bideratu duena. Gainera, beharrezkoa da azpimarratzea Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kideen aholkularitza eta parte-hartzea, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren edukia aberastuko dutelako beren ekarpenekin.

Gizarte-eragileen ekarpenak (foru-aldundienak, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluarenak nahiz Euskadiko Eskola Kontseiluarenak) haietako kideek Euskadiko Unibertsitate Kontseiluan izandako parte-hartzearen bidez gauzatu dira.

Azkenik, gizarte-sareak erabili nahi izan dira, era berria baitira herritarrekiko elkarreragina bideratzeko (berdinen artean), herritarren parte-hartzea eta inplikazioa errazteko, eta 2011-2014ko Unibertsitate Planari egiten dizkioten ekarpenak jasotzeko; horretarako, planari buruzko informazioa jarri da Irekia eta Facebook-en.

2011-2014ko Unibertsitate Plan honen aurkezpena da gizarte-eragile guztien ahaleginari eta lanari esker egindakoaren emaitza.

Aurkezpen honez gain, dokumentuak beste zazpi kapitulu ditu, eta hauek dira haietan jasotzen diren edukiak:

- Lehen kapituluan (*Aurrekariak eta testuingurua*), Euskal Unibertsitate Sistema deskribatzen da, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren aurreko plangintza estrategikoan izandako aurrekariak azaltzen dira, eta plan honen eta Eusko Jaurlaritzaren beste estrategien eta planen artean zer lotura dagoen esaten da.

- Bigarren kapituluan (*Inguruneko elementuen analisia eta Sistemaren kokapena*), 2011-2014ko Unibertsitate Planaren jarduera-esparruetan duten eraginagatik kontuan hartu beharreko planak eta araudiak berrikusten dira, erantzuna behar duten alderdi ekonomiko, sozial eta instituzionalak identifikatzen dira, estatuko zein nazioarteko unibertsitate-sistemak planifikatzeko mekanismoak eta lehentasun estrategikoak bereizten dira, eta, ingurunearen azterketa osatzeko, Euskal Unibertsitate Sistemako ratio garrantzitsuenetako batzuk beste herrialde eta eskualdeetakoekin alderatzen dira. Kapituluaren amaieran, Euskal Unibertsitate Sistemak, ingurunearen azterketa horri erantzungo badio, aurre egin beharreko erronkak identifikatzen dira.

- Hirugarren kapituluan (*2007-2010eko Unibertsitate Planaren ebaluazioa*), aurreko planaren ebaluazio kualitatiboa eta kuantitatiboa egiten da, helburuak zer neurritan lortu diren eta aurreikusitako tresnek nola funtzionatu duten kontuan hartuta. Kapitulua amaitzeko, 2011-2014ko Unibertsitate Planean kontuan hartu beharreko alderdiak identifikatzen dira, gogoan izanda nola funtzionatu duen aurrekoak erabilitako tresnen ikuspuntutik, eta nola egin duen aurrera bere helburuetan.

- Laugarren kapituluan (*2011-2014ko Unibertsitate Plan berriaren oinarri estrategikoak*), Planaren orientazio estrategikoa aurkezten da, bai bete behar duen eginkizunaren ikuspuntutik, bai erantzun behar dien azken helburuei eta helburu estrategikoei dagokienez.

- Bosgarren kapituluan (*Jarduera-plana*), planaren hedapena zehazten da bi ikuspuntutatik; alde batetik, gaikako jarduera-programa handien ikuspuntutik, eta bestetik, programa horiek bideratzeko ekintzen tipologiaren ikuspuntutik. Hitz batean, planaren hedapena ikuspuntu tematikotik eta instrumentaletik erakusten da.

- Seigarren kapituluan (*Planaren gobernantza*), honako hauek deskribatzen dira: 2011-2014ko Unibertsitate Plana kudeatzeko, koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko organoak; mugiarazi nahi diren finantza-baliabideen plangintza; eta jarraipen-sistema, planaren ezarpena ebaluatu ahal izateko adierazleekin eta xedeekin.

- Zazpigarren kapituluan (*Plana abiaraztea*), 2011-2014ko Unibertsitate Planaren hedapenean dauden epe laburreko lehentasunak aurkezten dira, eta garatu beharreko jarduera zehatzetako batzuk aipatzen dira.

Eranskin batzuek osatzen dute dokumentua, eta haietan hauek deskribatzen dira: estrategiaren jarraipen-adierazleak; 2011-2014ko Unibertsitate Planaren bidez bultzatzen diren Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuak; ekarpen arruntetarako eta zenbait urtetarako inbertsio-planerako mekanismoen jarraipen-prozedura. Gainera, akronimoen zerrenda bat dago.



# 1 AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA





# AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA 1

2007-2010EKO UNIBERTSITATE PLANA IZAN DA unibertsitatearen arloan egin den lehen plan osoa, Euskal Unibertsitate Sistemaren baitako unibertsitate guztiak barne hartzen baititu: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Horiek dira Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean dauden eta egoitza soziala bertan duten hiru unibertsitateak.

Bolognako Planarekin batera garatua, haren xede nagusia da “Euskal Herriko unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura eta Ikerketaren Europako Esparrura pixkanaka egokitzen joatea”; hitz batez, sistema nazioartekotzea.

Haren lekukoa hartuz, 2011-2014ko Unibertsitate Plana izango da, datorren laurtekorako, euskal unibertsitate-sistemaren esparru estrategiko nagusia. Plan honen lanketa ez da hutsetik abiatu; aurrez, haren funtzionamendua, garatuz joan behar diren puntuak eta aldatu beharrekoak aztertu dira. Horrenbestez, euskal unibertsitate-sistemaren ikuspegi bateratu bat bultzatzea ahalbidetuko duen estrategia bat gorpuzten du 2011-2014ko Unibertsitate Planak. Ikuspegi hori, kualitatiboki zehazteaz gain, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateekin adostutako helburu jakin batzuen arabera taxutu da, jomuga kuantitatibo batzuk ezarriz.

2011-2014ko Unibertsitate Planak bat egiten du unibertsitateen berariazko estrategiekin, eta, gainera, elementu berriak gehitzen ditu, aldatuz joan den eta erantzun egokiak emateko ezinbestean aintzat hartu behar den testuinguruari erreparatuz. Alde horretatik, gizartearen eskariarekin bat dator, unibertsitateari protagonismo handiagoa har dezala eskatzen baitio, Ezagutzaren Gizarteko funtsezko eragile gisa.

# 1.1 EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMA

Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak[1] xedatzen duenez, “Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztien artean osatzen dute unibertsitate-sistema, eta Eusko Legebiltzarrak etorkizunean sortu zein onar ditzanak ere sistema horretan batera bilduko dira”.

Araudi-erreferentzia horiekin, euskal unibertsitate-sistema hiru unibertsitatek osatzen dute gaur egun: bata publikoa eta beste biak gizarte-ekimeneko pribatuak, denak ere ezaugarri eta tamaina aski ezberdinekoak. Oro har, euskal unibertsitate-sisteman 60.000 ikasle inguru, 5.000 bat irakasle eta ikertzaile eta administrazio eta zerbitzuetako 2.000 langile baino gehiago daude.

**1-1 irudia. Euskal unibertsitate-sistema**

| 3 unibertsitate | 59.840 ikasle | 4.558 IIL* | 2.171 AZL* |
|---|---|---|---|
| Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV / EHU) | 45.934 | 3.641 | 1.668 |
| Deustuko Unibertsitatea (UD) | 10.507 | 585 | 402 |
| Mondragon Unibertsitatea (MU) | 3.399 | 332 | 101 |

*IIL: Irakasle eta Ikertzaile Langileak *AZL: Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

*Iturria: Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateak (2008-2009 ikasturtea)*

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak**, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra izaki, gradu eta graduondoen eskaintza zabala du ezagutzaren arlo guztietan, eta alde horretatik nabarmentzekoa da zientzia esperimentaletan eta osasun-zientzietan duen eskaintza esklusiboa. Eskaintza horren xedea da kalitate aitortua duen prestakuntza ematea, unibertsitate-prestakuntzaren arloan gure gizarteak dituen beharrizanei erantzungo diena eta prestakuntza-egitura berriarekin –gradua, masterra, doktoregoa eta etengabeko prestakuntza– bateragarria izango dena. Euskal Herriko Unibertsitatea Espainiako unibertsitate-sistemako zortzi unibertsitate handienetako bat da neurriz, eta euskal unibertsitate-sistemako handiena: 45.000 ikasle eta 5.000 profesio-

1. 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (EHAA, 2004ko martxoaren 12koa).

nal baino gehiago ditu orotara, irakasleak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak barne hartuz. Euskal Autonomia Erkidegoko giza kapitalaren hamarrenari baino gehiagori eskaini dio prestakuntza. Beraz, hezkuntza-eskaintza eta ikerketa-jarduera handiko unibertsitatea da, hainbat campus eta lurralde-esparrutan antolatua.

**Deustuko Unibertsitateak**, konfesionala izatez, ibilbide luze eta entzutetsua egin du maila handiko profesionalen prestakuntzan. Profesional horietako askok enpresa eta erakundeen arloko ekimen garrantzitsuak gidatu dituzte, hala Euskal Autonomia Erkidegoan nola espainiar estatuan. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatu handiena da, 10.000 ikasle eta 500 irakasle baino gehiago dituelarik. Unibertsitatearen programak, tradizionalki gizarte-zientzietara eta zientzia ekonomiko eta juridikoetara emana, ikasketa teknikoetara eta ingeniaritzara zabaldu du eskaintza azken urteotan, bere jarduna Bilbo eta Donostiako campusen artean banatuz.

**Mondragon Unibertsitatea** ere pribatua da, eta unibertsitate-irakaskuntza garatzeko berezko egitasmoa du, gertuko enpresa-sareari lotua, eta batik bat Mondragon Korporazioari, haren baitakoa izaki. Ikasketa teknikoetan, ingeniaritzetan, enpresa-zientzietan, hezkuntza zientzietan eta ikus-entzunezko komunikazioan espezializatua, titulu-mapa zabaldu du gastronomi zientzien arloko tituluak eskainiz. Lurralde-ezarpenari dagokionez, gaur egun Gipuzkoara mugatzen da bere jarduna –lau campus nagusi ditu Oñatin, Arrasaten, Eskoriatzan eta Donostian, eta ordezkaritzak Aretxabaleten, Ordizian eta Irunen– baina *2020rako ikuspegian* helburu gisa jarri du Bizkaia eta Arabara hedatzea.

Euskal unibertsitate-sistema, oro har eta hura osatzen duten unibertsitateekin –bakoitza bere merkatu-esparrua hartzeko ahaleginean–, euskal gizarteak garatzeko eta aberastasuna sortzeko duen eragile nagusietakoa da, haren esku jartzen duelarik:

- Giza zientzietan, gizarte-zientzietan eta zientzia esperimentaletan ia eremu guztiak eta osasun-zientzietan eta teknologia-zientzietan ehuneko handi bat hartzen dituen eskaintza bat.

- Irakaskuntza euskaraz eskainiko dela bermatzeko ahalegin handia egin duen unibertsitate-sistema bat; laurogeiko hamarkadan eskaintza hori hutsaren hurrengoa zen, eta gaur egun, aldiz, euskaraz egin daitezke Deustuko Unibertsitateak eskaintzen dituen kredituen %25 baino gehiago, Euskal Herriko Unibertsitatekoen %49 eta Mondragon Unibertsitatekoen %64.

- Erreferentziako jarduera zientifiko bat Euskal Zientzia eta Teknologia Sisteman. Euskal Autonomia Erkidegoan ezagutza sortzen duten erakunde nagusien analisiak erakusten du Euskal Herriko Unibertsitateak nazioarteko oihartzuna duen ekoizpen zientifikoaren %67,2 sortzen duela.

- Enpresekin elkartruke eta harreman gero eta garrantzitsuagoak.
- Maila handiko profesionalen mintegi bat; izan ere, 18 eta 25 urte arteko gazteen herena unibertsitatera joaten da egunero.

Laburbilduz, euskal unibertsitate-sistema askotariko eragileak barne hartzen dituen egitura aberatsa da, profil ezberdineko unibertsitateek osatua, bata publikoa eta beste biak pribatuak eta oso ezaugarri ezberdinekoak, bai unibertsitate publikoarekiko bai elkarrekiko. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegorako jarduera estrategikoa garatzen du, bolumenagatik eta haren zuzeneko eraginagatik ez ezik profesionalen prestakuntzan eta ezagutza zientifiko eta teknologien sorreran duen garrantziagatik eta gizartean duen presentziagatik. 2011-2014ko Unibertsitate Plan honek, aurrekoak bezala, ahalik eta etekin handiena atera nahi dio ekarpen horri, eskura dauden baliabideak aprobetxatuz eta behar diren erabakiak hartuz etorkizunean unibertsitateak eragin handiagoa izan dezan.

## 1.2 EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN PLANGINTZA

2007-2010eko Unibertsitate Plana izan da euskal unibertsitate-sistemaren baitan egin den lehen plan osoa, eragile guztiei begira zehaztu baitzuen estrategia eta finkatu baitzituen plana bultzatzeko mekanismoak, urte anitzeko ikuspegi batez.

Aurrez, Eusko Jaurlaritzak zenbait ekimen abiarazi zituen eta ekimenok denboraren joanean garatu ziren; aldi berean, euskal unibertsitate-sistema ere garatuz joan zen. Dena dela, sistema gisa ez zen 2004ra arte mamitu, 2004ko Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen onarpenaz.

### 1-2 irudia. Unibertsitate-planen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan

2000-2003ko Unibertsitate-plana

2000 2001 2002 2003

Plan honek UPV/EHU soilik barne hartzen zuen, eta aldi osotarako sei programa-kontratutan oinarritzen zen

2004-2006ko Programa-kontratuak

2004 2005 2006

3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena

2005ean, unibertsitate pribatuekin programa-kontratuak izenpetzeari ekin zitzaion; 2004ra arte UPV/EHUrekin soilik izenpetu ziren

2007-2010ko Unibertsitate-plana

2007 2008 2009 2010

Sistema osoa hartzen duen lehen Unibertsitate Plana da



Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak unibertsitateak sustatzeko taxutu zuen lehen plangintza estrategikoa ***2000-2003ko Unibertsitate Plana*** izan zen. Planak Euskal Herriko Unibertsitatea soilik barne hartzen zuen, eta sei programa-kontratutan[2] egituratu zen: “Irakaskuntza eta irakaskuntzaren berrikuntza”, “Euskalduntzea”, “Irakasleak”, “Ikerketa”, “Antolaketa eta kudeaketa” eta “Komunitatearen aldeko zerbitzuak”.

**2004. urtean lau programa-kontratu izenpetu ziren, urtebetekoak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin.** Programa-kontratuak lau arlotan taxutu ziren: “Irakaskuntza”, “Euskalduntzea”, “Kalitatea eta kudeaketa” eta “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa”.

2004ko urte horretan berean, **Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta euskal unibertsitate-sistema zertan datzan zehaztu zen**. 2007ra arte Unibertsitate Planik gorputzu ez bazen ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak planaren helburuak eta egin kizuna zehaztu zituen: Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate-sistema antolatzeko onartu zuen berariazko tresna zen, lau urteko indarraldiaz.

Lege horren arabera, Unibertsitate Planaren helburuak hauek dira:

2. Programa-kontratuen bidez, unibertsitateek zuzeneko laguntza jasotzen dute hainbat jarduera garatzeko. Funtsen zenbatekoa aldakorra da, aurrez adostutako helburu kuantitatiboen lortze-mailaren arabera. Beraz, emaitzen arabera aldakorra den finantzabide bat dira programa-kontratuak.

- Unibertsitate-irakaskuntzaren egoera ebaluatzea.
- Unibertsitate-irakaskuntzaren beharrizanak zehaztea.
- Indarrean egongo den aldi horretarako helburuak eta lehentasunak ezartzea.
- Finantzaketa-beharrizanak eta espero diren diru-sarrerak kalkulatzea.
- Euskal Herriko Unibertsitateari helburuak betetzea eta kalitatea hobetzea ahalbidetuko dion finantzaketa-eredu bat bermatzea.

**2005ean, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekin** –Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin– **programa-kontratuak izenpetzeari ekin zitzaion**. Urte horretan, sistemako unibertsitate bakoitzak bere programa-kontratuak zituen jada:

- Euskal Herriko Unibertsitateak hiru zituen: “Irakaskuntza eta euskalduntzea”, “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa” eta “Kalitatea eta kudeaketa”.
- Deustuko Unibertsitateak lau zituen: “Irakaskuntza”, “Euskalduntzea”, “Kalitatea eta kudeaketa” eta “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa”.
- Deustuko Unibertsitateak hiru zituen: “Irakaskuntza”, “Euskalduntzea” eta “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa”.

**2006an, ordukoan ere urtebeteko indarraldiaz**, sistemako unibertsitate bakoitzak bere programa-kontratuak zituen:

- Euskal Herriko Unibertsitateak hainbat jardueretarako laguntza jaso zuen, bi programa-kontraturen baitan: “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa” eta “Informatika”.
- Deustuko Unibertsitateak aurreko urteko programa-kontratuei eutsi zien: “Irakaskuntza”, “Euskalduntzea”, “Kalitatea eta kudeaketa” eta “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa”.
- Mondragon Unibertsitateak bi programa-kontratu zituen: “Ikerketa eta transferentzia teknologikoa” eta “Irakaskuntza”.

**2007. urtean, 2007-2010eko Unibertsitate Plana abian jarri zen**. Plana, aurrez esan bezala, euskal unibertsitate-sistemako lehenengo plan osoa da. Hurrengo ataletan, haren egitura, edukiak eta emaitzen ebaluazio partziala azalduko dira.

2000tik hona martxan jarri diren ekimenak aztertuz, bilakaera bat nabari da unibertsitateei emandako laguntzan. Izan ere, hasieran unibertsitate publikoa soilik hartzen zen aintzat, eta gaur egun ikuspegia zabalagoa da, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea

onartzearekin bat publikoak ez diren unibertsitateak ere barne hartu baitira. Bestalde, jarduera horiei esker hainbat urtetarako harreman-esparru bat finkatu da, programa-kontratuen bidez gauzatutako urtebeteko akordio zehatzak gaindituz.

Horrez gain, agindutako laguntzari erreparatuz egiazta daiteke erabiltzen diren baliabideak nabarmen hazi direla. 2007-2010 aldiko aurrekontuaren gehiena Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arrunterako eman bada ere, programa-kontratuak finantzatzeko kontusailak urtez urte hazten ari dira: 2007an 14 milioi euro ziren, eta 2007-2010eko Planaren azken urtean, 2010ean, 27 milioi euro.

Edonola ere, 2000-2010 aldian zehaztu diren baliabideak, aipatu planen eta programa-kontratuen bitartez emanak, ez dira euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek jasotako baliabide bakarrak. Aldi horretan izan da Eusko Jaurlaritzak sustatutako bestelako akordio eta deialdirik ere, sistemako unibertsitateentzat mesedegarriak izan direnak.

## 1.3 JAURLARITZAREN BESTE PLAN ETA ESTRATEGIA BATZUEKIKO HARREMANA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatutako 2011-2014ko Unibertsitate Planaren xedea da euskal unibertsitate-sistemaren garapena estrategikoki bideratzea eta eragileekin adostutako jarduera-esparru bat zehaztea, eragileok euskal gizartearen erronka eta beharrizanei erantzuteko gai izan daitezen.

Plangintza estrategikoak hezkuntza-ibilbidearen etapa jakin bat jorratzen du, goi-mailako prestakuntzarena hain zuzen. Etapa horretan eragileak unibertsitateak izaki, ezagutzaren sorrerarekin zerikusia duten arloak barne hartzen dira, baina baita aberastasunaren sorrerarekin zerikusia dutenak ere, ezagutzaren transferentzia eta teknologia medio.

**1-3 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren harremana Jaurlaritzaren beste politika batzuekin**

**2015EKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA.**
Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia eta teknologia bultzatzeko ildo nagusiak ezarri nahi ditu planak, eta arlo horiek ustiatzeko laguntza-tresna egokienak zehaztu, ongizatea eta aberastasuna sustatze aldera. Plana sailen artekoa da, eta Lehendakaritzak koordinatzen du.

**2010-2013KO ENPRESA LEHIAKORTASUNEKO PLANA.**
Euskal ekonomiarako lehiakortasun-eredu bat zehazten duen eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren ekintza-ildoak eta haien aurrekontu-eremua uztartzen dituen esparru-plan bat da.

**2012-2020KO OSASUN PLANA.**
Tresna honek osasunaren inguruko baldintzatzaile ugariak aztertzeko eta osasun-sistemaren eta arloan diharduten eragile guztien politiken norabidea markatzeko erronkari heldu dio. Munduan berrikuntzaren eragile nagusietakoa da osasuna, eta ikuspegi horri jarraiki garatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan. Osasun Plana Osasun eta Kontsumo Sailak taxutzen du.

Zientziak eta teknologiak gizarte aurreratuenen garapenean duten funtsezko eginkizunak elkarlotzen ditu 2011-2014ko Unibertsitate Plana eta 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana. 2011-2014ko Unibertsitate Planak, maila handiko profesionalak prestatzen laguntzeaz gain, ikertzeko gaitasuna eta transferentzia-mekanismo batzuk sortuko ditu, Enpresa Lehiakortasuneko Planak kontuan izan beharko lituzkeenak. Enpresa Lehiakortasuneko Planak, bestalde, helburu eta jomuga batzuk markatuko ditu, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren plangintza taxutzeko eta jarduerak gauzatzeko orduan aintzat hartu beharko liratekeenak.

Unibertsitate-sistemak ezagutza sortzeko eta transferitzeko prozesuari egindako ekarpenak bat egiten du 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin. Hala, Unibertsitate Planaren bidez esplizituki bultzatzen diren gaitasun zientifikoetako asko, hala nola ikertzaileak prestatu eta erakartzea, bikaintasun-taldeak bultzatzea, azpiegitura zientifiko eta teknologikoetan inbertitzea eta horiek mantentzea, unibertsitatea eta enpresa elkarlotzeko proiektuak garatzea eta enpresa-mintegi eta -parkeak sortzea, 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean ere jasotzen dira, horiek garatzeko berariazko tresnak eskainiz.

Areago, 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak ez du soilik euskal unibertsitate-sistemak teknologiaren transferentzian egindako jarduna aintzat hartu behar; horrez gain, ezagutzaren sorrerari ere erreparatu behar dio, funtsezko auzia baita hori, oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren edo zientziaren eta teknologiaren arteko hesiak gero eta lausoak diren testuinguru batean.

Alde horretatik, unibertsitate-sistema, oro har, eta unibertsitateak, zehazki, erreferentziako eragileak dira ezagutza eta teknologiaren transferentziari dagokionez, euskal berrikuntza-sistemako eragileak diren zentro teknologikoen, enpresa-ikasketetako I+G unitateen edota lankidetzako ikerketa-zentroen neurri berean; horrenbestez, antzeko trataera izan beharko lukete, unibertsitateek ekarpen bereizgarria egiteko ahalmena dutelako.

Era berean, Unibertsitate Plana bateragarria da Euskal Autonomia Erkidegoko 2011-2020ko Osasun Planarekin. Gaitasun zientifikoen eta teknologikoen artean dagoen harreman estuagatik, prestakuntzaren arloan, baina baita ikerketarenean ere, gaitasunok bultzatze aldera ezinbestekoa da bi agenda estrategiko horiek koordinatzea.

Hitz batez, hezkuntzaren, garapen zientifiko-teknologikoaren eta berrikuntzaren eta osasun-arloaren arteko harreman horietatik haratago, Unibertsitate Plana estrategia horizontal bat da, gaitasun zientifiko-teknologikoak sustatzeko eta pertsonen prestakuntza bultzatzeko ahalmena duena, beste arlo batzuetan –ingurumena eta lurraldea, gizarte-ongizatea eta abar– eta horien plan estrategikoetan eragin ahal izateko.



# 2 INGURUNEKO ELEMENTUEN ANALISIA ETA SISTEMAREN KOKAPENA





# 2 INGURUNEKO ELEMENTUEN ANALISIA ETA SISTEMAREN KOKAPENA

2011-2014KO UNIBERTSITATE PLANAK HAREN garapenean eragina izango duten inguruneko hainbat elementu hartzen ditu aintzat. Horietako batzuk lehen ere baziren faktoreak dira, eta beste batzuk oraindik orain agertu diren fenomenoak eta dinamikak. Guztiek, oro har, aldatu den testuinguru bat osatzen dute.

Euskal unibertsitate-sistema non kokatzen den jakiteko eta estrategia zein jarduerak zehazteko, funtsezkoa da **inguruneko elementuok** identifikatu eta hainbat esparrutan –nazioartea, Europa, estatua eta erkidegoa– **aztertzea**. Horregatik, beharrezkoa da arlo hauen berri izatea:

- Jarraitu beharreko ildoak eta helburu kuantitatiboak ezartzen dituzten **estrategiak, planak eta araudiak**.
- Euskal unibertsitate-sistemak **ingurune ekonomiko, sozial eta instituzionalean** izan behar duen kokapena.

### 2-1 irudia. Euskal unibertsitate-sistemaren inguruneko elementuak

| | Euskal Autonomi Erkdiegoa | Espainia | Europa | Nazioartea |
|---|---|---|---|---|
| Estrategia, Planak edota Araudiak | ▶ Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea<br>▶ 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana<br>▶ 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana | ▶ 2001eko LOU eta 2007ko LOMLOU<br>▶ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Legea<br>▶ 2015eko Unibertsitate Estrategia, Nazioarteko Bikaintasun Campusa<br>▶ Unibertsitateak finantzatzeko Politikei buruzko hausnarketa<br>▶ 2008-2011ko I+G Plan Nazionala<br>▶ Berrikuntzaren Estatu Estrategia | ▶ Europa 2020<br>▶ Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua<br>▶ Parte-hartzea Ikerketaren Europako Esparruan eta Zazpigarren Esparru Programan | |
| Kokapena ingurune ekonomiko, sozial eta instituzionalean | ▶ Zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sisteman txertatzea<br>▶ Euskara bultzatzea<br>▶ Bilakaera demografikoa eta populazio-fluxuak<br>▶ Etengabeko prestakuntza<br>▶ Egoera ekonomikoa | ▶ Lankidetza Espainiako unibertsitate-sistemarekin eta nazioarteko beste erakunde batzuekin | | ▶ Kokapena unibertsitate-rankingean<br>▶ Komunikazioa eta elkartrukea beste sistema batzuekin: Asia-Pazifikoa, Latino-Amerika, Ipar Amerika e.a. |

*Iturria: Egileek landua*

Era berean, testuinguruko elementu horiek identifikatzeaz gain, beharrezkoa da jakitea euskal unibertsitate-sistema zein egoeratan dagoen, **beste herrialde eta eskualde batzuetako unibertsitate-sistemen aldean**.

Horretarako, ikerketa konparatibo bat egin da, beste herrialde batzuekin alderatuta Euskal Autonomia Erkidegoak goi-hezkuntzan egiten duen inbertsioa zehazteko eta Europako unibertsitate-sistemek erabilitako tresnen eta dituzten lehentasun estrategikoen berri izateko. Ikerketa horretan jaso dira, besteak beste:

- Ahalegin-adierazle eta -ratioen analisia:
  - >> Herrialdeek goi-hezkuntzan egiten duten gastu-adierazleak alderatuz.
  - >> Gurearen antz gehien duten estatuko unibertsitate-sistemen ahalegin- eta funtzionamendu-adierazleak eta -ratioak alderatuz.

- Lehentasun estrategikoak identifikatzeko analisi estrategikoa.

**2-2 irudia. Euskal unibertsitate-sistemaren kokapena zehazteko analisiaren egitura**

| Ahalegin-adierazle eta -ratioen analisia | | Analisi estrategikoa |
|---|---|---|
| Ahalegin-adierazleen alderaketa nazioarteko unibertsitate-sistemekin | Ahalegin- eta funtzionamendu-adierazleen alderaketa estatuko unibertsitate-sistemekin | |
| ▶ Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan<br>▶ Goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako gastuaren banaketa jardueraka<br>▶ Finantzaketa publikoaren ehunekoa goi-mailako hezkuntzan egindako gastuan<br>▶ Goi-mailako hezkuntzan egindako gastu publikoaren banaketa | ▶ Oinarrizko magnitudeak (unibertsitateak, ikasleak, aurrekontua eta abar)<br>▶ Funtzionamendu-ratioak<br>▶ Prestakuntza-eskaintza<br>▶ Finantzaketa-iturriak | ▶ Sistemen egituraketa eta lehentasun estrategikoak<br>▶ Plangintza<br>▶ Kontrola eta jarraipena<br>▶ Finantzabideak<br>▶ Lehentasun estrategikoak |

Datozen ataletan, inguruneari eta kokapenari buruzko analisiak aurkeztuko dira. Inguruneari buruzkoa, planaren garapenean duten eraginagatik aintzat hartu beharreko elementuak identifikatzeko, eta kokapenari buruzkoa, berriz, euskal unibertsitate-sistemak beste herrialde eta eskualde batzuetako unibertsitate-sistemen artean duen lekua ezagutzeko.

Bi analisiok batera irakurrita, euskal unibertsitate-sistemaren erronka estrategikoak identifikatzeko modua izango dugu.

## 2.1 PLAN ETA ARAUDIEN ERAGINA

Nazioartean, Europar Batasunean, estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat plan eta araudi daude, gutxi-asko euskal unibertsitate-sistemaren funtzionamenduan eragina dutenak, eta etorkizunean ere izango dutenak.

Jarraian, plan eta araudion ildo nagusiak eta horietako batzuek ezarri dituzten helburu kuantitatiboak aurkeztuko dira; izan ere, kontuan hartu beharreko plan eta araudiak dira, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren garapenean eragina izan dezaketelako.

## 2.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko estrategiak, planak eta araudiak

Euskal Autonomia Erkidegoko estrategia- eta araudi-erreferentzia nagusiak, euskal unibertsitate-sisteman izan dezaketen eraginagatik aintzat hartu beharrekoak, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean, Lehiakortasun Planean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasota daude.

Euskal unibertsitate-sistemaren erreferentzia nagusia **3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena**, da. Lege hori da 2011-2014ko Unibertsitate Plana gauzatzeko arauzko oinarria, bere irismena, funtsezko edukiak eta helburu orokorra xedatzen dituelako, eta haren printzipio nagusiak gizartearen zerbitzura egotea, unibertsitatearen autonomia eta funtzionamendu demokratikoa dira.

Legeak helburu giltzarri gisa finkatu du euskal unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan txertatzea. Era berean, “Euskal Herrian kokaturiko gainerako unibertsitateekin” lehentasunezko harremanak ezartzea sustatzen du, irakaskuntza, ikerketa eta ekimen kulturalak koordinatuz eta aipatutako unibertsitate-erakundeetako ikasle zein irakasleen arteko mugikortasunaren bidez; horren haritik, berariaz nabarmentzen du, euskararen erabilera bultzatze aldera, “etorkizuneko proiektua edo euskararen kultura partekatzen duten beste lurralde batzuetan kokaturiko beste unibertsitate-erakunde batzuekin” lankidetza sustatzearen garrantzia.

2011-2014ko Unibertsitate Planaren jarduera asko beste estrategia batzuetan ere jasota daude, hala nola **2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Planean eta 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean**. Horrenbestez, 2011-2014ko Unibertsitate Planak euskal unibertsitate-sisteman garatu nahi dituen gaitasunei esker, proaktiboki jokatzeko aukera izango du unibertsitateak plan horietan, aditu zientifiko gisa ez ezik planen gauzapenean inplikazio osoa izango duen eragile gisa. Hain zuzen ere, lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzeko plan horien bultzadaz, maila handiko prestakuntzan eta ezagutzaren nahiz aberastasunaren sorreran dituen erronkak zehaztu beharko ditu euskal unibertsitate-sistemak.

Horretarako, planetan jasotako ekimenen bidez laguntza egokia izango du azpiegiturak martxan jartzeko eta ezagutzaren transferentziarako proiektuak bideratzeko.

Hala, ezagutzaren transferentzian eta aberastasunaren sorreran unibertsitate-sistemaren inplikazio sakonagoa lortzeaz gain, Unibertsitate Planak egindako ahaleginari etekina aterako zaio, haren eraginkortasuna areagotuz.

## 2.1.2 Estatuko estrategiak, planak eta araudiak

Datozen urteotan euskal unibertsitate-sisteman eragina izango duten hainbat estrategia, plan eta araudi daude estatuan, batzuk unibertsitateen egitura eta funtzionamenduari zuzenean lotuak eta beste batzuk unibertsitatean eragin garbia izango dutenak, unibertsitate-esparruaz gaindikoak izan arren.

Unibertsitateen egitura eta funtzionamenduari zuzenean loturik daude, besteak beste, Unibertsitate Legea[3] eta 2015eko Unibertsitate Estrategia.

**Unibertsitate Legeak** Espainiako unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sar dadin prestatzeko arau-esparrua ezartzen du. Legeak, Bolognako konpromisoekin bat etorriz eta ezagutzaren gizarteak dituen beharrizanei erantzunez, Sistemaren kalitatearen eta eraginkortasunaren hobekuntza ebaluatzeko eta jarraipena egiteko irizpideak eta moduak ezartzen ditu. Horretarako, kalitatea ebaluatzeko bideak xedatzen ditu, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak eta haren erkidegoetako homologoen[4] bidez; azken horien aurrean ere erantzun behar du euskal unibertsitate-sistemak.

Legeak bezala, **2015eko Unibertsitate Estrategiak** ere unibertsitateen bikaintasuna eta gizartearekiko konpromisoa sustatzea du xede, Espainiako unibertsitate onenak Europako onenen artean kokatzeko, Espainiako unibertsitate-sistemak aurrera eginez jarrai dezan eta nazioartean finka dadin.

Unibertsitatearen misioei begira, 2015eko Unibertsitate Estrategiak irakaskuntza malguagoa, ikaslearen bizialdiko etapa ezberdinetan ardaztuagoa, proposatzen du, ikerketan gehiago sakontzea eta egiturak indartzea, beti ere ezagutzaren transferentzia errazte aldera.

Euskal unibertsitate-sistemari dagokionez, eta Europarako ezarritako illdoekin bat etorriz, 2015eko Unibertsitate Estrategiak berariaz nabarmentzen du unibertsitatearen hirugarren misioak duen garrantzia, alegia ezagutzaren eta teknologiaren transferentziak. Hala, prestakuntzan kalitatea eta ikerketan bikaintasuna eskaintzeaz gain, unibertsitateek ezagutza eta teknologia transmititzeko duten gaitasuna ere haiek ebaluatzeko oinarrizko irizpide bat izango da. Garai batean esaten zen unibertsitateek, prestatzeaz gain, ikertu egin behar zutela; orain, haien misioaren beste atal bat bihurtu da transferentzia.

Bestalde, 2015eko Unibertsitate Estrategiak, aintzat hartu beharreko elementu gisa eta Europako ildoei jarraiki, unibertsitatearen baitako kolektibo guztiek haren funtzio-

3. 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena, eta 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateena, aldatzekoa.
4. Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentzia, Unibasq, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez.

namenduan parte hartzea sustatzen du. Zehazki, ikasleak unibertsitatearen funtzionamenduan engaiatzeko eta irakasle zein administrazioko langileen funtzioak eta ardurak garbi zehazteko erronka dute unibertsitateek.

Hori guztia lortze aldera, 2015eko Unibertsitate Estrategiak unibertsitateen gaitasunak sendotzeko ahaleginean aurrera egiten lagundu nahi du, hala kudeaketan, kontrol-sistemetan, finantzaketan eta ebaluazioan nola nazioartera hedatzeko eta funtsezko esparruak identifikatzeko estrategiak garatzeko gaitasunetan.

**2-3 irudia. 2015eko Unibertsitate Estrategiaren inplikazioak**

**Misioak**

- Irakaskuntza-jardun malguagoa eta irakaskuntza-prozesuari emana
- Unibertsitatearen eta beste eragile batzuen arteko harremana sendotzea
- Unibertsitateko ikerketa-jarduera eta gizartea gehiago gerturatzea
- Transferentzia-azpiegiturak sendotzea
- Enpresa-sarearekin truke- eta bizkidetza-eremuak eratzea
- Etngabeko prestakuntzaren garrantzia

**Pertsonak**

- Ikasleen partaidetza sustatzea Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuaren eta Kontseiluaren bidez
- IILen (irakasleak) funtzioak eta arduraldia zehazteko erreferentzia-esparru bat eratzea
- AZLen (administrazioa) ibilbide profesionala zehaztea, mugikortasuna sustatuz

**Gaitasunak**

- Unibertsitateen kontrol-, finantzaketa- eta ebaluazio-sistemak hobetzea eta sistema horiek arintzeko baliabideak jartzea
- Finantzaketan diru-sarrera publikoak eta pribatuak aintzat hartzea
- Nazioartekotze-estrategiak taxutzea
- Kudeaketa eta jarraipena hobetzeko mekanismoak sartzea
- Hiru eremu estrategiko identifikatzea: GHEE, ERA eta Ezagutzaren Iberoamerikako esparrua

*Iturria: Egileek landua, 2015eko Unibertsitate Estrategia oinarri harturik*

Nazioarteko Bikaintasun Campusa Espainiako unibertsitate-esparrua modernizatzeko 2015eko Unibertsitate Estrategian jasota dago. Unibertsitateen eta campusetan kokatutako beste erakunde batzuen artean itun estrategikoak sustatzea du xede, enplegua, gizarte-kohesioa eta lurraldeko garapen ekonomikoa bultzatuko dituzten “ezagutzaren ekosistemak” sortzeko. Kontzeptu berri bat da, unibertsitateak eta horien eta ikerketa-zentroen, zientzia-parkeen, zentro teknologikoen, ingurune produktiboaren eta beste eragile batzuen arteko eragin-trukea ardatz dituena, tokiko edo eskualdeko garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko hezkuntza-, ikerketa- eta berrikuntza-ekosistemak garatze aldera.

Ekimenaren garrantziaz oharturik, eta beren proiektuak zehazteko orduan egin duten ahalegin handiaren emaitza gisa, deialdi honetan euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen partaidetza oso nabarmena izan da.

Hala, 2009ko deialdian Deustuko Unibertsitatearen *Deusto Campus Mundus 2015*[5] egitasmoak etorkizun handiko proiektuaren aipamena lortu zuen. Urtebete geroago, 2010eko deialdian, Euskal Herriko Unibertsitateak, *Euskampus*[6] proiektuaz, eta Mondragon Unibertsitateak, Transferentziaren Unibertsitatea izenekoaz, antzeko aintzatespena lortu zuten. Azkenik, 2010eko urte berean, Euskal Herriko Unibertsitateak Nazioarteko Bikaintasun Campusaren aipamena eskuratu du.

Euskal Herriko Unibertsitatearen proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusaren aipamena lortu izana garrantzitsua da unibertsitatearen prestigioari, gizarte-proiekzioari eta erdietsi behar diren gaitasunei begira. Bestalde, eta aintzatespen hori lortu ez arren, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko proiektuen kalitatea ukaezina da; horrek erreferente estrategiko bihurtzen ditu, aipatu unibertsitateentzat ez ezik, baita Jaurlaritzako departamentu-politikak eta horien laguntza-tresnak taxutzeko orduan ere.

Unibertsitateen finantzaketa-politikari buruz gogoeta egiteko sortua, eta 2015eko Unibertsitate Estrategiaren ardatzetako bati jarraiki, *Unibertsitateen Finantzaketarako Batzorde Mistoak Unibertsitateak finantzatzeko politikei buruzko hausnarketa* landu du. Agiri horretan ekintza-plan baterako proposamen bat zehazten da, etorkizunean Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoek eta unibertsitateek akordioa egiten dutenerako. Ekintza-plan horri esker, finantzaketa-esparru berri bat, iraunkorra, behar bestekoa, bidezkoa eta eraginkorra, eratu ahal izango da, epe ertainera unibertsitateetan aldaketa eta modernizazioa sustatzen lagunduko duena. Ondorio nagusietako bat da informazio-sistema egoki eta sendoa behar dela, eraginkortasun- eta efizientzia-adierazleen taula sintetiko eta era berean osoa barne hartuko duena. Horrekin batera, izandako gastuei eta kontabilitate analitikoari buruzko informazio-sistemak jarri beharko lirateke, aipatu eraginkortasuna eta efizientzia hobeto kontrolatu ahal izateko.

Bestalde, dokumentu horrek beka eta laguntzen eredu berri bat proposatzen du, prezio publikoen politika berri batez gain. Azken helburua errendimendu akademikoa hobetzea eta ikasleak erantzunkide egitea da. Berebat, unibertsitateen I+G+b jarduerak eragindako gastu orokorrak finantzatzeko funts osagarri bat eratzeko aukera aintzat hartzea gomendatzen du, beti ere emaitzen eta adierazleen arabera.

Unibertsitateekin zuzenean lotutako estatuko plan eta estrategia horiek, araudi- eta estrategia-erreferente nagusitzat Unibertsitate Legea eta 2015eko Unibertsitate Estrategikoa dituztenak, ez dira ordea bakarrak. Izan ere, estatuan badira unibertsitate-esparruaz harago doazen beste estrategia batzuk ere, hala nola Z*ientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legea, 2008-2011ko I+G+b Plan Nazionala eta Berrikuntzaren Estatu Estrategia*.

5. Deustuko Unibertsitateak proiektu partekatu bat aurkeztu du, Universidad Pontificia Comillas eta Universitat Ramón Llull unibertsitateekin ezarri duen itun estrategikoaren emaitza dena.
6. Euskal Herriko Unibertsitateak Donostia International Physics Center Fundazioa eta Tecnalia Korporazio Teknologikoa barne hartu ditu bere proiektuan.

**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legearen** xede nagusia, gaur egungo legedira eta Lisboako Gailurrean xedatu eta 2020rako Europar Estrategian eguneratutako helburuetara egokitzeaz batera, koordinazioa eta lankidetza sustatzeko eta ikerkuntza bultzatzeko mekanismoak eta tresnak ezartzea da. Euskal unibertsitate-sistemak arreta handia jarri behar die unibertsitateen eta Zientzia-Teknologia-Enpresa sisteman dauden bestelako erakundeen artean epe luzeko akordioak lotzeko eta ikertzaileen mugikortasuna bultzatzeko zabaltzen ari diren aukera berriei.

**2008-2011ko I+G+b Plan Nazionala** Estatuko Administrazio Orokorrak I+G+b programatzeko duen tresna nagusia da. I+G+b Plan Nazionalak 2011rako lortu beharreko helburu kuantitatiboak ezartzen ditu, eta horien lorpenean ardura zuzena dute unibertsitateek. Zehazki, helburu kuantitatibo horien artean daude Espainiako unibertsitatesisteman urtero 10.470 doktore berri lortzea, mundu osoko produkzio zientifikoaren %4,6ra iristea eta produkzio zientifikoaren %45 nazioarteko lankidetzaren bidez taxutzea. Adierazle horiek Euskadira ekarrita, eta bakoitzari dagokion pisua emanez, 2011-2014ko Unibertsitate Planean aintzat hartu beharreko jomugak zehazten dira.

Era berean, 2008-2011ko I+G+b Plan Nazionala Unibertsitate Plana indarrean jarriko den lehenengo urtean burutuko bada ere, 2012tik aurrera abian jarriko den I+G+b Plan Nazional berriak helburu eta jomuga berriak izango ditu, eta euskal unibertsitate-sistemak gai izan behar du ikertzaileen mugikortasuna errazteko eta talentua erakartzeko premiazkoak diren finantza-baliabideak lortzeko. Horretarako, ezagutzaren transferentzia sustatzeko berariazko mekanismoak sortu behar dira; esaterako, parke zientifiko-teknologikoak.

Bestalde, euskal unibertsitate-sistemaren berariazko jomuga izan behar da egungo planean barne hartutako deialdi garrantzitsuenetan (Consolider, Proiektu Bereziak edo CENIT) edo horien ordez etorkizunean ezarriko direnetan, parte hartzea.

Azkenik, Espainiako berrikuntza-politikan erreferentzia-esparrua den **Berrikuntzaren Estatu Estrategiak** (E2I) Unibertsitatea aipatzen du politika horren partaide eta eragile garrantzitsu gisa. Euskal unibertsitate-sistemak ekarpen erabakigarria egin behar du zenbait arlotan, hala nola pertsona berritzaileen prestakuntzan, Esparru Programatik ahalik eta itzulkin gehien lortzeko ahaleginean eta nazioartekotze-prozesuetan.

### 2.1.3 Europako estrategiak, planak eta araudiak

**2020rako Europar Estrategiak**, Lisboako Estrategiaren oinordekoa, merkatuko gizarteekonomiaren ikuspegi jakin bat zehazten du XX. mendeko Europari begira. Hazkunde zentzuzko, iraunkor eta integratzaile baten bidez, enplegu, produktibitate eta gizartekohesio handiko ekonomia baterantz egitea proposatzen du.

Helburu horiek 2020rako jomuga kuantitatibo zehatzetan mamitzen dira, hala nola Europar Batasunaren BPGaren %3ko inbertsioa I+G arloan, %10etik azpiko eskola-uztea eta 30 eta 34 urte arteko herritarren %40k gutxienez goi-mailako hezkuntza amaitzea. Bolognako Adierazpenak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua eraikitzeko zimenduak paratzen ditu, kalitatea, mugikortasuna, aniztasuna eta lehiakortasuna gisako printzipioak oinarri harturik, besteak beste bi helburu estrategiko lortze aldera: Europar Batasunean enplegua gehitzea eta goi-mailako hezkuntzaren Europako sistema munduko beste leku batzuetako ikasle eta irakasleen erakargune bihurtzea.

Alde horretatik, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren erronka nagusiak dira ikasle, irakasle eta administrazio-langileen mugikortasuna erraztea eta horretarako oztopoak kentzea, Tituluaren Europar Gehigarri bat ezarrita titulu-sistema ulerterraz eta alderagarri bat eratzea eta unibertsitateetan ikerketa sendotzea.

Ikerketari buruzko politika bateratu bat sortzeko asmoz, estatu kideetan nahiz erkidego osoan ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak ahalik eta hobekien koordinatzeko Europar Batasunak dituen baliabide guztiak biltzen ditu **Ikerketaren Europako Esparruak**[7].

Esparru Programa tresna nagusitzat hartuz, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak hiru kontzeptu uztartzen ditu: ikerketaren barne-merkatu bat sortzea, Europako ikerketa-sarea berregituratzea eta ikerketari buruzko europar politika bat sustatzea. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan parte hartzeak aukera ematen du, Europako erakunde zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenekin egoteaz eta beste herrialde eta eskualde batzuetako eragile bikainekin elkarlanean aritzeaz gain, norberaren gaitasuna, kanpo-eragileekiko harremana eta nazioartekotzearen aldeko apustua agerian uzteko eta finantzabide oparoak eskura izateko.

Aukera horri etekin osoa atera ahal izateko, euskal unibertsitate-sistemak aktiboki parte hartu behar du Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, Euskadiko berrikuntza-sistema lidergoan jartzeraino. Hori guztia lortzeko, administrazio-departamentuak eta transferentzia-bulegoak nabarmen hobetu beharko dira.

## 2.2 INGURUNE EKONOMIKO, SOZIAL ETA INSTITUZIONALAREN DINAMIKEI BURUZKO GOGOETA

Planek eta estrategiek zehaztutako ildoez eta jomuga kuantitatiboez harago, euskal unibertsitate-sistemak ingurune jakin bat du oinarrian, eta hor funtzionatu eta harremanak ezarri behar ditu.

7. European Research Area (ERA).

Ingurune ekonomiko, sozial eta politikoak hainbat erronka paratzen ditu, eta sistemak horiei aurre egin behar die. Garrantzitsua da zehaztea zein eginkizun izan duen sistemak gertueneko ingurune zientifiko eta teknologikoan eta nazioarteko beste agente eta erakunde batzuekin, euskal gizartearen ezaugarriak eta berezitasunak aintzat hartuz eta kontuan izanik gaur egungo egoera ekonomikoa eta 2007-2010eko Unibertsitate Plana abian jarri zenekoa oso ezberdinak direla.

Jarraian, gai horien inguruko hausnarketa bat egingo da eta 2011-2014ko Unibertsitate Planak kontuan izan beharreko alderdiak azalduko dira.

## 2.2.1 Euskadiko ingurune ekonomiko, sozial eta instituzionala

Euskal unibertsitate-sistemak jarrera hartu behar du haren jarduera baldintzatzen duten hainbat arlotan, besteak beste honakoetan: euskal Zientzia-Teknologia-Enpresa sisteman duen presentzia, bere jardunbidea euskararen sustapenean, bere ekarpena bizitzan zeharreko prestakuntzari[8], ziklo demografikora eta populazio-fluxuetara egokitu beharra eta egoera ekonomikoari eman beharreko erantzuna; izan ere, duela lau urteko egoera, aurreko 2007-2010eko Unibertsitate Plana ezarri zenean, errotik aldatu da.

**Euskal Zientzia-Teknologia-Enpresa sisteman[9]** txertatzeari dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar da Unibertsitatea, beste eskualde eta herrialde batzuetan ez bezala, ez dagoela sistema horren erdigunean. Beste eragile batzuk ere badira, besteak beste zentro teknologikoen eta lankidetzako ikerketa-zentroen sare indartsu bat, eta horrek eragin nabarmena du eskura dauden baliabideen banaketan eta unibertsitateek hainbat arlotan duten partaidetzan. Haatik, aipatu eragileek ez dituzte euskal unibertsitate-sistemaren aukerak urritzen, zentroen espezializazioa oso berezia delako eta unibertsitateen jardunarekiko osagarria delako.  Edonola ere, horren ondorioz unibertsitateetan, erlatiboki, inbertsio txikiagoak egin dira eta enpresa-sarera ezagutza eta teknologia transmititzeko prozesuan unibertsitateek pisu txikiagoa izan dute.

Horrenbestez, euskal unibertsitate-sistemak eta administrazioak berak gogoeta egin behar dute zehazteko zein den unibertsitateek bete behar duten eginkizuna eta zein diren lider izateko jarduera-ildo egokiak, ezagutza sortzeko ez ezik ezagutza hori enpresa-sarera helarazteko. Hori lortzeko beharrezkoa izango da, zalantzarik gabe, unibertsitateek Zientzia-Teknologia-Enpresa sistemako beste eragile batzuen konfiantza bereganatzea, arlo horretan engaiamendu garbi eta profesionala erakutsiz.

8. Prestakuntza jarraitua edo etengabeko prestakuntza da ikuspegi pertsonal, zibiko zein sozial batez edo enpleguari begira ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hobetze aldera bizitzan zehar egiten den irakaskuntza-jarduera oro. Ingelesezko long life learning litzateke.
9. Zientzia-Teknologia-Enpresa sistema terminoak, hemen, berrikuntza-sistema terminoaren esanahi bera du.

Azken urteetan, **euskara sustatu eta bultzatzeko** politika sendoa garatu da, eta horri esker hizkuntza horrek aurrera egin du gizarteko hainbat esparrutan. Zehazki, unibertsitateek egitura berriak sortu eta gaitasun berriak sustatu dituzte, eta ondorioz irakasle, ikertzaile eta administrazio-langileen hizkuntzaren ezagutza hedatu egin da.

Etorkizunari begira, eta hezkuntza-sistemako beste fase batzuetan izan den bilakaerari erreparatuz eskaerak gora egin dezakeela ikusirik, bultzada horri eutsi behar zaio, euskararen ezarpena unibertsitate-sistemaren erronka gisa mantenduz. Hori guztia, jakina, euskal unibertsitate-sistemaren ikur izan behar duten irakaskuntzaren kalitatea, ikerkuntzaren bikaintasuna eta teknologia eta ezagutzaren transferentzia sustatzeko konpromisoei uko egin gabe, jarduerak hizkuntza batean zein bestean egin.

**Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera demografikoari eta populazio-fluxuei** dagokienez, joera demografikoek adierazten dute biztanleria zahartzen ari dela; zehazki, espero da 20 eta 24 urte arteko biztanleria-zerrendak behera egingo duela 2011-2014 aldian, eta horrek graduak egiteko eskariaren murrizketa nabarmena ekar lezake Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bestalde, biztanleriaren mugimenduei lotutako beste fenomeno batzuk agertu dira, galera hori berdin lezaketenak, hala nola azken urteotan euskal biztanleriaren hazkundea azaltzeko faktore nagusia den immigrazioa, Bolognako prozesuak eragindako unibertsitate-ikasleen mugikortasun gero eta handiagoa eta bizitzan zeharreko prestakuntza-programetan parte hartzen duen biztanleriaren hazkundea.

Testuinguru horretan, eta ñabardurak ñabardura, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera herrialde eta eskualde garatu gehienen antzekoa da, eta horrek, beste behin, ikasle gehiago eta hobeak erakartzeko lehia gero eta gogorragoa sortzen du unibertsitate-sistemen artean.

Hori guztia dela-eta, euskal unibertsitate-sistemak, goi-mailako prestakuntzaren eskari berriei erantzunez, gogoeta egin behar luke lehiakorra eta berritzaile izate aldera jarraitu beharreko ildoen inguruan; lehiakorra, Euskal Autonomia Erkidegoko zein beste eskualde eta herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko gai den titulu-eskaintza bat prestatzeko, gradu eta graduondoko ikasketetan gero eta mugikortasun handiagoa dagoen testuinguru batean, eta berritzailea, eskaintza hori prestakuntza-premia berrietara eta irakasteko nahiz ikasteko modu berrietara egokitzeko.

Azken horri loturik, **prestakuntza etengabe edo iraunkorra, bizitzan zeharreko prestakuntza deitua**, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko hainbat plan eta estrategiek ez ezik berrikuntzaren eta lehiakortasunaren arlokoek ere nabarmendu duten erronka nagusietako bat da. Hezkuntza eta Ikaskuntzaren Europar Esparruak (ET 2020) prestakuntza-mota horren helburu gisa aipatzen ditu 2010ean 25 eta 64 urte arteko herritarren %12,5ek bizitzan zeharreko prestakuntza-jarduerak egitea, eta 2015ean tankera horretako jardueretan herritarren %15ek parte hartzea.

Azkenik, datozen lau urteetan **egoera ekonomikoa** kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsu bat da. Alderdi hori edozein plan edo estrategia zehaztu eta gauzatzeko orduan aintzat hartu beharrekoa da, noski, baina, zalantzarik gabe, krisia eta hazkunde ekonomikoaren geldotzea azken urteetako bereizgarri nabarmenak izan dira; horregatik oso gogoan izan behar dira, eta baliabideak modu eraginkorrean eta gardentasunez kudeatzearen garrantziaz jabetu behar gara.

Proiekzio ekonomikoek aditzera ematen zuten Europako herrialdeak, oro har, 2010eko bigarren seihilekoan aterako zirela krisialditik. Alabaina, aurreikuspenok ez dira erabat bete, eta beraz administrazio publikoen aurrekontu-kalkuluak zuhurtzia handiz egin behar dira.

Horrenbestez, abian jarri eta hasierako urteetan 2011-2014ko Unibertsitate Plana aurrekontu estu samarraz bideratu beharko bada ere, beti ere azken urteetan egindako aurrerapenei uko egin gabe, ahaleginak egin behar dira plana indarrean egongo den aldi osoan baliabide gehiago eskura izateko, batik bat azken bi urteetan. Errealitateaz kontziente izanik, euskal unibertsitate-sistemak lehiakorra izan beharko du finantzabideak erakartzeko orduan, eta sekula baino garrantzitsuagoa izango da baliabideak –bereziki publikoak– efizientzia eta gardentasun osoz kudeatzea.

## 2.2.2 Lankidetza Espainiako unibertsitate-sistemarekin eta haren baitako unibertsitateekin eta estatuko zein nazioarteko beste erakunde batzuekin

Asmo handiko proiektuak bultzatuko dituzten gaitasunak eta baliabide zientifiko-teknologikoak lortu nahi badira, funtsezkoa da euskal unibertsitate-sistema ezagutza-sare globalean txertatzea eta beste agente batzuekin elkarlanean aritzea.

Erronka horri aurre egiteko, euskal unibertsitate-sistemak eta haren unibertsitateek Euskadiko berrikuntza-sisteman sartu behar dute eta protagonismo handiagoa lortu, bai Espainiako estatuan, beste unibertsitate eta enpresa batzuekin lankidetza-sareak eratuz, bai Europar Erkidegoan, ezagutza-sare handietan txertatuz, Ikerketaren Europako Esparruan parte hartzen dutela baliatuta.

Ildo horretan, Akitania-Euskadi-Nafarroa unibertsitate arteko sarea bultzatu behar da. 1994an sortua, guztira 10 unibertsitate, 161.150 ikasle eta 19 campus barne hartzen dituen ekimen horretan euskal unibertsitate-sistemak parte hartzen du. Sarearen lan-ardatzak hauek dira: mugaz haraindiko eremu bat sortzea, unibertsitateak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan txerta daitezen sustatzea eta unibertsitateen nazioartekotze-politika bultzatzea, beti ere Pirinioetako Lan Elkartearen partaidetzaz.

Hori lortzearren, lehen urratsa lankidetza-esparruak eta parte hartuko duten eragileak identifikatzean datza, eta ondoren lankidetza-prozesuaren epe labur, ertain eta luzeko estrategia bat zehaztu behar da. Horretarako, unibertsitateetako administrazio-departamentuak eta transferentzia-bulegoak nabarmen hobetu beharko dira hizkuntza-gaitasunari, zerbitzuen profesionalizazioari eta abarri dagokienez.

### 2.2.3 Kokapena unibertsitateen rankingean

Unibertsitateen rankingean leku hobean egoteak adierazten du irizpide objektibo eta neurgarri batzuetan oinarriturik lan egiten dela[10]. Itzal handiko ranking gisa aipatzen direnenetako batzuk hauek dira:

- THES, The Times World University Ranking.
- ARWU, Shanghai Jiao Tong University Ranking.
- CSICen web-sailkapena.

Rankingak ranking, unibertsitate lider batzuk badira, beti lehen postuetan ageri ohi direnak. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateei dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitatea Espainiako lehen hamar unibertsitateen artean sailkatu ohi da, eta Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea atzerago agertzen dira.

Rankingetan aurrera egitea, dakarren aintzatespenaz harago, lagungarria da euskal unibertsitate-sistemaren helburuetako batzuk betetzeko, hala nola nazioartekotzea, erakunde liderrekin lankidetzan aritzea edota aurreko ataletan giltzarri jo den ikasle eta ikertzaileak erakartzea.

Horregatik, egokia litzateke euskal unibertsitate-sistemak eta haren unibertsitateek zein rankingetan duten interes gehien zehaztea, abiapuntua eta denboraren joanarekin egindako aurrerabidea finkatze aldera.

10. Ranking horiek hainbat irizpideren arabera era daitezke: irizpide objektibo bibliometrikoak eta irizpide objektibo ez-bibliometrikoak.

# 2.3 SISTEMAK EGITURATZEKO ETA HORIEN LEHENTASUN ESTRATEGIKOAK EZARTZEKO ILDOAK ZEHAZTEA

Atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen diren plangintzako, jarraipen eta kontroleko eta finantzaketako tresnak zortzi unibertsitate-sistematan –lau eskualdekoak eta beste lau estatu osokoak– erabiltzen direnekin alderatuko dira.

- Eskualdekoak: Belgika-komunitate flandestarra, Belgika-komunitate frankofonoa, Katalunia eta Madrilgo Erkidegoa.

- Estatukoak: Alemania, Finlandia, Herbehereak eta Suedia.

Era berean, unibertsitate-sistemen oinarrian dauden apustu estrategikoak azalduko dira.

## 2.3.1 Plangintza

**Euskal Autonomia Erkidegoak du erkidego-mailan dagoen unibertsitate-sistemaren plan integral bakarra**, baina ez dauka informazioa kudeatzeko eta sistemaren egoera ebaluatu eta jendartera hedatzeko bestelako plangintza-tresnarik.

Zenbait autonomia-erkidegok plangintza partzialak badituzte; batik bat unibertsitate publikoen finantzaketa-esparruari buruzkoak dira edota egiaztapen edo ebaluazioaren inguruko legeak ematen dituzte. Alabaina, autonomia-erkidego edo eskualde horietako ezeinek ez du Euskal Autonomia Erkidegoak duenaren moduko unibertsitate-sistemaren legerik edo sistema hori estrategikoki planifikatuko duen plan orokorrik.

Finantzaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa da unibertsitate pribatuei zuzeneko laguntza eskaintzen dien erkidego bakarra[11].

Estatu osoari begira, Espainiak estrategia zehatz bat badu, 2015eko Unibertsitate Estrategia izenekoa. Horrekin batera, Espainiako unibertsitate-sistemaren esparru arau-emaile eta estrategikoa eratzen duten beste testuak honakoak dira: 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena, 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateena, aldatzekoa, eta autonomia-erkidegoetako planeamenduak.

11. Hala egiaztatzen du dokumentu honek: Documento sobre la mejora de las Políticas de Financiación de las Universidades para promover la excelencia académica e incrementar el impacto socioeconómico del Sistema Universitario Español (SUE).

### 2-4 irudia. Unibertsitate-sistemen plangintzan erabilitako tresna nagusiak

Erakundeen arteko plangintza-mekanismoak, sistemari dagokionez

| | AL | BE fr | BE nl | SE | NL | FI | ES | Madril | Katalunia | Euskal A. Erk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Plangintza Estrategikoa (Plana) | ■ | | | ■ | ■ | ■ | ■ | | | ■ |
| Urteko txostena | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | |
| Datu-base nazionalak | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | | |
| Autoebaluazioa | | | ■ | | ■ | ■ | | | | |
| Jarraipen-batzordeak | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |

L: Alemania, BE fr: Belgika-Komunitate frankofonoa, BE nl: Belgika- Komunitate flandestarra, SE: Suedia, NL: Herbehereak, FI: Finlandia, ES: Espainia.

*Iturria: Egileek landua, gure informazioa eta estatuko, Europar Batasuneko eta ELGAko hainbat txosten oinarri harturik*

Ikuspegi zabalago batez, eta gure hurbilera begira, Europa osoan onartzen da beharrezkoa dela goi-mailako hezkuntzarako epe luzeagoko estrategia bat taxutu eta ezartzea. Zenbait herrialdetan, gobernuek agiri politiko mardulak dituzte goi-mailako hezkuntzarako beren politika estrategikoa zehatz-mehatz azaltzeko.

Beste herrialde batzuetan, goi-mailako hezkuntzari buruzko estatuko estrategiek helburu zabalagoak ezartzen dituzte, garapen zientifiko eta teknologikoari lotuak.

Sarritan, hasiera batean agiri estrategikoetan jasotako eraberritze-politikak legegintza-agirietan txertatzen dira gerora, Alemanian eta Suedian kasu. Hala, politika horiek pixkanaka goi-mailako hezkuntzaren esparruan aplikatuz doaz.

Oro har, Europako unibertsitate-sistemen plangintzan ildo hauek nabari dira:

- Goi-mailako hezkuntzaren plangintza estrategikoa hezkuntzaren esparru osoaren baitan txertaturik egon ohi da. Hezkuntzarako estrategia bat egoten da, eta goi-mailako hezkuntza horren atal bat da (Suedia, Finlandia, Herbehereak…).
- Goi-mailako hezkuntzan zentraturik, atal jakin bat (finantzaketa, kalitatea, mugikortasuna eta abar) azpimarratzen duten estrategia partzialak zehazten dira. Horren adibide dira nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatze aldera Finlandian eta Suedian taxutu dituzten estrategiak.

- Sistemei buruzko urteko txosten gehienek sistemaren deskribapen soila egiten dute, baina batzuk gizartearekin komunikatzeko eta emaitzak hedatzeko ere baliatzen dira[12] .

- Unibertsitate-sistema batzuek datu-base bat dute sistemaren beraren bilakaera ezagutzeko; datuok eragile guztiek ezagutzen eta partekatzen dituzte. Horixe geratzen da, esaterako, Belgikako komunitate frankofonoan eta flandestarrean, eta baita Finlandian eta Suedian ere.

- Herbehereetako, Finlandiako eta Belgikako komunitate flandestarreko unibertsitate-sistemek autoebaluazio-tresnak dituzte, eta horrela eragileek beren jardunaren ebaluazio bat egin dezakete eta emaitzak argitara eman.

- Jarraipen-batzordeak, tresna estrategiko moduan, unibertsitate-sistema guztietan daude.

- Informazioa hedatzeko beste bide batzuk dira unibertsitateko erakundeen eta Ministerioaren, finantzaketa-erakundeen edo lan-merkatuaren ordezkarien arteko bilerak; Internet bidez egindako argitalpenak; unibertsitateko liburutegietan eskura dagoen dokumentazioa; hiru hilez behingo finantza-txostenak; ikasketa-planei buruzko txostenak, eta, azkenik, kanpo-ebaluazioari buruzko txostenak.

## 2.3.2 Kontrola eta jarraipena

Azken urteotan, goi-hezkuntzaren finantzaketa publikoak gora egitearekin batera, kontrol eta jarraipeneko mekanismoen erabilera ere areagotu egin da, kontabilitate-analisiez harago joanez.

Erakundeek funts publikoak arduraz erabiltzeko ezarri dituzten neurriei esker, botere publikoek edota bestelako agenteek ahalmena dute goi-mailako hezkuntzako erakundeen politika finantzario eta estrategikoak bideratzeko eta erakundeen autonomia arautzeko mekanismo gisa jarduteko.

---

12. Autonomoak diren arren, Goi-mailako Hezkuntza Erakundeek (GHE) zerbitzu publikoak eskaintzen dituzte, eta funts publikoak jasotzen. Hori dela-eta, gizarteak, eta batez ere erakundeak finantzatzen dituztenek, horien baitan zer gertatzen den jakiteko interes handia dute, eta informazioa trukatzeko hainbat metodo dauden arren, herrialde guztietan nahitaezkoa dute aldian-aldian beren jardueraren berri ematea.
Herrialde gehienetan urteko txosten bat eskatzen da, erakundearen zuzendaritza exekutiboak prestatu eta Ministerioan aurkeztu ohi duena.
Urteko txosten askok erakundearen aurrekontuari buruzko informazioa jasotzen badute ere, funtsean irakaskuntza-jardueren eta bestelakoen inguruan kontuak emateko tresna gisa erabiltzen dira (finantza-erantzukizunari buruz informazio gehiago emateko). Urteko txostenek irakaskuntza-jarduerei eta bestelakoei buruzko informazioa jaso ohi dute, eta baita ikasleei eta horientzako zerbitzuei, langileei eta nazioarteko harremanei buruzkoa ere.
Zenbait herrialdetan, erakundeak lortutako emaitzen ebaluazioa, plan estrategikoaren bilakaerari buruzko azken berriak, baliabideen zerrenda eta finantza-egoerari buruzko informazioa barne hartzen ditu.

### 2-5 irudia. Kontrol eta jarraipeneko tresna nagusiak Europan

Kontrol eta jarraipeneko tresnak

| | AL | BE fr | BE nl | SE | NL | FI | ES | Madril | Katalunia | Euskal A. Erk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nahitaezko kanpoko kontu-ikuskapenak | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | | |
| Nahitaezko barneko kontu-ikuskapenak | | | | ■ | ■ | ■ | | | | |
| Jardunari buruzko adierazleak | | | ■* | ■** | ■*** | ■*** | | ■*** | ■*** | ■*** |
| Plan estrategikoak edo helburuak betetzea | | | | | | ■ | | | | |

* Bere programa-kontraturako ** Output irizpideetan oinarritutako formula *** Bere programa-kontratuetarako

AL: Alemania, BE fr: Belgika-Komunitate frankofonoa, BE nl: Belgika- Komunitate flandestarra, SE: Suedia, NL: Herbehereak, FI: Finlandia, ES: Espainia.

*Iturria: Egileek landua, gure informazioa eta estatuko, Europar Batasuneko eta ELGAko hainbat txosten oinarri harturik*

Horrenbestez, sistema batzuetan, programa-kontratuei lotutako helburuak betetzeaz gain, baliabideen kudeaketa egokia egiaztatzeko urratsak egin dira, goi-mailako hezkuntzan eskumena duten erakundeek egindako berariazko ikuskapenen bidez eta kontabilitateaz harago baliabideak efizientziaz erabili direla ziurtatzea xede duten kontrol eta jarraipeneko tresnen bidez.

Europan goi-mailako hezkuntza-erakundeen kontrola eta jarraipena egiteko erabiltzen diren tresnen artean, ohikoenak kontu-ikuskapenak, jardunari buruzko adierazleen ebaluazioa eta erakundeen helburuen eta plan estrategikoen betetze-mailaren egiaztapena dira:

- **Kanpoko kontu-ikuskapenak**. Ia herrialde guztiek ezarri dute, estatu-mailan edo hezkuntzako goi-agintaritzara mugaturik, goi-mailako hezkuntzan funts publikoen erabilera kontrolatzeko finantza-ikuskaritzako sistema bat. Horixe gertatzen da Belgikako komunitate frankofonoan eta flandestarrean, Finlandian, Herbehereetan eta Suedian.

  Prozedura horiek erakundeen finantza-jardueren gardentasuna bermatzen dute. Unibertsitateek estatuko edo eskualdeko organo baten aurrean jasotako funts publikoen erabileraren kontu eman beharrik ez duten herrialde bakarra Italia da; soilik ikerketa-proiektu zehatzetarako emandako diru-laguntzen kontu eman behar dute.

- **Barneko kontu-ikuskapenak**. Beste herrialde batzuetan, erakundeek berek barneko kontu-ikuskapenak ere antolatu behar dituzte. Urteko kontu-ikuskapenari buruzko txostenaren egitura goi-mailako hezkuntza-erakunde guztiek erabiltzen duten metodologia batean oinarritzen da. Goi-mailako hezkuntza-erakundeetara egokitutako berariazko ikuskapenak dira.

- **Jardunari buruzko adierazleak**. Herrialde gehienek modua egin dute goi-mailako hezkuntza-erakundeek funts publikoen erabileraren erantzule izan daitezen, diru-kopuruaren zati bat gutxienez errendimenduari lotuz. Beraz, errendimendu-adierazleak aintzat hartuko dira diru-laguntza publiko orokorrak kalkulatzeko erabiltzen diren finantzaketa-formuletan, eta baita ikerketaren emaitzei buruzko adierazleak ere, ikerketetarako emandako diru-laguntzen kasuan. Finantzaketa publikoa eta emaitzak lotzen dituzten herrialde guztiek era ezberdinean baloratzen dute kopuruak zehazteko adierazleen garrantzia.

- **Plan estrategikoak edo helburuak betetzea**. Erakundeen plan estrategikoak, herrialde gehien-gehienetan nahitaez bete beharrekoak, erakundeon errendimendua neurtzeko beste tresna bat dira. Herrialde batzuetan, erakundeek jasoko dituzten funts publikoen zenbatekoan eragina izan dezakete. Esaterako, Finlandian plan edo helburu estrategikoak finantzaketa publikorako errendimendu-kontratu edo programa-kontratuetan barne harturik daude, eta plan estrategikoan jasotako helburu kuantitatiboei buruzko emaitzak kontuan hartzen dira funts publikoak esleitzeko orduan.

Azaldutako erantzukizun-neurriek funts publikoen erabilerarekin zuzeneko lotura dute, baina erantzukizunak erakundeen jardueretan gardentasunez jokatzea ere esan nahi du. Gardentasun hori egiaztatzen da, bereziki, finantzaketa-erakundeari aurkeztutako txostenen bidez eta barne-ebaluazioen emaitzak zein ikerketari, irakaskuntzari eta finantza-egoerari buruzko informazioa argitara emanez. Neurriok ezartzeko, eragile-talde zabal bat behar da, eta ez soilik agintari publikoak.

## 2.3.3 Finantzabideak

Unibertsitate-sistemek gero eta diru-babes handiagoa erakarri dute mundu osoan. Ezagutzaren gizartean goi-mailako hezkuntza-erakundeek duten garrantziaz jabeturik, estatu gehienek funts publiko gehiago jarri dute arlo horretan.

Babesa hainbat modutara bidera daiteke: zuzeneko ordainketaz edo diru-laguntzaz, lehiaketa-deialdien bidez edo familiek goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egiten duten gastuagatik laguntzak emanez. Zerga-tresnak kudeatzeko moduak ere badira, baliabide pribatuak erakartzea ahalbidetzen dutenak.

Finantzabideen lehen multzoan, alegia unibertsitateei zuzenean ordaindu edo diruz laguntzekoan, gehienetan diru-laguntza orokorrak baliatzen dira irakaskuntza eta fun-

tzionamenduko gastu arruntak ordaintzeko, langileen soldatak barne. Alemanian, Suedian edo Finlandian, diru-laguntza orokorrak ikerketarekin lotutako gastu jakin batzuk finantzatzeko erabil daitezke. Diru-laguntzok ez dira finantzaketa publikoko iturri bakarra. Herrialde guztietan, goi-mailako hezkuntza-erakundeek asmo zehatzetarako funts publikoak ere jasotzen dituzte, hala nola programa nazionaletarako inbertsio-planak, xede sozialetarako funtsak eta berariaz ikerketara emandakoak.

### 2-6 irudia. Goi-mailako hezkuntza-erakundeen finantzabideak

Finantzabideak

| | AL | BE fr | BE nl | SE | NL | FI | ES | Madril | Katalunia | Euskal A. Erk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurrekontuaren negoziazioa | | | | | | | | ■ | | ■ |
| Kostu gehigarriak | | | | | | | | | ■ | |
| Formula bidezko kontabilizazioa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | ■ | | ■[13] |
| Jardunaren araberako programa-kontratuak | | | ■ | | | ■ | | ■ | ■ | ■ |
| Berariazko ikertketa-proiektuen finantzaketa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |

AL: Alemania, BE fr: Belgika-Komunitate frankofonoa, BE nl: Belgika- Komunitate flandestarra, SE: Suedia, NL: Herbehereak, FI: Finlandia, ES: Espainia.

*Iturria: Egileek landua, gure informazioa eta estatuko, Europar Batasuneko eta ELGAko hainbat txosten oinarri harturik*

Laguntza-tresna horien kudeaketari dagokionez, irakaskuntza-jardueretan edota ohiko funtzionamendu jardueretan, eta zenbaitetan ikerketaren esparruan, **Europako ia herrialde guztiek finantzaketa-formulak erabiltzen dituzte goi-mailako hezkuntza-erakundeei eman beharreko diru-laguntza publikoen zenbatekoa kalkulatzeko**.

Adierazi den moduan, Europan oso hedaturik dago finantzaketa-formulak erabiltzea goi-mailako hezkuntza-erakundeei esleitu beharreko funts publikoen zenbatekoa kalkulatzeko. Hala ere, formula horien garrantzia, bestelako esleipen-mekanismo batzuen aldean, aldatu egiten da herrialde batetik bestera. Adibidez, Belgikako komunitate frankofonoko unibertsitate-sisteman finantzaketa-formulak dira goi-mailako hezkuntza-erakundeei eman beharreko funts publiko nagusien zenbatekoa kalkulatzeko metodo bakarra, eta horiek funtzionamendu-irizpideak edo inputak (ikasle-kopurua, irakasle-kopurua eta abar) edota output edo errendimendu-irizpideak (gainditutako kreditu-kopurua eta abar) barne har ditzakete[14].Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko orduan errendimendu-adierazleek edo "emaitzek" duten garrantzi erlatiboa ere alda daiteke

13. Errealitatean, EAEn ez da formula bidezko kontabilizazioa erabili; aurrekontuak negoziatu egin dira.
14. Gaur egun, Belgikako komunitate flandestarrean errendimendu-irizpideak ikerketan soilik aplikatzen dira.

herrialde batetik bestera. Suedian, diru-laguntza orokorraren %45 dedikazio osoko ikasleen urteko emaitzek baldintzaturik dago. Herbehereetan, errendimenduaren araberakoa da jasotako diru-laguntza orokorraren “hezkuntzazko” alorraren %50. Finlandian (2007tik), finantzaketaren herena inguru errendimenduaren mende dago.

Goi-mailako hezkuntza-erakundeei eman beharreko diru-laguntzak kalkulatze aldera, gobernu batzuek finantzaketa-formuletan sartu dituzte erakundeok estatu-mailan ezarri diren helburu sozial edo akademikoak lortzeko –edo lortzen laguntzeko– ahaleginak sustatzen dituzten irizpideak. Belgikako komunitate flandestarrean, goi-mailako hezkuntzan presentzia txikien duten talde etniko eta sozioekonomikoen arrakasta bultzatzen du finantzabideak.

Zenbait herrialdek, finantzaketa-formulez gain, formula horietan erabilitako parametroen mende ez dauden bestelako metodoak sartu dituzte funts publikoak kalkulatzeko. Metodoa izan daiteke urte batetik bestera kopuru bera mantentzea (Belgikako komunitate flandestarra eta Herbehereak), kostu historikoak aintzat hartzea (Danimarka eta Norvegia) edo erakunde jakin batzuen zailtasun ekonomikoei erreparatzea (Frantzia). Mekanismo horiek erabil daitezke baliabideen egonkortasuna eta ikerketaren autonomia bezalako helburuak lortzen laguntzeko (Danimarka eta Norvegia).

Finantzaketa-formulaz gain, herrialde batzuetan errendimendu-kontratu edo programa-kontratuen esparruan esleitzen dituzte funts publikoak. Kontratuak negoziazio-prozesu baten ondoren gauzatzen dira, eta formuletan jasotakoak baino helburu kualitatibo eta orokorragoetan oinarritzen dira. Zenbaitetan, kontratu horiek finantzaketa-formularen bidez esleitutako zenbateko osoa nabarmen aldatzen dute, Austrian kasu.

**Programa-kontratuak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta emandako finantzaketaren gero eta ehuneko handiagoa hartzen dute**. Esaterako, output edo emaitzen adierazleak barne hartzen dituzten formula bidezko finantzabideak ordezkatzen hasiak dira[15].

Aurrekontu bat esleitzeaz gain, goi-mailako hezkuntza-erakunde jakin baten helburu estrategikoen atzean dagoen printzipioan oinarritzen dira. Bestalde, unibertsitateek ezarritako helburuak lortu diren neurtzeko tresna bat ere izan daitezke. Beraz, agintari publikoentzat errendimendu-kontratuak unibertsitateen politika estrategikoak bideratu ahal izateko baliabide indartsua dira.

Edozein kasutan, programa- edo errendimendu-kontratuen kudeaketak oreka gorde behar du, unibertsitateen finantzaketa egonkorra izango dela bermatu nahi bada.

---

15. Zenbait adituren iritziz, irizpideetan errendimendu-adierazleekiko formulak (esaterako, gainditutako kreditu-kopurua) sartzen direnean, baliabideen eraginkortasuna areagotzen da. Alabaina, kalitatearen ikuspegitik kaltegarriak suerta litezke.

Laguntza nori eta zein neurritan ematen den azterturik, Belgika da unibertsitate publikoei eta pribatuei trataera bera ematen dien Europako herrialde bakarra (munduan beste kasu batzuk badira, esaterako Txile, Japonia, Zeelanda Berria eta Korea).

**Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-esparrua mistoa da, lau urteko aldi baterako tresna ezberdinak erabiltzen ditu eta unibertsitate pribatuei ere laguntzen die, trataera ezberdina ematen dien arren**. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan formularen irizpidea erabiltzen da finantzaketarako, baina negoziazio-prozesu batean oinarritzen da. Prozesu horretan, irizpide nagusiak kostu historikoak eta aurrekontu-baliabideak dira, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin hitzartutako programa-kontratuez gain.

### Ikerketaren finantzaketa publikoa

Europako goi-mailako hezkuntza-erakundeek errendimendua era ezberdinetara ulertzen duten finantzaketa-metodo ezberdinen bidez jasotzen dute ikerketa eta garapenerako (I+G) diru publikoa. Horri esker, erakunde horietan egiten den **oinarrizko ikerketak edo ikerketa aplikatuak eragindako gastuak finantzatzen dira**; finantzaketa jasotzen dute, halaber, aipatu erakundeek zuzenean kontrolatzen edo kudeatzen dituzten, edo horiei loturik dauden, ikerketa-institutuek eta unitate esperimentalek.

Arlo publikotik, goi-mailako hezkuntzan ikerketa finantzatzeko bi bide nagusi daude:

- **Ikerketarako oinarrizko finantzaketa**, hau da, ikerketarako diru-laguntzak eman eta erakundeak nahieran erabil ditzala. Diru-laguntzak berariaz ikerketarako ematen dira edo beste gastu batzuetarako –irakaskuntza edota funtzionamenduari lotutako jardueretarako– subentzio orokor batean sarturik daude.

- Funtsak lehiaketa bidez ematea ikerketa-proiektu edo -programa jakin batzuetarako, hau da, **lehiaketa-deialdia**.

Ia herrialde guztietan, ikerketarako funts publikoak subentzio-sistema dual bati jarraiki ematen dira: alde batetik, ikerketarako oinarrizko finantzaketa, non erakundeak berak erabakitzen baitu dirua nola erabili, eta, bestetik, funts publikoak lehiaketa-deialdien bidez ematea, ikerketa-proiektu zehatzetarako.

Oro har, ikerketa-proiektu zehatzetarako finantzaketa-iturria ikerketan eta garapenean espezializatutako erakunde nazional bat izan ohi da (funts zientifiko nazionala, akademia nazional bat edo ikerketa-batzorde bat kasu), eta ikerketarako oinarrizko finantzaketa, berriz, irakaskuntzari eta funtzionamenduari lotutako jardueretarako diru-laguntzak ematen dituen erakunde berberak esleitzen du.

Herrialde batzuetan, esaterako Finlandian, ikerketarako emandako funts publiko gehienak proiektu zehatzetarako dira.

**Ikerketarako oinarrizko finantzaketak lehentasunak finkatzeko aukera ematen die erakundeei**, eta beren azpiegiturak eta jarduera arruntak finantzatzekoa. Alabaina, funtsak esleitzeko tresna hori egoteak ez du adierazten arlo horretan jarritako laguntzaren zenbatekoa, eta ez du esan nahi ikerketara emandako funts publikoak nahikoa direnik. Europar Batasuneko herrialdeen erdietan-edo[16], goi-mailako hezkuntza-erakundeek berariaz ikerketan jarritako oinarrizko finantzaketa hori jasotzen dute. Gainerako herrialdeetan, ikerketarako funtsak beste gastu batzuetarako subentzio orokor batean sarturik daude. Adibidez, Belgikako komunitate flandestarrak baliabideak esleitzeko bi metodoak erabiltzen ditu.

## 2.3.4 Lehentasun estrategikoak

Europa osoan onartzen da beharrezkoa dela goi-mailako hezkuntzarako epe luzeagoko estrategia bat taxutu eta ezartzea.

Herrialde gehienek agiri politiko zehatzak dituzte goi-mailako hezkuntza-arloaren finantza-iraunkortasuna bermatzeko lehentasun estrategiko nazionalak deskribatzeko (Herbehereak, Alemania, Suedia). Konponbide politiko zehatzak herrialde batetik bestera ezberdinak badira ere, bistakoa da epe ertainera helburu komun batzuk badirela, hala nola honakoak:

- Goi-mailako hezkuntzarako emandako gastu publikoa handitzea.
- Finantza-baliabideen kudeaketan erakundeei autonomia handiagoa ematea.
- Emaitzen eta esleitutako funts publikoen zenbatekoaren artean zuzeneko lotura ezartzea.
- Finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa bultzatzea eta eskualdeko ikerketa-institutu, enpresa eta agintariekin lankidetza-harremanak sor daitezen sustatzea.

Bestalde, itxura batean **politika estrategiko orokor gutxiago dago arlo akademikoan diharduten langileei buruz, finantzaketari buruz baino**. Langileen kasuan, sarritan aldaketa jakin batzuk egiten dira (Suedia, Finlandia eta abar), eta finantzaketa emaitzekin lotzeko joera ere nabari da.

Langile akademikoen inguruko lehentasunetako batzuk hauek dira: gizonen eta emakumeen nahiz adin ezberdineko pertsonen parte-hartze orekatua, giza eta finantza-baliabideak kudeatzeko autonomia handiagoa izatea eta errendimendu-irizpideak sartzea.

16. Iturria: Eurydice.

Unibertsitate-sistemen **nazioartekotzea eta eragileen mugikortasuna bultzatzeko politikak** gero eta ohikoagoak dira (Alemania, Belgika-komunitate frankofonoa, Belgika-komunitate flandestarra, Finlandia, Suedia, Herbehereak eta abar). Arlo horretan, jardueren jomugak hauek dira:

- Profesionalen eta ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzea.
- Atzerriko ikasleentzat eskaintza erakargarri bat prestatzea.
- Harrera-zerbitzu egokituen eskaintza bat prestatzea.
- Talentua atzematea.
- Nazioarteko sareetan sartzea.

Era berean, gero eta ohikoagoak dira sistemen kalitatearen egiaztapenari eta ebaluazioari buruzko politikak, eta baita etengabeko prestakuntza bultzatzen dutenak ere. Gehienetan, politika horiek ez dira estrategia bateratu baten baitakoak, berezko garapena dute.

**2-7 irudia. Unibertsitate-sistemen lehentasun estrategikoak**



# 2.4 EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN ADIERAZLE ETA RATIOEN ALDERAKETA BESTE UNIBERTSITATE-SISTEMA BATZUETAKOEKIN

Euskal unibertsitate-sistemaren aurrerabidea iraupen luzeko lasterketa da, eta bide horretan erreferentzia nagusiak aurreko garaietatik izan duen bilakaera eta gaur egungo egoera dira, erronka bertsuak dituzten beste unibertsitate-sistema batzuekin alderatuta.

Jarraian, euskal unibertsitate-sistemaren azterketa konparatibo bat aurkeztuko da, eta horretarako gure sistema nazioarteko eta estatuko beste unibertsitate-sistema batzuekin alderatuko dugu, ahalegin- eta funtzionamendu-ratioei erreparatuta.

Nazioarteko unibertsitate-sistemekiko konparaketa ahalegin-adierazle eta -ratioetan oinarritzen da. Hurbilketa makroekonomikoa izango da, goi-mailako hezkuntzaren eta arlo hori sustatzeko jartzen diren baliabideen garrantzia agerian uzte aldera. Bestalde, estatuko unibertsitate-sistemekiko konparaketa zehatzagoa da eta funtzionamendu-adierazleak ere barne hartzen ditu, parekagarriak diren sistemen eta erakundeen jarduera eta antzekoak diren inguruneak alderatzeko asmoz.

Azterketa konparatibo honen inguruko interpretazioak alde batera utzita, azterketa bera egiteko zailtasunek nabarmentzen dute euskal unibertsitate-sistema bultzatzeko ahaleginean estrategikoak izan beharko luketen adierazle jakin batzuk falta direla, eta informazio eguneratu eta sendoa eskaintzeko gai den informazio-sistema publiko bat garatu beharra dagoela. Sistema horrek, euskal unibertsitate-sistemara mugatu gabe, Espainiako unibertsitate-sistema osoari buruzko informazioa eskaini beharko luke.

## 2.4.1 Goi-mailako hezkuntzan egindako gastuaren adierazleen alderaketa nazioarteko unibertsitate-sistemekin

Euskal Autonomia Erkidegoak bere BPGaren %1,96 jartzen du I+G arloan, EB-19ren batez besteko gastua baino gehiago. Alabaina, **erkidegoaren gastua goi-mailako hezkuntzako erakundeetan, BPGaren %0,97 2008an, EB-19koa eta Espainiako batez bestekoa baino apalagoa da**; izan ere, azken horien gastua, hurrenez hurren, BPGaren %1,3 eta 1,1 da.

Kontuan izanik 2015eko Unibertsitate Estrategiak helburu gisa ezarri duela goi-mailako hezkuntzan egindako gastuan BGParen %1,5era iristea, Euskal Autonomia Erkidegoak bere egungo ahalegina herenetik gora igo beharko du ratio hori lortzeko.

**2-8 irudia. Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan eta I+G arloan BPGarekiko, 2008an (%)**




*Iturria: Egileek landua, agiri honetan oinarrituta:* "Documento sobre la mejora de las Políticas de Financiación de las Universidades para promover la excelencia académica e incrementar el impacto socioeconómico del Sistema Universitario Español (SUE)"

Ahalegin hori per capita errentaren arabera azterturik, **Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako hezkuntzan egindako gastua, ikasleko, %35ekoa da**, Espainiako eta EB-19koa baino apalagoa, azken bi horietan %38koa baita.

Adierazle horretan, rankingeko lehen postuetan Suitza, AEB eta Suedia daude, %58, %57 eta %49ko gastuaz, hurrenez hurren. Herrialde horietan, bai per capita errenta bai hezkuntzan egindako gastua oso altuak dira. Aldiz, Irlandak eta Norvegiak per capita errenta EB-19ko eta ELGAkoa baino altuagoa dute, baina sailkapen horretan azken lekuetan daude, %31 eta %28ko gastuaz, hurrenez hurren.

Herrialdeen jokabidea ikusirik, garbi dago **per capita errenta altua ez dela, berez, adierazle horretan ratio apala azal dezakeen aldagaia**. Herrialde ba tzuek per capita errenta altua eta goi-mailako hezkuntzako gastu altua dituzte, eta beste batzuek, per capita errenta altua izanik ere, maila apala ageri dute goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako gastuan.

**2-9 irudia. Ikasleko per capita gastua BPGarekiko (%)**




*Iturria: Egileek landua,* "Education at a glance 2009" *(ELGA) agirian oinarrituta*

Goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako gastuaren iturburuari dagokionez, **herrialde gehienetan finantzaketa publikoa da nagusi**. Alde horretatik, zenbait kategoria bereiz daitezke:

- Sustapen publikoan oinarritutako herrialdeak, non finantzaketa publikoa guztizkoaren %80 edo gehiago baita: Norvegia (%97), Danimarka eta Finlandia (%96), Belgika eta Islandia (%91), Suedia (%89), Alemania, Austria eta Irlanda (%85), Frantzia (%84), Txekiar Errepublika eta Eslovakia (%82) eta EB-19 (%81).

- Partaidetza pribatua duen eredu publiko batean oinarritutako herrialdeak, non finantzaketa publikoa EBkoaren batez bestekotik (%81) azpikoa baita: Espainia eta Hungaria (%78), Euskal Autonomia Erkidegoa (%76), Herbehereak, Italia eta ELGA (%73), Polonia (%70), Mexiko eta Portugal (%68), Erresuma Batua (%65) eta Zeelanda Berria (%63).

- Babes pribatu sendo batean oinarritutako herrialdeak, non gastu publikoa %50 ingurukoa edo apalagoa baita: Kanada (%53) Australia (%48), AEB (%34), Japonia (%32) eta Korea (%23).

**Euskal Autonomia Erkidegoa (%76)** EB-19ko mailara (%81) iritsi gabe **partaidetza pribatua izaki eredu publiko bat nagusi den herrialdeen multzoan** kokatzen da.

**2-10 irudia. Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan BPGarekiko iturburuaren arabera: publikoa eta pribatua**




*Iturria: Egileek landua,* "Education at a glance 2009" *(ELGA) agirian oinarrituta*

Interesgarria da, bestalde, gastu publikoaren banaketa aztertzea; alde batetik, erakunde publiko eta pribatuetara emandako zuzeneko gastuak, eta bestetik, zeharkako transferentzia publikoak sektore pribatura. Zuzeneko gastuen jomuga unibertsitate publiko eta pribatuen finantzaketa publikoa da, eta zeharkakoen bidez familiei laguntza publikoa ematen zaie (bekak ikasteko, garraiorako, mantenurako eta abar).

Herrialde gehienetan, ez ordea Erresuma Batuan eta Belgikan[17], unibertsitate publikoei emandako zuzeneko gastu publikoa nagusitzen da. Era berean, herrialde-multzo bat bada erakunde pribatuetarako zuzeneko gastu publikorik jartzen ez duena: Australia, Austria, Danimarka, Irlanda, Mexiko, Herbehereak eta Eslovakia.

17. Belgikan, unibertsitate publikoetan eta pribatuetan egiten den zuzeneko gastua antzekoa da; hain zuzen ere, unibertsitate publikoek eta pribatuek tratu bera jasotzen duten Europako herrialde bakarra da.

Espainian bezalatsu, Euskal Autonomia Erkidegoan pisurik handiena unibertsitate publikoetan egindako gastu publikoak du, zehazki guztizkoaren %91,7; horri dagokionez, Mexiko eta Txekiar Errepublika soilik daude gainetik (%93 eta %94, hurrenez hurren). Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan familiei zuzendutako gastu publikoaren proportzioa oso apala da, %5,5ekoa, aztertutako herrialdeekin alderatuta; horri dagokionez, Txekiar Errepublika bakarrik dago atzetik (%5). Gastuaren banaketa osatuz, unibertsitate pribatuei egindako zuzeneko ordainketak guztizkoaren %2,8 dira. Espainian, gastu publikoaren banaketari begira, unibertsitate publikoetarako zuzeneko gastuak gailentzen dira (%90), eta horren atzetik doaz zeharkako transferentzia publikoak familiei (%8) eta zuzeneko gastua unibertsitate pribatuetan (%2).

**2-11 irudia. Gastu publikoaren banaketa (%) goi-mailako hezkuntza-erakundeetan: erakunde publikoak, erakunde pribatuak eta familiak. 2008. urtea**




*Iturria: Egileek landua, "*Education at a glance 2009*" (ELGA) agirian oinarrituta*

Familiei zuzendutako gastu publikoaren datuak datu, adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoaren beken zenbatekoak Hezkuntza Ministerioarenak baino handiagoak direla, erabiltzen diren errenta-atalaseak zabalagoak direla eta beste erkidego batzuetan ez dauden beste zenbait bide daudela familiei laguntzeko, hala nola atzerrian ikasketa espezializatuak egiteko bekak eta eguneroko garraiorakoak.

Azkenik, dirua non jartzen den ikusteko, herrialdeetan gastua irakaskuntza eta ikerketaren[18] artean nola banatzen den ageri da hurrengo taulan: "Gastuaren banaketa (%) goi-mailako hezkuntzan irakaskuntzaren eta ikerketaren artean. 2008. urtea". Agerikoa denez, BPGari erreparatuz goi-mailako hezkuntza-erakundeetan aldeak nabarmenak diren moduan, gastua irakaskuntzaren eta ikerketaren artean banatzeko era ere askotarikoa da:

- Herrialde batzuek garrantzi handia ematen diote ikerketa-jardunari, eta goi-mailako hezkuntzako guztizko gastuaren %40tik gora hartzen du arlo horrek: Austria eta Suedia (%48), Norvegia (%43) eta Danimarka (%41).

- Herrialde-multzo batean, ikerketaren pisua ertaina da, EB-27koaren batez bestekoaren (%32) eta %40ren artekoa: Belgika (%32), Finlandia eta Italia (%38) eta Erresuma Batua (%35).

- Beste herrialde-multzo batean, ikerketa-jarduerak leku murritzagoa du goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako guztizko gastuan, EB-27koaren batez bestekoa baino txikiagoa: AEB (%13), Portugal (%25), Irlanda eta Euskal Autonomia Erkidegoa (%29), Espainia eta Herbehereak (%30) eta Frantzia (%31).

Goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako guztizko gastuan, Euskal Autonomia Erkidegoak Italia bakarrik gainditzen du, eta ahalegin hori irakaskuntzaren eta ikerketaren artean banakatuz gero, ondorio hauek atera ditzakegu:

- **Euskal Autonomia Erkidegoan, goi-mailako hezkuntza-erakundeetan irakaskuntzan egindako gastua BPGaren %0,69 inguru da**, Alemania eta Norvegiaren parean eta Espainia eta EB-19ren azpitik; azken horietan, gastua %0,77 eta %0,89 da, hurrenez hurren.

- **Euskal Autonomia Erkidegoan, goi-mailako hezkuntza-erakundeetan ikerketan egindako gastua (%0,28) aztertutako herrialde guztien artetik baxuena da**, eta, erlatiboki, EB-19ko batez bestekotik askoz urrunago dago, irakaskuntza-jarduerarekin alderatuta.

18. Goi-mailako hezkuntza-erakundeek ikerketan egiten duten gastua HERDen I+G jarduerari buruzko inkestatik atera da.

**2-12 irudia. Gastuaren banaketa (%) goi-mailako hezkuntzan irakaskuntzaren eta ikerketaren artean. 2008. urtea**




*Iturria: Egileek landua,* “Education at a glance 2009*” (ELGA) agirian oinarrituta*

## 2.4.2 Ahalegin- eta funtzionamendu-adierazleen alderaketa estatuko beste unibertsitate-sistema batzuekin

Euskal unibertsitate-sistemak unibertsitate pribatuen proportzio handiagoa du, Kataluniako eta Madrilgo Erkidegoko unibertsitate-sistemek eta Espainiako Unibertsitate Sistema osoak baino. Era berean, aurrekoekin alderatuta, **unibertsitate pribatuek aurrekontuen eta guztizko ikasle-kopuruaren ehunekorik handiena hartzen duen sistema da**.

## 2-13 irudia. Espainiako erreferentziako unibertsitate-sistemen oinarrizko magnitudeak. 2007. urtea

| | Unibertsitate presentzialen kop. | | | Campusak (kop.) | | | Unibertstiateen aurrekontua | | | | Ikasleak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sistema | Guztira | U Publ | U. Prib. | Guztira | U. Publ | U. Prib. | Euroak miloitan | U. Publ | U. Prib. | %SUEren guztiz-koarekiko | Kop. | U. Publ | U. Prib. | %SUEren guztiz-koarekiko |
| **Kataluniako Unibertsitate Sistema** | 12 | 7 | 5 | 46 | 27 | 19 | 1.855 | %89 | %11 | %20 | 202.600 | %86 | %14 | %13 |
| **Madrilgo Unibertsitate Sistema** | 15 | 8 | 7 | 40 | 26 | 14 | 1.751 | %88 | %12 | %19 | 282.991 | %82 | %17 | %18 |
| **Euskal Unibertsitate Sistema** | 3 | 1 | 2 | 14 | 7 | 7 | 531 | %82 | %18 | %6 | 57.152 | %77 | %23 | %4 |
| **Espainiako Unibertsitate Sistema (SUE)** | 73 | 50 | 23 | 73 | 117 | 14 | 9.241 | %92 | %8 | %100 | 1.586.127 | %89 | %11 | %100 |

*Iturria: Egileek landua, hainbat iturritan oinarrituta. 2007ko datuak*

Funtzionamendu-ratioei dagokienez, **Euskal unibertsitate-sistemak ikasle/IIL proportzio baxuena du**, zehazki 9,8 ikasle irakasleko. Hau da, euskal unibertsitate-sistemak irakasle-hornidura erlatiboki handiagoa du (ikus 2-14 irudia).

Euskal unibertsitate-sistemaren ikuspegi orokor horrek, funtsean, Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitate publikoen artean duen lekua eta sisteman duen garrantzia islatzen du. Aldiz, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak, beste unibertsitate pribatu batzuekin alderatuta, ikasle/irakasle ratio altuagoak dituzte: biak batera harturik, 14,4 ikasle irakasleko.

Egoera horren aurrean, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuek abiapuntu askoz hobea duen Euskal Herriko Unibertsitateak baino ahalegin handiagoa egin beharko dute, Bolognako jarraibideak betez, ikasle-taldeak murriztu eta eskola praktikoei pisu handiagoa emateko.

Bestalde, IILen arduren banaketari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitate gehienek baino zailtasun gutxiago izan beharko luke ikerketan eta ezagutzaren transferentzian jarduteko.

Funtzionamenduan sakonduz, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate publiko eta pribatuen AZL/IIL ratioak Kataluniako, Madrilgo Erkidegoko eta Espainiakoenekin alderatuz gero, egoera oso bestelakoa da.

**Euskal Herriko Unibertsitateak AZL/IIL ratio baxuena du, 0,3koa**, Kataluniako (0,5), Madrilgo Erkidegoko (0,6) eta Espainiako (0,5) unibertsitate publikoen batez besteko ratioen azpitik (2-14 irudia). Horrek adierazten du Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileek laguntza erlatibo txikiagoa dutela beren jardunerako, laguntza hori erabakigarria den arren irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak aurrera eraman ahal izateko. Horrenbestez, baliabideak ez dira efizientziaz erabiltzen, profesionalen arreta beren eginkizun nagusi izan behar luketenetatik desbideratzen delako[19].

Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuen kasuan, IIL/AZL ratioa, 0,6koa, Kataluniako, Madrilgo Erkidegoko eta Espainiako unibertsitate-sistema osoko unibertsitate pribatuen batez bestekoena baino nabarmen handiagoa da.

**2-14 irudia. Espainiako erreferentziako unibertsitate-sistemen funtzionamendu-ratioak. 2007. urtea**

| | Irakasleak | | | | AZL kop. | | | | Ik./irak. | | | AZL/irak. | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sistema | Kop. | U. Publ. | U. Prib. | %SUEren guztiz-koarekiko | Guztira (abs) | U. Publ. | U. Prib. | %SUEren guztiz-koarekiko | Guztira | U. Publ. | U. Prib. | Guztira | U. Publ. | U. Prib. |
| Kataluniako Unibertsitate Sistema | 17.923 | %89 | %11 | %14 | 8.837 | %88,81 | %11,19 | %13,73 | 11,3 | 11,1 | 12,9 | 0,5 | 0,5 | 0,4 |
| Madrilgo Unibertsitate Sistema | 21.826 | %77 | %23 | %18 | 11.102 | %87,07 | %12,93 | %17,26 | 13,0 | 13,7 | 12,9 | 0,5 | 0,6 | 0,3 |
| Euskal Unibertsitate Sistema | 5.860 | %85 | %15 | %5 | 2.192 | %77 | %23 | %3,41 | 9,8 | 8,9 | 14,4 | 0,4 | 0,3 | 0,6 |
| Espainiako Unibertsitate Sistema (SUE) | 124.182 | %87,78 | %12,22 | %100 | 64.340 | %90,45 | %9,55 | %100 | 12,8 | 13,0 | 11,5 | 0,5 | 0,5 | 0,4 |

*Iturria: Egileek landua, hainbat iturritan oinarrituta. 2007ko datuak*

19. UPV/EHUn dagoen AZLen eskasia erlatiboa, IILekin alderatuz gero, gaitz estrukturala da, aurreko 2007-2010eko Unibertsitate Planean jada antzeman zena. Konponbide gisa, AZLen kopurua areagotzeko mekanismo bat jarri zen abian, baina prozedurazko hainbat zailtasun sortu dira, UPV/EHUren beraren kontratazio-prozesua martxan jartzearen ondoriozkoak.

**Euskal unibertsitate-sistemak titulu-eskaintza zabala du, estatuko batez bestekoa baino matrikulazio-tasa altuagoak eta informatikako ekipamendu askoz osoagoa ikasleko.**

Euskal unibertsitate-sistemako graduko ikasketetan, lehenengo urteko matrikularen prezioa estatukoaren batez bestekoa baino altuagoa da, baina Madrilgo Erkidegokoaren eta Kataluniakoaren artekoa; hori da Euskal Herriko Unibertsitatearen kokapena unibertsitate-sistema horietako unibertsitate publikoekiko.

Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko tasak Madrilgo Erkidegoko eta Kataluniako unibertsitate publikoetakoak baino baxuagoak dira, baina estatuko unibertsitate pribatuen batez bestekoa baino altuagoak. Horien titulu-eskaintza eta ikasle/ordenagailu ratioa ere oso egokiak dira.

**2-15 irudia. Espainiako erreferentziako unibertsitate-sistemen prestakuntza-eskaintza. 2007. urtea**

| | Bataz besteko prezioa 1. urtean | | | Ikasleak/ ordenagailua | | | Tituluak | | | | Master ofizialak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sistema | Guztira | U Publ. | U. Prib. | Guztira | U. Publ. | U. Prib. | Guztira | U. Publ. | U. Prib. | %SUEren guztiz-koarekiko | Guztira | U. Publ. | U. Prib. | %SUEren guztiz-koarekiko |
| Kataluniako Unibertsitate Sistema | 1.759 | 1.088 | 5.987 | 10,2 | 14,4 | 2 | 533 | %76,92 | %23,06 | %14,09 | 482 | %87,34 | %12,66 | %25,50 |
| Madrilgo Unibertsitate Sistema | 2.083 | 771 | 8.404 | 10,3 | 18,5 | 4,8 | 638 | %60,66 | %39,34 | %18,06 | 352 | %76,14 | %23,86 | %18,62 |
| Euskal Unibertsitate Sistema | 1.881 | 793 | 5.579 | 3,3 | 4 | 3 | 174 | %66,09 | %33,91 | %4,92 | 90 | %51,11 | %48,89 | %4,76 |
| Espainiako Unibertsitate Sistema (SUE) | 1.288 | 763 | 5.511 | 8,5 | 11,7 | 5,2 | 3.533 | %80,30 | %19,70 | %100 | 1.890 | %84,76 | %15,24 | %100 |

*Iturria: Egileek landua, hainbat iturritan oinarrituta. 2007ko datuak*

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) 2006-2007 ikasturteari buruz emandako datuen arabera, unibertsitateen diru-iturri nagusiak baliabide publikoak izan ziren; zehazki, Espainiako unibertsitate-sistemako unibertsitate guztien finantzaketa garbiaren %80, 2006an. Aldi horretan, baliabide pribatuez finantzaketa garbiaren %19,3 ordaindu zen batez beste.

Urte horretan berean, Kataluniako eta Madrilgo Erkidegoko unibertsitate-sistemen finantzaketa publikoa %71 eta %79ra heldu zen. Espainiako unibertsitate-sistemako, Kataluniako eta Madrilgo Erkidegoko datu berriagorik ez dugu; edonola ere, 2008an euskal unibertsitate-sistemaren goi-mailako hezkuntza-erakundeen finantzaketa publikoak guztizkoaren %74,7 hartu zuen.

Kataluniako, Madrilgo Erkidegoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistemetan unibertsitate pribatuen presentzia esanguratsua izaki, finantzaketa publikoaren pisua Espainiako unibertsitate-sistemako batez bestekoa baino apalagoa da horietan.

## 2.5 EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN ERRONKAK

Euskal unibertsitate-sistemaren erronkak zehaztu dira aurreko ataletan aztertutako alderdiak aintzat hartuz, hau da, alde batetik inguruneko elementuak, eta, bestetik, sistemaren kokapena nazioarteko eta estatuko beste unibertsitate-sistema batzuen adierazle eta ekimen estrategikoen aurrean.

Jarraian, inguruneari eta kokapenari buruzko analisiaren ondorioak eta hortik ateratako gakoak aurkeztuko dira.

### 2.5.1 Inguruneko elementuei lotutako alderdiak, 2011-2014 aldian aintzat hartu beharrekoak

Inguruneko elementuen analisiaz, planetan eta araudietan zehaztutako preskripzio estrategikoen eta helburu kuantitatiboen inguruko zenbait alderdi definituko dira, 2011-2014ko Unibertsitate Planak aintzat hartu beharrekoak, euskal unibertsitate-sistema arlo eta egoera ezberdinetan kokatzeko ikuspegi egokiena baliatuz eta horri guztiari aurre egiteko jokabide onena hautatuz.

## 2-16 irudia. Inguruneko elementuen analisia

### Unibertsitatearen jarduera nagusiak

#### Irakaskuntza

- Irakaskuntza-jarduera ikaslearen iarakaskuntza-prozesura egokitzea
- Etengabeko prestakuntza bultzatzea
- Mugikortasuna eta ofizialak ez diren hizkuntzak menderatzea
- Euskararen inguruko hizkuntza-konpromisoak betetzea

**Jomuga batzuk**

- 2010-2011 ikasturtea. Tituluen %100 homologatzea (Bologna)
- 2010ean 25 eta 64 urte arteko herritarren %12,5ek LLLn aprte hartzea, eta 2015ean %15ek (Bologna)
- 2010ean 25 eta 64 urte Europako biztanleen %40k Unibertsitate ikasketak eginak izatea (2020ko Europar Estrategia)
- EBko eskola-uzte tasa %10etik azpikoa izatea (2020ko Europar Estrategia)

#### Ikerketa

- Ikertzaileen mugikortasuna bultzatzea, exekuzio-eragile eta eremu geografiko exberdinetara
- Unibertsitateen harremana sendotzea ezagutza eskaintzen duten beste eragile batzuekin

**Jomuga batzuk**

- Espainian urtero 10.470 doktore berri lortzea (2008-2011ko I+G Plan Nazionala)
- Produkzio zientifikoaren %45 nazioarteko lankidetzaren bidez taxutzea (2008-2011ko I+G Plan Nazionala)

#### Transferentzia

- ”Unibertsitatearen hirugarren misioaren” alde berariazko apustua egitea
- Unibertsitateak berrikuntza-sistemaren erdigunean kokatzea
- Ikertzaileen mugikortasuna bultzatzea exekuzio eragile ezberdinen artean
- Trasnferentzia-azpiegiturak sendotzea: parkeak OTRIak eta abar.

**Jomuga batzuk**

- Espainiaren I+G arloko gastua BPGaren %2ra iristea 2015. urtean. Unibertsitateek laurdena egin behar dute, BPGaren 0,50 (2015eko Unibertsitate Estrategia)
- EAEren I+G arloko gastua BPGaren %2,25koa izatea 2010ean eta %3ra iristea 2020an (2015eko Unibertsitate Estrategia)

### Pertsonak

- Ikasleen parte-hartzea bultzatzea, Unibertsitate Ikaslearen Estatutua eta Unibertsitate Ikaslearen Kontseilua sortuz
- IILen funtzioak eta arduraldia zehazteko erreferentzia-esparru bateratzea AZLen ibilbide profesionala zehaztea, mugikortasuna sustatuz

**Jomuga batzuk**

- Irakasleen %50 doktore izatea, eta horietatik %60 egiaztatuak (ANECA edo UNIQUAL) (2015eko Unibertsitate Estrategia)
- 2020rako, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan gradutatutakoen %20k gutxienez atzerrian prestakuntza-aldi bat egitea (Bologna)

### Gaitasunak

#### Gobernantz eta ebaluazioa

- Kudeaketa eta jarraipeneko tresnak sartzea, jarduna hobetze aldera
- Gobernantza-kontuetan hobetzea
- Kalitatearen alde egitea

#### Kalitatea

- Kalitatearen alde egitea zerbitzuen eskaintza eta maila hobetzeko
- Egiaztapena bultzatzea, aintzatespena lortze aldera

#### Nazioartekotzea

- Pertsonen mugikortasuna bultzatzea
- Unibertsitateen misioekin loturik, prestakuntza eta ikerketako jarduera ezinbestean anzioartekotzea
- Hiru eremu estrategio identifikatzea: GHEE, ERA eta Ezabutzaren Iberomarikako esparrua

### Finantzaketa

- Finantzaketan diru-sarrera publikoak eta pribatuak aintzat hartzea
- Unibertsitateek finantzaketa-egitura iraunkorrak izatea
- Emaitzen araberako finantzaketan sakontzea
- Kontuak ematean eta infomrazio publikoa eskaintzean aurrera egitea

*Iturria: Egileek landua*

**Planei eta araudiei lotutako inguruneko elementuak interpretatzeko alderdi nagusiei begira**, 2011-2014ko Unibertsitate Planak erronka hauei erantzun beharko die:

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua bermatzen jarraitzea.
- Mugikortasuna sustatzea, irakaskuntzan ez ezik ikerketan.
- Unibertsitatearen hirugarren misioak onarpen orokorra izatea.
- Etengabeko prestakuntza aho batez bultzatzea.
- Eskualdeko, estatuko eta Europako esparruak bateragarri egitea.
- Espainiar estatuaren baitan arreta berezia eskaintzea…
  - >> … 2015eko Unibertsitate Estrategiari, Europako preskripzioak barne hartzen dituen erreferentziako esparru gisa, Espainiako unibertsitate-sisteman jarduera nagusiak bultzatzen ari dena.
  - >> … 2015eko Unibertsitate Estrategiaren finantzaketa-ardatzean taxutzen ari den Espainiako unibertsitateen finantzaketa-ereduari buruzko hausnarketei.
  - >> … zientziaren lege berriak izan dezakeen protagonismoari, ikertzaileen eta langileen mugikortasuna oztopatzen duten trabetako batzuk gainditze aldera.

**Euskal unibertsitate-sistemak hainbat arlotan duen kokapena hobetzeko ahaleginen baitan, erronka hauek planteatu dira**:

- Euskal unibertsitate-sistemak euskal berrikuntza-sisteman duen kokapena hobetzea.
- Unibertsitateetan jarduera ezberdinek duten pisua berraztertzea.
- Atzerriko ikasleak erakartzea, bestelako ikasleen galera orekatzeko (nazioartekotzea).
- Prestakuntza-eskari berriak aintzat hartzea (etengabeko prestakuntza).
- Epe ertain eta luzera anbizioz jokatzea, epe laburrera egoera ekonomikoak baliabideen erabilpena baldintzatuko duen arren.

- Euskarazko prestakuntza jasotzeko eskaria aintzat hartzea eta euskararen sustapenean pilatutako eskarmentua baliatzea eleaniztasunaren erronkari aurre egiteko.

- Kanpora zabaltzea eta estatuko zein nazioarteko eragileekin harremanak ezartzea.

### 2.5.2 Sistemen egituraketari eta horien lehentasun estrategikoei buruzko ondorioak

Aurreko atalen azterketatik zenbait ondorio atera daitezke Europako unibertsitate-sistemetan plangintza estrategikoak duen garrantziaren inguruan:

- **Herrialde guztiek plangintza estrategikoari garrantzi handia ematen diote goi-mailako hezkuntza bideratzeko ahaleginean**, batez ere kontuan izanik azken urteotan hainbat aldaketa egin behar izan direla Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko eta eremu horrek eskaintzen dituen aukerak baliatzeko.

- Urte hauetan herrialdeek baliabide gehiago inbertitu dituzte unibertsitate-sistemetan eta, ahalegin horren osagarri, **kudeaketa-tresna gardenago eta eraginkorragoak aldeztu dituzte**, kontu-ikuskapenak egiteaz landa inbertitutako baliabideen eraginkortasuna eta koherentzia estrategikoa aztertzeko.

Lehentasun estrategikoei dagokienez, ildo nagusi batzuk nabari dira:

- Unibertsitate-sistemak nazioartera hedatzeko estrategia integralak garatzen dira, helburu zehatzak jarriz atzerriko hizkuntzetan tituluak eskaintzeko, mugikortasuna bultzatzeko eta abar.

- **Etengabeko ikaskuntza** sustatzeko estrategia integralak taxutzen dira.

- **Ikertzailearen estatusa eta ibilbide profesionala** zehazteko jarduerak bultzatzen ari dira.

- **Ikasleek unibertsitateetako batzordeetan eta ebaluazio-prozesuetan parte hartzea bultzatu** nahi da, sistemako funtsezko partea diren neurrian.

- Unibertsitate-sistema gehienen arretagai garrantzitsuak dira **unibertsitateak finantzatzeko mekanismoak, eraginkortasuna hobetzea eta kontroleko mekanismoak abian jartzea**.

Era berean, hobekuntza operatibo gisa:

- **Informazio-sistema publikoak** ezartzen ari dira, unibertsitate-sistemen eta horien baitako unibertsitateen funtzionamendurako alderdi estrategiko bakoitza hobeto ezagutu ahal izateko.

- **Kostuak kontabilizatzeko prozesu** zehatzagoak erabiltzen ari dira.

- Finantzaketa-ereduetan gero eta pisu handiagoa dute **emaitzen lorpenari lotutako irizpideek**.

**Erabiltzen diren finantzaketa-ereduei** dagokienez:

- Euskal unibertsitate-sistemaren finantzaketa egonkorreko eredua herrialde eta eskualde gehienetan dagoenaren antzekoa da.

- Ezberdintasun nagusia da gureak modalitate guztiak uztartzen dituela: formula, negoziazioa, programa-kontratuak eta abar; bestalde, finantzaketa-mekanismo egonkorrik ez du emaitzen lorpenean oinarritzen ez den oinarrizko ikerketarako[20].

- Beste herrialde eta eskualdeen bilakaerari begira, emaitzen lorpenean oinarritutako mekanismoek gero eta pisu handiagoa dute.

- Aztertutako herrialdeen artean, finantzaketa publikoari dagokionez unibertsitate publikoek eta pribatuek tratu bera jasotzen duten bakarra Belgika da[21].

- Estatuan, Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuak dira lehiari lotu gabeko laguntza publikoa jasotzen duten bakarrak.

20. Unibertsitateek herrialde askotan jasotzen dute lehentasunezkoak edo estrategikoak diren esparruetarako oinarrizko ikerketagaitasunak garatzeko laguntza.
21. Europako Ekialdeko zenbait herrialdetan, unibertsitate pribatuek antzeko trataera dute. Nazioartean, gauza bera gertatzen da Txilen, Zeelanda Berrian edota Hego Korean.

## 2.5.3 Euskal unibertsitate-sistemaren kokapenari buruzko ondorioak

2008ko datuei erreparatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako hezkuntzan egiten den inbertsioari dagokionez, beste herrialde batzuekin alderatuta, ondorio hauek atera daitezke:

- **Euskal Autonomia Erkidegoak goi-mailako hezkuntzan egiten duen ahalegina** herrialde gehienena baino **txikiagoa da**.

- BPGaren %0,97ko gastuaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren ahalegina Espainiarena eta EB-19rena baino apalagoa da, eta Italiari soilik gailentzen zaio.

- Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasleko per capita gastua BPGarekiko %35ekoa da, Espainia eta EB-19ren azpikoa (%38) baina beste herrialde batzuetakoa baino handiagoa, Norvegia (%31) eta Irlanda (%28) kasu[22].

- **Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako hezkuntzan gastu publikoak duen pisua, guztizkoaren %75, EB-19 eta Espainiako batez bestekoena baino txikiagoa da** (%81 eta %78, hurrenez hurren).

- Aztertutako herrialdeekin alderatuta, **Euskal Autonomia Erkidegoak gastu publikoaren proportzio oso handia erabiltzen du unibertsitateei zuzeneko ordainketak egiteko**; hain zuzen ere, adierazle horretan Mexiko eta Txekiar Errepublika bakarrik ditu gainetik. Aitzitik, **familiei gutxien ordaintzen dien herrialdetako bat da**, Txekiar Errepublika baino ez baitauka azpitik.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren gastu publikoaren zatirik handiena unibertsitate publikoei zuzenean ordaintzeko erabiltzen da (%91,7); unibertsitate pribatuek %2,8 jasotzen dute, eta familiek %5,5.

- Eredu hori Espainiakoaren antzekoa da inondik ere, eta, unibertsitate-sistema finantzatzeko politika publikoen inguruko hausnarketan[23]. Espainiako unibertsitate-sistemari buruz ondorioztatzen den moduan, **erreferentziako herrialdeetan dagoenetik urrun dago, funtsean bekak eta ikasketarako laguntzak emateko sistemaren ahuleziagatik**.

22. Aurrez adierazi moduan, per capita errenta handieneko herrialdeak ez dira beti ikasleko per capita errentan ratiorik apalena dutenak. Alemanian eta Irlandan, kasu, EB-19ko batez bestekoa baino per capita errenta handiagoa duten arren, ikasleko per capita errentan EB-19ko batez bestekoa baino ratio altuagoa dute. Beraz, per capita errentaren maila ez da, berez, herrialdeen arteko aldea azal dezakeen aldagai bat.
23. Batzorde Mistoaren agiria, 16. or.

- **Euskal Autonomia Erkidegoaren eta EB-19ren arteko arrakala are sakonagoa da ikerketa-jarduerari dagokionez**. Ikerketak pisu gutxien duen herrialdeen multzoan kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoa; arlo horretan, goi-mailako hezkuntza-erakundeetan %0,28ko gastua du, EB-19ren %0,41etik oso urrun. Alde horretatik, adierazi beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera Espainiakoaren oso antzekoa dela, ahalegin orokorrean, ahalegin publikoan, ahalegin horren banaketan eta irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren arteko partiketan are gabezia handiagoak dituen arren.

Gertuagoko beste erreferentzia batzuei erreparatuz, Euskal unibertsitate-sistema Espainiakoarekin eta Katalunia zein Madrilgo Erkidegokoekin alderatuta, ondorio nagusi hauek atera daitezke:

- Kataluniako eta Madrilgo Erkidegoko unibertsitate-sistemekin eta Espainiako unibertsitate-sistema osoarekin konparatuta, **euskal unibertsitate-sistemak unibertsitate pribatu gehiago ditu, eta horiek, gainera, baliabide eta ikasleen proportzio handiagoak dituzte**. Aurrekontu eta ikasleen banaketari begira, sistemarik pribatuena da.

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren jarraibideetara egokitzeko ahaleginean, ikasle-taldeak murrizteko esfortzu handiagoa egin beharko lukete euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuek; bestalde, langile-egitura orekatuagoa ere badute.

- **Euskal unibertsitate-sistemak titulu-eskaintza zabala du, estatuko batez bestekoa baino matrikulazio-tasa altuagoak eta informatikako ekipamendu askoz osoagoa ikasleko**.

- 2008an, finantzaketa publikoaren pisua euskal unibertsitate-sistemaren goi-mailako hezkuntza-erakundeetan %74,7koa izan zen; urte horretako daturik ez badugu ere beste unibertsitate-sistema batzuekiko alderaketa egiteko, badirudi gastu publikoaren pisua Kataluniako sisteman duena baino handiagoa dela baina Madrilgo Erkidegokoan eta Espainiako unibertsitate-sistemako batez bestekoa baino apalagoa.

### 2.5.4 Euskal unibertsitate-sistemaren gakoak

Identifikatu diren inguruneko elementuei eta euskal unibertsitate-sistemak estatuko eta nazioarteko beste unibertsitate-sistema batzuen artean duen kokapenari erreparatuz, datozen urteotan aintzat hartu beharreko gako nagusiak esparru hauetan multzoka daitezke:

- **Prestakuntza**. Euskal unibertsitate-sistemaren erronkak dira, alde batetik, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan finkatzea irakaskuntza-ereduak garatuz, bertaratu beharrik gabeko prestakuntza eta etengabeko prestakuntza barne, eta, bestetik, erreferentziako sistema bihurtzea, gaitasun handiko ikasleak erakarri ahal izateko.

- **Ikerketa eta transferentzia**. Ikerketaren eta transferentziaren ikuspegitik, euskal unibertsitate-sistemaren erronka nagusiak dira, lehenik eta behin, unibertsitateak Euskadiko eta estatuko zientzia eta teknologiaren sisteman eta Ikerketaren Europako Esparruan dagokion eginkizuna betetzea eta, bigarrenik, enpresekin elkarlanean aritzea eta ekintzailetasunaren sustapenean engaiatzea. Ikerketa-jarduerak irakaskuntzarenak baino gehiago hazi behar du.

- **Nazioartekotzea**. Arlo honetan, euskal unibertsitate-sistemaren erronka kanpora zabaltzea eta estatuko zein nazioarteko eragileekin harremanak ezartzea da.

- **Gizartea**. Euskal unibertsitate-sistemak lider izan behar du kultura zientifikoaren eta balioen komunikazio eta transmisioan eta iritzien sorreran.

- **Pertsonak**. Euskal unibertsitate-sistemak erakargarria izan behar du maila handiko irakasle eta ikertzaileentzat.

- **Kalitatea eta efizientzia**. Euskal unibertsitate-sistemako zerbitzu eta jardueren kalitatea hobetzea eta baliabideen erabileran efizientzia eta gardentasuna bermatzea da erronka.

- **Finantzaketa**. Arlo horretan, finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkorra lortu nahi da, eta, ikuspegi kuantitatibotik, goi-mailako hezkuntzan EB-19ren pareko gastura iristea, hau da, BPGaren %1,5era 2014an eta %1,4ra 2020an.



# 3 2007-2010EKO UNIBERTSITATE PLANAREN EBALUAZIOA




NGENIERIA TECNICA INDUSTRIA

# 2007-2010EKO UNIBERTSITATE PLANAREN EBALUAZIOA 3

2007-2010EKO UNIBERTSITATE PLANA EUSKAL unibertsitate-sistema osoaren plangintza estrategikoa taxutzeko lehenengo ahalegina izan da.

Planak hura landu zen garaiko testuinguruari erantzuten dio, baina hala ere jauzi garrantzitsua izan da, unibertsitate pribatuek gizarte-intereseko erakunde gisa eskaintzen duten zerbitzu publikoa aitortu duelako, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate guztiekin finantzabide egonkorrak ezarri dituelako eta jardunaren araberako finantzaketa-irizpideak sartu dituelako.

Hori guztia dela-eta, eta euskal unibertsitate-sistemaren funtzionamendu eta antolaketaren oinarriak ezartzen saiatu den lehen plana izateak berekin dakartzan mugez harago, 2007-2010eko Unibertsitate Plana positiboki baloratzen dute eragile guztiek, eta hura abian jarri eta garatze hutsa mugarri gisa ikusi da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa da tankera horretako plan integral bat duen autonomia-erkidego bakarra[24].

Atal honetako hurrengo sailetan, 2007-2010eko Unibertsitate Plana sakonago aztertuko da, bereziki bi alderditan arreta jarriz: haren egituraren eta barne-koherentziaren balorazio orokorra eta euskal unibertsitate-sistemak egindako aurrerapenen balorazioa, ikuspuntu ezberdinetatik:

a) *Ebaluazio finalista* bat, Unibertsitate Planaren helburuak eta lehentasunezko esparruak aintzat hartuta euskal unibertsitate-sistemak egindako aurrerabideari erreparatzeko; ebaluazio horretan sartzen dira sistemako eragileen iritziak eta aurrerabide horren ikuspegi kuantitatiboago bat ematen duten adierazleen interpretazioa[25].

24. Beste autonomia-erkidego batzuetan plan partzialak dituzte finantzaketa-esparruaren inguruan. Gainera, horietako ezeinetan ez dira unibertsitate ez-publikoak barne hartzen.
25. Aurrerago azalduko denez, gogoratu behar da 2007-2010eko UPk ez duela EUS osorako jomuga edo adierazlerik, eta beraz balorazio kualitatiboago hau egiten erabilitako adierazleak gerora zehaztu dira, berariaz, plana ebaluatzeko.

b) *Ebaluazio exekutibo* bat, tresnen funtzionamendua eta egindako aurrerabidean izan duten eragina baloratzeko.

c) *Unibertsitate Plana egituratzeko mekanismoen balorazio bat: finantzaketa-esparrua eta gobernantza-organoak*.

Ebaluazioa egiteaz landa, azterketa honen bidez 2011-2014 aldirako Unibertsitate Plan berria lantzeko, garatzeko eta kudeatzeko orduan kontuan hartu beharko diren elementu operatiboak (Planaren oinarriak) identifikatu nahi izan dira, eta baita Planaren jomuga izango diren alderdi estrategikoak eta edukizkoak ere (Planaren gakoak).

**3-1 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planaren ebaluazioaren edukiak**

| | | |
|---|---|---|
| A | Azterketa finalista | ▶ Azterketa kualitatiboa + Azterketa kuantitatiboa |
| B | Gauzatzearen azterketa | ▶ Finantzaketa arrunta eta inbersioetarako laguntza<br>▶ Programa-kontratuak<br>▶ Jaurlaritzak guztira jarritako baliabideak eta horien helburuen araberako banaketa zehaztea |
| C | Sistemaren egituraketaren azterketa | ▶ Sistemaren finantzaketa-eredua eta Planaren tresnen pisua azaltzea<br>▶ Gobernantza-sistema |

*Iturria: Egileek landua*

Balorazio horri jarraiki, ahalik eta etekin handiena atera nahi zaio 2007-2010eko Unibertsitate Plana martxan egon den azken urteotan pilatutako eskarmentuari, euskal unibertsitate-sistemaren alde lanean jarraitzeko.

## 3.1 EDUKIEN DESKRIBAPENA ETA BARNE-KOHERENTZIAREN BALORAZIO OROKORRA

2007-2010eko Unibertsitate Planaren xede nagusia euskal unibertsitate-sistemari Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura eta Ikerketaren Europako Esparrura egokitzen laguntzea da, eta horretarako zenbait jarduera-esparru xedatu ditu. Esparru bakoitzaren helburuak eta garatu beharreko ekintzak orokorki deskribatzen ditu, baina horiek aurrera eramateko tresna zehatzik ez da aipatzen, eta ezta berariazko adierazlerik ere.

Bederatzi jarduera-esparruetatik, lehenengo zazpiak lehentasun estrategikoak dira eta bakoitzak helburu zehatz bat du, eta azken bi esparruak, berriz, instrumentalak dira eta euskal unibertsitate-sistemako eragileekin ezarri beharreko finantzaketa-esparrua mugatzen dute. Bi azken esparru horietan helburua, hain zuzen ere, adierazten diren finantzabideak abian jarri eta finkatzea da.

### 3-2 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planaren helburuak eta jarduera-esparruak

**Planaren helburu nagusia**

"Euskal Herriko unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura eta Ikerketaren Europako Esparrura pixkanaka egokitzen joatea"

**Jarduera-eremu estrategikoak**

1. **Irakaskuntzaren berrikuntza**. Unibertsitate-irakaskuntzako prozeduretan berrikuntza sustatzea
2. **Unibertsitateak nazioartekotzea**. Euskal unibertsitate-sisteman parte hartzeko, trukerako eta lankidetzako nazioarteko bideak sustatzea
3. **Unibertsitateko zerbitzuen modernizazioa**. Unibertsitateko zerbitzuak modernizatzeko ekintzak bultzatzea
4. **Kalitate-sistemak**. Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzea
5. **Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana.** Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana hobetzea
6. **Ikerketa**. Euskal unibertsitate-sistemaren produktibitate zientifiko eta teknologikoaren hazkuntza sustatzea
7. **Euskara**. Unibertsitatearen esparruan euskara sustatzea

**Jarduera-eremu estrategiko instrumentalak**

1. **UPV/EHUren finantzaketa-esparru egonkorra**. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkorra ezartzea, horren bidez unibertsitate publikoak bere helburuak lortzeko duen ahalmena handitze aldera
2. **Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra**. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra ezartzea

*Iturria: 2007-2010eko Unibertsitate Plana*

Bestalde, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren edukiak unibertsitateen finantzaketari buruzkoak dira nagusiki. Izan ere, planean jasotako jardueren inguruko finantzaketa-esparrua eta sistemaren baitako unibertsitate bakoitzak erdietsi beharreko helburuak zehazten dira edukietan.

Beraz, bi mailatan egituratutako estrategia bat da: alde batetik, Euskal unibertsitate-sistemaren helburu handiak xedatzen dira, horiei zuzenean lotutako jomuga edo tresnarik aipatzen ez bada ere, eta, bestetik, sistemako unibertsitate bakoitzerako berariazko ekintza-plan bat, non zehazten baitira unibertsitateen finantzaketa-esparrua, tresnak eta lortu behar dituzten jomugak eta helburuak, eta unibertsitate bakoitzak jasoko duen tratua; tratu bereizia izango da inondik ere, euskal unibertsitate-sistemako eragileen aniztasuna eta bakoitzak dituen abiapuntu, premia eta lehentasun ezberdinak aintzat hartuko dituena.

**3-3 irudia. Planaren edukiak, bi mailatan egituratuak**




*Iturria: Egileek landua, 2007-2010eko Unibertsitate Planean oinarrituta*

Bi mailako egitura horrek helburuen, tresnen eta adierazleen jarraipena egitea eragozten du, helburu nagusiak eta jarduera-eremuak sistemaren mailan zehazten baitira, eta jomugak eta tresnak, berriz, unibertsitate bakoitzean[26]. Hori dela-eta, Jaurlaritzaren Planak jarraipen sakonagoa egin die euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate bakoitzak hitzartutako jarduerei, sistemaren aurrerabide orokorrari baino.

Ildo horretan, 2007-2010eko Unibertsitate Planak, bere jarduerei dagokienez, tresna propio gisa hartzen ditu, soilik eta berariaz, unibertsitateen finantzaketa-esparruekin zerikusia duten tresnak. Planaren kudeaketan eskumena duten eragile nagusiak, hau da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, baditu beste tresna batzuk, eta horiek abian jarri eta gauzatzeak Planaren helburuetan zuzeneko eragina du; era berean, Jaurlaritzako beste sail batzuek bultzatutako zenbait jarduerek ere antzeko eragina dute. Alabaina, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren tresna gisa ez zaie behar besteko garrantzia eman.

Horrenbestez, euskal unibertsitate-sistemaren inguruan bultzatzen ari diren jardueren ikuspegi murritza eskaintzen da, eta horrek Planaren jarraipena eta haren eragina tresna-multzo jakin batera mugatzeko arriskua dakar.

26. Horrexegatik, EUSen aurrerabidearen ebaluazioa, Unibertsitate Planaren xede-helburuei erreparatuz, gerora zehaztutako zenbait adierazle aztertuta soilik egin daiteke.

## 3-4 irudia. Unibertsitate Planaren helburuak bultzatzeko tresnen ikuspegi orokorra

### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren tresnak

**UNIBERTSITATE-SISTEMAREN PLANA**

| Unibertsitateak | Tresnak |
|---|---|
| UPV/EHU | ▶ Ekarpen arrunta<br>▶ Langile-kopurua handitzea<br>▶ Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana<br>▶ Programa-kontratuak |
| UD | ▶ Programa-kontratuak |
| MU | ▶ Programa-kontratuak |

**BESTE TRESNA BATZUK**

**Ikasleak**

- EHUn master ofizial batean edo titulu propio batean matrikulatzeko laguntzen deialdia langabezian dauden unibertsitate-titulududunentzat
- Udan atzerrian hiskuntza-ikastaroak egiteko beken deialdia
- Erasmus bekak eta unibertsitate arteko nazioarteko beste mugikortasun-programa batzuk
- Unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka orokorrak
- Lankidetza-beken deialdia
- Eguneroko garraiorako gastuak ordaintzeko laguntzak
- Hezkuntza-premia bereziak diuzten ikasleak

**Oinarrizko ikerketa**

- Egonaldi laburrak ikertzaileak prestatzeko programarako bekak baliatzen ez diren zentroetan
- Hobekuntza- eta mugikortasun-programak ikertzaileentzat
- Zientziaren arloko biltzarrak, bilera, ikastaroak eta mintegiak antolatzea
- Ikerketa-ekintza bereziak
- Berariazko arloetan ikerketa-taldeak finkatzea
- Ikertzaile bisitariak Oxfordeko Unibertsitateko St. Anthon´s Collegen
- Ikertzaile bisitariak Glasgowko Unibertsitatean

**Ikerketa-proiektuak**

- Oinarriko ikerketako eta ikerketa aplikatuko proiektuak, lankidetza-proiektuak eta giza eta gizarte-zientzietako proiektuak egiteko laguntzak
- Ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak
- Ikerketa eta berrikunta teknologikorako laguntzak Unibertsitatea-Enpresa ekintzen kargura
- Ikerketa-sareak, ikertzaileen mugikortasuna eta ikerketa eta garapen teknologikoko proiektuak butzatzea, Pirinioetako Lan Elkartearekiko lankidetzaren esparruan
- Patenteak eskatzeko laguntzak
- Ikerketa eta berrikuntza teknologikoko proiektuetarako laguntza-deialdia - +Euskadi 09 plana

**Berariazko ikerketa**

- Ikertzaileak prestatu eta trebatzeko bekak
- Laguntza paraleloak aplikazio-zentroei
- Atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko bekak

**Bestelakoak**

- EUSeko ikerketa-taldeen jarduerak blutzatzeko laguntzak
- Doktoregoko programak eta mastereko ikasketak
- Ikerkuntzarako Euskadi Saria

2007-2010eko Unibertsitate Planaren gobernantzarako mekanismoei dagokienez, planean kudeaketa, jarraipen eta koordinazioko zenbait organo zehaztu ziren, bai euskal unibertsitate-sistema bai plana bera gobernatzeko. Errealitatean, ordea, plana kudeatzeko organoak ez dira osotara abian jarri eta koordinazio-organoek ez dute espero bezala funtzionatu[27].

27. Gobernantza-organoen funtzionamendua sistemaren egituraketa ebaluatzen duen atalean aztertzen da.

**3-5 irudia. Unibertsitate Planaren gobernantza**




*Iturria: 2007-2010eko Unibertsitate Plana*

Laburbilduz, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Planak bi maila ditu; helburuak eta jarduera-eremuak sistemaren mailan daude, eta tresnak eta jomugak, berriz, eragileenean.

- Edukiak batik bat unibertsitateen finantzaketa-esparruari buruzkoak dira.

- Arretagai nagusia finantzaketa-esparru hori taxutzen duten tresnak izaki, neurri batean alboratu egin dira Jaurlaritzak sustatutako beste tresnak batzuk, euskal unibertsitate-sisteman eragina dutenak.

- Unibertsitate bakoitzari trataera ezberdina ematen dio, izaera publikoa edo pribatua duen aintzat hartuz, baina baita bakoitzak dituen lehentasunak eta abiapuntua ere.

- Zenbait gobernantza-organo ezarri ditu, garapen-maila ezberdina izan dutenak.

## AURRERABIDEA HELBURU NAGUSIETAN: BALORAZIO FINALISTA BAT

3.2

2007-2010eko Unibertsitate Planaren xede nagusia zen euskal unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura eta Ikerketaren Europako Esparrura pixkanaka egokitzen joatea.

Sistemak helburu hori lortzeko bidean izan duen aurrerapena baloratzeko orduan, alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura pixkanaka egokitzeari dagokionez:

  >> Euskal unibertsitate-sistemak, eta haren baitako unibertsitateek, tituluak eta hezkuntza-eredua Bolognako prozesuaren betekizunetara egokitzen egin dute ahaleginik handiena.

  >> Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek arrakastaz burutuko dute homologazio-prozesu horren lehen zatia.

  >> Unibertsitate guztiek ez dute aprobetxatu irakaskuntza-eskaintza arrazionalizatzeko eta kudeaketa-egiturak hobetzeko aukera.

  >> Asko dago egiteko eta lanean jarraitu beharko da egokitzapen-prozesu horrek eskain ditzakeen aukerak baliatu ahal izateko.

- Ikerketaren Europako Esparrura egokitzeari dagokionez:

  >> Planaren funtsezko helburuetako bat izan arren, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek ahalegin txikiagoa egin dute arlo honetan.

  >> Hala ere, euskal unibertsitate-sistemak presentzia handiagoa izan du nazioarteko programetan, eta itzulkin gehiago lortu ditu.

  >> Ikerketaren Europako Esparruan presentzia handiagoa izateko erronka, euskal unibertsitate-sistemaren nazioartekotze-prozesuari lotua, ez da behar den neurrian lortu.

Hitz batez, 2007-2010eko Unibertsitate Plana bukatu aurretik bildutako datuetan oinarrituta, esan liteke euskal unibertsitate-sistemak lehen helburua, alegia Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzea (tituluak egiaztatzea), lortuko duela, eta Ikerketaren Europako Esparruan parte hartzeari dagokionez, berriz, hobera egin duela, apalki bada ere.

Jarraian, 2007-2010eko Unibertsitate Planean jasotako jarduera-eremu bakoitzean egin den aurrerabidea azalduko da.

## 3.3 HELBURU ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOA

2007-2010eko Unibertsitate Planak 9 jarduera-eremu zituen; lehen zazpietan helburu estrategikoak ezartzen ziren eta gainerako biak instrumentalagoak ziren, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen finantzaketa-esparruari lotuak[28]:

1. Irakaskuntzaren berrikuntza: Unibertsitate-irakaskuntzako prozeduretan berrikuntza sustatzea.

2. Unibertsitateak nazioartekotzea: euskal unibertsitate-sisteman parte hartzeko, trukerako eta lankidetzarako nazioarteko bideak sustatzea.

3. Unibertsitateko zerbitzuen modernizazioa: unibertsitateko zerbitzuak modernizatzeko ekintzak bultzatzea.

4. Kalitate-sistemak: euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzea.

5. Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana: unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana hobetzea.

6. Ikerketa: euskal unibertsitate-sistemaren produktibitate zientifiko eta teknologikoaren hazkuntza sustatzea.

7. Euskara: unibertsitatearen esparruan euskara sustatzea.

8. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkorra: Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkorra ezartzea, horren bidez unibertsitate publikoak bere helburuak lortzeko duen ahalmena handitze aldera.

9. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra: sistemako unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra ezartzea.

28. Ikus 3-2 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planaren helburuak eta jarduera-eremuak.

Jarraian, eremu bakoitzaren helburuak, bilakaeraren alderdi nabarmenak, bilakaera horren balorazio orokorra eta etorkizunean aintzat hartu beharreko alderdien inguruko gomendio batzuk laburki aurkeztuko dira.

### 3.3.1 Irakaskuntzaren berrikuntza: Unibertsitate-irakaskuntzako prozeduretan berrikuntza sustatzea

Irakaskuntzaren arloan helburu hori ezarrita, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren xedea zen ECTS sistemarekin erlazionatutako eskakizunei erantzungo zien irakaskuntzaren antolaketa berria ezartzea. Horretarako, adierazten zen beharrezkoa zela aldaketak egitea, besteak beste ikasteko sistemetan, irakasleak eskakizun horietara egokitzea, taldean lan egiteko ekipamendu eta guneetan inbertitzea edo master eta doktoregoko programak garatzea.

Arlo honetan bultzatu nahi ziren jarduerak aintzat hartuz, eta 2007-2010eko Unibertsitate Plana indarrean egon den lehen hiru urteak igarota, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek ahalegin handia egin dute beren hezkuntza-ereduak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eskakizunetara egokitzeko.

- Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak beren tituluen %100 behar baino urtebete lehenago homologatzea lortu dute, eta Euskal Herriko Unibertsitateak zorrotz bete ditu ezarritako epeak[29].

- Euskal unibertsitate-sistemako irakasleek oro har Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko jardueretan partaidetza handia izan badute ere, partaidetza hori bereziki nabarmentzekoa da unibertsitate pribatuetan, ahalegin horretan irakasleen %60 engaiatu baita.

- Titulu-mapetan eta zentroen kudeaketan, aldaketa gehiago egin dira unibertsitate pribatuetan. Euskal Herriko Unibertsitateak, aldiz, eskaintza eta zentroen egitura hobetzeko aukera hori ez du erabat aprobetxatu.

Beraz, esan liteke **euskal unibertsitate-sistemak burutu duela bere tituluak egiaztatzeko prozesua, baina unibertsitate guztiek ez dute hein berean aprobetxatu titulu-eskaintzan eta kudeaketa-egituretan aldaketak egiteko aukera hori**.

29. 2010-2011 ikasturtearen hasierarako, graduko titulu guztiek homologatuta egon behar zuten.

Etorkizunari begira, tituluen homologazioa Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko lehen urratsa izan bada ere, datozen urteetan euskal unibertsitate-sisteman egindako aldaketen neurria eta horien eraginkortasuna ebaluatu behar da. Horrenbestez, hurrengo urteetan jarraitu eta ebaluatu beharreko alderdi garrantzitsuak izango dira, besteak beste, titulu berrien erakargarritasuna, ikasleek horien gainean egiten duten balorazioa, gainditutako kredituen ehunekoa eta irakasleen gogobetetze-maila eta inbertitutako baliabideen eraginkortasunari, efizientziari eta zuzentasunari lotutako beste hainbat.

## 3.3.2 Unibertsitateen nazioartekotzea: Euskal unibertsitate-sisteman parte hartzeko, trukerako eta lankidetzarako nazioarteko bideak sustatzea

Euskal unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sar dadin, ezinbestekoa da hura nazioartera zabaltzea. Horretarako, 2007-2010eko Unibertsitate Planak adierazten zuen beharrezkoa dela ikasleen, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen trukea eta mugikortasuna errazteko ekimenak garatzea, Europako unibertsitateekin lankidetzan aritzeko sareak sortzea edo unibertsitatean atzerriko hizkuntzak ikastea sustatzea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera demografikoa ikusirik eta ikerketa-gaitasuna indartzeko premiak bultzatuta, euskal unibertsitate-sistema nazioartera zabaltzeko apustuak beste premia bati erantzuten zion: “ikasleak erakartzea (beherakada demografikoaren ondorioz euskal unibertsitate-sisteman matrikulen kopuruan izandako murrizketa konpentsatzen laguntzeko), atzerriko unibertsitateekiko harremanak indartu nahian eta talentua erakartze aldera (euskal unibertsitateetako ikerketa-taldeak aberasteko)”[30].

Arlo honetan, 2007-2010eko Unibertsitate Plana indarrean egon den lehen hiru urteak igarota, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Euskal unibertsitate-sistemaren nazioartekotzea irakaskuntzaren esparrura mugatu da nagusiki, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeko ahaleginean.
- Esfortzu handia egin da atzerriko unibertsitateekin lankidetza- eta mugikortasun-akordioak lortzeko.
- Irakasleen gaikuntzarako jarduerak garatu dira, eta horri esker ingelesezko irakaskuntza-eskaintza bat taxutu ahal izan da, oraindik abian jarri berria bada ere.

30. Iturria: 2007-2010eko Unibertsitate Plana.

- Euskal unibertsitate-sistemak hazkunde nabarmena izan du atzerriko ikasleak erakartzeari dagokionez; hain zuzen ere, hiru unibertsitateetan hazkundea %45 eta %100 artekoa izan da.

- Euskal unibertsitate-sistemako ikasleen %5,3 atzerritarrak dira; guztira 3.108 ikasle, bi heren graduko tituluetan eta heren bat graduondokoetan. Deustuko Unibertsitatean, ikasle atzerritarrak %10 baino gehiago dira graduan eta %20tik gora graduondoan.

- Europar tesien kopurua ere nabarmen igo da. Hazkunde horretan zerikusirik handiena Euskal Herriko Unibertsitateak du: 2006-2007 ikasturtetik 2007-2008 ikasturtera, irakurritako europar tesien kopurua %61 hazi da.

- Unibertsitateek nazioartekotzea sartu dute beren estrategietan.

**Euskal unibertsitate-sistemak aurrerabide handia egin du irakaskuntzari lotutako nazioartekotzearen arloan, baina datozen urteetan helburu horri eutsi behar dio eta ikerketaren esparrura zabaldu**.

Etorkizunean, estrategikoa izango da ingelesez emandako prestakuntza-eskaintza bat finkatzeko jarduerak bultzatzea, ikasle atzerritarren kopurua mantendu eta areagotze aldera.

Era berean, estatuko eta nazioarteko beste unibertsitateekin lehian egonik, euskal unibertsitate-sistema osoak eta haren baitako unibertsitateek, multzo gisa edo bakoitzak bere aldetik, beren burua ezagutzera emateko ekintzak abian jarri behar dituzte ikasleak eta ikertzaile talentudunak erakarri eta atzeman ahal izateko.

Azkenik, Europar Erkidegoko txostenei eta estrategiei jarraiki, beharrezkoa da nazioartera zabaltzeko apustu hori ikerketaren esparrura ere hedatzea eta unibertsitateetan dauden ikerketarako laguntza-zerbitzuak trebatzea erronka horri aurre egin ahal izateko.

Horrez gain, sistema nazioartera zabaltzea ahalbidetuko duen lankide-sare bat sortzeko aukera gisa ulertu behar da ikertzaileen mugikortasuna.

## 3.3.3 Unibertsitateko zerbitzuen modernizazioa: unibertsitateko zerbitzuak modernizatzeko ekintzak bultzatzea

Bolognaren bidez bultzatu nahi diren metodologia aktibo eta parte-hartzaileak ezartzeko, beharrezkoa da unibertsitateko zerbitzuak modernizatzea. Horretarako, irakasguneak berreraiki eta hobetu behar dira, altzariak hobetu behar dira, administrazio eta zerbitzuetako langile gehiago jarri behar dira, teknologia berrietan inbertitu behar da, liburutegietako hornidurak hobetu behar dira eta unibertsitateen kudeaketa modernizatu behar da. Horiek ziren eremu honi buruz 2007-2010eko Unibertsitate Planean jasotako jarduera-ildoak.

Arlo honetan egin diren aurrerapen azpimarragarrienek irakaskuntzaren berrikuntzarekin lotura estua dute:

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek beren ekipamenduak modernizatzeko eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko jarduerak gauzatu dituzte.
- Jardueren eta prozesuen kalitatea hobetzeko, IKTen erabilera sartu da.
- Antolaketa- eta kudeaketa-ereduari dagokionez, aldaketa sakonenak Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuek egin dituzte, beti ere efizientzia eta kalitatea hobetzeko asmoz.

Beraz, **euskal unibertsitate-sistemak egin beharrekoak egin ditu bere ekipamenduak hobetu eta modernizatzeko eta zerbitzuen kalitatea hobetze aldera teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko**.

2011-2014 aldirako ere AZLak prestatzen eta teknologia berriak sartzen jarraitu beharko da, baina, horrez gain, funtsezkoa izango da baliabide pribatuak eta publikoak –batez ere azken horiek– modu eraginkorragoan erabiltzeko zereginei heltzea, antolaketan, kudeaketan, prozesuen hobekuntzan eta beste hainbat arlotan aldaketak eginez.

## 3.3.4 Kalitate-sistemak: euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzea

Kalitatea hobetzea ezinbesteko baldintza da unibertsitateen lehiakortasuna handitzeko eta etengabe aldatzen ari den gizarte moderno baten erronkei aurre egiteko prest dagoen euskal unibertsitate bat eratzeko. Horixe zen, hain zuzen ere, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren helburuetako bat.

Horretarako, etengabeko ebaluazioko politika bat sustatzea eta irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketaren inguruko ekintza-planak eta jarduteko moduak garatzea proposatzen zuen.

Arlo honi dagokionez, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek kalitatea egiaztatzearen aldeko apustua egin dute.

- Graduondoko titulu-eskaintzan kalitate-aipamenek gora egin dute. Joera hori bereziki esanguratsua da Euskal Herriko Unibertsitatean, kalitate-aipamena duten masterren kopurua ia hirukoiztu egin baita, eta Deustuko Unibertsitatean, non hainbat masterrek Erasmus Mundus aipamena lortu baitute.

- Erakundeetan hedatuen dauden kalitate-egiaztagiri gehiago lortu dira (ISO, EFQM…). Alde horretatik, unibertsitatearen kudeaketan EFQM eredua ezarri eta garatzeari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatea aitzindari da Espainiako unibertsitate-sisteman.

- Egiaztatze-prozesua Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak xedatutako kalitate-irizpideen arabera (Audit[31]) jarri dute abian.

- 2007-2010eko Unibertsitate Planean jarduera-ildo gisa planteatu arren, euskal unibertsitate-sisteman ez da kalitatea kontrolatzeko adierazleen sistema bateraturik garatu.

Horrenbestez, Planean jasotako jarduera-ildo guztiak garatu ez badira ere, **euskal unibertsitate-sistemak kalitatea hobetzeko helburua bete du, askotariko egiaztagirien hazkunde nabarmenak erakusten duen moduan**.

Etorkizunean, kalitatea euskal unibertsitate-sistemaren eta haren unibertsitateen etengabeko erronka izango da. Beraz, kontuan hartu beharreko neurria litzateke euskal unibertsitate-sisteman kalitatea kontrolatzeko adierazleen sistema bat adostu eta sustatzea. Sistema hori egiaztagirien ekarpena eta duten interesa zehaztu ondoren erabaki beharko da, lortu nahi diren helburuen arabera.

31. Helburua da hezkuntza-erakundeei beren irakaslanean Kalitatearen Barne Bermeko Sistemak (SGIC) diseinatzen laguntzea, GHEEren jarraibideen arabera. Sistema horiek abian jartzea funtsezkoa da unibertsitate bakoitzak ematen dituen tituluak egiaztatzeko.
Audit programa egiteko, kontuan hartu dira GHEEn kalitatea bermatzeko irizpide eta jarraibideak (ENQA: Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Jarraibideak), Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2006ko abenduaren 21ean argitaratutako “Graduko eta masterreko unibertsitate-tituluak lantzeko jarraibideak” dokumentua eta unibertsitateek lehendik kalitatearen inguruan garatutako esperientziak (titulu eta zerbitzuen ebaluazioa, egiaztapena, zerbitzu-gutunak egitea eta abar).
Espainiako unibertsitateen %69k parte hartu du hezkuntza-erakundeei beren irakaslanean kalitate-sistemak diseinatzen laguntzeko Audit programan. Beste egiaztapen-prozesu paralelo batzuk badira, Docentia programa kasu. Azken horren xedea jarraibide hau betetzea da: “Erakundeek baliabideak izan behar dituzte bermatzeko irakasleak prestatuta daudela eta lanerako gai direla”. Docentia programan unibertsitateen %86k parte hartu dute. 2007an abian jarria, irakaskuntza-jardueraren plangintza, irakaslanaren garapena eta emaitzak aztertu eta baloratzeko ebaluazio-eredu bat eskaintzen dizkio programak hezkuntza-sistemari, eta, unibertsitateen autonomia errespetatuz, irakasleen garapena eta aintzatespena bultzatu nahi ditu.

### 3.3.5 Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana: unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana hobetzea

2007-2010eko Unibertsitate Planean adierazten denez, euskal unibertsitate-sistemak bere ingurune sozial, ingurumeneko, ekonomiko eta kulturalean txertatuta egon behar du, prestakuntzako eta dibulgazioko berariazko ekintzen bidez.

Zehazki, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren asmoa zen unibertsitatetik enpresetara ezagutzaren transferentzia sendotzea[32]. Horretarako, Planaren definizioan eta garapenean berean nabarmentzen zen ezagutza eta teknologia enpresei helarazteko jarduerak bultzatzearen garrantzia.

2007-2010eko Unibertsitate Planaren indarraldia agorturik, arlo honetan euskal unibertsitate-sistemaren bilakaera eta egoera hobekien islatzen duten alderdiak hauek dira:

- Eragile guztiek onartu dute beren ingurunearekin harremanak ezartzeko premia, eta ingurune horrekin engaiaturik daude.

- Aurrera egin da euskal unibertsitate-sistemak enpresa-sarearekin duen harremana ebaluatzeko adierazle guztietan: enpresetan lanean ari diren ikertzaileen kopurua, diru-sarrerak kontratupean, sortutako spin-off edo produktu deribatuak, patenteak eta abar.

- Euskal unibertsitate-sistemako ikertzaileen %20,6k enpresekin lanean dihardu; guztira 905 ikertzaile, eta %41eko hazkundea azken 2 urteetan. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetan, ikertzaileen ehuneko jakin bat enpresekin lanean ari da: Deustuko Unibertsitatean %15, Euskal Herriko Unibertsitatean %19 eta Mondragon Unibertsitatean %49. Enpresekin lanean diharduten ikertzaileen bi heren baino gehiago Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira.

- Produktibitate teknologikoak eta patente eta produktu deribatuen inguruko enpresa-proiektuek oso bilakaera positiboa izan dute, bereziki norbere titulartasuneko patenteen ingurukoek. Atal horretan azpimarratzekoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen pisua, patenteen %89 sortu baititu.

- Euskal unibertsitate-sistemek kontratupeko ikerketako diru-sarreretan bilakaera positiboa izan arren, finantzaketa-egituran duten pisua oso murritza da oraindik. Sistemaren ahulezia orokor horretan, salbuespen bakarra Mondragon Unibertsitatea da, diru-sarreren %15 kontratuen bidez lortzen baititu. Alabaina, azpimarratzekoa da Euskal Herriko Unibertsitateak kontratupeko diru-sarreretan izan duen hazkundea

32. 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin bat etorriz.

(gaur egun 12 milioi eurora heltzen da), eta baita ikerketako lehiaketa-deialdien bidez jasotzen duen finantzaketa ere (61,7 milioi euro 2007-2009 aldian); era berean, Europako eta nazioarteko proiektuetan ikertzeagatik jasotako finantzaketan ere dezente hazi da (2007-2009 aldian 11,8 milioi eurora heldu zen).

- Euskal unibertsitate-sistemako eragileen kokapena oso ezberdina da enpresa-sarearekin duten harremanari dagokionez: Mondragon Unibertsitatea da bere izaeraren muinean enpresekin lan egitea eta elkarlanean aritzea txertatuta duen sistemako unibertsitate bakarra. Bestalde, Mondragon Unibertsitatea hobetzeko oinarriak finkatzeko ahaleginetan dabil espezializatua dagoen eremuetan, eta Euskal Herriko Unibertsitateak hobetzeko tartea badu arlo horretan duen ahalmen osoa ustiatzeko. Urtean spin-off edo produktu deribatuen 6 enpresa sortzen dira batez beste, eta horrek agerian uzten du Euskal Herriko Unibertsitateak bere langileen artean izpiritu ekintzailea garatzeari eta enpresa berritzaileak zein oinarri teknologikoa duten enpresa berriak sortzeari ematen dion garrantzia.

- Uste aski hedatua da euskal unibertsitate-sistemak protagonismo handiagoa izan beharko lukeela ezagutza sortu eta hura enpresa-sareari transmititzeko ahaleginean.

- Gizartearekiko komunikazioari dagokionez, jakinik epe luzeko ahalegina dela eta norabide horretan etengabe lanean jarraitu behar dela[33], gizarteak unibertsitateari buruz duen pertzepzioaren inguruan ez da aldaketa handirik nabari. Ahulezia horretaz oharturik, eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana hobetzeko asmoz, Euskal Herriko Unibertsitateak Kultura Zientifikoaren Katedra sortu du oraindik orain.

Helburu horren inguruan unibertsitateen sentsibilitatea eta ibilbidea oso ezberdinak diren arren, oro har esan liteke **euskal unibertsitate-sistemak urrats adierazgarriak eman dituela bere ingurunearekin dituen harremanak hobetzeko**. Erreferentzia gisa ahalegin-adierazle guztiak hartuz, helburu horren betetze-mailari buruzko balorazioa positiboa da.

Edonola ere, datozen urteotan aipatu adierazleen bilakaera egiaztatu beharko da eta horien jokabidea ikusi, enpresen estrategiei erasango dien egoera ekonomiko kaskarrago batean.

Ikuspegi estrategikotik eta etorkizunari begira, zenbait erronkaren inguruan lanean jarraitzeko premia nabari da:

- Euskal unibertsitate-sistemak enpresekin lankidetzan jarduteko ahalegin handiagoa egin behar du, euskal berrikuntza-sistemako eragile nagusi bihurtzeraino; horrek kontratupeko diru-sarrerak handitzea ekarri beharko luke.

33. EUSeko unibertsitateek unibertsitatearen eta gizartearen arteko komunikazioa hobetzeko hainbat jarduera egin dituzte.

- Euskal unibertsitate-sistemak oro har eta unibertsitateek zehazki gizarteari beren lana erakusteko jarduerak garatzen jarraitu behar dute, lan hori ezagutzera emateko eta sistemak inguruneari egiten dion ekarpenari buruzko pertzepzioa hobetzeko. Alde horretatik, euskal unibertsitate-sistemak gizarteak bere jardunari buruz duen ikuspegiaren bilakaera ezagutu ahal izateko tresnak izan beharko lituzke[34].

Era berean, euskal unibertsitate-sistemak arlo horretan izan behar duen eginkizuna eta hura bete ahal izateko bilakaeraren erritmoak zehaztu beharko dira.

Euskal unibertsitate-sistemak pixkanaka, berrikuntza-sistemako beste eragile batzuen erritmo berberaz, aurrera egitea espero badugu, sistemako unibertsitateen lekua orain dutena izango da, gutxi aurreratuko dute. Ikuspegi horretatik, azken urteotan euskal unibertsitate-sistemak ingurunearekiko harremanetan izan duen bilakaera espero bezalakoa izan da.

Asmoa sistemak protagonismo handiagoa izatea bada, Euskal Autonomia Erkidegoko eragile zientifiko eta teknologiko nagusi bihurtzeraino, aldaketak azkarragoa izan beharko du unibertsitate bakoitzean, eta erakundeek behar diren baliabideak jarri beharko dituzte horretarako, edo gutxienez baliabide horiek eskuratzeko aukera eman, ezagutzaren eta teknologiaren transferentziaren arloan diharduten beste erakunde batzuekin lehian. Hizpide dugun aldaketa estruktural horri dagokionez, azken bi urteotan euskal unibertsitate-sistemaren bilakaera ez da nahi bezain positiboa izan.

**3-6 irudia. Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremana hobetzeko ahalegina erakusten duten adierazleak eta jarduerak**




| | △02-08 | CAGR |
|---|---|---|
| **BERD** | +%93 | %10 |
| **GOVERD** | +%148 | %14 |
| **HERD** | +%56 | %7 |
| **GERD** | +%88 | %9 |

CAGR: Urteko hazkunde-tasa konposatua (Compound Annual Growth Rate)
BERD: Enpresen gastua I+D arloan (Business Expenditures in Research and Development) - GOVERD: Gobernuaren gastua I+D arloan (Government Expenditure in Research and Development) - HERD: Unibertsitateen gastua I+D arloan (Higher Education Research and Development) - GERD: Gastua guztira I+D arloan (Gross Domestic Expenditure in Research and Development) - Ratioak: BPGarekiko %.

*Iturria: Eustat*

34. Euskal gizarteak bere unibertsitate-sistemari buruz duen pertzepzioaren jarraipen sistematikorik ez da egin. UPV/EHUko ikerketa-talde batek zeregin horri heldu dio, partzialki bada ere, Euskobarometro proiektuaren bidez. Talde horrek, 1996az geroztik eta urtez urte, UPV/EHUren irudi publikoaren jarraipena egiten du. Iturria: http://alweb.ehu.es/euskobarometro/

Hain zuzen, berrikuntza-sistema osoa ikuspegi orokor batez begiratuta ohartzen gara unibertsitateek I+G jardueran protagonismoa galdu dutela. Balio absolutuetan unibertsitateek I+G arloan gastua areagotu duten arren, hazkunde erlatiboa txikiagoa da beste sektore batzuekin alderatuta, hala nola enpresak eta gobernua. Izan ere, 2002-2008 aldian, unibertsitateek I+G arloan egindako gastua urteko %7 inguru hazi da, baina denbora-tarte berean euskal berrikuntza-sistemak egindako gastua %9tik gora hazi da.

### 3.3.6 Ikerketa: euskal unibertsitate-sistemaren produktibitate zientifiko eta teknologikoaren hazkuntza sustatzea

Euskal unibertsitate-sistemarako ikerketa-politika finkatu eta egituratzeko, 2007-2010eko Unibertsitate Planak euskal unibertsitateetan ikerketa sustatu eta nazioartera zabaltzeko estrategia bat proposatzen zuen; horrela, gainera, euskal unibertsitateek eskaintza zientifiko eta teknologiko osatuagoa eta lehiakorragoa egin ahal izango zuten.

Aldi horretan euskal unibertsitate-sistemaren bilakaera deskribatzen duten alderdi nabarmenenak hauek dira:

- Euskal unibertsitate-sistemak baliabide gehiago jarri ditu ikerketan, bere ikertzaileak hobeto prestatzen ahalegindu da eta produktibitate zientifiko eta teknologikoa areagotu du.
- Sistemak 2.827 ikertzaile ditu bere baitan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eragile zientifiko nagusia da. Ikertzaile horien ia %85 Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira.
- Unibertsitateetan daude euskal berrikuntza-sistemako I+G arloan diharduten langileen %25 eta ikertzaileen %35.
- Euskal unibertsitate-sistemako eragileen kokapena oso ezberdina da ikerketa-jarduerari dagokionez: eragile nagusia Euskal Herriko Unibertsitatea da, Mondragon Unibertsitateak transferentziari estuki lotutako ikerketa-jarduera garatzen du eta Deustuko Unibertsitatearen ikerketa-jarduna oso apala da.
- Euskal unibertsitate-sisteman, oro har, produktibitate zientifikoa hazi egin da, tesiei eta argitalpenei erreparatuta. 2009an, ISIren zerrendan 1.617 argitalpen argitaratu ziren. Edonola ere, ezagutzaren sorkuntza-maila hori Euskal Autonomia Erkidegoak estatuan duen pisuari begira berez dagokiona baino apalagoa da oraindik. 2008-2009 ikasturtean 335 tesi irakurri ziren, eta horrenbestez azken urteotako beheranzko joera apurtu da. Arlo horretako ia emaitza guztiak Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira, euskal unibertsitate-sistemako tesien %84 eta ISI argitalpenen %98 bertan sortuak baitira.
- Ikertzaileen produktibitatea ere hazi egin da, ikertzaileko 0,35 argitalpenera helduz; sistemaren batez besteko hori Euskal Herriko Unibertsitateak igotzen du, ikertzaileko

0,43 argitalpenez. Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea oso ahul ageri dira arlo horretan, 0,01 eta 0,08ko ratioez, hurrenez hurren.

- Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateek I+G arloan gauzatutako gastua BPGaren %0,28 da, eta Espainian, berriz, %0,32. Espainian, unibertsitateek I+G arloko guztizko gastuaren %26,7 egiten dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoan guztizkoaren %14,3 baino ez.

- Zazpigarren Esparru Programan, euskal unibertsitate-sistemaren itzulkinak Espainiako unibertsitateek lortutako guztizkoaren %4,2 dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza-sistemak lortutakoaren %7. Zazpigarren Esparru Programa horretan, euskal unibertsitate-sistemaren itzulkinen %90 baino gehiago Euskal Herriko Unibertsitateak lortzen ditu.

- Unibertsitateko ikertzaileek denbora gutxiago ematen dute ikerketa-jardunean enpresetako eta gobernuko ikertzaileek baino. Unibertsitatean ikerketan diharduten irakasle eta ikertzaileek batez beste beren denboraren %45 ematen dute jarduera horretan, eta enpresetakoek eta gobernukoek %70 eta %52, hurrenez hurren.

- Beren ezagutza-arloetan nazioartean erreferentzia diren ikerketa-taldeak badiren arren, euskal unibertsitate-sistemak, oro har, nazioartean oihartzun handiagoa lortu behar du bere ikerketa-jardueraz.

Alderdi horiek guztiak aintzat harturik, **esan liteke euskal unibertsitate-sistemak arlo horretako adierazle guztiak hobetu dituela, baina bere tamainagatik eta dituen baliabideengatik dagokiona baino pisu txikiagoa du, bai Espainiako unibertsitate-sistemarekiko bai euskal berrikuntza-sistemarekiko**.

Ikerketaren esparruan, euskal unibertsitate-sistemak erronka hauei erantzun beharko lieke 2011-2014 aldian:

- Bere ikerketa-jardueran nazioartean oihartzun handiagoa izan behar du.

- Nazioarteko zein Europar Erkidegoko programetan presentzia handiagoa izan behar du[35].

- Ingurunearekiko harremanen arloan bezala, geure buruari galdetu behar diogu hazkunde-erritmoak euskal unibertsitate-sistemaz espero denarekin bat datozen. Azken finean, baloratu behar da ikerketa-arloko ratioetan lortzen ari diren hazkundeak, hobekuntza bat adierazi arren, nahikoa ote diren.

35. Estatuko funtsen garrantzia ez da gutxietsi behar, hutsegitea bailitzateke deialdi nazionaletara ez agertzea europarretan egon ahal izateko.

### 3.3.7 Euskara: unibertsitatearen esparruan euskara sustatzea

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeak ez lituzke euskarazko irakaskuntzan eta ikerketan azken urteotan izan diren lorpenak kaltetu behar.

Printzipio horrekin bat etorriz, 2007-2010eko Unibertsitate Plan honen jarduera-eremuetako bat euskal unibertsitate-sisteman euskararen erabilera sustatzea da. Horri dagokionez, **euskal unibertsitate-sistemak euskararen eremuan ezarritako helburuak bete ditu**. Hala:

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek beren epe luzeko estrategietan jasotako jarduerak garatu dituzte.
- Proposatutako jarduera guztiak gauzatu dira.

2011-2014 aldiari begira, adierazle eta jomuga zehatzak ezarri behar dira. Bestalde, euskarazko irakaskuntza-eskaintza Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan ezarritako kalitate-irizpideetara nola egokitzen den baloratu beharko da, eta arreta berezia jarri beharko zaio lehen eta bigarren hezkuntzan euskaraz eskolatutako ikasleen hazkundeari, horrek, era berean, euskarazko eskola-eskariaren hazkundea ekar baitezake euskal unibertsitate-sistemara. Azkenik, aintzat hartu beharko da euskara irakas-hizkuntza duten beste lurralde batzuetan kokatutako unibertsitateekin elkarlanean aritzeko aukera.

Euskararen sustapenean pilatutako eskarmentua eta gaitasunak baliatu behar dira euskal unibertsitate-sisteman hirueletasuna sustatzeko.

## 3.4 UNIBERTSITATE PLANAREN BIDEZ GARATUTAKO JARDUEREN ANALISIA: BALORAZIO OPERATIBO BAT

Ebaluazio operatiboak Unibertsitate Planean jasotako jardueren garapen-maila eta funtzionamendua baloratzen ditu. Azterketa honek plana errealitatean zein neurritan gauzatu den eta tresnek, gobernantzakoek barne, nola funtzionatu duten jakiteko balio du. Azterketaren bidez argituko da erabilitako tresnek sortuak izan ziren xedea betetzeko baliagarriak izan diren.

Horretarako, jarraian Unibertsitate Planaren esparruan garatu diren jarduerak deskribatuko dira, horien funtzionamenduaren balorazio laburra egingo da eta etorkizunean

euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek –Euskal Herriko Unibertsitateak zein unibertsitate pribatuek– kontuan izan beharreko alderdiak identifikatzen dira.

Ondorio nagusiak atal honen azken zatian laburbildu dira.

## 3.4.1 Euskal Herriko Unibertsitateari laguntzeko berariazko ekintzen garapena

2007-2010eko Unibertsitate Planaren jarduera-eremuetako bat Euskal Herriko Unibertsitaterako finantzaketa-esparru egonkor bat sortzea da. Zehazki, eremu horren helburua Euskal Herriko Unibertsitatea finantzatzeko esparru egonkor bat taxutzea da, unibertsitate publikoak bere helburuak lortzeko ahalmen handiagoa izan dezan.

Horretarako, 2007-2010eko Unibertsitate Planean proposatzen den finantzaketa-esparrua otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, ezarritako ildoei jarraitzen zaie. Horrenbestez, 2007-2015 aldirako bere helburuak betetzea eta kalitatea hobetzea ahalbidetuko dion finantzaketa-eredu bat bermatzen zaio Euskal Herriko Unibertsitateari.

Eredu horrek ondorengo helburuak ditu:

- Euskal Herriko Unibertsitatearen **finantza-nahikotasuna** bermatzea eta, horretarako, unibertsitatearen zerbitzu publikoa emateak dakarren kostuari behar bezala aurre egiteko finantza-baliabideak eskaintzea.

- Finantzaketa hori, nahikoa izateaz gain, gastu publikoan **efizientzia-maila optimoetara** heltzeko moduan aplikatzen dela bermatzea eta Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduera bikaina eta kalitatezkoa izateko pizgarri egokiak sortzea.

- **Finantzaketa-eredua bidezkoa** dela eta unibertsitate publikoak eskaintzen dituen zerbitzuekin bat datorren finantzaketa publikoa jasotzen duela bermatzea.

- Azkenik, tartean diren baliabide publikoen kudeaketan **ahalik eta gardentasun eta kontrol handiena ziurtatuko duten mekanismoak** daudela bermatzea, unibertsitateek eta horiek finantzatzen dituen administrazioak erantzukizuna ahalik eta gehien partekatuz.

Finantzaketa-ereduak hiru osagai ditu: ekarpen arrunta, inbertsioen finantzaketa eta programa-kontratuen bidezko finantzaketa osagarria.

**3-7 irudia. 2007-2010eko Unibertsitate Planean Euskal Herriko Unibertsitaterako ezarritako finantzaketa-esparruaren mekanismoen deskribapena**

| EKARPEN ARRUNTA | INBERTSIOEN FINANTZAKETA | PROGRAMA-KONTRATUEN BIDEZKO FINANTZAKETA OSAGARRIA |
|---|---|---|
| ▶ **HELBURUA**<br>UPV/EHUren eragiketa arruntak ordaindu eta finantzatzea, nahikotasun-printzipioarekin bat etorriz<br>▶ **FUNTZIONAMENDUA**<br>Kalkulua input-adierazleetan oinarritutako formula baten bidez egiten da: IIL, AZL, gastuak ikasleko eta abar. Aurrez adostutako langile-gehikuntza barne hartzen da<br>Formula hau Jaurlaritzaren aurrekontu-baliabideen araberako parametro baten bidez haztatzen da[36] | ▶ **HELBURUA**<br>Unibertsitate-jarduerak behar dituen inbertsioak eta azpiegiturak ordaintzea; finantzaketa hori berariaz jasota dago 2006-2010eko Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programan<br>▶ **FUNTZIONAMENDUA**<br>Baldintzapeko inbertsioak eta baldintzatu gabekoak bereizten dira. Lehenak ordaintzeko, beste iturri batzuetatik funts gehigarriak lortu behar dira. Bigarrenak osorik sail horri emandako funtsez ordainduko dira | ▶ **HELBURUA**<br>Arlo hauetako jarduerak finantzatzea: ikerketa eta transferentzia teknologikoa, euskara, irakaskuntzaren berrikuntza, unibertsitateen nazioartekotzea, unibertsitate-zerbitzuen modernizazioa, unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana, eta kalitatea eta kudeaketa<br>▶ **FUNTZIONAMENDUA**<br>Hitzartutako jarduerak aurrez adostutako adierazleetan ezarritako jomugen betetze-mailaren arabera finantzatuko dira |

*Iturria: 2007-2010eko Unibertsitate Plana*

Euskal Herriko Unibertsitateari egin beharreko ekarpen arrunta, inbertsiorako eta azpiegituretarako finantzaketa eta programa-kontratuen bidezko finantzaketa osagarria zehazteko irizpideak aldatu egin ahal izango dira, aurrekontu arruntaren eta horren behin betiko gauzatzearen artean ikusten diren aldeen arabera, Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programa gauzatzeko prozesuan sortutako premien eta prozesuak duen bilakaeraren arabera eta programa-kontratuetan ezarritako helburu edo jardueretan gertatzen diren aldaketen arabera.

3-8 irudian, finantzaketa-ereduaren betetze-maila erakusten da, 2007-2010eko Unibertsitate Plana indarrean egon den lehen hiru urteetan.

36. Formula horretan konstante bat (k) ezartzen da azpiegituretan inbertitzeko, urteko 12 milioi eurokoa 2007-2010 aldirako.

### 3-8 irudia. 2007-2009ko Unibertsitate Planaren bidez Euskal Herriko Unibertsitateari emandako finantzaketaren laburpen ekonomikoa

| UPV/EHU | 2007 | | 2008 | | 2009 | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | Unibertsitate Plana | GAUZATUA | Unibertsitate Plana | GAUZATUA | Unibertsitate Plana | GAUZATUA[37] | Unibertsitate Plana | GAUZATUA[38] |
| Gastu arruntetarako ohiko diru-laguntza | 242.072.333 | 242.072.333 | 252.801.261 | 252.801.261 | 263.102.260 | 263.102.260 | 757.975.854 | 757.975.854 |
| Kapital-gastuetarako ohiko diru-laguntza | 12.000.000 | 12.000.000 | 12.000.000 | 12.000.000 | 12.000.000 | 12.000.000 | 36.000.000 | 36.000.000 |
| Langile-kopuru handitzea (AZL eta ikertzaileak) | 0 | 0 | 5.494.078 | 0 | 8.010.424 | 1.809.960 | 13.504.502 | 1.809.960 |
| Diru-laguntza osagarria (programa-kontratuak) | 10.054.681 | 9.838.113 | 11.453.000 | 11.348.329 | 14.539.000 | 14.409.401 | 36.046.681 | 35.595.843 |
| Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programa | 14.400.000 | 10.135.338 | 18.000.000 | 18.000.000 | 22.000.000 | 22.000.000 | 54.400.000 | 50.135.338 |
| Inbertsiorako Urte Anitzeko Programaren interesak | 0 | 0 | 2.210.778 | 0 | 2.468.069 | 0 | 4.678.847 | 0 |
| Inbertsiorako Urte Anitzeko Programaren mailegu-kontratuak | | | | 10.062.369 | | 7.593.451 | 0 | 17.655.820 |
| GUZTIZKOAK | 278.527.014 | 274.045.784 | 301.959.117 | 304.211.959 | 322.119.753 | 320.915.072 | 902.605.884 | 899.172.815 |

*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*[39]

Jarraian, Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparruko hiru osagaiek 2007-2009 aldian izandako bilakaera azalduko dugu.

**Ekarpen arrunta kontabilizatze aldera taxututako formula ez da abian jarri**.

Atal honetan, unibertsitatearen gastu arruntak eta kapital-gastuak ordaintzeko ekarpenak jasotzen dira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Unibertsitate Planean azalpen horretarako jasotako kopuruen %100 ordaindu du, guztira 793,9 milioi euro 2007-2009 aldian.

37. Ordura arte gauzatutakoaren eta gauzatzeke dauden erreserbatutako zenbatekoen batura.
38. Ordura arte gauzatutakoaren eta gauzatzeke dauden erreserbatutako zenbatekoen batura.
39. Unibertsitate Planaren bilakaerari buruzko txostena, atal hauetan: ekarpen arrunta (2007-2010), inbertsioen finantzaketa (2006-2010), UPV/EHUko programa-kontratua (2007-2009).

Ekarpen arrunteko mekanismo horren kudeaketan ez zaio Planean ezarritako prozedurari jarraitu, **zenbatekoa zehazte aldera taxututako formula ez delako oraindaino aplikatu**. Horren ordez, kontusailaren zenbatekoa Finantzaketa Arruntaren Jarraipen Batzordean zehaztu da, Euskal Herriko Unibertsitatearen beharrizanak eta Eusko Jaurlaritzaren finantza-baliabideak aintzat hartuta.

Langile-kopurua handitzeko hornidurari dagokionez, 2008an ez zen horretara emandako zenbatekotik batere erabili, eta 2009an gauzatutako kopurua ez da %23ra iristen. Planean ezarritakoarekin dagoen alde hori langileak kontratatzeko erritmoetan egin diren atzerapenei zor zaie. Horrenbestez, 2007-2009 aldian, Planean proposatutakoa baino 12 AZL gehiago kontratatu ditu Euskal Herriko Unibertsitateak, eta xedatutako 22 IILetatik bat bera ere ez.

### 3-9 irudia. Langile-gehikuntzaren gauzatze-maila, 2007-2010

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | TOTAL | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | (1) | (2) | (1) | (2) | (1) | (2) | (1) | (2) | (1) | (2) |
| AZL | 0 | 0 | 130 | 0 | 37 | 179 | 38 | 0 | 205 | 179 |
| IIL[40] | 0 | 0 | 12 | 0 | 10 | 0 | 10 | 25 | 32 | 25 |
| GUZTIZKOAK | 0 | 0 | 142 | 0 | 47 | 179 | 48 | 25 | 237 | 204 |

(1): Unibertsitate Planean ezarritakoa
(2): Errealitatean gauzatutakoa




*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*[41]

Unibertsitate Plan berriari begira beste mekanismo batzuk aurkitu behar dira **kontratazio-prozesuek eragindako zailtasunak gainditu ahal izateko**, are arrazoi handiagoz proposatu den langile-kopuruaren hazkundea egokia dela uste denean.

**Inbertsioen finantzaketak Unibertsitate Planean ezarritako helburuak bete ditu**.

Finantzaketa horren xedea da Planean 2006-2010 aldirako zehaztutako unibertsitate-jarduerarako behar diren inbertsioak eta azpiegiturak ordaintzea, Eusko Jaurlaritzak 2012ra arte jarriko dituen urte anitzeko konpromiso-kredituen bidez[42].

40. Akordioa, 2009ko apirilaren 20koa, Uniqual-en Administrazio Kontseiluarena, ikertzaileak ebaluatu eta egiaztatzeko deialdia onartu eta argitaratzekoa.
41. Unibertsitate Planaren bilakaerari buruzko txostena, atal hauetan: ekarpen arrunta (2007-2010), inbertsioen finantzaketa (2006-2010), UPV/EHUko programa-kontratua (2007-2009).
42. Programa horren jarraipen-batzordea sistematikoki biltzen da, honakoak ezagutzeko: gauzatzearen bilakaera, onartutako programara aldaketa ekarriko duten moldaketak eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideetara egokitzea.

**3-10 irudia. 2006-2010eko Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programaren finantzaketa lehen bost urteetan[43]**

| UPV/EHU | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gauzatua | 1.340.412 | 16.422.552 | 26.039.816 | 29.593.451 | 21.829.376 |
| Aurrekontua | 1.340.412 | 14.400.000 | 17.999.999 | 22.000.000 | 16.848.546 |
| Aldea (aurrek./gauz.) | 0 | -2.022.552 | -8.039.817 | -7.593.451 | -4.980.830 |
| 1. mailegu-kontratua | | | -10.062.639 | | |
| 2. mailegu-kontratua | | | | -7.593.451 | |
| Banketxe pribatu batek emandako mailegua | | | | | -4.980.830 |

*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila[44]*

Kontusail horren gauzatze-maila aztertzean ikusten da 2006. urtean aurrekontuan sartutako kopuru bera gauzatu zela (ikus 3-11 irudia). Gainerako ekitaldietan, hasiera batean aurrekontuan jasotakoak baino kopuru handiagoak gastatu dira. Planaren eta zenbateko osoaren banaketan dagoen desfaseari zor zaio hori; izan ere, Plana 2010ean burutzekoa da, baina Eusko Jaurlaritzak onartutako urte anitzeko konpromiso-kredituak 2012ra artekoak dira. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean bi mailegu-kontratu izenpetu dira, hain zuzen ere urteroko kopuruak aurreratzeko; beraz, kontratuak 2011 eta 2012ko urterokoekin amortizatuko dira.

Bestalde, Planean jasota dagoen inbertsiorako urte anitzeko programaren interesak finantzatzeko kontusailaren ezein kopuru ez da gauzatu. Horri dagokionez adierazi behar da kopuru hori Planean sartu zela Eusko Jaurlaritzak, aurreko paragrafoan azaldutako desfasea gertatuko zela oharturik, bere gain hartu zuelako unibertsitateak jasan beharko zuen zorpetzearen interesen ordainketa. Gerora erabaki zen maileguak Eusko Jaurlaritzak berak ematea, eta horregatik kontusail hori ez da gauzatu.

43. Zenbatekoaren azken kalkulua egiteke dago.
44. Unibertsitate Planaren bilakaerari buruzko txostena, atal hauetan: ekarpen arrunta (2007-2010), inbertsioen finantzaketa (2006-2010), UPV/EHUko programa-kontratua (2007-2009).

### 3-11 irudia. Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Planaren gauzatze-maila







*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*[45]

Jardunbide honen ondorioz, Euskal Herriko Unibertsitatearen inbertsio eta azpiegituretarako gauzatze-maila, 2010aren amaieran, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean esleitutako kredituak baino %19 gehiago da (ikus 3-11 irudia).

Balorazioa egiteko orduan, **finantzaketa-mekanismo horren funtzionamendua eta Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programaren Jarraipen Batzordeak egindako lana egokiak izan dira aldi horretan, eta hasieran ezarritako helburuak bete dira**.

Etorkizunari begira, eta hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak 2007-2010eko Unibertsitate Planaren hasieran zirenak baino apalagoak izaki, **analisi are zorrotzagoa egin beharko da diruz lagundu beharreko azpiegiturak identifikatzeko orduan**.

**Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzen laguntzeaz gain, Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen funtzionamenduak ezarritako jomugak bete ditu[46], bereziki ikertzaileen trebakuntzari eta ikerketaren sustapenari dagokienez**.

Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen xedea Irakaskuntza, Euskara eta Ikerketa eta Nazioartekotzea bultzatzeko jarduerak babestea da. Jarduera horiek irakaskuntza, euskara eta ikerketaren arloak barne hartzen dituzten hiru programa-kontraturen bidez egituratu dira.

45. Unibertsitate Planaren bilakaerari buruzko txostena, atal hauetan: ekarpen arrunta (2007-2010), inbertsioen finantzaketa (2006-2010), UPV/EHUko programa-kontratua (2007-2009).
46. Idem.

Indarrean egon diren lehen hiru urteetan, Euskal Herriko Unibertsitateak Planaren amaierarako ezarritako jomugak lortu ditu hiru programa-kontratuetan jasotako adierazleen %71n[47].

Ezarritako helburuei erreparatuz, Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduna hobea izan da euskararen eremuan eta okerragoa ikerketarenean.

Horren erakusgarri, eta adierazleen joera aintzat hartuz, programa-kontratu bakoitzaren funtzionamendua honakoa izan da:

- **Irakaskuntza**. Oro har funtzionamendu egokia izan du, eremu horretan lortu nahi zen helbururako estrategikoa ez zen adierazleren batean izan ezik.
- **Euskara**. Unibertsitate Planaren amaierarako jomugen artean, adierazle batean soilik ez da oraindik helburua lortu, euskarazko ardatz-kredituen eta nahitaezkoen kopuruari dagokionean hain zuzen. Adierazle horretan %15,72 aurreratu da 2006-2007 ikasturteko datuekiko, eta azken helburua %16ra iristea da.
- **Ikerketa**. Programa-kontratu honetan, Euskal Herriko Unibertsitateak xede-helburuen %71,4 lortu du Plana amaitu baino urtebete lehenago. Azpimarratu behar da zazpi adierazleetatik bostean garbi bete direla laurtekorako ezarritako helburuak, zehazki hauetan: prestatzen ari diren ikertzaileak eta ikertzaile doktoreak, ISIren zerrendan argitaratutako artikuluak, norbere titulartasunarekin erregistratutako patenteak, irakurritako tesiak eta enpresa-munduan lanean diharduten edo enpresetarako proiektuak egiten ari diren ikertzaileak.

47. 2007an nahiz 2008an, 23 adierazletik 16 bete dira.

**3-12 irudia. Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2010 aldian**




*Iturria: Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailari buruzko txostena*

Adierazleen bilakaerari erreparatuz, ezarritako helburuak betetzen zailtasun handienak izan dituztenak hauek dira:

- **Irakaskuntza**. Graduko ikasketak egitera Euskal Herriko Unibertsitatera datozen Latinoamerikako ikasleen kopurua. Ebaluatutako 3 ikasturteen aldian helburu orokorra bete ez den arren, aurreko joera negatiboa hautsi da.

- **Euskara**. Helburuen %100 bete dira.

- **Ikerketa**. Ikerketa-kontratuen zenbatekoa neurtzen duen adierazlearen datuak 2006-2007 ikasturtekoak baino apalagoak dira.

Ikuspegi ekonomikotik:

- 2007. urtean, gastuaren gauzatze-maila, programa-kontratu guztietan, %95etik gorakoa izan da; euskaran %100ra iritsi da, eta ikerketan %99,9ra.

- 2008an, irakaskuntzako programa-kontratuaren gauzatze-maila aurrekontuan jasotakoaren %98 izan da, aurreko urtean programa-kontratu berean gauzatutakoa (%95) gaindituz. Euskara sustatzeko programa-kontratuaren kasuan, aurrekontuaren %99,9 gauzatu da, eta %100 ikerketako programa-kontratuan.

- 2009. urtean, gauzatze-maila %99 izan da irakaskuntzan, %69,11 euskaran eta %85,37 ikerketan. Erreserbatutako zenbatekoak aintzat hartuz gero, gauzatze-mailak %100 ingurukoak dira kasu guztietan.

**3-13 irudia. Programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2009 aldian**




*Iturria: Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailari buruzko txostena*

Programa-kontratuen bidez lortu nahi ziren jomuga guztien artetik, **Euskal Herriko Unibertsitateak ez du bete enpresekiko harremana sendotzeko helburua, eta hori aintzat hartu beharko da plan berriko programa-kontratuak zehazteko orduan. Alde horretatik, bere ikerketa-gaitasunean egindako aurrerabideak eta transferentziarako zenbait azpiegitura abian jarri izanak helburu hori lortzen lagundu beharko lukete**.

Bestalde, ikuspegi operatiboago batetik, programa-kontratuen baitan egindako ekintzen ebaluazioa esanguratsua eta eraginkorragoa izan dadin, adierazle hauek berraztertu beharko lirateke:

- **Irakaskuntza**. Doktoregoetan matrikulatutako ikasle atzerritarrak eta bibliotekarako erositako liburuak.
- **Euskara**. Lanaldi osoko irakasle eta ikertzaile elebidunen ehunekoa.
- **Ikerketa**. Irakurritako tesi-kopurua.

Kasu honetan, adierazle bakoitzean urteko jomugak behar bezala xedatu beharko dira.

## 3.4.2 Euskal unibertsitate-sisteman publikoak ez diren unibertsitateei laguntzeko jarduerak garatzea

2007-2010eko Unibertsitate Planaren jarduera-eremu estrategikoetako bat da euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekin harreman-esparru egonkor bat eratzea. Horretarako, Unibertsitate Planak programa-kontratuak erabiliko ditu, emaitzen araberako finantzaketa-tresna gisa.

Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekin –Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea– ezarritako harreman-esparru hori ezberdina da unibertsitate bakoitzean. Izan ere, unibertsitateek programa-kontratu ezberdinak dituzte, horien baitako jarduerak ezberdinak dira eta ezarritako adierazleak eta jomugak ere ezberdinak dira.

Beraz, programa-kontratuen bidez egindako aurrerabidearen balorazio orokor bat egin daiteke, baina adierazleen betetze-mailan oinarritutako unibertsitateen jardunaren alderaketa bat ezin da egin, adierazleak eta jomugak ezberdinak izateaz gain horien zailtasun-mailak ere ezberdinak direlako.

Bi kasuotan, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean, programa-kontratuen funtzionamendua positibotzat jo daiteke. Era berean, ezarritako jomugen betetze-maila ere altua izan da.

**Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuek behar bezala bete dituzte ezarritako helburuak, eta produktibitate zientifikoan egindako aurrerabidea azpimarratu behar da**.

Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuen xedea da irakaskuntzaren kalitatea hobetzen, euskara sustatzen eta ikerketa eta transferentzia teknologikoa bultzatzen laguntzea, eta horretarako berariazko hiru programa-kontratu ditu: irakaskuntzakoa, euskara sustatzekoa eta ikerketa eta transferentzia teknologikokoa.

Plana burutu baino urtebete lehenago, Deustuko Unibertsitateak aldi osorako ezarritako jomugen %75 lortu ditu ikerketa-adierazleetan, %66 irakaskuntza-adierazleetan eta %50 euskarakoetan.

Hiru programa-kontratuetan lortutako emaitzak azterturik ondoriozta daiteke betetze-maila aldatzen joan dela. Irakaskuntzako programa-kontratuari dagokionez, ikasturte bakoitzean betetze-maila hori nabarmen areagotuz joan da, euskara sustatzekoan, berriz, 2009-2010 ikasturtean –azkenekoa– betetze-maila apalagoa izan da, eta gauza bera gertatzen da ikerketa eta transferentzia teknologikoari buruzkoan ere, non betetze-mailak aztertutako lehen ikasturtetik egin baitu behera.

Joera logikoa da inondik ere, markatutako helburuak baino balio askoz altuagoak lortu baitzituzten adierazle horiek aurreko ikasturteetan, eta beraz 2008-2009 ikasturtean normala da urteko helburuak baino balio apalagoak lortzea. Kasu guztietan, Deustuko Unibertsitatea %50era edo hortik gorako ehunekoetara heldu da, eta alde horretatik nabarmentzekoa da betetze-maila oso altua izan dela azterketa orokorra egiten badugu, hau da, aztertutako azken ikasturtea, 2009-2010, eta lehenengoa, 2007-2008, erlazionatuz, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez.

Horrenbestez, ikuspegi ekonomikotik, programa-kontratu guztietan gauzatze-maila %100ekoa izan da.

**3-14 irudia. Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2010 aldian**

**Adierazleen gauzatze maila**




**UPren xede-helburuen egoera 2009ko ebaluazioan**




*Iturria: Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailari buruzko txostena*

Adierazleen bilakaerari erreparatuz, ezarritako jomugak lortzen zailtasun handienak izan dituztenak hauek dira:

- **Irakaskuntza**. Graduko ikasketak egitera unibertsitatera datozen Latinoamerikako ikasleen kopuruari lotutakoak.
- **Euskara**. Euskaraz argitaratutako unibertsitateko eskuliburu- eta liburu-kopuruaren adierazlearen helburuak ez dira bete ikasturte horietan: urtean %10 hazi beharrean, bere horretan mantendu da edo behera egin du.
- **Ikerketa**. Adierazleak orokorrean aztertuz gero, helburu guztiak aise bete dira, 2009-2010 ikasturtean zenbait adierazlek, irakurritako tesienak kasu, aurreko ikasturtekoarekiko behera egin duten arren. Edonola ere, aztertutako hiru ikasturteetan produkzioa %112,5 igo da.

Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuetan hobetu beharreko zenbait alderdi edukiaren beraren ingurukoak dira; izan ere, ezarritako zenbait adierazlek eta jomugak ez dute beren xedearekin lotura handirik, eta unibertsitateak egindako ahaleginaren ikuspegi partzial eta desitxuratua ematen dute.

Beste elementu interesgarri batzuk ere badiren arren, abiapuntua kontuan hartuz eta egindako aurrerabide nabarmena baloratuz, **programa-kontratuetan etorkizunean mantendu eta sendotu beharreko erronka bat da Deustuko Unibertsitatearen produkzio zientifikoa areagotzea**. Era berean, eta gaur egungo programa-kontratuen bilakaera logiko moduan, **enpresekiko harremanarekin zerikusia duten jomugek gero eta garrantzi handiagoa izan behar du**, eta enpresekiko transferentzia-jarduera horretan baliabideak jarri beharko dira kontuan hartuz, arloan diharduten ikertzaileak ez ezik, jarduera horretan lortutako emaitzak.

**Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuak oso baliagarriak suertatu dira unibertsitatea Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko prozesuari begira**.

Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen xedea irakaskuntzaren kalitatea eta ikerketa eta transferentzia teknologikoa bultzatzeko jarduerak babestea da, bi programa-kontraturen bidez: irakaskuntza, eta ikerketa eta transferentzia.

Plana burutu baino urtebete lehenago, Mondragon Unibertsitateak aldi osorako ezarritako jomugen %80 lortu ditu bi programa-kontratuen adierazleetan.

**3-15 irudia. Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailaren bilakaera 2007-2010 aldian**




*Iturria: Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen gauzatze-mailari buruzko txostena*

Irakaskuntzako programa-kontratuan, aztertutako lehen ikasturtean lau urtetarako ezarritako helburuak lortu ziren jada; hurrengo ikasturteetan (2008-2009 eta bereziki 2009-2010ekoan), helburuak lortzeko zailtasun handiagoak izan dira. Izan ere, zenbaitetan ikasturte batean hazkunde handia izateak hurrengo ikasturteetako emaitzak baldintzatzen ditu. Era berean, ikerketako programa-kontratuan aise gainditu dira adierazle guztietarako ezarritako helburuak, batean izan ezik.

Programa-kontratuen gauzatze-maila %100ekoa izan da Planaren lehen bi urteetan, eta horrek 5.150.000 € ekarri dizkio Mondragon Unibertsitateari[48].

Ezarritako helburuak lortzeko zailtasun handienak izan dituzten adierazleak hauek dira:

- **Irakaskuntza**. Graduondoko ikasketak egiteko matrikulatu diren ikasleak.

- **Ikerketa eta transferentzia teknologikoa**. Erakunde, enpresa eta zentro teknologikoekin elkarlanean proiektuak garatzen dituzten goi-mailako ikerketa-taldeak.

Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen bilakaera positiboa izan da; taxututako jardueren garapen-maila eta ezarritako jomugen betetze-maila aipagarriak izan dira.

**Etorkizunari begira, programa-kontratuetan mantendu beharreko erronka bat da Mondragon Unibertsitatearen produkzio zientifikoa areagotzea**. Ikerketaren eremu berean, **enpresekiko harremanen inguruan anbizio handiagoko helburuak edo adierazle berriak ezartzea** gomendatzen da, lortutako emaitzak identifikatzea ahalbidetuko duen ikuspegi finalistago batez[49]. Era berean, beste eragile batzuekiko alderaketan aurrera egin eta ezagutza-eremu jakin batzuetako ikerketa-jardueran bikaintasuna maila kolektiboan baloratu ahal izateko, goi-mailako taldeak kontabilizatzea gomendatzen da, horien jarraipena egin ahal izateko.

48. 2007an eta 2008an, programa-kontratuak MUren aurrekontu osoaren %7,21 eta %9,3 ziren, hurrenez hurren.
49. Esaterako, azpikontratazio-maila, zenbat enpresarekin dabilen elkarlanean, zenbat enpresarekin duen lankidetza-akordio egonkor bar, parte-hartzea CENIT proiektuetan, esparru-programa eta abar.

### 3.4.3 Unibertsitate Planaren ezarpen-mailari eta haren tresnen funtzionamenduari buruzko ondorio nagusiak eta balorazio operatiboa

Aurrez adierazi moduan, 2007-2010eko Unibertsitate Planak bi maila ditu: helburu nagusia eta lehentasunezko jarduera-eremuak sistemaren mailan zehazten dira, eta jarduerak eta jomuga zehatzak, berriz, unibertsitate bakoitzean.

Sistema osoaren ikuspegitik planaren helburu nagusia barne hartzen duen lehenengo maila horretan, planaren ezarpena eta haren definizio estrategikoa gauza bera dira, maila horretan helburu eta tresnarik ez baitago.

Sistemako unibertsitate bakoitzerako taxututako jardueren maila zehatzagoari dagokionez, abian jarri zenetik hona plana hein handi batean gauzatu da. Maila horretan, plana hiru oinarriren inguruan garatuko da: Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkorra ezartzea, sistemako unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra ezartzea eta planaren gobernantza-organoak abian jartzea.

**Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkorrari** eta haren baitako tresnei dagokienez:

- **Finantzaketa arruntari** esker, Euskal Herriko Unibertsitatearen finantza-iraunkortasuna bermatu da.
- **Inbertsio Planaren** finantzaketak bere helburuak bete ditu; izan ere, aurrekontu-sailak gauzatzeari dagokionez, azpiegiturak aurrez ezarriitako erritmoan baino bizkorrago garatu dira.
- **Programa-kontratuen bidezko finantzaketa osagarria** espero bezala garatu da, aurrekontu-sailak gauzatzeari dagokionez. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitateak programa-kontratuetan ezarritako jomuga gehienak betetzea lortu du, eta jarduera horren eragina bereziki lagungarria izan da Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko bidean.

**Unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra** programa-kontratuen garapenean oinarritzen da. Programa-kontratuen betetze-mailari dagokionez, bai Deustuko Unibertsitateak bai Mondragon Unibertsitateak:

- Aurrez ezarritako jarduerak burutu dituzte.
- Ezarritako jomugak betetzea lortu dute.

- Beren jardunaren erabateko onespena lortu dute, ezarritako finantzaketaren gehieneko kopurua eskuratuta.

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan behar bezala txertatzea lortu dute, programa-kontratuen bidez jaso duten babesari esker.

**Euskal unibertsitate-sistemako hiru unibertsitateetako programa-kontratuek ezaugarri komunak** dituzte; beraz, jarraian plan berria taxutu eta kudeatzeko orduan kontuan izan beharko liratekeen ondorio orokor batzuk aipatuko dira:

- Batzuetan, aurreko erreferentziarik ez izateagatik, ezarritako jomugak ez dira egokienak izan.

- Programa-kontratuetan jasotako jardueren eta horien adierazle eta jomugen arteko lotura nahasgarria suertatu da zenbaitetan.

- Programa-kontratuen adierazleen ebaluazioa urtez urteko hazkundea, eta ez oinarri-urtea, aintzat hartuz egin da, eta beraz xedatutakoaz gaindiko betetze-maila, saritua baino, kaltetua suertatu da.

- Programa-kontratuetan aldaketak egiteko zenbait izapide admnistratibo eta burokratiko egin behar dira, eta horiek zuzendu beharra dago, malguagoak izan daitezen.

- Programa-kontratuak ebaluatzeko orduan, jarraipen-batzordeen zeregin bakarrak jardueretan gastuen frogagirien kontrol administratiboa egitea eta jarraipen-adierazleak egiaztatzea dira, eta alde horretatik analisi estrategikoago bat falta da.

- Unibertsitate bakoitzak bere indarguneak eta ahulguneak dituenez, programa-kontratuen bilakaera aztertzean kontuan izan behar dira gaur egungo programa-kontratuetan antzeman diren hobekuntzak.

- Programa-kontratuak beste eremu batzuetara hedatzeko aukera aztertu behar da, gaur egungo eremuetatik harago (irakaskuntza, euskara, eta ikerketa eta transferentzia).

**3-16 irudia. 2007-2009 Unibertsitate Planaren finantzaketaren gauzatze-maila tresna-motaren arabera**




*Iturria: Egileek landua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa-kontratuen gauzatzeari buruz egindako txostenetan oinarrituta*

Planaren eragina baloratzea ez da zeregin hutsala; izan ere, plana beste jarduera batzuek baldintzaturik dago, eta jarduerok, gainera, ezarritako helburuetan eragiten dute. Alde horretatik, aurrez adierazi moduan, euskal unibertsitate-sistemaren bilakaera, eta 2007-2010eko Unibertsitate Planean jasotako jarduera-eremu bakoitzean lortu nahi diren helburuen bilakaera, ez dute planak bultzatutako jarduerek soilik baldintzatzen; eragina dute, halaber, Jaurlaritzak bultzatutako beste jarduera batzuek, estatuko eta Europar Erkidegoko programek eta jarduerek eta, jakina, euskal unibertsitate-sistemako eragile bakoitzak bere kabuz burututako berariazko jarduerek.

Hitz batez, programa-kontratuak xedeekin eta plangintza estrategikoarekin lotura handiena duten tresna dira. Horrez gain, baliabide gutxien emango zaion tresna ere bada. Guztira, 2007-2009 urteetan programa-kontratuek 52 milioi euro baino gehixeago mugitu dituzte.

## 3.4.4 Planean aipatu gabeko beste jarduera batzuk

Programa-kontratuen bidez garatu diren irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko, unibertsitateak nazioartera zabaltzeko, unibertsitate-zerbitzuak modernizatzeko eta kalitate-sistemak bultzatzeko jardueren asmo nagusia izan da euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateei Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko prozesuan laguntzea; programa-kontratuen bidez banatutako funtsen %60 baino gehixeago jarduera horietarako eman da, guztira 52 milioi euro.

Baliabide gehien erakarri duen bigarren jarduera-eremua ikerketa izan da, finantzaketaren %38,07 hartuz, eta, jarraian, euskararen sustapena (%3,61) eta enpresaren eta gizartearen arteko harremana (%1,82).

**3-17 irudia. Programa-kontratuen funtsen banaketa jarduera-eremuka. 2007-2009 urteak**




*Iturria: Egileek landua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa-kontratuen gauzatzeari buruz egindako txostenetan oinarrituta*

Bistan denez, programa-kontratuen bidez egindako jarduerak ez dira euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek jaso duten laguntza bakarra. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak deialdi eta akordio batzuk sustatu ditu, horiek ere izaera finalista dutenak. Kontusail horiek programa-kontratuetakoenei gehituta, guztizkoa 93 milioi inguruko kopurua da.

**3-18 irudia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funtsen banaketa euskal unibertsitate-sistemako eragileen artean, eta partiketa eremuka. 2007-2009 urteak**




*Iturria: Egileek landua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa-kontratuen gauzatzeari buruz egindako txostenetan oinarrituta*

Beraz, euskal unibertsitate-sistemak izaera finalista duten beste tresna batzuen onura jaso du, eta tresna guztiak gehituz gero, azken kopurua programa-kontratuen bidez gauzatutako finantzaketaren halako bi da.

Horrez gain, euskal unibertsitate-sistemako eragileek finantzaketa osagarria izan dute, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek arautua. Baliabideok izaera finalista dute eta ikerketa, transferentzia eta Unibertsitate Planeko lehentasunezko beste jarduera-eremu batzuk dituzte jomuga. Hala, adibidez, 2007-2009 aldian Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak 20 milioi euro inguru jarri zituen euskal unibertsitate-sistemako eragileentzat, izaera finalistako hainbat deialditan (Etortek, Intek, Saiotek eta abar) parte hartuz lortu beharrekoak[50].

Azken horrek erakusten du planaren jarduera-eremuetan eragiten duten tresnen inguruan ikuspegi zabalagoa izan behar dela, ezinbestekoa baita baliabideak egoki banatzeko eta benetan egindako ahaleginaren jarraipen zorrotzagoa egiteko.

50. Hainbat unibertsitate-sistemaren finantzaketa-ereduak azterturik egiaztatzen da ohikoak direla industriaren eta enpresa-sustapenaren arloko gobernu-erakunde eta -organoen ekarpenak.

# 3.5 SISTEMAREN EGITURAKETA

## 3.5.1 Finantzabideen balorazioa

Estrategia baten oinarrian dauden finantzabideak eraginkorrak izango dira eragileei lortu nahi diren emaitzak lortzen laguntzeko ahalmena duten neurrian.

Finantzabideen garrantziaz jabeturik, 2007-2010eko Unibertsitate Planaren helburu nagusietako bat zen euskal unibertsitate-sistemako eragileei –publiko zein pribatuei– laguntzeko finantzaketa-esparru bat bermatzea.

Planak sustatutako finantzaketa-esparruaren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- **Finantzaketa-esparrua ezberdina da unibertsitate publikoarentzat eta unibertsitate pribatuentzat**. Euskal Herriko Unibertsitateak hala finantzaketa arrunta nola azpiegituretan inbertitzeko berariazko laguntza jasotzen ditu. Euskal unibertsitate-sistemako hiru unibertsitateek –Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak– programa-kontratuak dituzte, eta horien bidez finantzaketa jasotzen dute, helburu jakin batzuk lortuz gero.
- **Estatuan aitzindaria da**, programa-kontratuen bidez **unibertsitate pribatuek harreman-esparru egonkorra duten lehenengoa baita**.
- **Finantzaketa-esparruak eragileen izaera ezberdina errespetatzen du** eta trataera ere ezberdina ematen die, bakoitzak egin beharreko jarduerei eta lortu beharreko jomugei dagokienez.
- **Unibertsitateen estrategia eta beharrizanekin bat dator**; izan ere, unibertsitateen eta Jaurlaritzaren artean adosten da zein jarduera babestuko diren programa-kontratuen bidez.
- **Emaitzetan oinarritutako finantzaketa-irizpideak sartzen** ditu, programa-kontratuen bidez.
- **Jarraipeneko eta ebaluazioko protokolo bat du**, tresna guztiek –finantzaketa arruntak, inbertsioen finantzaketak eta programa-kontratuek– behar bezala funtzionatzen dutela begiratzeko.

2007-2010eko Unibertsitate Planak bultzatutako finantzaketa-esparruaren bidez jarritako baliabideak funtsezkoak dira euskal unibertsitate-sistemarentzat, hiru unibertsitateek lortzen dituzten diru-sarreren ia erdia baitira (%45,7 2008an). Zehazki, 2008an Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontuaren %53,8 finantzatu zuten, eta Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitateen aurrekontuen %4,8 eta %9,3, hurrenez hurren.

2007-2010eko Unibertsitate Planaren finantzaketa-esparruaz, eta beste iturri batzuetatik heldutako funtsez, euskal unibertsitate-sistemak diru-sarreren egitura bat eratu du, 2008an ezaugarri hauek zituena:

- Guztizkoaren %74,7 finantzaketa publikotik dator; kopuru horretatik %62,7 finantzaketa publiko ez-lehiakorra da, eta %12 finantzaketa publiko lehiakorra, hau da, deialdi publikoetan lehia eginez lortutakoa.

- Prestakuntza arautuko (gradua, masterra eta doktoregoa) ikasleen tasek guztizkoaren %16,5 finantzatzen dute.

- Arautu gabeko prestakuntzako (etengabeko prestakuntza-programak) ikasleen tasak diru-sarreren %0,9 dira.

- Kontratupeko zerbitzuetatik, hau da, hirugarren pertsonei zerbitzuak saltzetik, lortutako diru-sarrerak %2,4 dira.

- Ondarezko etekinei lotutako beste diru-sarrerak guztizkoaren %5,5 dira[51].

Datu horietan euskal unibertsitate-sistemaren finantzaketa osoa dago jasota. Finantzaketa publikoari dagokionez, Unibertsitate Planean sartutako funtsez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen eta beste erakunde batzuen jardueretatik eratorritakoak ere barne hartuta daude.

Unibertsitate Planean zehaztasun handirik gabe jasotako jarduerak finantzatzeko ezohiko ekarpenek, euskal unibertsitate-sistemarako argi eta garbi positiboak diren arren, arazoak sortu dituzte kudeaketaren arloan, horiek izapidetzeko orduan. Kasu guztietan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak adierazten du ekarpen horiek planean bertan jasotako jarduerak finantzatzeko direla eta, beraz, haren bitartez ezarritako finantzaketa-ereduaren baitan izapidetu beharko liratekeela. Horrek konponbide zaila du inondik ere, 2007-2010eko Unibertsitate Planean ez baitago hornidura berriak sartzeko mekanismorik.

51. Idazpuru horren barruan sartzen dira errendimendu jakin batzuk, hainbat aktiboren ordainketari (inbertsioak gordailuetan eta bestelako finantza-eragiketak) eta zerbitzuen ustiapenari (ikastetxe nagusiak, argitalpen- eta inprenta-zerbitzuak eta abar) lotuak.

Honakoa argazki orokor bat da, eta beraz unibertsitate bakoitzaren kasua ezberdina da, baina euskal unibertsitate-sistema osorako ondorio batzuk ateratzeko aukera ematen du, gaur egungo errealitatetik abiatuta eta inguruneko zenbait joera eta baldintzatzaile kontuan hartuz. Hala:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera demografikoari erreparatuz, pentsatzekoa da prestakuntza arautuko tasetatik lortutako diru-sarrerak murriztu egingo direla. Hori konpentsatze aldera, nazioarteko ikasleak erakarri behar dira eta arautu gabeko prestakuntza-eskaintza berritu eta bultzatu behar da etengabeko ikaskuntzaren inguruan.

- Datozen urteotan, kontratupeko diru-sarrerek gora egin behar dute. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek enpresei ezagutza gehiago helarazteko gai izan behar dute. Erronka hori bereziki garrantzitsua da Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, zerbitzuen salmentatik bere diru-sarreren %1 baino gutxiago lortzen baitu.

- Finantzaketa publiko lehiakorraren bidez lortutako diru-sarrerek ere gora egin beharko lukete. Euskal unibertsitate-sistemako eragileek parte-hartze handiagoa izan behar dute Euskadiko, estatuko eta Europako deialdietan.

- Finantzaketa publiko ez-lehiakorrari dagokionez, emaitzen araberako mekanismoek pisu handiagoa izango dute, erreferentziako unibertsitate-sistemetan gertatzen den moduan.

- Oro har, finantzaketa publikoan eraginkortasunaren, gardentasunaren eta kontrolaren inguruko betekizunak zorroztu egingo dira.

**3-19 irudia. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen gastuaren finantzaketa-iturriak. 2008. urtea**




FPL: Finantzaketa Publiko Lehiakorra - FPEZ: Finantzaketa Publiko Ez Lehiakorra

*Iturria: Egileek landua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa-kontratuen gauzatzeari buruz egindako txostenetan oinarrituta*

Euskal unibertsitate-sistemaren finantzaketa-eskemak bere jardueraren norakoa eta lehiakortasun-maila islatzen dituen neurrian, Unibertsitate Plan berriaren erronka arlo horretan helburuak zehaztea da.

Horrenbestez, finantzaketa publiko ez-lehiakorrak unibertsitateen gaitasunak hobetzeko baliabideak lortzen lagundu behar du, eta inola ere ez eraginkortasunik eza edo baliabideen kudeaketa okerra estaltzen.

Euskal unibertsitate-sistemaren finantzaketa-esparruaren balio erantsia sistema egituratzeko duen ahalmenean datza, bere gaitasunak handituz eta kalitatea hobetzeko bidean jarriz. Orain arte, Unibertsitate Planaren lehen bi urteetan, programa-kontratuak dira ondoen funtzionatu duen mekanismoa. Eragile guztiek onartzen dituzte, jarduera eta jomuga zehatzak egitera bultzatzen dute eta Jaurlaritzaren lehentasunak nahiz sistemako unibertsitateenak xedatzen laguntzen dute.

Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntari eta inbertsiorako laguntzari dagokienez, programa-kontratuak eraginkortasun- eta gardentasun-irizpideetan oinarrituta zehaztu behar dira, jakinik formularena ez den bestelako funtzionamendua dutela eta benetako kostuak kalkulatze aldera beharrezkoa dela informazioa zuzen ematea. Hori da programa-kontratuen xedea, sistema egituratzeko mekanismo gisa.

Orain arte, kostuak finantzatzeko mekanismo gisa funtzionatu du finantzaketa arruntak, eta oharkabean joan dira hori efizientzia eta eraginkortasun handiagoz erabiltzeko eta finantzaketa bera justifikatzeko barrutik egiten ari diren ahalegin guztiak.

## 3.5.2 Gobernantza

2007-2010eko Unibertsitate Planak kudeaketa, jarraipen eta koordinazioko hainbat organo zituen. Jarraian, gobernantza-organo horien jarduera eta funtzionamenduaren balorazio laburra egingo da.

### 3.5.2.1 Unibertsitate Plana kudeatzeko organoak

2007-2010eko Unibertsitate Planak kudeaketako bi organo nagusi zituen: Batzorde Zuzendaria eta Idazkaritza Teknikoa. Errealitatean, organoek ez dute izan espero bezalako erregulartasuna eta hedadura.

- *Batzorde Zuzendaria*. Gaurdaino ez da sekula bildu. Hala ere, etorkizunari begira, interesgarria izan daiteke batzordea edo antzeko zerbait edukitzea, urtean behin gutxienez planaren bilakaera aztertzeko ebaluazioa egin dezan.

- *Idazkaritza Teknikoa*. 2010eko azken bileretan, Unibertsitate Zuzendaritzak bere gain hartu zituen idazkaritzaren eginkizunak, planarekin zerikusia duten hainbat alderdiren inguruan informazioa eskainiz, hala nola programa-kontratuen betetze-maila eta Plan berriaren lanketan egindako aurrerapenak.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluari Unibertsitate Planaren garapenaren berri emateko mandatua ezarri du Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak.

### 3.5.2.2 Jarraipen-batzordeak

2007-2010eko Unibertsitate Planak hiru jarraipen-batzorde xedatu zituen:

- *Ekarpen arruntarena*. Euskal Herriko Unibertsitateak jasotzen duen finantzaketa arrunta ebaluatu eta gainbegiratzeaz arduratzen da. 2 aldiz bildu dira, baina espero zena ez du eman, inoiz ez baita ekarpen arrunta kalkulatzeko formula aplikatu; beraz, planaren zenbatekoa ere ez da aldatu. Ikasle, IIL edo AZLen kostua ez da aztertu, eta ezta finantzaketa arruntaren zenbatekoa kalkulatze aldera formulan zehaztutako gainerako parametroak ere; horrenbestez, formula aplikatzeko behar diren datuak falta izan dira.

- *Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programarena*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsiorako Planaren garapena ebaluatu eta gainbegiratzeaz arduratzen da. Batzordea 8 aldiz bildu da orain arte, eta hobekien funtzionatu duena izan da, planaren betetze-mailan izan diren aldaketei eta obren unean uneko egoerari buruzko informazioa emanez.

- *Programa-kontratuena*. Unibertsitate bakoitzarekin urtero biltzen dira, unibertsitateen ekarpenak balorazioetan jasotzeko eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoen betetze-maila zehazteko. Batzorde honen ahulezia bat da programa-kontratuen ebaluazioaren analisi estrategikoago bat egin ez izana, emaitzak hobetu eta, hala dagokionean, jarduera berriak identifikatze aldera.

Laburbilduz, hiru jarraipen-batzordeek funtsean 2007-2010eko Unibertsitate Planak zehaztutako urte anitzeko laguntza-tresna nagusien jarraipena egin dute.

### 3.5.2.3 Koordinazio-organoak

2007-2010eko Unibertsitate Planak hiru koordinazio-organoren sorrera xedatu zuen: Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua eta Euskadiko Ikerketa Kontseilua.

- Beren eginkizunen baitan, *Euskadiko Unibertsitate Kontseilua eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua* ez dira bildu, 2009aren amaiera arte, Unibertsitate Planean ezarritako maiztasunaz[52].Bestalde, 2010eko otsailaren 15eko bilera arte ez ziren Unibertsitate Planaren inguruko gaiak jorratu, beren eginkizunetako bat izan arren planaren helburuen betetze-mailari buruz informazioa ematea.

- *Euskadiko Ikerketa Kontseiluak*, 2008an sortua, ez du bileretan 2007-2010eko Unibertsitate Planaz hitz egin.

- Koordinazio-organoen eta kudeaketa-organoen funtzionamenduari erreparatuz, ondoriozta liteke Unibertsitate Planaren jarraipena eta ebaluazioa hasiera batean espero zena baino arreta gutxiagoz jorratu direla.

Planaz egindako jarraipen bakarra euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek izandako emaitzei buruzkoa izan da, bakoitzaren laguntza-tresnen inguruan, eta batik bat Euskal Herriko Unibertsitatearen azpiegitura-planaren eta hiru unibertsitateetako programa-kontratuen inguruan.

52. Bai Euskadiko Unibertsitate Kontseilua bai Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua gutxienez hiru hilean behin bildu behar dira. 2007an, 2008an eta 2009aren hasieran, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua 4 aldiz bildu zen (ezarritakoa bete gabe), Koordinaziokoa 13 aldiz, eta Euskadiko Ikerketa Kontseilua 2 aldiz. Hortik aurrera, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua 6 aldiz bildu da, eta Koordinaziokoa beste 6 aldiz.

# 3.6 UNIBERTSITATE PLANAREN OINARRIAK

Planaren oinarriak hura taxutu eta edukiak zehazteko orduan aintzat hartu beharreko ildo nagusiak dira. 2007-2010eko Unibertsitate Planaren ebaluazioa egin da haren indarraldiaren erdian, eta horri esker funtzionatu duten eta zuzendu behar diren alderdiak ezagutu ahal izan dira. Ebaluazio hori, horrenbestez, 2011-2014ko Unibertsitate Plan berriaren oinarriak zehazteko erreferente nagusia bilakatu da.

Planaren oinarriok galdera hauen inguruan mamitu dira:

- **Zer-nolako Plana bultzatu nahi da**. 2011-2014ko Unibertsitate Planak helburu argi, neurgarri eta asmo handikoak izan behar ditu, horiek lortzeko tresna baliagarriak eta kudeaketa garden eta eraginkorra.

- **Zein eduki zehaztu behar ditu**. Lehenik eta behin, euskal unibertsitate-sistemarako nahi den ikuspegi orokorra eskaini behar du, ezarritako misio bakoitzari erreparatuz. Era berean, plan berriak ez du gaur egungoaren haustura izan behar, azken horrek indarrean diren hainbat osagai baititu (Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko prozesua, kalitatea eta abar…), baina osagai berri jakin batzuk ere sartu behar ditu. Bereziki, gaur egungo Unibertsitate Planean egindako aurrerapenak eta garatutako elementuak finkatu behar ditu, epe laburrean tresnen aplikazioa (moldagarritasuna) eta jarraipena hobetze aldera.

- **Nola egituratu behar da**. 2011-2014ko Unibertsitate Planak euskal unibertsitate-sisteman eragina duten tresna guztiak hartu behar ditu kontuan. Bestalde, planean xedatutako ildo estrategikoekin batera horiek egituratzeko behar diren baliabideak jarri behar dira.

- **Zer-nolako hedadura izan behar du**. 2011-2014ko Unibertsitate Planak euskal unibertsitate-sistema osatzen duten edo harentzat interesa duten talde guztiak aintzat eduki behar ditu, eta gizartearekin harremana estutu behar du, euskal unibertsitate-sistemari balioa emateko, Euskal Herri osoari egiten dion ekarpena nabarmentzeko eta goi-mailako hezkuntzan egiten den ahalegina eta horrek duen kostua ulertarazteko.

- **Nor engaiatu behar du**. Euskal unibertsitate-sistemaren eginkizunagatik eta 2011-2014ko Unibertsitate Planak duen hedapenagatik, goi-mailako hezkuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia barne hartzen dituelarik, nahitaezkoa da Jaurlaritzako hainbat sailen partaidetza. Alde horretatik, funtsezkoa helburua ikerketa eta transferentziaren arloa koordinatzea da.

- **Zein printzipiotan oinarritzen da**. Unibertsitate Plan berriak balio jakin batzuk izan behar ditu oinarrian: eraginkortasuna helburuak lortzeko; efizientzia baliabideak kudeatzeko; kalitatea jarduera guztiak gauzatzeko; eta gardentasuna komunikazioan.

- **Nola gauzatu behar da**. Ikuspegi operatibo batetik eta kudeaketari begira, sistemaren eta haren baitako unibertsitateen benetako egoera ezagutzea, helburuak eta jomugak zehaztea eta bilakaera ebaluatzea ahalbidetuko duten tresnak baliatu behar ditu Unibertsitate Planak. Horrekin batera, xedatzen diren gobernantza-organoak behar bezala garatu beharko dira Unibertsitate Planean.

Azkenik, **arlo honetan dauden aukerak aprobetxatze aldera**, jarraibide hauek lehenetsi dira:

- Euskal unibertsitate-sistemako ordezkariek aktiboki parte hartu behar dute beren gain eragina izan dezaketen estrategia guztien diseinuan, definizioan eta garapenean.

- Aldaketak eta apustuak egin nahi badira, baliabideez behar bezala hornitu beharko dira.


6

# 2011-2014KO UNIBERTSITATE PLAN BERRIAREN OINARRI ESTRATEGIKOAK

# 4





# 2011-2014KO UNIBERTSITATE PLAN BERRIAREN OINARRI ESTRATEGIKOAK

# 4

2011-2014KO UNIBERTSITATE PLANAK HIRU ATAL nagusiren inguruan eratu ditu bere estrategia eta garapena:

- **Oinarrizko Estrategia**. Hor zehazten dira:
  - >> Misioa.
  - >> Xede-helburuak (XH), lortu nahi den euskal unibertsitate-sistema deskribatzen laguntzen dutenak.
  - >> Helburu estrategikoak (HE), lortu nahi den euskal unibertsitate-sistema hori lortzeko Planak ezarri dituen helburu zehatzak deskribatzen dituztenak.
- **Jarduera Plana**. Barne hartzen dituena:
  - >> Jarduera-programak, xede-helburuaren arabera ekimen eta ekintza zehatzak biltzen dituztenak.
- **Gobernantza**. Atal honetan xedatzen dira:
  - >> Gobernu-organoak.
  - >> Finantzaketa-esparrua.
  - >> Aginte-mahaia, euskal unibertsitate-sistemaren eta Unibertsitate Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleez.

**4-1 irudia. Estrategiaren egituraketa eta hedapena**




## 4.1 MISIOA ETA HELBURUAK

2011-2014ko Unibertsitate Planaren misioa honakoa da:

"Euskal unibertsitate-sistemaren garapenari bultzada estrategikoa ematea eta sistemako eragileekin adostutako jarduera-esparrua zehaztea, gai izan daitezen euskal gizarteak prestakuntzan, ezagutzaren transferentzian eta sorkuntzan dituen erronkak eta beharrak betetzeko, eta eragileok nazioartean aintzat hartuak izan daitezen, kalitate handiko irakaskuntza eta ikerketa egiten dutelako, batetik, eta gizartean arduratsu direlako eta kudeaketa eraginkorra egiten dutelako, bestetik."

Misio horrekin, Unibertsitate Planak lau xede-helburu bete nahi ditu, lehen hiruak unibertsitateen misioen ingurukoak –irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia– eta laugarrena helburuok behar adinako zorroztasun eta kalitateaz bete ahal izateko gaitasun eta baliabideen ingurukoak:

**XH1.** *Behar diren aldaketak behar besteko sakontasunez egitea, euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzan dituen gero eta behar handiagoei erantzuteko, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeak sor ditzakeen aukerak baliatuz.*

**XH2.** *Ikerketa-jarduerak nazioartean duen oihartzuna eta aintzatespena areagotzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan aktiboki parte hartuz.*

**XH3.** *Ezagutza, balioak, jarrera kritikoa eta gogoetarako gune bat eskaintzea gure gizarte aurreratuari eta ezagutza gero eta sakontasun handiagoz lantzen duen enpresasareari, Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea sisteman lidergoa hartuz.*

**XH4.** *Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bat bermatzea, irakasle, ikertzaile, teknikari eta kudeatzaile bikainenak erakarriz, prestatuz eta atxikiz, eta baliabideak era bidezko, eraginkor eta gardenean erabiliz.*

# 4.2 ESTRATEGIA

Misioa eta xede-helburuak zehaztu ondoren, helburu estrategikoak deskribatuko dira.

Helburu estrategikoak dira estrategiaren bidez helburu nagusiak lortzeko modua. Xede-helburuen eta estrategikoen arteko lotura horri esker, azken horiek lortzeak lehenak lortzeko bidean jartzen gaitu.

2011-2014ko Unibertsitate Planak bederatzi helburu estrategiko proposatzen ditu. Plana lau eremu handiren inguruan egituratu da; horietako bakoitzak xede-helburu bana du, eta zenbait helburu estrategiko: prestakuntza (3), ikerketa (2), transferentzia (2) eta, azkenik, efizientzia, eraginkortasuna eta kalitatea (2).

### 4-2 irudia. Xede-helburuen eta helburu estrategikoen arteko erlazioa

| Xede-helburuak | Helburu estrategikoak |
|---|---|
| ▶ ***XH1.*** Behar diren aldaketak behar besteko sakontasunez egitea, euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzan dituen gero eta behar handiagoei erantzuteko, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeak sor ditzakeen aukerak baliatuz | ▶ **HE 1.** **Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana** finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarritua eta **hirueletasuanren alde eginez**<br>▶ **HE 2.** **Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua** egitea<br>▶ **HE 3.** Euskal gizartearen prestakuntzako eskaera bereziei erantzutea, eta batik bat unibertsitateko zerbitzu eta jarduera guztiak **euskaraz** eskaintzea |
| ▶ ***XH2.*** Ikerketa-jarduerak nazioartean duen oihartzuna eta aintzatespena areagotzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan aktiboki parte hartuz | ▶ **HE 4.** Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako **ikerketa-jardueraren produktibitatea eta eragina** areagotzea<br>▶ **HE 5.** Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako **ikerketa-jardueraren nazioartera zabaltzea** |
| ▶ ***XH3.*** Ezagutza, balioak, jarrera kritikoa eta gogoetarako gune bat eskaintzea gure gizarte aurreratuari eta ezagutza gero eta sakontasun handiagoz lantzen duen enpresa-sareari, Zientzia-Tekonogia-Enpresa-Gizartea sisteman lidergoa hartuz | ▶ **HE 6.** Unibertsitateak **gogoetarako eremu** gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iarunkortasuna sustatzeko eta **ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan**<br>▶ **HE 7.** **Ezagutza enpresa-sarera transmititzeko eginkizunean** unibertsitatea **erreferentziako eragile nagusi** bihurtzea |
| **Xede-helburuak** | **Helburu estrategikoak** |
| ▶ ***XH4.*** Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bat bermatzea, irakasle, ikertzaile, teknikari eta kudeatzaile bikainenak erakarriz, prestatuz eta atxikiz, eta baliabideak era bidezko, eraginkor eta gardenean erabiliz | ▶ **HE 8.** **Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea,** ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz**, bereziki ikerketaren arloan**<br>▶ **HE 9.** **Kalitatezko zerbitzu-eskaintza** bermatzea, **baliabideak era eraginkor eta gardenean erabiliz eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat eratuz** |

## 4.2.1 Irakaskuntza

**XH1**. *Behar diren aldaketak behar besteko sakontasunez egitea, euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzan dituen gero eta behar handiagoei erantzuteko, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeak sor ditzakeen aukerak baliatuz.*

Euskal unibertsitate-sistemak, Bolognako prozesuaren dinamikak hartaraturik eta beste herrialde eta eskualde batzuetako hainbat unibertsitate-sistemak bezala, presaka egokitu behar izan ditu bere prestakuntza-ereduak eta oinarrian dituen egiturak.

Tituluak egiaztatzeaz eta arau-esparru berriak ezarritako bestelako betebehar formalak betetzeaz gain, goi-mailako hezkuntzako sistema guztiek eboluzionatzeko beharra dute prestakuntza-premia berriei eta mugikortasun geografikoaren hedapenari erantzuteko, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan teknologia berriak aprobetxatzeko edo gero eta zorrotzagoak diren kalitate-estandarrak betetzeko, besteak beste.

Alde horretatik, euskal unibertsitate-sistemak hezkuntzan "iraultza" egiteko benetako aukera gisa hartu behar du aldaketa-aro hau. Aldaketak, zernahi izen ematen zaiolarik eta Bolognako prozesuari edo beste bati lotzen zaiolarik ere, alderdi onuragarriak ditu.

Ahaleginak egin behar dira titulu erakargarriak eta hobeto egituratuak, profesional trebatu eta motibatuak prestatzeko gai direnak, sortzeko eta irakatsi zein ikasteko modu berriak garatzeko, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz eta eskola magistralen eskema gainditituz, eskola praktikoei pisu handiagoa emango dien eskema parte-hartzaileago baten mesedetan. Azkenik, prozesu hori abian jartzeko ezinbestekoa da bizitzan zeharreko prestakuntza-eskaintza bat sustatzea, pertsonek beren bizialdi profesional eta pertsonal osoan zehar dituzten berariazko beharrizanei erantzuteko gai izango dena, gaztelera, euskara eta ingelesezko hizkuntza-gaikuntza bultzatuko duen esparru hirueledun batean, euskal gizartearen barne-eskariei erantzunez eta, aldi berean, gizarte hori eta mundua elkarlotzen ahaleginduz.

Asmo horrekin, prestakuntzari lotutako xede-helburua hiru helburu estrategikoren bidez sustatuko da:

> **HE1.** *Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez.*
>
> **HE2.** *Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea.*
>
> **HE3.** *Euskal gizartearen prestakuntzako eskaera bereziei erantzutea, eta batik bat unibertsitateko zerbitzu eta jarduera guztiak euskaraz eskaintzea.*

Bistan denez, ahalegin horretan ez gara hutsetik abiatuko, bai unibertsitateek bai administrazio publikoek helburu horiekin zerikusia duten hainbat jarduera bultzatu baitituzte.

Edonola ere, gero eta zorrotzagoak diren eskakizunei emaitzen bidez erantzun behar zaie, iraganean egindako ahalegina baliatuz euskal unibertsitate-sistemak beste herrialde eta eskualde batzuen aldean duen kokapena hobetze aldera.

### 4.2.2 Ikerketa

**XH2.** *Ikerketa-jarduerak nazioartean duen oihartzuna eta aintzatespena areagotzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan aktiboki parte hartuz.*

Gizarte modernoen ongizateak gero eta lotura handiagoa du kanpotik ezagutza eskuratu eta norberak ezagutza sortzearekin.

Horrenbestez, ikerketa, ezagutza sortzeko prozesu sistematiko gisa, aberastasuna sortzeko eta mundu globalizatuan lehiatzeko faktore erabakigarria bihurtu da.

Ikuspegi horretatik, Euskadik bere gaur egungo ongizate-mailari eusteko eta, ahal bada, maila hori, modu iraunkorrean gainera, igo ahal izateko behar den ikerketa-gaitasuna eskuratu behar du. Horrenbestez, euskal unibertsitate-sistemak, euskal sistema zientifikoko eragile nagusia den neurrian, xede hori bete ahal izateko ahalmena garatu behar du.

Horretarako, baliabide gehiago lortzeaz gain, lehendik dauden baliabideei etekin handiagoa atera behar die. Izan ere, gaur egun unibertsitatean dugunaren moduko ikertzaile-multzoa edukita, euskal unibertsitate-sistemak helburu handiagoak ezarri behar ditu produktibitate zientifikoari dagokionez. Bestalde, euskal unibertsitate-sistemak nazioartean oihartzun handiagoa izan behar du, ezagutza-sare globaletan parte hartuz eta, ahal denean, horien buru jarriz.

Asmo horrekin, bi helburu estrategiko zehaztu dira:

> **HE4.** *Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jardueraren produktibitatea eta eragina areagotzea.*
>
> **HE5.** *Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jarduera nazioartera zabaltzea.*

Azken urteetan, euskal unibertsitate-sistemak nabarmen areagotu ditu ikerketara emandako baliabideak. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren erronka ahalegin horretan sakontzea eta, batez ere, jadanik badiren ahalbideen produktibitatea areagotzea da.

Horretarako, funtsezkoa da ikerketaren arloan 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planetik unibertsitate-sisteman funts gehiago jartzea.

### 4.2.3 Transferentzia

**XH3.** *Ezagutza, balioak, jarrera kritikoa eta gogoetarako gune bat eskaintzea gure gizarte aurreratuari eta ezagutza gero eta sakontasun handiagoz lantzen duen enpresa-sareari, Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea sisteman lidergoa hartuz.*

Europar Erkidegoko zein estatuetako estrategia nagusien jarraibideetan, unibertsitateei gero eta garbiago eskatzen zaie bilakaera bat izan dezaten irakaskuntza eta ikerketara emandako erakunde soil izatetik gizarteari ezagutza eta balioak transmititzeko gai diren erakunde ere izatera.

Unibertsitateek zeregin aktibo eta agerikoa izan behar dute beren gizarteetan, profesional trebatuak prestatzeko duten gaitasunagatik ez ezik ezagutza –adierazpide orotan– transmititzeko erreferente bihurtu behar dutelako.

Horregatik, euskal unibertsitate-sistemak eta haren baitako eragileek ezagutza transmititzeko xedea izan behar dute, beren lanaren azken hartzailea gizartea dela barneratuz eta jakintzaren askotariko adarretatik orotariko ekarpenak eginez. Ezagutzaz gain, gure gizarte- eta erakunde-sarea elikatuko duten balioak transmititu behar dira, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek hausnarketa eta iritzia sortzeko prozesuetan parte hartu behar baitute, jarrera kritikoa eta arrazoiketa zientifikoa landuz.

Gure enpresa-sareari balio erantsia emango dion eragile garrantzitsua izan behar du euskal unibertsitate-sistemak. Unibertsitateko esparruaz harago doan erronka da hori, Euskal Herrirako lehentasun gisa ulertu behar dena; izan ere, euskal unibertsitateek asmo handiko eraldaketa-proiektuak bultzatzeko behar diren baliabideak eta ahalmenak dituzte. Horretarako, helburu estrategiko hauek zehaztu dira:

> **HE6.** *Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko eta ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan.*
>
> **HE7.** *Ezagutza enpresa-sarera transmititzeko eginkizunean unibertsitatea erreferentziako eragile nagusi bihurtzea.*

Euskal unibertsitate-sistemak helburu horiek lor ditzan, sistemako unibertsitateek barne- eta kanpo-lana egin beharko dute; barnekoa, baliabideak eskuratzeko, eta kanpokoa, beren entzutea handitu, ahalmenak ezagutzera eman eta, funtsezko alderdi gisa, ingurunearekin engaiatu ahal izateko ekintzak bideratzeko.

Plangintzaren ikuspegitik, helburu estrategiko horietako batzuk bultzatzeko beharrezkoa da eragileak eta planak koordinatzea, arlo batean baino gehiagotan eragiten duten neurrian.

Alde horretatik, 2011-2014ko Unibertsitate Plan honen bidez lortu nahi diren ahalmen askok eragin nabarmena izango dute beste plan eta estrategia batzuetan, hala nola 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean, 2010-2013ko Lehiakortasun Planean eta Osasun Planean.

## 4.2.4 Efizientzia, efikazia eta kalitatea

**XH4.** *Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bat bermatzea, irakasle, ikertzaile, teknikari eta kudeatzaile bikainenak erakarriz, prestatuz eta atxikiz, eta baliabideak era bidezko, eraginkor eta gardenean erabiliz.*

Xede-helburu hau zeharkakoa da, hau da, aurreko helburuetan ere txertatzen da; beraz, arlo honetan aurrera egitea lagungarria izango da helburu nagusi bakoitzean ezarritako helburu estrategikoak lortzeko. Hala, helburu honen bidez, 2011-2014ko Unibertsitate Planak euskal unibertsitate-sistema gobernatu behar duten funtsezko ildoak finkatu nahi ditu.

Hori lortzeko, unibertsitateek lehenik eta behin eraginkorrak izan behar dute, hau da, beren jarduerekin lortu nahi dituzten emaitzak lortu behar dituzte. Horrez gain, efizienteak izan behar dute, eta beraz baliabideak zuhurtziaz erabili behar dituzte, batez ere publikoak. Printzipio hori beti bete behar da, baina bereziki garrantzitsua da bizi dugun egoera ekonomikoan, baliabideen horniketan tentu handiz jokatu beharra baitago.

Azkenik, kalitatezko zerbitzua eskaini behar da. Gauzak behar bezala egin behar dira, eta tresna egokiak eduki beharrezkoa izanez gero zuzenketa- eta bideratze-neurriak hartzeko, onartutako parametro eta estandarren arabera.

Eskari horiei erantzun eta kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izateko, euskal unibertsitate-sistemak profesional onenak eta finantza-baliabideen hornidura egokia izan behar ditu. Horretarako, beharrezkoa da irakasle onak prestatzea, ikertzaile bikainak erakarri eta prestatzea, behar beste langile laguntzaile gaitu izatea eta horiei guztiei baliabide eta azpiegitura egokiak eskaintzea, irakaskuntza-eredu akreditatu baten baitan eta goi-mailako ikerketa-jarduera garatuz.

Adierazitako xede-helburua lortzeko, helburu estrategiko hauek ezarri dira:

> **HE8.** *Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea, ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz, bereziki ikerketaren arloan.*

**HE9.** *Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bermatzea, baliabideak era eraginkor eta gardenean erabiliz eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat eratuz.*

Azken finean, xede-helburu hori lortzeko pertsonak, baliabideak eta kudeaketa egokia behar dira. Helburua izatez operatiboagoa da, baina horrek ez dio garrantzirik kentzen. Aitzitik, 2011-2014ko Unibertsitate Plana amaitzean, ezarritako helburu estrategikoak ahalik eta neurri handienean bete beharko dira. Planaren bilakaera adosten diren berariazko jardueren araberakoa izango da, eta horregatik jarduerak gauzatzearen inguruan ahalik eta zalantza gutxien sortu behar dira.


Bibliotek



# JARDUERA-PLANA 5





# JARDUERA-PLANA 5

JARDUERA PLANEAN SARTU DIRA EUSKAL UNIBERTSITATE-sistemak helburu estrategikoak betetzeko lanean aurrera egin dezan proposatu diren ekimen guztiak.

2011-2014ko Unibertsitate Planeko ekimenak ez dira jarduera isolatuak; aldiz, jarduerok sailkatzeko, horiei koherentzia emateko eta sinergiak aprobetxatzeko taxutu diren bederatzi jarduera-programetan jasota daude:

- **P1. Irakaskuntzaren berrikuntzarako programa**
- **P2. Irakaskuntzarako trebatzeko programa**
- **P3. Hirueletasuna bultzatzeko programa**
- **P4. Ikerketa bultzatzeko programa**
- **P5. Nazioartekotze-programa**
- **P6. Zientzia eta teknologia hedatzeko programa**
- **P7. Unibertsitatea-Enpresa programa**
- **P8. Ikasleei laguntzeko eta ikasteko sarbidea errazteko programa**
- **P9. Unibertsitatea eta Gizartea programa**

Jarduera-programen eta helburu estrategikoen arteko harremanak estrategiaren eta hedapenaren arteko koherentzia bermatzen du.

Jarduera-programa bakoitzak helburu estrategiko batekin edo gehiagorekin lotura izango du, haren zeharkako izaeraren eta orientazioaren arabera.

## 5-1 irudia. Estrategiaren eta hedapenaren arteko harremana

| JARDUERA PROGRAMAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **HE 1.** Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez | **HE 2.** Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea | **HE 3.** Euskal gizartearen prestakuntzako eskaera bereziei erantzutea, eta batik bat unibertsitateko zerbitzu eta jarduera guztiak euskaraz eskaintzea | **HE 4.** Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jardueraren produktibitatea eta eragina areagotzea | **HE 5.** Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jarduera nazioartera zabaltzea | **HE 6.** Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko eta ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan | **HE 7.** Ezagutza enpresa-sarera transmititzeko eginkizunean unibertsitatea erreferentziako eragile nagusi bihurtzea | **HE 8.** Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea, ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz, bereziki ikerketaren arloan | **HE 9.** Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bermatzea, baliabideak era eraginkor eta gardenean erabiliz eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat eratuz |
| **P1.** Irakaskuntzaren berrikuntzarako programa | X | X | | | | | | X | X |
| **P2.** Irakaskuntzarako trebatzeko programa | X | X | | | | | | X | X |
| **P3.** Hirueletasuna bultzatzeko programa | X | X | X | | | | | X | X |
| **P4.** Ikerketa bultzatzeko programa | | | | X | | | | X | x |
| **P5.** Nazioartekotze-programa | | | | | X | | | X | X |
| **P6.** Zientzia eta teknologia hedatzeko programa | | | | | | X | | X | X |
| **P7.** Unibertsitate-Enpresa programa | | | | | | | X | X | X |
| **P8.** Ikasleei laguntzeko eta ikasteko sarbidea errazteko programa | | | | | | | | X | X |
| **P9.** Unibertsitatea eta Gizartea programa | | | | | | X | | X | X |

2011-2014ko Unibertsitate Planean proposatzen diren bederatzi jarduera-programetako bakoitzean, hiru ekintza-mota daude: Sistemako Ekintzak, Ekintza Itunduak eta Sistema Publikoari Laguntzeko Oinarrizko Ekintzak.

**Sistemako ekintzek** goitik beherako edo top-down ikuspegia dute. Jarduerek izaera finalista dute eta Jaurlaritzak ezarritako berariazko ekintzez osaturik daude; gehienak urtebeterako dira edo urtez urte berritzekoak.

Unibertsitatearen arloko interes-talde guztiei zuzendutako jarduerak dira (ikasleak, ikertzaileak, ikerketa-taldeak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, enpresak eta abar). Jardueren oinarrietan zehazten dira horien xedea eta onuradunak. Askotariko tresnez bideratzen dira: laguntzak, bekak, deialdiak eta abar.

**Ekintza itunduek** euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin egindako lankidetza-hitzarmen edo -akordioetan jasotako jarduerak bultzatzen dituzte; hitzarmen edo akordio horietan zehazten dira gauzatu beharreko jarduerak, horiei loturiko finantzaketa eta finantzaketa lortzeko bete beharreko helburuak. Sistemako ekintzek ez bezala, unibertsitateen eta jaurlaritzaren arteko hitzarmenen bidez taxutzen direlarik, behetik gorako edo bottom-up ikuspegia dute.

Urte anitzeko jarduerak izan ohi dira, adostutako lan-egutegia burutze aldera. Programa-kontratuak erabili dituzten aurreko planen funtzionamendu-eskema bera dute, eta unibertsitateen funtzionamendu- eta kudeaketa-egiturak hobetzen laguntzea dute xede. Hitz batez, ekintza itunduen bidez euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek hainbat arlotan aurrera egitea lortu nahi da, egituran eta kudeaketan aldaketak eraginda.

**Unibertsitate Sistema Publikoari Laguntzeko Oinarrizko Ekintzen** eginkizuna Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduera mantentzen laguntzea da. Ekintzak bi tresna nagusiren bidez gauzatzen dira: Ekarpen Arrunta eta Inbertsiorako Plana.

Ekarpen arruntaren eta Inbertsiorako Planaren bidez, 2011-2014ko Unibertsitate Planak Euskal Unibertsitate Legeak egindako mandatua betetzen du, alegia Euskal Herriko Unibertsitateak kalitatezko zerbitzu-eskaintza bat egin ahal izateko nahikoa izango den urte anitzeko finantzaketa-esparru bat bermatzea[53]. Tresna horiek Euskal Herriko Unibertsitateari ematen dioten laguntzaz, Euskal Unibertsitate Legean ezarritako nahikotasun-printzipioa bete nahi da. Izatez instrumentalak dira, ez delako zehazten jasotako laguntza berariaz zertan erabiliko den.

53. Laguntza horren bidez UPV/EHUk egin beharreko jarduerak berariaz aipatzen ez badira ere, Jaurlaritzak, jakina, kudeaketaren eraginkortasuna, efizientzia eta gardentasuna aztertu eta ebaluatuko ditu, eta jarraipen eta kontroleko mekanismoak abian jarriko direla begiratuko du, ezarritako lege-esparruaren arabera.

**5-2 irudia. Unibertsitate Planaren ekintzak eta horien antolamendua programaka**




Jarduera-programen eta ekintza-moten eskema horrekin, estrategiaren aurkezpen koherente eta integratu bat egin nahi da eta, era berean, aurreko planaren gabezietako batzuk zuzendu nahi dira; izan ere, aipatu planean ez ziren euskal unibertsitate-sistemaren garapenean eragiten duten tresna guztiak barne hartu.

## 5.1 EKIMENEN HEDAPENA JARDUERA-PROGRAMEN ARABERA

Jarduera-programek modu egituratu batean biltzen dituzte 2011-2014ko Unibertsitate Planeko helburu estrategikoak betetzeko egin behar diren jarduerak. Batzuetan, jarduera-programek helburu estrategiko bakar batekin dute lotura, eta beste zenbaitetan helburu batean baino gehiagotan eragiten dute.

Programen deskribapenean alderdi hauek azaltzen dira:

- Programa bakoitzaren helburuaren edo helburuen definizio bat.
- Proposatutako jardueren deskribapen bat, eta jarduera horien ekintza-tipologia.
- Jarduerak bultzatuta lortzea espero diren emaitzak.

Aurreko Unibertsitate Planarekin alderatuta, jarduera-programak berritasun bat dira, euskal unibertsitate-sisteman eragina duten jarduera guztiak biltzen ahalegintzen direlako eta era sistematiko eta multzokatuan aurkezten direlako. Horrek guztiak baliagarria izan behar du, espero diren emaitzak lortzeko ez ezik, euskal unibertsitate-sistemari laguntze aldera egiten ari diren ahalegin guztien ikuspegi zehatzagoa izateko.

Edukiari dagokionez, alderdi formalak alde batera utzita, jarduera-programek ekimen berritzaileak proposatzen dituzte. Besteak beste, aipagarrienetako batzuk nabarmentzearren, honakoak: bizitzan zeharreko prestakuntza bultzatzeko berariazko hainbat jarduera jaso dira, ikerketa-esparru estrategikoei lagunduta euskal unibertsitate-sistemak egiten duen ikerketa bultzatzeko ildo berri bat gehitu da eta, azkenik, bikaintasun-bekak sartu dira maila handiko ikasleak gure sistemara erakarri eta atxikitzeko.

Laburbilduz, aldaketa sakonak proposatzen dira araudi eta erregulazio berriek sortutako beharrizanei erantzuteko, aldatu egin den ingurune batek paratzen dituen erronkei aurre egiteko eta aurreko planean funtzionatu duena edo zuzendu behar dena ikusirik pilatutako eskarmentuari etekina ateratzeko.

## 5.1.1 Irakaskuntzaren berrikuntza

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programa honen bitartez, euskal unibertsitate-sistemako irakaskuntza eta prestakuntza hobetzeko helburua duten jarduera guztiak garatzen dira.

Zehazkiago, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan berrikuntza txertatzea, irakaskuntza-jarduerari laguntzeko azpiegiturak eta ekipamendua hobetzea eta irakasle zein ikasleen mugikortasuna areagotzea ditu xede. Horrez gain, bizitzan zeharreko prestakuntza ere bultzatu nahi du. Hitz batez, prestakuntza arautua eta arautu gabekoa barne hartzen ditu.

Programa honen asmoa irakaskuntzarekin lotuta dauden Unibertsitate Planeko bi helburu estrategiko sustatzea da:

**HE1.** *Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez.*

**HE2.** *Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea.*

### Proposatutako jarduerak

Programa honetako jarduerak ekintza itunduen tipologiakoak dira. Hortaz, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin zehaztu eta adostutako jarduerak dira.

Epe luzerako ahalegin jarraituaren bidez egitura-aldaketa bat lortu nahi delako eta jarduerok, funtsean, hainbat estrategia eta arauditan ezarritako ildoetara egokitzeko premiaren ondorio direlako erabili da, hain zuzen ere, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin adostutako ekintza itunduen tipologia.

Horregatik, unibertsitate bakoitzeko errektoretza-taldeen gidaritzapean garatuko dira.

**5-3 irudia. Irakaskuntzaren Berrikuntzarako Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| Jardueren tipologia | | **Prestakuntza arautuan:**<br>▶ Irakaskuntza-eredua eta titulu-eskaintza finkatzen laguntzea<br>▶ Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen funtzionamendua hobetzea<br>▶ Graduondoko eskaintza antolatzea eta hobetzea<br>▶ Irakaslanaren nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatzea<br>▶ Irakaskuntzari lotutako kalitate-ziurtagiriak prestatzea<br>▶ Ikasleen parte-hartzea bultzatzea<br>**Arautu gabeko prestakuntzan:**<br>▶ Bizitzan zeharreko prestakuntza garatzea hezkuntza-eredu gisa<br>**Prestakuntza arautuan eta arautu gabekoan:**<br>▶ Edukiak eta ikasmaterialak sortzea<br>▶ Euskarri-plataformak eta -tresnak sortzea |
| Baliabideak | | ▶ Prestakuntza arautuko programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea<br>▶ Arautu gabeko prestakuntzako programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Irakaskuntzaren berrikuntzarako programak **prestakuntza arautuan** proposatutako jardueren helburuak hauek dira:

- *Irakaskuntza-eredua eta titulu-eskaintza finkatzen laguntzea*. Jarduera hauen asmoak prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren kalitatea hobetzea eta titulu-eskaintza erakargarria lortzea dira.

- *Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen funtzionamendua hobetzea*. Jarduera honen bidez irakaskuntzari laguntzeko baliabideak eta azpiegiturak hobetu nahi dira: laborategiak, liburutegiak, bertaratu beharrik gabeko prestakuntzarako tresnak eta abar.

- *Graduondoko eskaintza antolatzea eta hobetzea*. Helburua master eta doktoregoko tituluen eskaintza arrazionalizatzea eta indarrean sartuko diren master edo doktoregoko eskola-ereduetara egokitzea da.

- *Irakaslanaren nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatzea*. Jarduera honek ikasle eta irakasleen mugikortasuna bultzatzea du xede; horretarako beharrezkoa izango da truke eta harrerako azpiegiturak sendotzea, beste unibertsitateekin lankidetza- eta truke-akordioak lortzea, baterako tituluak abian jartzea eta irakasleek atzerrian egonaldiak egin ditzaten bultzatzea, batez ere Akitania-Euskadi-Nafarroan unibertsitate arteko sareari erreparatuz.

- *Irakaskuntzari lotutako kalitate-ziurtagiriak prestatzea*. Jarduera honen bidez, unibertsitateek beren tituluak hainbat aipamenez –kalitatezkoa, europarra eta abar– ziurtatu eta homologatzeko egin beharreko ahalegina babestu nahi da.

- *Ikasleen parte-hartzea bultzatzea*. Bolognako ildoei jarraiki, jarduera honek babesa ematen die ikasleak unibertsitateetako gobernu-organoetan txertatzeko ekimenei, eta araudian jasotako organoak, Ikasle Kontseilua kasu, sortzea eta garatzea bultzatzen du.

**Arautu gabeko prestakuntzari** dagokionez, eta zehazki bizitzan zeharreko prestakuntzari, jarduera nagusia bizitzan zeharreko prestakuntzaren hezkuntza-eredua garatzea da.

Azkenik, programa honetan **prestakuntza arautu eta arautu gabekorako** jarduera komunak proposatzen dira, hala nola:

- *Edukiak eta ikasmaterialak sortzea*. Jarduera horretan sartzen dira prestakuntza-eskaintza eratzeko eta behar diren laguntza-edukiak sortzeko ekimenak.

- *Euskarri-plataformak eta -tresnak sortzea*. Arretagune nagusi bat izango da ikaskuntza-prozesua, oro har, eta bereziki urruneko ikaskuntza-prozesua errazteko tresnak lantzea, eta beraz jarduera honek tankera horretako ekimenei bide emango die.

### Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu beharko lirateke:

- Prestakuntza arautuan eta arautu gabekoan titulu-eskaintza erakargarria taxutzea. Alde horretatik, berariazko erronkak dira irakaskuntza-ereduak finkatzea, graduondoko eskaintza arrazionalizatzea eta etengabeko prestakuntzako eskaintza sendo bat eratzea.

- Eskainitako zerbitzuen kalitatea egiaztatuko duten ziurtagiriak eta aipamenak lortzea.
- Zentroak teknologia berrien ahala aprobetxatzeko behar diren ekipamenduez hornitzea, eta ekipamendu horiek ekintzailetasuna pizteko eta aurrez aurreko zein bertaratu beharrik gabeko ikaskuntza eskaintzeko modu berrietan erabiltzea.
- Ikasleek liburutegiak eta laborategiak gehiago erabil ditzaten lortzea, bide batez eskola magistralen eredua gainditu eta saio praktikoek leku handiagoa izango duten beste bat ezartzen lagunduz.
- Irakasle eta ikasleen mugikortasuna areagotzea. Erronka nagusia nazioarteko ikasleek euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetan egiten dituzten egonaldiak luzatzea da.
- Bizitzan zeharreko prestakuntza sendotzea, profesionalak eta enpresak horretan engaiatuz; horrela, bide batez, prestakuntza arautuko ikasle-kopuruaren murrizketa konpentsatu nahi da.

## 5.1.2 Irakaskuntzarako trebatzea

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programa honen bidez, irakasleak ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan trebatzea helburu duten jarduera guztiak bideratzen dira.

Asmoa irakaskuntzarekin lotuta dauden Unibertsitate Planeko bi helburu estrategiko sustatzea da:

**HE1.** *Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez.*

**HE2.** *Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea.*

### Proposatutako jarduerak

Programa honetako jarduerak ekintza itunduen tipologiakoak dira. Hortaz, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin zehaztu eta adostutako jarduerak dira.

Jarduera hauek euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin adostutako ekintza itunduen baitan sartzearen abantaila da horrela epe luzerako laneko plan bat presta daitekeela, sistematikoagoa eta unibertsitateek berek lortu nahi dituzten helburuei lotua.

Programa honen bitartez, eta proposatzen dituen gainerako jardueren erreferente gisa, unibertsitateek irakasle eta ikertzaileen nahiz administrazio eta zerbitzuetako langileen ibilbide profesionala zehazteko konpromisoa dute. Ibilbide hori zehaztuta, prestakuntza-planak hobeto taxutu, zehaztu eta kudeatu ahal izango dira, estatuko zein Europar Erkidegoko estrategia eta planetan horren inguruan ematen diren agindukak betetzeaz gain.

Irakaskuntzaren berrikuntzarako programaren osagarria izaki, irakaslanean trebatzeko programa honek prestakuntza arautu zein arautu gabekorako jarduerak ditu.

2011-2014ko Unibertsitate Planak bizitzan zeharreko prestakuntzaren alde egin duen apustuaren euskarriak dira kalitatezko eskaintza bat, material eta laguntza-tresna egokiak eta espezializazioan eta gaitasun jakin batzuetan oinarritutako irakaskuntza-jarduera bat. Espezializatzeko premia horren arabera taxutu dira programa honetan proposatutako jarduerak.

**5-4 irudia. Irakaskuntzarako Trebatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | | **Prestakuntza arautuan:**<br>▶ IIL eta AZLen ibilbide profesionala zehaztea<br>▶ Neurrira egindako prestakuntza-jarduerak, IIL eta AZLei begira<br>**Arautu gabeko prestakuntzan:**<br>▶ Irakasleak trebatzea etengabeko prestakuntzarako edo prestakuntza jarraiturako |
| **Baliabideak** | | ▶ Prestakuntza arautuko programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea<br>▶ Arautu gabeko prestakuntzako programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Irakaskuntzarako trebakuntzari dagokionez, programak **prestakuntza arautuan eta arautu gabeko prestakuntzan** proposatutako jardueren helburuak hauek dira:

- *IIL eta AZLen ibilbide profesionala zehaztea*. Jarduera honen xedea da unibertsitateko profesionalek ibilbide profesional bat izan dezatela, non bilakaera profesionalerako irizpideak eta baldintzak ezarriko baitira.

- *Neurrira egindako prestakuntza-jarduerak, IIL eta AZLei begira*. Jarduera honen bidez, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek, antzemandako eskarien arabera, berariazko prestakuntza-programak bultzatzeko aukera izan dezaten lortu nahi da, prestakuntza zientifikoa nahiz pedagogikoa barne hartuz.

- *Irakasleak trebatzea etengabeko prestakuntza edo prestakuntza jarraiturako*. Jarduera honen bidez, arautu gabeko prestakuntzan irakasleek dituzten premiei erantzun nahi zaie.

**Lortu nahi diren emaitzak**

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate guztiek ibilbide profesionalak taxutzeko plan zehatz eta eguneratu bat izan dezaten, eta plan hori martxan egon dadin, lortzea.

- Euskal unibertsitate-sistemako profesionalek prestakuntza-eskaintza erakargarri eta interesgarri bat izan dezaten lortzea.

- Euskal unibertsitate-sistemako profesionalei laguntza ematea, dituzten prestakuntza-premiei erantzunez.

- Profesionalek trebakuntza-jardueretan parte-hartze egokia izan dezaten lortzea, kalitate goreneko irakaskuntza emateko behar diren gaitasunak eta ezagutza dituztela bermatze aldera.

## 5.1.3 Hirueletasuna bultzatzea

**Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana**

Programa honen bidez, irakasleek eta irakaskuntzaren alorreko langile laguntzaileek behar den euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna lortzeko jarduera guztiak bideratzen dira.

Asmoa irakaskuntzarekin lotuta dauden Unibertsitate Planeko hiru helburu estrategiko sustatzea da:

**HE1.** *Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez.*

**HE2.** *Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea.*

**HE3.** *Euskal gizartearen prestakuntzako eskaera bereziei erantzutea, eta batik bat unibertsitateko zerbitzu eta jarduera guztiak euskaraz eskaintzea.*

## Proposatutako jarduerak

Hirueletasuna bultzatzeko programaren bidez sistemako ekintzen nahiz ekintza itunduen baitako jarduerak sustatzen dira.

Hala, sistemako ekintzen bidez, irakasle edo ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei zuzeneko laguntza ematen zaie, eta ekintza itunduen bidez, berriz, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin adostutako laneko plan bat.

Sistemako ekintzen zuzeneko laguntzari esker, unibertsitate-komunitateko kideei laguntza-tresnak baliatzeko malgutasun handiagoa eskaintzen zaie, parte hartzeko duten interesaren arabera. Era berean, Euskadin edo euskara irakas-hizkuntza duten beste lurralde batzuetan kokatuta egonik euskal unibertsitate-sistemakoak ez diren edo harekin lankidetza-hitzarmenik ez duten beste unibertsitate batzuetako eragileei laguntzeko aukera ematen du.

Bestalde, programa-kontratuetako ekintza itunduetan, prestakuntza arautuari eta arautu gabekoari dagokienez, epe luzeagoko esparru bat ezartzen da, eta horren erritmoak eta gauzatzeko modua unibertsitateek berek kudeatu beharko dituzte.

**5-5 irudia. Hirueletasuna Bultzatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | ▶ Goi-mailako irakaskuntzarako liburuak euskaratu eta argitaratzeko laguntzak | ▶ IIL eta AZLen euskarazko trebakuntza<br>▶ IIL eta AZLen ingelesezko trebakuntza<br>▶ Laguntzako multimedia-argitalpenak eta materialak sortzea, euskaraz eta ingelesez<br>▶ Ikaskuntza eta irakaskuntzako prozesu hirueledunak garatzea |
| **Baliabideak** | ▶ Laguntzak | ▶ Prestakuntza arautuko programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Hirueletasuna bultzatzeko programan jasotako jarduerek ezaugarri hauek dituzte:

- *Goi-mailako irakaskuntzarako liburuak euskaratu eta argitaratzeko laguntzak*. Sistemako ekintza gisa, jarduera honek beste jarduera osagarri bat du ekintza itundu moduan. Jarduera ekintza-mota batean edo bestean sailkaturik egotea unibertsitateen eta Sailaren artean adostasuna egon edo ez egotearen mende dago.

- *IIL eta AZLen euskarazko trebakuntza*. Euskal unibertsitate-sistemako profesionalek euskara ikasi eta hobetzeko prestakuntza-jarduera guztiak barne hartzen ditu.

- *IL eta AZLen ingelesezko trebakuntza*. Euskal unibertsitate-sistemako profesionalek ingelesa ikasi eta hobetzeko prestakuntza-jarduera guztiak jasotzen ditu.

- *Laguntzako multimedia-argitalpenak eta -materialak sortzea, euskaraz eta ingelesez*. Jarduera honen bidez, euskaraz eta ingelesez irakasteko prozesurako behar diren materialak sortu nahi dira. Jarduera honek beste jarduera osagarri bat du, sistemako ekintza gisa. Jarduera ekintza-mota batean edo bestean sailkaturik egotea unibertsitateen eta Sailaren artean adostasuna egon edo ez egotearen mende dago.

- *Ikaskuntza eta irakaskuntzako prozesu hirueledunak garatzea*. Jarduera honen bidez, hirueletasunera egokitutako berariazko eduki eta prozesu batzuk garatu nahi dira, hizkuntza batean baino gehiagotan –gutxienez– irakatsiko diren gero eta titulu gehiago eskaini ahal izateko.

### Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Ezarritako ikasketa-planei jarraiki, euskarazko titulu-eskaintza bermatzeko nahikoa giza baliabidea izatea.

- Ingelesez behar adinako hizkuntza-maila lortzea, ingelesezko kredituen eskaintza handitzeko eta gure unibertsitateen nazioartekotzea bultzatzeko.

- Administrazio eta zerbitzuetako langileak prestatzea beren lanpostuaren profilari dagokion hizkuntza-ezagutza lor dezaten.

- Hizkuntza batean baino gehiagotan ikas daitezkeen tituluen eskaintza bat prestatzea, ikasleek beren ikasketak burutu ahal izan ditzaten zenbait hizkuntzatan emandako kredituak lortuta.

## 5.1.4 Ikerketa bultzatzea

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programa honen bidez, unibertsitateen ikerketa-gaitasuna areagotzeko eta ezagutza propioa sortzeko jarduera guztiak bideratzen dira.

Unibertsitate Planeko bi helburu estrategiko sustatu nahi dira, bata zuzenean ikerketari eta bestea arlo horretan talentua erakartzeari lotua:

**HE4.** *Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jardueraren produktibitatea eta eragina areagotzea.*

**HE8.** *Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea, ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz, bereziki ikerketaren arloan.*

### Proposatutako jarduerak

Programa honen baitako jardueren helburuak dira ikerlana oro har sustatzea, ikerketa-eremu jakin batzuetan gaitasunak areagotzea, ikertzaileak trebatzea beren ibilbide profesionaleko etapa ezberdinetan eta ikerketarako ekipamenduak jartzea.

Horretarako, beharrezkoa izango da ikertzaile gazteak prestatu eta ondoren espezializatzea, langile laguntzaileak trebatzea, ekipamendua erostea, ikerketa-proiektuak gauzatzeko laguntza ematea, sortzen ari diren ikerketa-taldeei berariaz laguntzea eta finkatutako ikerketa-taldeak aintzatetsi eta babestea.

Programa honek sistemako ekintzak eta ekintza itunduak barne hartuko ditu[54]. Beraz, 2011-2014ko Unibertsitate Planak ikerketa sustatuko du, jarduera-mota hauek uztartuz:

- Laguntza-jarduerak deialdi irekien bidez, ikerketa-proiektuak gauzatu eta ikertzaileak eta langile laguntzaileak prestatu ahal izateko.
- Laguntza-jarduerak euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin izenpetutako programa-kontratuen bidez, ekimen estrukturalagoak, epe ertaineko lan-egutegia dutenak, garatu ahal izateko.

54. Bi ekintza-mota horiek uztartzean, ikerketari laguntzeko epe labur eta ertaineko sistema bat eratzeko aukera dago.

- Laguntza-jarduera itunduak, lehentasunezko ikerketa-eremuetan euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen gaitasunak eta kokapena hobetzeko. Jarduera horiek unibertsitateek ikerketaren esparruan dituzten apustu estrategikoen araberakoak izan behar dute[55]. Jarduerak programa-kontratuaren formulaz bideratuko dira eta emaitzak lortzearen mende egongo dira; horrenbestez, finantzaketa emaitzen lorpen-mailaren araberakoa izango da, eta beste programa batzuekin baterako finantzaketa lortzen den heinean ere aldatu egingo da.

**5-6 irudia. Ikerketa Bultzatzeko Programako jarduera guztien ikuspegi orokorra tipologiaren arabera**




Hiru jarduera-mota horiekin, ikerketa ikuspegi ezberdinetatik sustatuko da. Jarduerak abian jartzeak aukera eman behar lioke euskal unibertsitate-sistemari ikerketa-gaitasunak sendotzeko eta esparru zientifiko-teknologiko jakin batzuetan irmoago kokatzeko.

2011-2014ko Unibertsitate Planak erabaki berritzailea hartu du, aurreko planarekiko, ikerketako esparru estrategiko batzuk babestean. Esparru estrategikoen hautabidea behar bezala arrazoitu beharko da, finantzaketa jasotzeko aukera izan dezaten. Finantzaketaren zenbatekoa hainbat irizpideren araberakoa izango da: proposamenak eragingo duen ikerketa-jarduna, haren interesa, herri-mailako estrategia eta ekimenekin duen lotura, unibertsitateen estrategiekin bat etortzea eta abar. Azken xedea da unibertsitateek lehentasunezko ikerketa-esparruetan kokapen sendoagoa izan dezaten lortzea.

55. Apustu horiek, noski, bat etorri behar dute unibertsitateek beren planetan, Bikaintasun Campusen proiektuetan eta abar ezarritako lehentasunekin.

**5-7 irudia. Ikerketa Bultzatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | SISTEMAKO EKINTZAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | ▶ Ikertzaileen mugikortasuna<br>▶ Bekadunen egonaldi laburrak kanpoko ikerketa-zentroetan<br>▶ Ikertzaileen prestakuntza<br>▶ Ikertzaile doktoreen hobekuntza<br>▶ Ikertzaile doktoreen kontratazioa<br>▶ Oinarrizko ikerketako eta ikerketa aplikatuko proiektuak<br>▶ Ikerketa-talde bikainen edota sortu berrien jarduerak babestea<br>▶ Inbertsioak ekipamendu orokorrean (aplikazio informatikoak eta abar)<br>▶ Inbertsioak ekipamendu zientifikoan<br>▶ Patenteak aurkezteko laguntza<br>▶ Zientzia-arloko biltzarrak eta bilerak antolatzea | ▶ Ikerketa-jarduera sustatzea (azpiegitura zientifikoak sortzea, inbertsioak ekipamenduan eta abar)<br>▶ Gaitasun zientifikoak lantzea (teknikariak homologatzea, doktoreak espezializatzea eta abar)<br>▶ Doktorego aurreko eta doktorego ondoko prestakuntza<br>▶ Ikerketaren kalitatea ebaluatzea<br>▶ Ikerketako arlo estrategikoak lantzea |
| **Baliabideak** | ▶ Laguntzak<br>▶ Deialdiak | ▶ Ikerketako programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea<br>▶ Esparru estrategikoetan espezializatzeko programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Ikerketa bultzatzeko programan jasotako jarduerek ezaugarri hauek dituzte:

- *Ikerketan eta arlo teknikoan trebakuntza bultzatzeko ekintzak*. Sistemako ekintza gisa, jarduera horiek ikertzaileen prestakuntza-ibilbidea bermatu nahi dute, mugikortasuna, egonaldiak nazioarteko zentroetan eta doktoreen prestakuntza eta hobekuntza bultzatuz. Ekintza itundu gisa proposatzen dira, halaber, doktorego aurreko eta doktorego ondoko prestakuntza eta teknikarien prestakuntza eta homologazioa.

- *Ikerketa-jarduera sustatzea*. Atal honetako sistemako ekintzek ikerketa-taldeen jarduerak, oinarrizko ikerketako eta ikerketa aplikatuko proiektuak, doktoreen kontratazioa ikerketa-jardueretarako eta inbertsioa ekipamendu zientifikoan barne hartzen dituzte. Era berean, sistemako ekintzen artean dago zientzia-arloko biltzar eta bileren antolaketa sustatzea, emaitzak trukatzeko gune gisa. Bestalde, ikerketa-jarduerarekin lotuta, ikerketa-egiturak sortzeko jarduerak proposatu dira. Azkenik, sistemako ekintza moduan hau ere, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek beren ikerketa-arlo estrategikoak bultzatzeko laguntza jasoko dute Sailaren programa-kontratuen bidez. Horien osagarri, programa-kontratuetan beste aukera batzuk proposatu dira berariazko ekimenetarako, Euskal Herriko erronka handiei lotutakoak kasu. Lerro osagarri horren finantzaketan parte hartuko lukete esparru interesgarriren batean gaitasunak eta ikerketa sustatu nahi dituzten Jaurlaritzako beste sail batzuek.

- *Emaitzen ustiapena*. Jarduera hauen bidez, lortutako emaitzei balioa eman nahi zaie, patenteak lortuta horien ustiapen industriala bultzatuz.

- *IIL eta AZLen euskarazko trebakuntza*. Euskal unibertsitate-sistemako profesionalek euskara ikasi eta hobetzeko prestakuntza-jarduera guztiak barne hartzen ditu.

- *Ikerketaren kalitatea ebaluatzea*. Idazpuru horretan barne hartutako jardueren xedea ikerketa-taldeen kalitatea ebaluatu eta ziurtatzea da, horien bikaintasun-maila neurtze aldera. Ekintza itunduen bidez, Planak euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateak babestu nahi ditu talde bikainei dagokien ziurtagiria lor dezaten. Alde horretatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bi urtez behin deialdi bat antolatzen du, Unibasq agentziak ebaluatua, ikerketa-taldeak katalogatzeko.

2011-2014ko Unibertsitate Planaren berariazko helburu bat da jarduera guztiak kudeatzea, ikerketarekin zerikusia dutenak barne. Arlo horretan, generoaren aldagaia aintzat hartua izango da; emakumearen parte-hartzea ebaluatuko da eta diskriminazio positiboa baliatuko da emakumea kudeaketa-arduradun eta kudeaketa-buru izatera hel dadin errazteko. Ahalegin hori bideratzeko moduari dagokionez, eskualdeko, estatuetako eta Europar Erkidegoko programetan hainbat adibide aurki daitezke.

### Lortu nahi diren emaitzak

Besteak beste, emaitza hauek lortu nahi dira programa honen bidez:

- Ikertzaileen eta laguntzaileen prestakuntza zientifiko eta teknologikoaren maila handitzea.

- Ikerketaren arloko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea.

- Ikerketa-talde berriak sortzea.

- Goi-mailako ikerketa-taldeen kopurua handitzea.

- Ikerketa-jardueraren produktibitate zientifiko eta teknologikoa areagotzea.

- Ikerketako bikaintasuna aintzatestea.

- Lehentasunezko ikerketa-arloetan unibertsitateen gaitasunak hobetzen laguntzea eta espezializazioa bultzatzea.

## 5.1.5 Ikerketa nazioartekotzea

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programa honen bidez, euskal unibertsitate-sistemaren ikerketa-jarduera nazioartean ezagutzera ematea eta ezagutza-sare globalekin eta munduan erreferentzia diren erakundeekin harremanak ezartzea xede duten jarduerak bultzatu nahi dira.

Zehazki, Planaren bi helburu estrategiko sustatu nahi dira, bata zuzenean ikerketaren nazioartekotzeari eta bestea arlo horretan talentua erakartzeari lotua:

**HE5.** *Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jarduera nazioartera zabaltzea.*

**HE8.** *Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea, ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz, bereziki ikerketaren arloan.*

### Proposatutako jarduerak

Programa honen xedea euskal unibertsitate-sistemaren ikerketa-jarduera nazioartean ezagutzera ematea eta kanpoko sareekin harremanak ezartzea da.

Horrenbestez, programaren baitako jarduerek ikertzaileen mugikortasuna sustatzen dute erreferentziako zentroetan, eta baita nazioarteko ezagutza-sareetan eta proiektuetan parte hartzea ere. Era berean, euskal unibertsitate-sistemako ikertzaileen kanporako mugikortasuna bultzatzeaz gain, garrantzitsua da nazioarteko ikertzaileak gure unibertsitateetan hartzea.

Programa honek sistemako ekintzak eta ekintza itunduak barne hartuko ditu[56]. Beraz, 2011-2014ko Unibertsitate Planak ikerketa sustatuko du, jarduera-mota hauek uztartuz:

- Laguntza-jarduerak deialdi irekien bidez, ikertzaileen mugikortasuna errazteko jardueretarako, Europar Batasunaren Esparru Programan proiektuak aurkeztea bultzatzeko, ikertzaile bisitariak erakartzeko eta nazioarteko biltzarrak antolatzeko.

56. Bi ekintza-mota horiek uztartzean, ikerketari laguntzeko epe labur eta ertaineko sistema bat eratzeko aukera dago.

**5-8 irudia. Ikerketa Nazioartekotzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | ▶ Espezializazio-ikasketak atzerrian<br>▶ Egonaldi laburrak, ikertzaileak prestatzeko programarako bekak baliatzen ez diren zentroetan<br>▶ Ikertzaileak trebatzeko eta mugitzeko programa<br>▶ Europar Batasuneko I+G esparru-programako berariazko programen baitan onartutako europar proiektuak aurkeztea<br>▶ Laguntza osagarriak nazioarteko programek hein batean finantzatzen dituzten proiektuetarako<br>▶ Ikertzaile bisitarien egonaldiak<br>▶ Nazioarteko biltzar eta bilera zientifikoak antolatzea | ▶ Nazioarteko partzuergo eta sare egonkorrak prestatu, dinamizatu eta mantentzea<br>▶ Ikertzaileen mugikortasuna<br>▶ Nazioarteko ikertzaileen egonaldiak Euskal Herrian<br>▶ Nazioarteko programa eta proiektuetan partehartzea sustatzea<br>▶ Nazioarteko aipamena duten tesiak egin daitezen bultzatzea |
| **Baliabideak** | ▶ Laguntzak<br>▶ Deialdiak | ▶ Ikerketako programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

- Laguntza-jarduerak euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin izenpetutako programa-kontratuen bidez, ekimen estrukturalagoak, epe ertaineko lan-egutegia dutenak, garatu ahal izateko. Ekimen horien asmoa da, besteak beste, nazioarteko partzuergo eta sare egonkorrak prestatu, dinamizatu eta mantentzea eta nazioarteko programetan parte hartzeko edo nazioarteko aipamena duten tesiak egitea bultzatze

## Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Ikertzaileen mugikortasuna areagotzea (kanpora eta euskal unibertsitate-sistemara).
- Itzal handiko nazioarteko erakundeekin lankidetza sendotzea.
- Ikerketaren arloko nazioarteko ekimenetan parte hartzea.

- Euskal unibertsitate-sistema ezagutza-sare globaletan kokatzea, eta horietako batzuetan buru jartzea.

## 5.1.6 Zientzia eta teknologia hedatzea

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programa honek bi helburu ditu: zientzia eta teknologia gizartera hurbiltzea eta, modu osagarrian, euskal unibertsitate-sistemaren ikerketa-jarduera ezagutzera ematea. Asmoa da gure unibertsitateen dibulgazio-lana sendotzea, zientzia eta teknologiarekiko interesa areagotzea eta arlo horiek gure gizartearen ongizatea elikatzeko duten garrantziaz ohartaraztea.

Ezagutzaren transferentziaren baitan, programak Planaren helburu estrategiko honekin du lotura:

**HE6.** *Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko eta ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan.*

### Proposatutako jarduerak

Funtsean, programa honen baitako jarduerek lotura dute dibulgazio-ekitaldiak bultzatzearekin eta euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen ikerketa-jarduera hedatzearekin.

Horrez gain, eta izaera finalistagoaz, ikerketa-jarduera aintzatetsi edo saritzearekin eta bokazio zientifikoak sustatzearekin lotutako beste jarduera batzuk badira.

**5-9 irudia. Zientzia eta Teknologia Hedatzeko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | ▶ Zientzia-arloko biltzarrak, bilerak eta mintegiak antolatzea<br>▶ Dibulgaziozko biltzarrak, bilerak eta mintegiak antolatzea<br>▶ Ikerkuntzako Euskadi Saria<br>▶ Proiektuak babestea (hedapen-jarduerak gizartearen kultura zientifikoa sendotzeko eta bokazio zientifikoak sustatzeko) | ▶ Zientzia eta ikerketarako bokazioak sustatzea<br>▶ Zientzia, Berrikuntza eta Sormenaren Astea antolatzea<br>▶ Unibertsitateen ikerketa-jarduera bultzatzea |
| **Baliabideak** | ▶ Laguntzak<br>▶ Kultura zientifikoa sendotzeko deialdiak | ▶ Ikerketako programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Programa honetako jarduerak sistemako ekintzez eta unibertsitateekin adostutako ekintza itunduez bideratzen dira.

### Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Zientzia eta teknologiarekiko interesa piztea.
- Zientzia eta teknologia gizartera gerturatzea.
- Zientziaren eta teknologiaren garrantziaz, ongizatea, aberastasuna eta gizarte batuago bat sortzeko duten indarraz, ohartaraztea.
- Euskal unibertsitateak esparru horretan egiten ari direna erakustea.
- Zientziak eta teknologiak lanerako baliabide gisa duten ahalmena agerian uztea.

## 5.1.7 Unibertsitatea-Enpresa

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programa honen bidez, unibertsitatearen esparruan sortutako ezagutza transmititu eta ustiatzeko jarduerak egituratzen dira, merkatuari begira. Unibertsitateek euskal enpresak ezagutzaz eta teknologiaz hornitzeko duten eginkizuna indartzea da programaren asmoa.

Ezagutzaren transferentziaren baitan, programak Planaren helburu estrategiko honekin du lotura:

**HE7.** *Ezagutza enpresa-sarera transmititzeko eginkizunean unibertsitatea erreferentziako eragile nagusi bihurtzea.*

### Proposatutako jarduerak

Unibertsitatea-Enpresa programan jasotako jarduerek sistemako ekintzetan eta ekintza itunduetan egituratutako ekimenak barne hartzen dituzte.

Sistemako ekintzei dagokienez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lehendik bultzatu izan dituen ekimenez gain, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek, batik bat Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, bultzatutakoak ere badira. Unibertsitateen parte-hartzea zuzenekoa da, onuradun gisa, edo zeharkakoa, enpresen azpikontratista gisa I+G+b proiektuak gauzatzeko. Ekimen horietan, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek beste eragile zientifiko-teknologiko batzuekin, hala nola zentro teknologikoekin, lankidetzako ikerketa-zentroekin (CIC) eta enpresen I+G unitateekin, lehiatu eta elkarlanean aritu beharko dute, aukera berdinez, enpresa-munduko beharrizanei erantzuteko eta ezagutza eta teknologiaren transferentzia lortutako emaitzak ebaluatzeko prozesuan.

Ekintza itunduei dagokienez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa-kontratu berriak prestatu ditu euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateentzat, beste sail batzuen helburuei erantzun ahal izateko eta jarduera eta jomuga gehiago sartzeko, finantza-baliabide osagarriekin batera.

2008an, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek I+G arloan egindako jarduera osoari begira, enpresek jarritako finantzaketaren ehunekoa Kataluniako eta Madrilgo Erkidegoko sistemetako unibertsitateena baino altuagoa da, eta baita Espainiako unibertsitate-sistemaren batez bestekoarena baino. Horrek erakusten du enpresek interes handiagoa dutela euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen I+G arloko jarduerarekiko. 2011-2014 aldian erronka garrantzitsua da euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek I+G arloan egindako jardueran gastua areagotzea, gaur egun gastu hori Kataluniako, Madrilgo Erkidegoko eta Espainiako unibertsitate-sistemakoa baino apalagoa baita, eta finantzaketa pribatuan ehuneko altuago horri eustea.

Ikuspegi horretatik, 2011-2014ko Unibertsitate Planeko Unibertsitatea-Enpresa programak tresna hauen bidez bultzatuko du ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia:

- Laguntza-jarduerak deialdi irekien bidez, gela sektorialen sorrera eta funtzionamenduari lotutako jarduerak bideratzeko, merkatuari begira I+G proiektuak bultzatzeko eta oinarri teknologikoko enpresak sortzeko.

- Laguntza-jarduerak euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin izenpetutako programa-kontratuen bidez, ekimen estrukturalagoak, epe ertaineko lan-egutegia dutenak, garatu ahal izateko. Ekimen horien asmoa da, besteak beste, ezagutza ustiatu eta transmititzeko plan bat lantzea, enpresekin batera landutako jarduerak bultzatzea, jabetza industrial eta intelektualari balioa emateko jarduerak bideratzea, ezagutza transmititzeko egiturak eta prozesuak (parkeak, mintegiak eta abar) abian jarri eta garatzea, eta enpresentzako zerbitzu aurreratuen eskaintza finkatzea.

**5-10 irudia. Unibertsitatea-Enpresa Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | ▶ Gela sektorialak<br>▶ Unibertsitatea-Enpresa proiektuak<br>▶ Proiektuak Euskal Herrirako estrategikoak diren ikerketa-arloetan<br>▶ Proiektuak taxutzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak azpikontratatzeko laguntza jasotzen duten enpresetarako<br>▶ Oinarri teknologikoko enpresak sortzea | ▶ Ezagutza ustiatu eta transmititzeko plana egitea<br>▶ Enpresekin batera landutako jarduerak sustatzea<br>▶ Jabetza industrial eta intelektualari balioa emateko jarduerak<br>▶ Ezagutza transmititzeko egiturak eta prozesuak (parkeak, mintegiak eta abar) abian jarri eta garatzea.<br>▶ Enpresentzako zerbitzu aurreratuen eskaintza sendotzea |
| **Baliabideak** | ▶ Deialdiak<br>▶ Laguntzak | ▶ Transferentziako programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Unibertsitatea-Enpresa programan bildutako jarduerak hauek dira:

- *Gaitasunak erlazionatzeko eta hedatzeko ekintzak*. 2011-2014ko Unibertsitate Planak sistemako ekintzak eta ekintza itunduak antzeko neurrian erabiliz bultzatuko du programa hau. Hala, makina-erremintako, aeronautikako eta bioelektronikako egungo gela sektorialak babestuko dira, eta baita gaitasunak ezagutzera emateko beste ekimen batzuk ere.

- *Enpresekin I+G proiektuak garatzea.* Arlo honetan, unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetza bi modutara bidera daiteke: alde batetik, ohiko Unibertsitate-Enpresa proiektuen bidez, eta, bestetik, Euskal Herrian dauden eta Sailak kudeatzen ez dituen programetan parte hartuz.

- *Zerbitzu-eskaintza taxutzea*. Tankera honetako ekimenen bidez, zerbitzuen eskaintza aurreratu eta integratu bat sendotzeko jarduerak bideratuko dira (zerbitzuen katalogoa eta abar).

- *Emaitzen ustiapen industriala*. Arlo honetan, unibertsitatean bertan oinarri teknologikoko enpresa berriak eta mintegi eta haztegiak sortzea bultzatuko da.

Aurkeztutako jardueren artean sinergia bat lortzeko, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek emaitzak ustiatu eta transmititzeko plan bat landu beharko dute; ekimen hori programa-kontratuak babesten du.

### Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin lankidetza-esparru egonkorrak zabaltzea, emaitzen araberako finantzaketaren filosofia aldezten duten Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk barne hartuz.

- Unibertsitateek beren ezagutza eta teknologia transmititzeko egiturak eta enpresentzako zerbitzu-katalogoa hobetu ditzaten lortzea.

- Enpresek unibertsitateak ezagutzaren eta teknologiaren transmisioan erreferentziako eragile gisa ikus ditzaten lortzea.

## 5.1.8 Ikasleei laguntzea eta ikasteko sarbidea erraztea

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programaren helburua da ikasle eta talde bereziei baliabideak ematea unibertsitate-ikasketak egiten hastea errazagoa gerta dakien.

Jarduera-programa honetako ekimenen bidez, ikasleek unibertsitate-ikasketak aukera-berdintasunean egin ahal izateko baliabide ekonomiko eta materialak jarri behar dira.

Horri dagokionez, arreta berezia jarriko zaie beren ezaugarriengatik unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleei.

Erabilera bidezko, eraginkor eta gardena bermatzeko asmoz, jarduera-programa honetako baliabideak Planaren helburu estrategiko honi loturik daude:

**HE9**. *Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bermatzea, baliabideak era eraginkor eta gardenean erabiliz eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat eratuz.*

## Proposatutako jarduerak

Programako jardueren jomugak dira, alde batetik, prestakuntza arautuan diharduten unibertsitateetako ikasleak, eta, bestetik, arautu gabeko prestakuntza-programetan parte hartzen duten gizabanako arruntak.

Jarduerek askotariko helburuak dituzte: matrikulak ordaintzea, ikasteagatik soldatak eskaintzea, materiala erostea, garraiorako edota etxea ordaintzeko laguntzak ematea, hizkuntzak ikasteko laguntzak ematea eta abar.

Horrez gain, programa honen bidez berariazko laguntza-jarduerak bultzatzen dira beren ezaugarriengatik unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleei begira.

**5-11 irudia. Ikasleei Laguntzeko eta Ikasteko Sarbidea Errazteko Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| **Jardueren tipologia** | ▶ Beka orokorrak, eguneroko garraiorakoak eta minusbaliotasuna duten ikasleen garraiorako bekak<br>▶ Lankidetza-bekak<br>▶ Udan atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko bekak<br>▶ Erasmuseko eta nazioarteko unibertsitate-mugikortasunerako beste programa batzuetako ikasleentzako bekak<br>▶ Bikaintasun-bekak<br>▶ Prezio publikoak ez ordaintzeko salbuespena, beren ezaugarriengatik unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat | ▶ Sarbidea errazteko eta inklusioa, kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetza bultzatzeko ekintzak |
| **Baliabideak** | ▶ Bekak, laguntzak | ▶ Zuzentasuna eta gizarte-proiekzioa bultzatzeko programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Programa honetan bildu diren jarduerak bideratzeko orduan, kudeaketaren eta sortu diren baliabide berrien inguruko zenbait alderdi nabarmendu behar dira. Hala:

- Alde batetik, laguntzen eta beken kudeaketari dagokionez, horiek emateko orduan gutxieneko errendimendu akademikoa kontuan izango da. Diru-laguntzak efizientea eta bidezkoa ez den modu batean esleitzea saihestu nahi da horrela[57].

- Bestalde, ekintza itunduei begira, ikasleei laguntzeko eta ikasteko sarbidea errazteko programan euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek landu beharreko jarduerak jasotzen dira, sarbidea hobetzeko eta kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetza bultzatzekoak hain zuzen, eta, bereziki, Akitania-Euskadi-Nafarroa unibertsitate arteko sarean sarbidea eta mugikortasuna erraztekoak.

- Bestalde, baliabide berriak agertu dira, bikaintasun-bekak kasu; horien xedea unibertsitateko ikasleen bikaintasuna sustatzea da bai ikaskuntzan bai ikerlanean, beren errendimendu akademikoa sarituz.

Laburbilduz, programa honek ikaskuntza nahiz zeregin horretarako beharrezkoak diren beste alderdi batzuk (materiala, garraioa, mantenua, etxea eta abar) babesten ditu eta, bestalde, unibertsitateen funtzionamenduan aldaketak eta hobekuntzak egitea sustatzen du, unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko egokitzapen jakin batzuk egitea behar duten ikasleen eskariei erantzuteko.

### Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Unibertsitate-ikasketak errazte aldera, familientzako laguntza publikoa areagotzea.

- Beren ezaugarriengatik unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleei sarbidea bermatzea.

- Laguntza-baliabideetan kudeaketa arrazionalagoa egitea eta baliabide horiek ezarritako helburuei erantzuten dietela begiratzea.

## 5.1.9 Unibertsitatea eta Gizartea

### Programaren helburua eta estrategiarekin duen harremana

Programaren helburua da unibertsitateak beren ingurunetik gertu dauden eragile bihurtzea, eta gizartean presentzia nabarmena izan dezaten eta gizarte-ekimen eta -dinamiketan parte hartu eta buru izateko gai izan daitezen lortzea.

57. Adibidez, garraio-bekak kenduko zaizkie gutxieneko ikasgai-kopuru batean matrikulatuta egon gabe gutxieneko errendimendu akademikoa lortzen ez duten ikasleei.

Zuzentasuna eta gizarte-proiekzioa bultzatzeko asmo horrekin, jarduera-programa honen bidez Planaren helburu estrategiko hau lortu nahi da:

**HE6**. *Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko.*

## Proposatutako jarduerak

Unibertsitatea eta Gizartea programan jasotako jarduerek sistemako ekintzetan eta unibertsitateekin adostutako ekintza itunduetan egituratutako ekimenak barne hartzen dituzte. Bestelako ekimenak baztertzen ez badira ere, 2011-2014ko Unibertsitate Planak nahiago du arlo honetan lan-esparru egonkor bat ezartzea.

**5-12 irudia. Unibertsitatea eta Gizartea Programa: ekintzen eta baliabideen sailkapena**

| | SISTEMAKO EKINTZAK | EKINTZA ITUNDUAK |
|---|---|---|
| Jardueren tipologia | | ▶ Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna sustatzeko ekimenak<br>▶ Gizarte-erakundeekin lankidetza-akordioak lortu eta mantentzea<br>▶ Gizartearekin komunikatzeko bideak sortzea eta funtzionaraztea<br>▶ Baliabideen kudeaketa eraginkor eta gardena egitea, eta hori gizarteari transmititzea<br>▶ Berdintasun-, iraunkortasun- eta inklusio-planak lantzea |
| Baliabideak | | ▶ Zuzentasuna eta gizarte-proiekzioa bultzatzeko programa-kontratua: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea |

Programa honetako ekimenak hauek dira:

- *Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna*. Unibertsitateek beren baitan hainbat jarduera bideratu behar dituzte gizarte-balioak bultzatzeko, kolektibo jakin batzuen alde egiteko, iraunkortasuna bultzatzeko eta abar. Esparru horretan, bereziki garrantzitsuak dira genero-berdintasuna bultzatzeko jarduerak. Zuzentasuna eta gizarte-proiekzioa bultzatzeko programa-kontratuak xedatutako ekintza itunduen bidez, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek plan egituratu bati jarraiki landuko dituzte jarduerak, koherentzia izan dezaten.

- *Gizarte-erakundeekin lankidetza-akordioak lortu eta mantentzea*. Unibertsitateen eta xede soziala duten hainbat erakunderen arteko lankidetza bultzatzeko jarduerak barne hartzen ditu.

- *Gizartearekin komunikatzeko bideak sortzea eta funtzionaraztea*. Jardueren xedea unibertsitateak ingurunearekin komunikatzeko bideak sendotzea eta unibertsitatearen presentzia indartzea da.

- *Baliabideen kudeaketa eraginkor eta gardena egitea, eta hori gizarteari transmititzea*. Baliabideak era eraginkor eta gardenagoan kudeatzeko eta gizartea horretaz ohartzeko jarduerak barne hartzen ditu.

### Lortu nahi diren emaitzak

Programa honen bidez emaitza hauek lortu nahi dira:

- Unibertsitateak gizarte-balioak transmitititzeko dituen ahalmena eta gaitasuna baliatzea.

- Gizartearekin komunikatzeko bide egonkorrak ezartzea.

- Unibertsitateak baliabideak modu eraginkor eta gardenagoan kudea ditzan lortzea.

## 5.2 EKIMENEN SAILKAPENA EKINTZA-MOTAREN ARABERA

2011-2014ko Unibertsitate Planak tipologia ezberdineko jarduerak barne hartzen ditu; kapituluaren hasieran aurkeztu moduan, hiru ekintza-motetan sailkatzen dira:

- **Sistemako ekintzak**. Sistemako eragile guztiei zabalik daude, eta hainbat motakoak dira.

- **Ekintza itunduak**. Aurrez euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin adostuak.

- **Unibertsitate-sistema publikoari laguntzeko oinarrizko ekintzak**. Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak zehaztutakoak.

### 5.2.1 Sistemako ekintzak

Unibertsitate Planak tipologia hori duten askotariko jarduerak bultzatzen ditu. Horien ezaugarri nagusia da oinarrietan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten eragile guztiei zabalik daudela.

Askotarikoak izanik ere, sistemako ekintzen multzoan sartzen diren jarduera gehienak arlo hauen ingurukoak dira:

- *Ikertzaileen prestakuntza, trebakuntza eta mugikortasuna*. Balizko onuradunak ikertzaileak dira batik bat, beren ibilbide profesionaleko etapa guztietan.
- *Hirueletasuna bultzatzea*. Or ohar, onuradunak zentro eta fakultateetako ikasleak, ikertzaileak eta bestelako langileak dira.
- *Ikerketa-proiektuak egitea*. Onuradunak ikertzaileak eta ikerketa-taldeak dira.
- *Beken eta laguntzen bidez familiei eta ikasleei laguntzea*. Oro har, onuradunak ikasleak dira, eta, bereziki, eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten kolektiboak.
- Zientzia-dibulgazioa. Onuradunak ikertzaileak eta ikerketa-taldeak dira.
- *Azpiegiturak eta ekipamenduak erosi eta mantentzea*. Onuradunak ikertzaileak eta ikerketa-taldeak dira.
- *Jabetza intelektualaren ustiapena eta sektore-elkarteekiko lana*. Onuradunak ikertzaileak, ikerketa-taldeak eta zentro eta fakultateetako langileak dira.

Aurreko Unibertsitate Planarekiko berritasun bat da ekimen horiek guztiak jarduera-programetan multzokatu direla. Multzokatze horren xedeak dira jardueren jarraipen hobea egin ahal izatea, lortu nahi diren helburuen ikuspegi zabalagoa izatea, osagarriak diren beste ekimen batzuk ezagutzera ematea eta ekimenok Unibertsitate Planaren emaitzei begira egindako ekarpena ezagutzea.

## 5-13 irudia. Sistemako Ekintzen Sailkapena

| Sailkapena | Jarduera | Jarduera-programa | Jomuga diren eragileak |
|---|---|---|---|
| **Ikertzaileen prestakuntza, trebakuntza eta mugikortasuna** | ▶ Ikertzaileen prestakuntza<br>▶ Bekadunen egonaldi laburrak ikerketa-zentroetan<br>▶ Ikertzaile doktoreak kontratatzea<br>▶ Ikertzaileen mugikortasuna<br>▶ Ikertzaile doktoreen gaitasuna hobetzea | Ikerketa sustatzea | Ikertzaileak |
| | ▶ Espezializazio-ikasketak atzerrian<br>▶ Egonaldi laburrak, ikertzaileak prestatzeko programarako bekak baliatzen ez diren zentroetan<br>▶ Hobekuntza- eta mugikortasun-programak ikertzaileentzat<br>▶ Ikertzaile bisitariak | Ikerketa nazioartekotzea | Ikertzaileak |
| | ▶ Laguntzak gradu, master eta doktoregoko ikasketa-programetarako (sartu daiteke sistemako ekintzatik ekintza itundura pasaz gero) | Irakaskuntzaren berrikuntza | Ikerketa-taldeak, zentroak eta fakultateak |
| **Ikerketa-proiektua egitea** | ▶ Oinarrizko ikerketako eta ikerketa aplikatuko proiektuak<br>▶ Ikerketa-taldeen jardueretarako laguntza | Ikerketa sustatzea | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak |
| | ▶ Europar Batasuneko I+G esparru-programako berariazko programen baitan onartutako europar proiektuak aurkeztea<br>▶ Laguntza osagarriak nazioarteko programek hein batean finantzatzen dituzten proiektuetarako | Ikerketa nazioartekotzea | Ikerketa-taldeak |
| | ▶ Unibertsitatea-Enpresa proiektuak<br>▶ Proiektuak Euskal Herrirako estrategikoak diren ikerketa-arloetan<br>▶ Proiektuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak azpikontratatzeko laguntza jasotzen duten enpresentzat | Unibertsitatea-Enpresa | Ikerketa-taldeak |
| **Familiei eta ikasleei laguntzea** | ▶ Beka orokorrak, eguneroko garraiorakoak eta minusbaliotasuna duten ikasleen garraiorako bekak<br>▶ Lankidetza-bekak<br>▶ Udan atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko bekak<br>▶ Erasmuseko eta nazioarteko unibertsitate-mugikortasunerako beste programa batzuetako ikasleentzako bekak<br>▶ Bikaintasun-bekak<br>▶ Prezio publikoak ez ordaintzeko salbuespena, beren ezaugarriengatik unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat | Ikasleei laguntzea eta ikasteko sarbidea erraztea | Ikasleak |
| **Zientzia-dibulgazioa** | ▶ Goi-mailako irakaskuntzarako liburuak euskaratu eta argitaratzeko laguntzak | Hirueletasuna sustatzea | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak, zentroak eta fakultateak |
| | ▶ Zientzia-arloko biltzarrak eta bilerak antolatzea | Ikerketa sustatzea | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak |
| | ▶ Zientzia-arloko nazioarteko biltzarrak eta bilerak antolatzea | Ikerketa nazioartekotzea | Ikerketa-taldeak |
| | ▶ Zientzia-arloko biltzarrak, bilerak eta mintegiak antolatzea<br>▶ Dibulgaziozko biltzarrak, bilerak eta mintegiak antolatzea<br>▶ Ikerkuntzako Euskadi Saria<br>▶ Proiektuak babestea (hedapen-jarduerak gizartearen kultura zientifikoa sendotzeko eta bokazio zientifikoak sortzeko) | Zientzia eta teknologia hedatzea | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Azpiegiturak eta ekipamenduak** | ▶ Inbertsioak ekipamendu orokorrean (aplikazio informatikoak eta abar)<br>▶ Inbertsioak ekipamendu zientifikoan | Ikerketa sustatzea | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak |
| **Jabetza intelektualaren ustiapena eta sektore-elkarteekiko lana** | ▶ Patenteen deialdia | Ikerketa sustatzea | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak |
| | ▶ Gela sektorialak<br>▶ Oinarri teknologikoko enpresak sortzea | Unibertsitatea-Enpresa | Ikertzaileak, ikerketa-taldeak, zentroak eta fakultateak |

## 5.2.2 Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin adostutako ekintzak

Ekintza itunduek aurrez horiek gauzatu behar dituztenekin adostutako jarduerak barne hartzen dituzte. Jarduerak programa-kontratuen bidez egituratzen dira.

Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate bakoitzak programa-kontratu ezberdinak ditu, beren ezaugarrietara egokituak, horietan ezarritako jomugak eta finantzaketaren zenbatekoa ezberdinak baitira. Horrenbestez, **lan-esparru egonkor** bat ezartzen da, unibertsitate bakoitzaren ezaugarrien arabera eta 2007-2010eko Unibertsitate Planean beren programa-kontratuek nolako bilakaera izan duten ikusita. Alde horretatik, 2007-2010eko Unibertsitate Planeko programa-kontratuek esperientzia eta informazio baliagarria eskaini dute, plan honetan aintzat hartu beharrekoa.

Unibertsitate batetik bestera ezberdintasunak egonik ere, oro har bost programa-kontratu xedatu dira, arlo hauetan:

- Prestakuntza arautua. Irakaskuntzaren berrikuntza, irakasleen trebakuntza eta euskara eta ingelesa nahiz ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuk sustatzeko jarduerak dira, prestakuntza arautuaren esparruan.
- Arautu gabeko prestakuntza. Arlo honetako programa-kontratuen bidez, irakaskuntzaren berrikuntza, irakasleen trebakuntza eta hirueletasuna sustatzeko jarduerak bideratzen dira, arautu gabeko prestakuntzaren esparruan.
- Ikerketa. Arlo honetan barne hartutako jardueren xedeak dira ikerketa-gaitasunak sendotzea, produktibitatea areagotzea eta jarduera zientifikoa nazioartekotzea.
- Transferentzia. Enpresa-sarerako transferentzia-jarduerak integratzen ditu, I+G proiektuen, prestakuntzaren, sektore-bileren, epe luzeko lankidetza-hitzarmenen eta abarren bidez.

- Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa. Arlo honetako programa-kontratuen bidez, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek zientzia hedatzeko, gizartera hurbiltzeko eta balioak sustatzeko jarduerak lantzen dituzte.

2011-2014ko Unibertsitate Planeko programa-kontratuek adierazle kualitatiboak dituzte, eta, horietan, helburuak zehazteko irizpideak izango dira jardueren egoera edo betetze-maila eta jarduerok hasi edo bukatzeko ezarritako urtea.

Adierazle kualitatiboak erabiliko dira, esaterako, egitura, plan edo hobekuntza jakin batzuk abian jartzeko prozesuen ebaluazioa edo jarraipena egiteko orduan garrantzitsuagoa denean egoera bera aztertzea, helburu kuantitatiboak lortzea baino.

Ikuspegi formalari begira, unibertsitate bakoitzeko programa-kontratuen arteko ezberdintasunak alde batera utzita, 2011-2014ko Unibertsitate Planeko programa-kontratu guztiak jasoko dituen egitura argi bat eratu nahi izan da, alderaketa eta ebaluazioa errazte aldera.

Ikuspegi estrategikoago batetik, ekintza itunduak eta horiek gauzatzeko programa-kontratuak 2011-2014ko Unibertsitate Planak sustatu nahi duen filosofiari jarraiki taxutu dira: emaitzen araberako finantzaketa.

**5-14 irudia. Jarduera-Programen eta Programa-Kontratuen arteko erlazioa**

| JARDUERA PROGRAMAK | PROGRAMA-KONTRATUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | PRESTAKUNTZA ARAUTUA | ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA | IKERKETA | TRANSFERENTZIA | ZUZENTASUNA, ERAGINKORTASUNA ETA GIZARTE PROIEKZIOA |
| **P1.** Irakaskuntzaren berrikuntzarako programa | X | X | | | |
| **P2.** Irakaskuntzarako trebatzeko programa | X | X | | | |
| **P3.** Hirueletasuna bultzatzeko programa | X | X | | | |
| **P4.** Ikerketa bultzatzeko programa | | | X | | |
| **P5.** Nazioartekotze-programa | | | X | | |
| **P6.** Zientzia eta teknologia hedatzeko programa | | | | | X |
| **P7.** Unibertsitatea-Enpresa programa | | | | X | |
| **P8.** Ikasleei laguntzeko eta ikasteko sarbidea errazteko programa | | | | | X |
| **P9.** Unibertsitatea eta Gizartea programa | | | | | X |

Emaitzen araberako planteamendu hori garatzeko, **Jaurlaritzako beste sail batzuen partaidetza bultzatu** behar da, lan-esparru bat adostu eta emaitza zehatzak finkatu ahal izateko; modu horretara, bestela sor litezkeen zalantza gehienak uxatuko dira.

Partaidetza hori bereziki garrantzitsua da programa-kontratu jakin batzuetara baliabide gehiago erakartzeko; esaterako, ikerketa eta transferentziara. Izan ere, iraganean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza baino ez ez zuten jasotzen, eta orain, berriz, beste sail batzuen partaidetza izango da; **lortutako emaitzak ere sail horiekin partekatuko dira.**

Programa-kontratu bakoitzean Unibasq agentziari esleitutako ebaluazio-funtzioak errespetatuz, U**nibertsitate Zuzendaritzak urtero ebaluatuko ditu programa-kontratu horiek**, bakoitzari aplikagarri zaizkion adierazleen arabera eta burututako jarduerak eta ezarritako edo programa-kontratuak izenpetu ondoren adostutako helburuen betetze-maila aintzat hartuz. Programa-kontratuen helburuak hasieran ezarritakoetatik %30 baino gehiago aldatzen badira, behar diren egokitzapenak egin ahal izango dira, beti ere Unibertsitate Planean ezarritako helburuak eta lehentasunak errespetatuz. Helburuak hasieran ezarritakoetatik %50 baino gehiago aldatzen badira, programa-kontratua ez dela bete esan ahal izango da eta, hala bada, hartzaileari jasotako funtsak itzularazi ahal izango zaizkio.

Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak hurrengo urteko maiatzaren 31 baino lehen bidaliko dituzte fakturak edo horien fotokopia konpultsatuak, baita diru-laguntzaren gastuari dagozkion agiriak ere; gastuaren zenbatekoa emandako laguntzaren berdina edo handiagoa izango da. Era berean, burututako ekintzei buruzko memoria, kostuen balantze ekonomiko xehatua eta helburuen ebaluazioari eta betetze-mailari buruzko txostena erantsiko dituzte. Ordainketa egingo da Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak ebaluazio-txostena helarazi ondoren.

Programa-kontratuak ondoko arrazoietako bat gertatuz gero ezeztatu ahal izango dira:

1. Programa-kontratua sinatu duten guztiek hura ezeztatzeko erabakia hartzea.

2. Alderdiek, bereganatutako konpromisoei dagokienez, ez-betetze larriak egitea; Jarraipen Batzordeko kideen gehiengoak erabaki beharko du hori.

3. Zuzenbidean onartutako beste arrazoiren bat.

Jarraian, programa-kontratuetan barne hartutako jardueren sailkapen bat aurkeztuko da. Ondoren, eranskinetan xeheki azalduko dira unibertsitate bakoitzeko programa-kontratuen berariazko edukiak.

## 5-15 irudia. Jarduera-Programen eta Programa-Kontratuen arteko erlazioa

| Jarduera-programak | Prestakuntza arautua | Arautu gabeko prestakuntza |
|---|---|---|
| P1. Irakaskuntzaren berrikuntzarako programa | ▶ Irakaskuntza-eredua eta titulu-eskaintza finkatzen laguntzea<br>▶ Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen funtzionamendua hobetzea<br>▶ Graduondoko eskaintza antolatzea eta hobetzea<br>▶ Irakaslanaren nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatzea<br>▶ Irakaskuntzari lotutako kalitate-ziurtagiriak prestatzea<br>▶ Ikasleen parte-hartzea bultzatzea | ▶ Bizitzan zeharreko prestakuntza garatzea hezkuntza-eredu gisa |
| | ▶ Edukiak eta ikasmaterialak sortzea<br>▶ Euskarri-plataformak eta -tresnak sortzea | |
| P2. Irakasleak trebatzeko programa | ▶ IIL eta AZLen ibilbide profesionala zehaztea<br>▶ Neurrira egindako prestakuntza-jarduerak, IIL eta AZLei begira | ▶ Irakasleak trebatzea etengabeko prestakuntza edo prestakuntza jarraiturako |
| P3. Hirueletasuna bultzatzeko programa | ▶ Ikaskuntza eta irakaskuntzako prozesu hirueledunak garatzea<br>▶ IIL eta AZLen euskarazko eta ingelesezko trebakuntza<br>▶ Laguntzako multimedia-argitalpenak eta -materialak sortzea, euskaraz eta ingelesez | |

| Jarduera-programak | Ikerketa | Transferentzia |
|---|---|---|
| P4. Ikerketa bultzatzeko programa | ▶ Ikerketa-jarduera bultzatzea<br>▶ Gaitasun zientifikoak lantzea (teknikariak homologatzea, doktoreak espezializatzea eta abar)<br>▶ Doktorego aurreko eta doktorego ondoko prestakuntza<br>▶ Ikerketaren kalitatea ebaluatzea<br>▶ Ikerketako arlo estrategikoak lantzea | |
| P5. Nazioartekotze-programa | ▶ Nazioarteko partzuergo eta sare egonkorrak prestatu, dinamizatu eta mantentzea<br>▶ Ikertzaileen mugikortasuna<br>▶ Nazioarteko ikertzaileen egonaldiak Euskal Herrian<br>▶ Nazioarteko programa eta proiektuetan parte-hartzea sustatzea<br>▶ Nazioarteko aipamena duten tesiak egin daitezen bultzatzea | |
| P6. Zientzia eta teknologia hedatzeko programa | ▶ Zientzia eta ikerketarako bokazioak sustatzea<br>▶ Zientzia, Berrikuntza eta Sormenaren Astea antolatzea<br>▶ Unibertsitateen ikerketa-jarduera bultzatzea | |
| P7. Unibertsitatea-Enpresa programa | | ▶ Ezagutza ustiatu eta transmititzeko plana egitea<br>▶ Enpresekin batera landutako jarduerak sustatzea<br>▶ Jabetza industrial eta intelektualari balioa emateko jarduerak<br>▶ Ezagutza transmititzeko egiturak eta prozesuak (parkeak, mintegiak eta abar) abian jarri eta garatzea.<br>▶ Enpresentzako zerbitzu aurreratuen eskaintza sendotzea |

| Jarduera-programak | Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa |
|---|---|
| **P8. Ikasleei laguntzeko eta ikaskuntzarako sarbidea errazteko programa** | ▶ Sarbidea errazteko eta inklusioa, kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetza bultzatzeko ekintzak |
| **P9. Unibertsitatea eta Gizartea programa** | ▶ Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna<br>▶ Gizarte-erakundeekin lankidetza-akordioak lortu eta mantentzea<br>▶ Gizartearekin komunikatzeko bideak sortzea eta funtzionaraztea<br>▶ Baliabideak modu eraginkor eta gardenean kudeatzea, eta hori gizarteari transmititzea |

## 5.2.3 Unibertsitate-sistema publikoari laguntzeko oinarrizko ekintzak

Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak finantzaketa-esparru egonkor bat, urte anitzekoa, xedatzen du Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, bi finantzabideren bitartez egituratua:

- *Finantzaketa arrunta*. Horren xedea Euskal Herriko Unibertsitatearen eragiketa arruntak ordaindu eta finantzatzea da, nahikotasun-printzipioarekin bat etorriz.

- *Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana*. Planaren xedea unibertsitate-jarduerak behar dituen inbertsioak eta azpiegiturak ordaintzea da; finantzaketa hori berariaz jasota dago Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programan.

### 5.2.3.1 Finantzaketa arrunta

Euskal Herriko Unibertsitatearen eragiketa arruntak ordaindu eta finantzatzeko ekarpen arrunta zehazte aldera, ezinbestekoa da erakunde horren finantzaketa-premiak eta espero daitezkeen diru-sarrerak ezagutzea.

Euskal Herriko Unibertsitateak 2011-2014 aldirako dituen finantzaketa-premiak zehatz-mehatz ezagutzeko, lehenik eta behin, unibertsitate publikoak egiten duen gastu arruntean eragina duten aldagaiak eta parametroak ezagutu behar dira.

Informazio horretatik abiatuta, finantzaketa arruntaren azken kopurua Jaurlaritzaren aurrekontu-baliabideetara egokituko da, ezarritako nahikotasun-printzipioekin bat etorriz.

## 5.2.3.2 Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana

Unibertsitate Planak inbertsioen finantzaketa zehazten du, unibertsitate-jarduerak behar dituen inbertsioak eta azpiegiturak ordaintzeko. Finantzaketa hori berariaz jasota dago plan honetan integratuta dagoen 2011-2015eko Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programan.

Euskal Herriko Unibertsitatean inbertsioak egiteko eta azpiegiturak jartzeko zuzkiduren 2011-2015erako plangintzak xede nagusia du obren premia identifikatu eta arrazoitzea, inbertsioa zein campusetan egingo den eta zenbat diru behar den zehaztea, inbertsioa epeka banatzea eta argitu beharreko gainerako kontuak argitzea.

Inbertsiorako Urte Anitzeko Plan hau aldatu ahal izango da, hura gauzatzean sortzen diren premien eta gauzatze-prozesu horrek duen bilakaeraren arabera. Inbertsioak bi eratakoak dira: baldintzapekoak eta baldintzatu gabekoak.

Baldintzapeko lanen kasuan, Euskal Herriko Unibertsitateak lurzorua eskuratu behar du eta finantzaketa lortu, beste erakunde publiko batzuek egindako ekarpenen bidez nahiz bere ondareaz egindako beste eragiketa batzuen bidez.

Bestetik, baldintzatu gabeko lanak dira berehala egiten hasi daitezkeenak, Euskal Herriko Unibertsitateak behar den lurzorua baduelako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatuko dituela bermatuta dagoelako.



# PLANAREN GOBERNANTZA 6





# PLANAREN GOBERNANTZA 6

## PLANAREN GOBERNANTZAN HIRU OSAGAI NAGUSI DAUDE:

kudeaketa-organoak, finantzaketako kontusailak eta jarraipen-adierazleak.

- Kudeaketa organoak dira plana gidatzen eta egokitzen duten mekanismoak, haren bilakaeraren arabera.
- Finantzaketako kontusaila esku hartzeko tresna nagusia da, eta planaren kudeaketan hartutako erabakiak islatzen ditu.
- Jarraipen-adierazleak planaren gidaritzan laguntzeko tresnak dira, haren aurrerabideari buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa eskainiz.

Jarraian, 2011-2014ko Unibertsitate Planak hiru osagai horien inguruan taxutu duen planteamendua azalduko da.

## 6.1 KUDEAKETA-, JARRAIPEN- ETA KOORDINAZIO-ORGANOAK

Plana era koordinatu eta koherentean bideratzeko, beharrezkoa da hainbat organo izatea, bakoitzak bere eskumen-arlotik politika jakin bat garatzeko ziklo osoa landu ahal izateko, hau da, estrategia diseinatzea, estrategia hori gauzatzea eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

2011-2014ko Unibertsitate Plana zeharkakoa da. Beraz, unibertsitateen jarduera-esparru naturalek eremu zabalak hartzen dituzte, eta askotariko jardueretan parte hartuz hainbat sail eta erakundetan eragiten dute, baita publikoak ez diren bestelako eragileetan ere.

Hori guztia dela-eta, 2011-2014ko Unibertsitate Planak kudeaketa-, jarraipen- eta koordinazio-organoak behar ditu.

**6-1 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren kudeaketa-, jarraipen- eta koordinazio-organoen eskema**




## 6.1.1 Kudeaketa-organoak

Kudeaketa-organoak 2011-2014ko Unibertsitate Plana behar bezala garatu eta gauzatuko dela bermatzeaz arduratzen da. Organo horiek Batzorde Zuzendaria eta Idazkaritza Teknikoa dira.

Batzorde Zuzendaria planaren garapena bultzatzeaz eta sor litezkeen aukeren edo zailtasunen aurrean hura egokitzeko erabaki zuzenak hartzeaz arduratuko da.

Idazkaritza Teknikoa planaren garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz ardura-tuko da, eta Batzorde Zuzendariari horren berri emateaz.

#### 6.1.1.1 Batzorde Zuzendaria

2011-2014ko Unibertsitate Planaren Batzorde Zuzendaria sortu da. Batzorde horren burua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua izango da, eta gutxienez urtean behin bilduko da.

Batzordeko kideak hauek izango dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate zuzendaria.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako zuzendaria.

Batzorde Zuzendariari dagokio plana behar bezala gauzatzen dela sustatzea, betetzen dela ziurtatzea eta, hala bada, bidezko neurriak edo aldaketak proposatzea.

#### 6.1.1.2 Idazkaritza Teknikoa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate Zuzendaritzak hartuko ditu planaren Idazkaritza Teknikoari dagozkion eginkizunak. Horien artean, honako hauek egongo dira:

- Planaren Batzorde Zuzendariari plana gauzatzearekin zerikusia duten alderdi guztien berri ematea.

- Burututako ekintzei eta helburuen betetze-mailari buruzko urteko txostenak presta-tzea.

- Planean ezarritako jarraipen-batzordeen arteko harremanak eta informazio-trukeak koordinatzea.

### 6.1.2 Jarraipen-batzordeak

Planaren jarraipen-batzordeak ekintza itunduen eta euskal unibertsitate-sistemari laguntzeko ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko unitate gisa eratu dira. Azken finean, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako programa-kontratuen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntaren zein Inbertsiorako Urte Anitzeko Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratzen dira.

#### 6.1.2.1 Euskal Herriko Unibertsitateari egindako ekarpen arruntaren jarraipen-batzordea

Euskal Herriko Unibertsitatearen aldeko ekarpen arruntari dagokionez, Kontsulta Batzorde Iraunkorra sortuko da, eta haren xedea izango da Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-eredua ezartzeko oinarri gisa hartu diren baldintza objektiboak mantentzea edo aldatzea.

Batzordeko kideak hauek izango dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea; batzordeburua izango da.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako zuzendaria.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate zuzendaria.

d) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako hiru pertsona.

e) Ekonomia eta Ogasun Saileko ordezkari bat.

Batzordearen eginkizunak hauek izango dira:

- Urtero, Unibertsitatearen aurrekontuaren behin betiko likidazioa aztertzea.
- Unibertsitatearen finantzaketa-premiak baloratzea, adostutako nahikotasun-printzipioarekin bat etorriz.
- Interesgarritzat jotzen dituen kontu guztien berri ematea.

Batzordeak aholkulari bereziak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntza emateko. Era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22.etik 27.era bitarteko artikuluetan zehaztutako arauetara egokitu beharko du batzordeak bere jarduna.

### 6.1.2.2 Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Planaren jarraipen-batzordea

Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programarako jarraipen-batzordea eratuko da eta kide hauek izango ditu:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea; batzordeburua izango da.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako zuzendaria.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate zuzendaria.

d) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bi pertsona.

e) Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko ordezkari bat.

f) Ekonomia eta Ogasun Saileko ordezkari bat.

Batzordearen eginkizunak hauek izango dira:

- Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programaren inguruan egiten den eta onetsitako programa aldatzea dakarren edozein aldaketaren berri izatea.
- Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programa gauzatzeko prozesuaren bilakaeraren berri izatea.
- Programa ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideetara egokituta dagoen jakitea.

Jarraipen-batzordearen bileretan egon ahal izango dira, gai zehatzak aztertzeko, kideen gehiengoak onartzen dituen pertsonak. Pertsona horiek hitza izando dute bileretan, baina botorik ez.

### 6.1.2.3 Programa-kontratuen jarraipen-batzordeak

Programa-kontratuak sinatu eta hilabete igaro aurretik hiru jarraipen-batzorde eratuko dira (euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate bakoitzeko bana), horietan xedatutako guztia behar bezala egingo dela ziurtatzeko eta lanak koordinatzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatearen programa-kontratuen jarraipen-batzordeko kideak hauek izango dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea; batzordeburua izango da.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako zuzendaria.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate zuzendaria.

d) Errektoreak izendatutako bi pertsona.

e) Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko ordezkari bat.

Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen kasuan, d) atala aldatuko da, errektoreak hiru pertsona izendatu beharko baititu, eta e) atala ezabatuko da.

Programa-kontratuen jarraipen-batzorde horietako bakoitza behar bezala eratzeko, kideen gehiengoaren quoruma beharko da.

Jarraipen-batzordeetan, kideen gehiengo osoaren botoez hartu beharko dira erabakiak.

Jarraipen-batzordeen bileretan egon ahal izango dira, gai zehatzak aztertzeko, kideen gehiengoak onartzen dituen pertsonak. Pertsona horiek hitza izango dute bileretan, baina botorik ez.

Jarraipen-batzorde bakoitzeko buruak eginkizun hauek izango ditu:

1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate Zuzendaritzari kudeaketa osoaren eta lortutako emaitzen berri ematea.

2. Unibertsitateek izendatutako ordezkariekin etengabe harremanak izatea, beren programa-kontratuen arduradun gisa.

3. Informazio-truke oro koordinatzea.

Jarraipen-batzordeek batzorde teknikoak sortu ahal izango dituzte; horietan, jarraipen-batzordeek agintzen dizkieten gaiak aztertuko dira.

Batzorde teknikoetan hiru kide izango dira gutxienez eta bost gehienez; jarraipen-batzordeek izendatuko dituzte, ezagupen teknikoak edota zientifikoak kontuan hartuz.

Batzorde teknikoak jarraipen-batzordeetako buruek koordinatuko dituzte, eta haiek arduratuko dira beren jardunaren jarraipena egiteaz ere.

### 6.1.3 Sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa

Hezkuntza eta ikerketa bultzatu eta sustatzeko ahalegina, eta baita ezagutza gizarteari transmititzekoa ere, hainbat eremu barne hartzen dituen zeharkako prozesu bat da, gizarte-bizitzaren arlo askotan eragiten duena. Horregatik, gobernantza-sistemak konplexua izan behar du, erakunde arteko lankidetza eta elkarlana, neurrien osagarritasuna eta proiektuen bultzada koordinatua bideratu ahal izateko.

Horretarako erabiliko diren mekanismo formalak hauek dira:

- **Euskadiko Unibertsitate Kontseilua**. Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak xedatzen duen moduan, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua euskal unibertsitate-sistema koordinatzeko erakundea da, eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholku-erakundea unibertsitate-gaietarako, eta eginkizun hauek ditu:

  - >> Jaurlaritzari, unibertsitateen gaietan eskumena duen sailari eta unibertsitate bakoitzari aurkezten dizkioten gai guztien inguruan aholku ematea.
  - >> Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legea garatze aldera ematen diren xedapen orokorreko proiektuen berri izatea.
  - >> Jaurlaritzak berak jaso aurretik, unibertsitate berriak sortzeko edo onartzeko lege-proiektuen berri izatea.
  - >> Unibertsitateko ezagutza- eta prestakuntza-premien berri izatea eta ematea, baita alderdi horiei dagokienez dagoen gizarte-eskaerari zenbateraino erantzuten zaion jakitea eta ezagutaraztea ere.
  - >> Unibertsitate bakoitzean ezarritako tituluen eta ikasketa-planen egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa jasotzea eta ematea eta, bereziki, titulu-sistema goi-mailako irakaskuntzaren Europako sisteman txerta dadin sustatzea.
  - >> Unibertsitateei elkarren artean informazioa trukatzeko aukera ematea.
  - >> Unibertsitateek batera jarduteko programak bultzatzea, nagusiki ikerketaren eremuari eta irakaskuntzan eta kudeaketan kalitatea ezartzeko eremuari dagokienez, eta unibertsitateak Europako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sisteman txerta daitezen sustatzea.
  - >> Euskal kulturaren arloan beste unibertsitate batzuekiko lankidetza-programak bultzatzea.

- Unibertsitateak, interes orokorreko programak gauzatze aldera, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin elkarlanean aritu daitezen sustatzea. Bereziki, unibertsitateek enpresekin dituzten harremanak sustatuko ditu eta Jaurlaritzak eremu horretan abiarazten dituen ekimenen berri emango du.

- Ikasketetarako beken eta laguntzen arloko oinarrizko arauen berri ematea.

- Oro har, unibertsitateen arteko lankidetzari eta euskal unibertsitate-sistemaren kalitate eta nahikotasunari dagokienez interesgarritzat jotzen diren gaiak ezagutzea, ezagutaraztea eta proposatzea.

- Unibertsitateen euskal sarea sustatzea, irakaskuntza, ikerketa eta kultura-ekimenak koordinatuta eta unibertsitate horietako ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ahalbidetuta, euskara eta euskal kultura indartzearren.

Osaerari dagokionez, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidentea unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburua izango da, eta sailburuordea, berriz, presidenteordea izango da. Kontseiluko kide izango dira:

- Unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburuak izendatutako bost batzordekide; horietako bat arlo horretako sailburuordea izango da.

- Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

- Euskal unibertsitate-sistemako gainerako unibertsitateetako errektoreak.

- Unibertsitateetako edo indarreko legeriarekin bat etorriz sortutako organo baliokideetako gizarte-kontseiluetako presidenteak.

- Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bi batzordekide.

- Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako diputatu nagusiak, edo horiek eskuordetutako pertsonak.

- Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari bat.

- Gizarteko kide bat, unibertsitateen arlokoa ez dena, baina unibertsitateen ordezkari gisa jardungo duena. Kide hau Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren osoko bilkurak izendatuko du, presidentearen proposamenari jarraiki.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko presidentea.

- **Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua**. Kontseilu hau unibertsitate-sistema publikoaren xedeak eta helburuak zehazteko aholkularitza- eta partaidetza-organoa da. Kontseiluko burua unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburua, edo hark eskuordetutako pertsona, izango da, eta beste kide hauek ere izango ditu:

  >> Unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburuak izendatutako sei batzordekide, saila ordezkatuz.

  >> Euskal Herriko Unibertsitateko sei ordezkari: errektorea, errektoreak izendatutako gobernu-kontseiluko hiru kide –irakasleak, ikasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak ordezkatuz– eta Gizarte Kontseiluak bere kideen artean izendatutako bi pertsona.

- **Euskadiko Ikerketa Kontseilua** ikerketaren arloko aholkularitza-organoa da, eta haren arduretako batzuk dira ikerketan bikaintasuna, garapena eta berrikuntza sustatzea eta ikerketa interes sozial, kultural eta ekonomikoetara egokitzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBEK)** Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan goreneko organoa da zientzia-, teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-politikaren aitzindaritzan, eta baita parte-hartzean eta aholkularitzan ere.

- Unibertsitate Planaren zabalkundea eta jarraipena egiteko **sailen arteko batzorde** bat, Eusko Jaurlaritzako sailek osatua, sail bakoitzaren ikuskera eta ikuspuntu estrategikoak jasotzeaz gain helburuak, baliabideak eta aurrekontuak nahiz jardueren programazioa koordinatuko dituena. Zehazki, batzordeko partaideak sail hauek izango dira: Kultura; Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa; Ekonomia eta Ogasuna; Enplegua eta Gizarte Gaiak; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa; Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza; eta Osasuna eta Kontsumoa. Batzordearen funtsezko helburua izango da 2011-2014ko Unibertsitate Planean taxututako jardueren eta Jaurlaritzaren gainerako plangintza estrategikoen arteko koordinazioa bermatzea.

  Koordinazio-lan hori, neurri handi batean, unibertsitate-sistemaren jarduerari lotutako arloetan egingo da: goi-mailako prestakuntza, ikerketa, eta ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia.

  Haren eginkizunetako batzuk izango dira jarduera komunak identifikatzea, sortzen diren sinergiei etekina ateratzea eta politikak garatzean etor litezkeen gatazkei aurrea hartzea.

- **Unibertsitate Politikari buruzko Konferentzia Orokorra** unibertsitatearen politika orokorra adosteko, koordinatzeko eta elkarlanean lantzeko organoa da. Konferentziaren eta sortutako lan-batzordearen bidez, beharrizanen arabera, euskal unibertsitate-politikaren informazio-prozesua bideratzen da, baita hura Espainiako unibertsitate-sistemarekin koordinatzeko prozesua ere.

Ondorengo puntuetan, 2011-2014ko Unibertsitate Planean parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako sailak eta horietako bakoitzak onartutako eskumenak jasotzen dira:

- *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*. Planaren kudeaketa eta garapenaren arduradun nagusi gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio:

  >> Ikasketak, bai erregimen orokorrekoak bai berezikoak, antolatu eta kudeatzea, etapak eta mailak zehaztuz, eta baita goi-mailako hezkuntza eta bizitza osoan zehar prestakuntza jaso edo horretan sakontzea dakarten ikasketa-jarduerak ere.

  >> Politika zientifikoa bultzatzea, ikerketa teorikoa eta aplikatua sustatuz eta koordinatuz.

- *Osasun eta Kontsumo Saila*. Arlo hauetaz arduratzen da: osasungintzaren plangintza eta antolamendua, osasun publikoa eta elikagaien higienea, zaintza epidemiologikoa, farmazia-antolamendua eta kontsumoa. Plana sustatzeari begira, eginkizun hauek ditu:

  >> Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, osasun-arloko profesionalen prestakuntza koordinatzea.

  >> Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, bere eskumen-esparruan diharduten ikertzaileen eta ikerketa-taldeen jarduera babestea eta berariazko azpiegiturak abian jartzea.

- *Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila*. Haren xedea da gizartean balioa sortzea, teknologia berriak sortuz eta horiek produkzio-sarean sartuz. Industriarako I+G+b arloan oinarri zientifiko-teknologikoko proiektuak finkatzeko ildo estrategikoak eta programak sustatzen eta kudeatzen ditu, eta eginkizun horretan eragile nagusia da. Plana sustatzeari begira, eginkizun hauek ditu:

  >> Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, berrikuntzaren eta transferentziaren inguruko Unibertsitate Planeko jarduerak bultzatzea, horiek zehaztu eta garatzeko orduan aukerak eta ekintza osagarriak identifikatzea eta jarduerok gauzatzeko behar diren baliabideak jartzea.

>> Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, euskal unibertsitate-sistemako eragileak babestea beren ikerketa-jardunean eta enpresa-sareari ezagutza transmititzeko ahaleginean, Euskadiko eskaintza zientifiko-teknologikoan eragile izan daitezen.

- *Ekonomia eta Ogasun Saila*. Sail honek parte hartu behar du, planean jasotako konpromiso ekonomikoak direla-eta, bai proposatzen diren programak eta jardunak finantzatzeko bai planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, beti ere sailaren eskumenen baitan.

Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten eragileen jomugak dira goi-mailako hezkuntza, ikerketa eta enpresei, eta gizarteari oro har, ezagutza eta teknologia transmititzea. Jarduera horiek Jaurlaritzako ia sail guztietan dute eragina, baina Unibertsitate Plan berriaren lanketan bereziki engaiatu behar dira politika horiekin estuki loturik dauden eginkizunak dituzten sailak.

Hala, aurrez aipatu lau sailen zuzeneko parte-hartzea alde batera utzita, gainerako sailen zeregina izango da berariazko eskariei erantzuteko jarduera zehatzak bideratzea. Hori da, hain zuzen ere, Enplegu eta Gizartea Gaietako, Kultura edo Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailen eginkizuna, bakoitza bere eskumen-esparruetan[58].

Horrez gain, beste erreferentzia hauek, gutxienez, aintzat hartu beharko dira:

- Sozioekonomia Gaietarako Lehendakariaren Aholkularitza Batzordea, Euskadiren etorkizuneko lehiakortasunaren eta sektore estrategiko eta etorkizun handikoen analisian aktiboki parte hartzen duena.

- Era berean, Estatuko Administrazio Orokorrarekin osatutako erakunde arteko batzordearen bidez, maila horri dagokion koordinazio-lana egingo da.

58. Orain arte, sail horien eta EUSen arteko harremana unibertsitateekin lankidetza-hitzarmenak izenpetuz ezarri da. Gehienak lankidetza-hitzarmenetan eta proiektu eta zerbitzuen kontratazioan gauzatu dira (masterrak eta prestakuntza-jarduerak, argitalpenak, azterlanak eta abar).

## 6.2 FINANTZAKETA

2011-2014ko Unibertsitate Plana abian jartzeko eta Jaurlaritzak ezarritako helburuak betetzeko, beharrezkoa izango da “2014an, goi-mailako hezkuntzan gutxienez BPGaren %1,3 gastatzea, eta 2020an %1,5”. Horretarako aurrekontu-ahalegin handia egin beharko da, hura zehatz eta zorrotz mugatuz eta mekanismo eta formula egokienak bilatuz: finantzaketa-tresna berriak, ekimen pribatuaren partaidetza, administrazioen arteko lankidetza eta abar.

Planean irizpide hauek izan beharko dira kontuan:

- Baliabideak areagotzea, eta horien kudeaketa efiziente eta gardena egitea.
- Beken eta bestelako laguntza-mekanismoen bidez familiei emandako babesa sendotu eta arrazionalizatzea, eta horien onuradunei jardunaren araberako irizpideak ezartzea, errentaren ingurukoez gain.
- Emaitzen araberako finantzabideen pisua areagotzea.
- Eusko Jaurlaritzak konpromiso sakona agertu eta inbertsio ekonomiko sendoak egin beharko ditu I+G+b arloan, eta horretarako aurrekontuko diru-hornidura areagotu beharko da; onuradun nagusia unibertsitatea izango da.
- Gainerako administrazio publikoak, bai foru-aldundiak bai administrazio orokorra, erakarri beharko dira, Jaurlaritzak erakutsitako bide beretik joan daitezen.

### 6-2 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren gastu-helburuak Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako hezkuntzan

| Gastu-helburuak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| Gastua goi-mailako hezkuntzan (M€) (helburua) | 817 | 860 | 909 | 962 |
| Irakaskuntza | 560 | 573 | 585 | 599 |
| Ikerketa eta Transferentzia (I+G) | 257 | 287 | 324 | 363 |
| Gastuaren % goi-mailako hezkuntzan/BPG (helburua) | %1,18 | %1,21 | %1,25 | %1,30 |
| Irakaskuntza | %0,81 | %0,81 | %0,81 | %0,81 |
| Ikerketa eta Transferentzia (I+G) | %0,37 | %0,40 | %0,45 | %0,49 |
| Gastuaren urtez urteko hazkundea goi-mailako hezkuntzan (helburua) | %4,4 | %5,2 | %5,8 | %5,8 |
| Irakaskuntza | %1,4 | %2,1 | %6,0 | %6,0 |
| Ikerketa eta Transferentzia (I+G) | %12,0 | %14,0 | %16,0 | %20,0 |
| Gastu publikoa goi-mailako hezkuntzan (helburua) | 562 | 592 | 628 | 666 |
| Irakaskuntza | 399 | 409 | 419 | 431 |
| Ikerketa eta Transferentzia (I+G) | 163 | 183 | 209 | 235 |
| Gastu publikoaren % goi-mailako hezkuntzan (helburua) | %68,79 | %68,84 | %69,08 | %69,23 |
| Irakaskuntza | %71,27 | %71,41 | %71,55 | %72,02 |
| Ikerketa eta Transferentzia (I+G) | %63,06 | %63,78 | %64,44 | %64,47 |
| Gastu publikoaren urtez urteko hazkundea goi-mailako hezkuntzan (helburua) | %0,22 | %5,38 | %6,05 | %6,05 |
| Irakaskuntza | %1,6 | %2,3 | %2,5 | %2,5 |
| Ikerketa eta Transferentzia (I+G) | %10,5 | %10,5 | %15,0 | %15,0 |

Abiapuntuko irizpide horiekin, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren finantza-baliabideen ildo nagusiak hauek dira, laburbilduta:

- **2014an, goi-mailako hezkuntzan gutxienez BPGaren %1,3 gastatzea**. Hala, Europako nahiz Espainiako batez besteekiko dagoen tartea murriztu nahi da.
- **Unibertsitateen ikerketa- eta transferentzia-jardunean gastua BPGaren %0,49ra areagotzea**; unibertsitateek gastu horren gauzatzean izango duten partaidetza %20 inguruan mantenduko. Horrela, unibertsitateek I+G arloan egindako gastua BPGaren %0,49ra helduko da.
- **Finantzaketa publikoaren pisua guztizkoaren %69 inguru** izaten jarraitzea.

- Euskal eragileen bultzadaz, **Estatuko Administrazio Orokorraren eta Europar Batasunaren sustapen-programetatik itzulkin gehiago lor daitezen sustatzea**.

Goi-mailako hezkuntzan egindako gastuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta beste herrialde eta eskualde batzuen zein Espainiako batez bestekoaren artean dagoen arrakala euskal unibertsitate-sistemaren I+G arloko gauzatze-maila apalagoetan datza, neurri handi batean. Horregatik, beharrezkoa da unibertsitateen I+G arloan baliabide gehiago jartzea. Beste faktore batzuk ere badira noski, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren bilakaera edo unibertsitatea enpresa-lehiakortasuna sustatzeko eragile garrantzitsua bilakatzeko premia.

Hurrengo taulan, Eusko Jaurlaritzak 2011-2014ko Unibertsitate Planari egindako ekarpenaren oinarrizko magnitude ekonomikoak jasotzen dira, eta planteamendu horretarako erabili diren hipotesiak zehazten (BPGaren bilakaera, gastuaren bilakaera I+G arloan BPGarekiko, ekarpen publikoa eta Eusko Jaurlaritzarena, eta abar).

Finantzaketa-iturriari dagokionez, kalkuluak bai eragile publikoenak bai pribatuenak egin dira. Azken horietan, Eusko Jaurlaritzari dagozkion kopuruak 2011-2014ko Unibertsitate Planean sustatu nahi diren jardueretarako funtsak jarri izan ohi dituzten sailetatik datoz.

**6-3 irudia. Euskal unibertsitate-sistemaren finantza-baliabideen jatorria 2011-2014 aldian**

| Finantzaketaren jatorria | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2011-2014 Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **Finantzaketa Pribatua (M€)** | **249,3** | **260,5** | **273,5** | **287,2** | **1.070,4** |
| **Finantzaketa Publikoa (M€)** | **561,7** | **591,9** | **627,7** | **665,7** | **2.447,0** |
| Eusko Jaurlaritza | 492,9 | 519,7 | 551,8 | 586,0 | 2.150,4 |
| Foru-aldundiak eta tokiko erakundeak | 34,0 | 35,7 | 37,5 | 39,4 | 146,7 |
| Estatuko Administrazio Orokorra | 34,8 | 36,5 | 38,3 | 40,3 | 149,9 |
| **Atzerrikoa (EBren finantzaketa barne) (M€)** | **6,3** | **7,2** | **8,3** | **9,5** | **31,3** |
| **Guztira (M€)** | **817,2** | **859,6** | **909,5** | **962,4** | **3.548,7** |
| **Finantzaketa Pribatua (%)** | **%30,5** | **%30,3** | **%30,1** | **%29,8** | **%30,2** |
| **Finantzaketa Publikoa (%)** | **%68,7** | **%68,9** | **%69,0** | **%69,2** | **%69,0** |
| Eusko Jaurlaritza | %60,3 | %60,5 | %60,7 | %60,9 | %60,6 |
| Foru-aldundiak | %4,2 | %4,2 | %4,1 | %4,1 | %4,2 |
| Estatuko Administrazio Orokorra | %4,3 | %4,2 | %4,2 | %4,2 | %4,2 |
| **Atzerrikoa (EBren finantzaketa barne) (%)** | **%0,8** | **%0,8** | **%0,9** | **%1,0** | **%0,9** |
| **Guztira (%)** | **%100** | **%100** | **%100** | **%100** | **%100** |

2011-2014ko Unibertsitate Planak sustatzen dituen jarduerak irakaskuntzaren eta ikerketa eta transferentziaren artean banatuz gero:

- **Irakaskuntza-jardueraren** finantzaketa-iturri nagusia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila da.

- **Ikerketa- eta transferentzia-jardueraren finantzaketak** iturri gehiagotatik edan du; izan ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ez ezik, badira beste sail batzuk ere, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek egiten duten I+G jarduera finantzatzen dutena. Sistemak lortzen duen finantzaketa hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean unibertsitateei dagokienez adierazten dena da.

**6-4 irudia. Eusko Jaurlaritzatik datorren euskal unibertsitate-sistemaren finantzaketa 2011-2014 aldian**

| Finantzaketaren jatorria | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2011-2014 guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila | 427.160.182 | 452.789.793 | 479.957.180 | 508.754.611 | 1.868.661.766 |
| EJko beste sailak (€) | 8.687.254 | 9.309.048 | 10.554.642 | 11.979.537 | 40.530.481 |
| Berrikuntza Fondoa (€) | 20.000.000 | 20.000.000 | 22.000.000 | 24.000.000 | 86.000.000 |
| **EJren aurrekontua guztira (€)** | **455.847.436** | **482.098.841** | **512.511.822** | **544.734.148** | **1.995.192.247** |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (%) | %93,70 | %93,92 | %93,65 | %93,40 | %93,66 |
| EJko beste sailak (%) | %1,91 | %1,93 | %2,06 | %2,20 | %2,03 |
| Berrikuntza Fondoa (%) | %4,39 | %4,15 | %4,29 | %4,40 | %4,31 |
| **EJren aurrekontua guztira (%)** | **%100** | **%100** | **%100** | **%100** | **%100** |

Aurreko planaren ildoari jarraiki, 2011-2014ko Unibertsitate Planak urte anitzeko finantzabideak ditu, dokumentu osoan zehar azaldu direnak:

- Alde batetik, euskal unibertsitate-sistemako hiru unibertsitateen programa-kontratuak. Tipologiaz, ekintza itunduak dira.

- Bestetik, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak euskal unibertsitate-sistemarako ezarritako berariazko finantzabideak: finantzaketa arrunta eta Inbertsiorako Urte Anitzeko Planari laguntza. Tipologiari begira, unibertsitate publikoa babesteko oinarrizko ekintzak dira.

Ondorengo taulan, azalpen horietako bakoitzaren urtez urteko banaketa zehazten da; 2011-2014 aldirako, guztira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1.484 milioi euro jarriko ditu.

### 6-5 irudia. Urte anitzeko finantzabideak bultzatzeko aurrekontua

| Unibertsitatea | Azalpena | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2011-2014 guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| UPV/EHU | **Guztira** | **336.784.246** | **348.749.713** | **363.192.170** | **381.263.094** | **1.429.989.223** |
| | Ekarpen arrunta[59] | 288.767.384 | 294.312.615 | 303.326.212 | 312.303.420 | 1.198.709.631 |
| | Programa-kontratua | 31.168.316 | 34.437.098 | 37.865.958 | 43.959.674 | 147.431.046 |
| | Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana | 16.848.546 | 20.000.000 | 22.000.000 | 25.000.000 | 83.848.546 |
| Deustuko Unibertsitatea | **Programa-kontratua** | **4.485.496** | **5.990.043** | **8.001.570** | **10.001.962** | **28.479.071** |
| Mondragon Unibertsitatea | **Programa-kontratua** | **3.964.004** | **5.509.966** | **7.052.757** | **8.992.265** | **25.518.992** |
| **Guztira** | | **345.233.746** | **360.249.722** | **378.246.497** | **400.257.321** | **1.483.987.286** |

Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsiorako Urte Anitzeko Planak, unibertsitate horrek 2011 eta 2015 arteko aldian behar dituen inbertsio eta azpiegiturak finantzatuko duenak, 123.259.426 euroko aurrekontua izango du guztira. Ondorengo taulan, planean barne hartutako obrak bildu dira.

59. Ekarpen arruntaren atalean sartzen dira IILen ordainsari osagarriak eta lan-kontratudunentzako seiurtekoen dekretuaren ondoriozko zenbatekoak finantzatzeko kontusailak, finantzaketa hori gauzatzeko UPV/EHUk frogagiriak aurkeztu behar dituenean. Hemen jasotako kopuruak aurreikusteko modukoak dira, ekarpen arrunta Jaurlaritzak ezartzen duelako ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, nahikotasun-printzipioarekin bat etorriz eta UPV/EHUrako ekarpen arrunta zehazteko dekretuan xedatzen diren irizpide objektiboei jarraiki.

### 6-6 irudia. Obrak eta horietarako inbertsioak

| Obrak | Inbertsioa (eurotan) |
|---|---|
| Medikuntza Fakultate berria | 76.022.000 |
| FHZF-Psikologia Fakultateko fatxadak berritzea eta klimatizazioa | 1.583.000 |
| Gipuzkoako Campusean guneak GHEEra egokitzea | 4.550.000 |
| CIEA (Arabako Campuseko Gizarte eta Giza Zientziak) | 11.848.000 |
| Leioa-Erandio aldeko ekialdeko aparkalekua | 9.654.000 |
| Erabilera anitzeko prestakuntza- eta berrikuntza-zentroa (Gipuzkoako Campusa) | 7.715.000 |
| Las Nieves ikastegian guneak handitzea | 9.025.000 |
| Erizaintza eta Medikuntzaren eraikina (Gipuzkoako Campusa) | 5.958.000 |
| **TOTAL** | **126.355.000** |

Baldintzatu gabeko lan guztiak barne hartzen dituen kopuru horretatik, 3.095.574 € Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren (MICINN) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ezohiko ekarpenak dira. Beraz, 2011-2015eko Inbertsiorako Urte Anitzeko Planaren finantzaketa osoa 123.259.426 € da.

Eusko Jaurlaritzak bere egiten du Euskal Herriko Unibertsitateak egin duen baldintzatu gabeko lanei buruzko proposamena finantzatzeko konpromisoa. Alabaina, lanak gauzatzeko erritmoari eta aurrekontu-mugei erreparatuz, ezinezkoa izango da finantzaketa 2011-2015 aldi horretara errenditzea, eta beraz finantzaketa-epea luzatu egingo da, 2011-2017 aldira[60], ondorengo taulak erakusten duenez.

### 6-7 irudia. Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana sustatzeko aurrekontua 2011-2017 aldian

| Urtea | Finantzaketa (eurotan) | Eusko Jaurlaritzak emandako mailegua (eurotan) |
|---|---|---|
| 2011 | 3.795.246 | |
| 2012 | 120.000 | 10.000.000 |
| 2013 | 22.000.000 | |
| 2014 | 25.000.000 | |
| 2015 | 30.000.000 | |
| 2016 | 30.000.000 | |
| 2017 | 12.344.180 | - 10.000.000 |
| **Guztira** | **123.259.426** | **0** |

60. 2006-2010eko Inbertsiorako Urte Anitzeko Planean ere jasotzen da hura osoki garatzeko epea, finantzaketa barne, 2012ra arte luzatzea.

Aurreikuspenen arabera, Euskal Herriko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzarekin izango duen zorra 2017ko ekitaldirako diru-laguntzaren kontura itzuliko da.

Euskal Herriko Unibertsitateak beste administrazio batzuekin edo finantza-erakunde pribatuekin gehiago zorpetzeko beharra izanez gero, aurrekontu-baliabideak Inbertsiorako Urte Anitzeko Planaren gauzatze-mailara egokitze aldera, eta Eusko Jaurlaritzaren baimenaz, unibertsitateak bere baliabideak erabiliz ordaindu beharko ditu zorpetze horren ondoriozko kostuak finantzatzeko kopuruak.

Aurreko plana erreferentzia gisa hartuz, aurrekontuak bilakaera hau izatea espero da:

- Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arrunterako kontusailak ez dira haziko eta, horren ordainetan, programa-kontratuetarako finantzaketa haziko da. Azken finean, helburuen araberako finantzaketak pisu handiagoa izango du. Bestalde, finantzabide arruntaren funtzionamendua bera dela-eta, Euskal Herriko Unibertsitateak bere gaur egungo kontabilitatea prozesuen araberako beste batera egokitu beharko du[61], kostuen eta horiek eragiten dituzten prozesuen ikuspegi zehatzagoa izate aldera.

  Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontabilitate analitikoa garatzeko betekizuna ezarri dio Euskal Herriko Unibertsitateari; horrez gain, estatuan hainbat gomendio egin dira Espainiako unibertsitateen finantzaketa-eredu berriak nolakoa izan behar duen adieraziz, eta prozesuen araberako kontabilitate bat garatzeko premia azpimarratzen da horietan. Alde horretatik, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren jarduerak ildo horiekin bat datoz, eta prozesua ahalik eta lasterren bideratu nahi dute.

- Unibertsitate pribatuen programa-kontratuei dagokienez, baliabideak gehitu egin dira 2007-2010eko Unibertsitate Planaren azken urtearekiko, eta 2014an hasierako kopuruak bikoiztu egingo dira. Laburbilduz, unibertsitate pribatuekiko urte anitzeko finantzaketa-esparrua, finkatzeaz gain, garrantzitsuagoa bihurtu da baliabideei erreparatuz gero.

Baliabide horiek guztiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko funtsetatik datoz. Baliabideak gehitu litezke, hainbat arrazoi dela medio:

- Jaurlaritzako beste sail batzuekin edo autonomia-erkidegoko, estatuko zein nazioarteko beste erakundeekin lortutako akordioen ondorioz.

61. UPV/EHUko programa-kontratuek berariazko laguntza jaso dute kontabilitate analitikoa ezartzeko, laguntza horrek egin beharreko ahalegin osoa hartzen ez badu ere.

- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek planean jasotako jarduerak hein batean finantzatzeko erabiliko diren laguntza-deialdietan parte hartzeagatik; laguntza horiek, beti ere, Eusko Jaurlaritzaren bidez kudeatuko dira.

- Egoera ekonomikoa uste baino hobea izanik, aurrekontuan baliabide gehiago dagoelako.

Planean proposatu eta jasotako jarduerak finantzatzeko kopuru gehigarriak egonez gero, kopuruok planaren baitan gauzatu ahal izango dira.

Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aginduz, planaren aurrekontuko diru-hornidura areagotzea baimenduko da funts berrien kopurua gehituz, beti ere arloan eskumena duen jarraipen-batzordeak hori onartzen badu eta gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

## 6.3 JARRAIPEN-SISTEMA

Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten eragileen jomugak dira goi-mailako hezkuntza, ikerketa eta enpresei, eta gizarteari oro har, ezagutza eta teknologia transmititzea. Jarduera horiek Jaurlaritzako ia sail guztietan dute eragina, baina Unibertsitate Plan berriaren lanketan bereziki engaiatu behar dira politika horiekin estuki loturik dauden eginkizunak dituzten sailak.

Horrez gain, beste erreferentzia hauek, gutxienez, aintzat hartu beharko dira:

- Sozioekonomia Gaietarako Lehendakariaren Aholkularitza Batzordea, Euskadiren etorkizuneko lehiakortasunaren eta sektore estrategiko eta etorkizun handikoen analisian aktiboki parte harzen duena.

- Era berean, Unibertsitate Politikari buruzko Konferentzia Orokorraren bidez, maila horri dagokion koordinazio-lana egingo da.

Azkenik, beharrezkoa da partaidetza-prozesu honetan euskal eragile nagusiak engaiatzea, horiek baitira, zalantzarik gabe, plangintza honen protagonista gailenak. Horrenbestez, 2011-2014ko Unibertsitate Plana, bai haren izapidetzea bai gauzatzea, lankidetza- eta partaidetza-prozesu gisa ikusten da, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten eragileekin garatua: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Jarraipena eta ebaluazioa oinarrizko eginkizunak dira 2011-2014ko Unibertsitate Planean, horrek ezarritako helburuen gauzatze- eta betetze-maila uneoro ezagutzeko aukera emango baitigu. Horretarako, bi maila dituen jarraipen-sistema eratu da:

- **Unibertsitate-sistemaren maila**. Unibertsitate-sistemaren egoerarekin lotutako adierazleak barne hartzen ditu. Maila horretan lortutako emaitzak Unibertsitate Planaren bidez egiten diren jardueren araberakoak dira, eta adierazleen irakurketak ahalbidetzen du Unibertsitate Planak euskal unibertsitate-sistemaren bilakaeran egindako ekarpena, hau da, planaren eraginkortasuna.

- **Planaren maila**. Unibertsitate Planaren bidez abian jartzen ari diren tresnen emaitzekin lotutako adierazleak eta helburu estrategikoak betetzearekin lotutakoak barne hartzen ditu. Adierazle guztiak batera interpretatuta, plana gauzatzean lortu den efizientzia baloratu ahal izango da.

**6-8 irudia. Unibertsitate-Sistemaren Aginte-Mahaiaren egitura**




2011-2014ko Unibertsitate Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema hau osatzen duten adierazle guztiek aditzera ematen dute planteamendua asmo handikoa dela, euskal unibertsitate-sistemaren eta Unibertsitate Planaren benetako egoera ezagutu nahi duena; horretarako, analisia eta ebaluazioa egiten eta erabakiak hartzen lagunduko duen aginte-mahai bat eratu nahi da.

Aginte-mahaia abian jartzeko, proposatutako adierazleetako askotan helburu jakin batzuk lortu behar dira. Alde horretatik, nabarmendu beharra dago adierazle batzuetan abiapuntuko datuak ez izatean ezinezkoa dela berariazko helburuak ezartzea, interesgarria izango litzatekeen arren.

Aginte-mahaiarekin batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Informazio Publikoko Sistema bat sortzeko proiektu bat jarri behar du abian, magnitude eta adierazle garrantzitsuenak aintzat hartuz. Horretarako, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateak eta Jaurlaritza elkarlanean aritzeaz gain, kontuan izan beharko da Estatuko Administrazio Orokorra arlo horretan egiten ari den lana, horri esker adierazle-sistema homologagarria sortu ahal izango delako.

Edonola ere, Unibertsitate Planak ere aginte-mahai bat proposatu du, jarraian aurkeztuko diren adierazleez. Batzuek abiapuntuko datuak eta jomuga kuantitatiboak dituzte, eta beste batzuek informazio orokorra baino ez; azken horien inguruko datuak bildu beharko dira, osatzen joateko. Osatu gabeko adierazle gehienak helburu estrategikoen jarraipenari buruzkoak dira.

### 6.3.1 Unibertsitate-sistemaren adierazleak

Sistemaren adierazleak bi kategoriatan banatzen dira: ahalegin-adierazleak eta emaitzen adierazleak. Ahalegin-adierazleek baliabideen erabilera erakusten dute, eta emaitzen adierazleek, berriz, gauzatu diren jardueren eragina, aipatu baliabideez egindako inbertsioaren argitan[62].

Adierazle horien jarraipena egitea interesgarria da aldi jakin batean gauzatu diren jarduera guztien eragina islatzen dutelako, eta ez soilik Unibertsitate Planak bultzatutakoena.

Unibertsitate Plana eta haren baitako jarduerak behar bezala bideratuz gero, planak sustatutako ekimenek sistemaren adierazleen gainean eragina izan beharko lukete.

**6-9 irudia. Sistemaren adierazleak: ahalegin-adierazleak**

| Adierazleak | EAEko egungo egoera | Jomugak 2014 | Jomugak 2020 | Iturriak |
|---|---|---|---|---|
| Ahalegin-adierazleak | | | | |
| Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan BPGarekiko | %0,97 (2008) | %1,3 | %1,5 | Eustat, INE, ELGA |
| Unibertsitateek I+Gn egindako gastua BPGarekiko | %0,35 (2009) | %0,49 | %0,5 | Eustat, INE, ELGA, Eurostat |
| Goi-mailako hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikoaren ehunekoa, familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietarako (bekak, laguntzak…) | %5,5 (2008) | %8 | %10 | Egileak, ELGA |

62. Salbuespen gisa, ahalegin-adierazle izan beharrekoren bat aginte-mahai honen emaitza-adierazle gisa sailkatu da. Erabaki hori hartu da dagokion jarduerarako baliabideak emate hutsa EUSerako mugarri estrategiko bat delako. Adierazle horietako bat da, adibidez, unibertsitateek I+G arloan egindako gastua.

Emaitzen adierazleak, finean, Unibertsitate Planaren xede-helburuekin estuki loturik daude. Horrenbestez, jomuga dituzten arloak irakaskuntza, ikerketa, transferentzia eta baliabideen erabileran kalitatea, efizientzia eta gardentasuna bermatzea dira.

**6-10 irudia. Sistemaren adierazleak: emaitzen adierazleak**

| Adierazleak | EAEko egungo egoera | Jomugak 2014 | Jomugak 2020 | Iturriak |
|---|---|---|---|---|
| Emaitzen adierazleak | | | | |
| Hirugarren mailako hezkuntza duen biztanleria (25 eta 64 urte artekoa) | %42,3 (2008) | %45 | %50 | INE, Eurostat, ELGA |
| Atzerrian ikasten duten Euskal Unibertsitate Sistemako (EUS) ikasleen ehunekoa | %2,2 (2009) | %10 | %20 | Egileak (graduondoan UPV/EHUren daturik ez dago), ELGA |
| EUSen goi-mailako hezkuntzan matrikulatuta dauden nazioarteko ikasleen ehunekoa | %5,3 (2009) | %10 | %20 | Egileak, ELGA |
| Hirugarren mailako hezkuntza duen biztanleriaren langabezia-tasa | %2,8 (2008) | %2,5 | %2 | Eustat, INE, Eurostat, ELGA |
| Doktore-tesien kopurua milioi bat biztanleko | 162 (2009-2010) | 240 | 300 | INE |
| ISI argitalpenak milioi bat biztanleko | 770 (2008) | 1.000 | 1.500 | Egileak |
| EUSek eskatutako EPO patenteak milioi bat biztanleko | 36 (2008) | 50 | 75 | Egileak, Eurostat |
| Unibertsitateek sortutako enpresen kopurua | 19 (2009-2010) | 68 | 80 | Egileak, EUSen datuez |
| Unibertsitateek I+Gn egindako gastuaren ehunekoa, I+Gn egindako gastu osoarekiko | %14 (2008) | %20 | %33 | INE, Eurostat, ELGA |
| Unibertsitateek I+Gn egindako gastutik enpresek finantzatutako ehunekoa | %8,6 (2009) | %15 | %20 | Eustat, Katalunia eta Madrilgo Estatistika Institutuak, INE |
| Bekadunen ehunekoa EUSen | %18 (2008) | %22 | %25 | Egileak, INEren datuez* |

*(ez dira hiru seme-alabako familia ugarientzako prezio-hobariak barne hartu)

Sistemaren adierazle gisa sartutako adierazle guztiak estatistika ofizialetatik datoz: Eustat, INE, ELGA eta nazioartean onartuak diren beste hainbat metrika.

## 6.3.2 Estrategiaren adierazleak

Estrategiaren adierazleen xedea planaren helburu estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egitea da.

Adierazle horietarako ezarritako jomugak lortzea edo ez izango da Unibertsitate Planak Helburu Estrategikoetan eragite aldera bultzatu dituen tresnen efizientziaren neurria.

**6-11 irudia. Estrategiaren adierazleak**

| Helburu estrategikoak | Adierazle-kopurua |
|---|---|
| **HE1**. Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez | 10 |
| **HE2**. Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea | 3 |
| **HE3**. Euskal gizartearen prestakuntzako eskaera bereziei erantzutea, eta batik bat unibertsitateko zerbitzu eta jarduera guztiak euskaraz eskaintzea | 4 |
| **HE4**. EUSeko unibertsitateetako ikerketa-jardueraren produktibitatea eta eragina areagotzea | 6 |
| **HE5**. EUSeko unibertsitateetako ikerketa-jarduera nazioartera zabaltzea | 4 |
| **HE6**. Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko eta ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan | 4 |
| **HE7**. Ezagutza enpresa-sarera transmititzeko eginkizunean unibertsitatea erreferentziako eragile nagusi bihurtzea | 6 |
| **HE8**. Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea, ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz, bereziki ikerketaren arloan | 5 |
| **HE9**. Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bermatzea, baliabideak era eraginkor eta gardenean erabiliz eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat eratuz | 6 |
| **Estrategiaren adierazleak guztira** | **48** |

Hautatutako adierazleak, A.1 eranskinean deskribatuak, osatu beharko dira aintzat hartuz estatuan abian jarri diren lan-batzordeetan egindako gomendioak eta adierazle bakoitzaren berariazko helburuak zehazte aldera bildutako abiapuntuko informazioa.

## 6.3.3 Planaren garapenari buruzko adierazleak

Planaren garapenari buruzko adierazleak tresnen jarraipen eta ebaluazioaren ingurukoak dira. Ekintza-motaren arabera sailkatu dira:

- *Sistemako ekintzen adierazleak*. Tankera horretako ekimenen gauzatze-maila neurtzeko balio dute. Ekintza horiek helburu zehatzik ez dutenez, adierazleek aurrekontuaren eta gauzatze-mailaren jarraipena soilik egiten dute. Beraz, esleitutako aurrekontua erabiliz egindako jarduera-kopurua aintzat hartzen da ekimen bakoitzaren jarraipen-adierazleetan.

- *Ekintza itunduen adierazleak*. Ekintza itunduen adierazleen helburua da euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin adostu diren programa-kontratuetan ezarritako jomugak bete diren neurtu eta ebaluatzea. Adierazleak kuantitatiboak zein kualitatiboak dira. Lehenengoetan, helburuak zenbakiei buruzkoak dira, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek aurrez adostutako emaitzak lortu dituzten ezagutze aldera. Adierazle kualitatiboek ebaluatzen dute mugarri gisako elementu jakin batzuk ezarritako epeak errespetatuz egiten ari diren. A.2 eranskinean, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen programa-kontratuei buruzko informazioa jaso da, programa-kontratu bakoitzaren adierazleak eta jomugak barne.

- *Unibertsitate-sistema publikoari laguntzeko oinarrizko ekintzen adierazleak*. Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkor gisa ezarritako bi finantzabideen –ekarpen arrunta eta Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana– jarraipen eta ebaluazioaren ingurukoak dira adierazleok. Tresna horien erabilera-maila neurtzeko jarraipen-adierazleak dira. Ebaluazioaren xedea da Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak ezarritako finantzabide horiek behar bezala funtzionatzen dutela begiratzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak adostutako protokoloekin bat etorriz.




MONDRAGON
GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA

# PLANA ABIARAZTEA 7





# PLANA ABIARAZTEA 7

2011-2014KO UNIBERTSITATE PLANA EUSKAL unibertsitate-sistemako unibertsitateentzat berebiziko garrantzia duen garai batean jarriko da abian. Izan ere, Bolognako prozesura egokitze aldera Europar Erkidegoko araudiak bete beharrak eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeko premiak bultzatuta, unibertsitateak aldaketa-prozesu betean daude. Aldaketa behar bezala bideratzeko, ezinbestekoa da irakasteko eta ikasteko eredu berri bat finkatzea eta irakasle, ikertzaile eta ikasleen nazioarteko trukean parte hartzeak duen garrantziaz jabetzea eta horretarako interesa izatea.

Estatu osoan hausnarketa zabaldu da unibertsitate-ereduari buruz, haren finantzabideei buruz eta emaitzetan eraginkortasuna eta baliabideak kudeatzean efizientzia sustatzeko moduei buruz. 2011-2014ko Unibertsitate Plan honek bat egiten du, noski, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek leku nabarmena duten Euskal Herriko beste estrategia eta plan batzuekin.

Nazioarteko, estatuko eta Euskal Herriko testuinguruak barne hartzen dituen ikuspegi zabal horretatik, 2011-2014ko Unibertsitate Planak gure unibertsitateen, gure ikerketa-taldeen eta gure ikasleen gaitasunak akuilatu behar ditu.

Egokiera honek eskaintzen dituen aukerak behar bezala kudeatu ahal izateko, euskal unibertsitate-sistemak, lehenik eta behin, erabakiak hartzeko prozesua hobetuko duten tresnak izan behar ditu. Horri dagokionez, 2011. urtean buru emango zaio azken urteotan garatu den informazio-sistemari. Adierazleen taula integratu bat elikatuko du sistema horrek, planaren esparru estrategiko bakoitzean egindako aurrerabidearen informazio eguneratua jasotzeko.

Bestalde, epe laburrean, 2011-2014ko Unibertsitate Plana behar bezala garatzeko, beharrezkoa da beste eragile instituzional batzuk engaiatzea eta plana helburu berak dituzten beste plan batzuekin koordinatzea, esaterako 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin. Beraz, Unibertsitate Planak sustatutako jarduerak beste estrategia batzuek finkatutako helburu eta lehentasunetara egokituko dira, posible denean eta sinergiak batzeko baliagarria denean.

Azkenik, orain ernatzen ari diren ekarpenak eta hausnarketak aintzat hartuta garatu behar da plana. Horretarako, kudeaketaren arduradunek konpromisoa hartu dute euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin informazioa eta iritziak azkar trukatzeko; hala, sistemak behar bezalako funtzionamendua izango duela bermatuko da, jarduerak elkarlanean garatuz eragile guztiek etekina atera ahal izan diezaien.





# ERANSKINAK





# ERANSKINAK

A.1. ESTRATEGIAREN JARRAIPEN-ADIERAZLEEN DESKRIBAPENA

A.2. EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAKO UNIBERTSITATEEN PROGRAMA-KONTRATUAK

A.2.1. Euskal Herriko Unibertsitatea

A.2.2. Deustuko Unibertsitatea

A.2.3. Mondragon Unibertsitatea

A.3. EKARPEN ARRUNTAREN ETA INBERTSIORAKO URTE ANITZEKO PLANAREN JARRAIPEN-PROZEDURAREN DESKRIBAPENA

A.4. AKRONIMOEN ZERRENDA

A.5. EUSKO LEGEBILTZARREKO HEZKUNTZA BATZORDEAK ONARTUTAKO EBAZPENAK

# A.1. ESTRATEGIAREN JARRAIPEN-ADIERAZLEEN DESKRIBAPENA

Estrategiaren jarraipen-adierazleen xedea da planak bideratutako jarduerak haren helburu estrategikoak lortzeko zenbateraino diren eraginkorrak aztertzea.

2011-2014 aldian, euskal unibertsitate-sistemak jarraian aipatzen diren adierazleak modu eraginkorrean kalkulatu eta eguneratzeko informazio-sistema egoki bat eratu behar du. Adierazle estrategikoen taula hori estatuan abian jarri diren lan-batzordeetan egindako gomendioak aintzat hartuz osatuko da.

## A.1-1. HE1. Prestakuntza arautuan erreferentziako irakaslana finkatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzeko gai izango dena, berrikuntzan oinarrituta eta hirueletasunaren alde eginez

**Adierazleak**

1.1. Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten IILen ehunekoa urtero (GHEEko irakaskuntza-ikaskuntza eredu berria, prestakuntza zientifiko edota pedagogikoa eta abar)
1.2. Eskola euskaraz emateko gai diren IILen ehunekoa
1.3. Eskola ingelesez emateko gai diren IILen ehunekoa
1.4. Euskaraz emandako ECTS kopuruaren urtez urteko hazkundea
1.5. Ingelesez emandako ECTS kopuruaren urtez urteko hazkundea
1.6. Mugikortasun- eta truke-programetan parte hartzen duten bertako ikasle-kopuruaren urtez urteko hazkundea: gradua, masterra eta doktoregoa
1.7. EUSeko nazioarteko ikasle-kopuruaren urtez urteko hazkundea: gradua, masterra eta doktoregoa
1.8. Ikasle/irakasle ratioa
1.9. Enplegagarritasun-tasa
1.10. Unibertsitate-tituluari lotutako enplegua

## A.1-2. HE2. Etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko eskaintza erakargarri eta aurreratua egitea

**Adierazleak**

2.1. Etengabeko prestakuntza-programen kopuruaren urtez urteko hazkundea
2.2. Etengabeko prestakuntzako edo prestakuntza jarraituko programetan parte hartzen duten ikasleen kopuruaren urtez urteko hazkundea
2.3. Etengabeko prestakuntzako edo prestakuntza jarraituko programetan eskola ematen duten IILen kopuruaren urtez urteko hazkundea

## A.1-3. HE3. Euskal gizartearen prestakuntzako eskaera bereziei erantzutea, eta batik bat unibertsitateko zerbitzu eta jarduera guztiak euskaraz eskaintzea

**Adierazleak**

3.1. ECTSen %50 baino gehiago euskaraz eman daitezkeen graduko tituluen kopurua
3.2. Edukien %50 baino gehiago euskaraz eman daitezkeen etengabeko prestakuntzako edo prestakuntza jarraituko programen kopurua
3.3. Ikasketak euskaraz egiten dituzten graduko ikasleen kopurua (ECTSen %50 baino gehiago)
3.4. Euskaraz irakurritako tesi-kopuruaren urtez urteko hazkundea

## A.1-4. HE4. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jardueraren produktibitatea eta eragina areagotzea

**Adierazleak**

4.1. Ikertzaile-kopuruaren urtez urteko hazkundea (LOB)
4.2. ISI aldizkarietan argitaratutako artikulu-kopuruaren urtez urteko hazkundea
4.3. Argitalpenen batez besteko oihartzunaren urtez urteko hazkundea
4.4. Ikerketa sustatzeko eskualdeko eta estatuko lehiaketa-deialdietan lortutako itzulkinen urtez urteko hazkundea
4.5. Urtez urte irakurritako tesi-kopurua
4.6. Administrazio eta zerbitzuetako langileen eta irakaskuntza eta ikerketako langileen arteko ratioa (AZL/IIL)

## A.1-5. HE5. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako ikerketa-jarduera nazioartera zabaltzea

**Adierazleak**

5.1. Mugikortasun-programetan parte hartzen duten IILen ehunekoa (4 astetik gorako egonaldiak)
5.2. 4 astetik gorako egonaldiak egin dituzten nazioarteko ikertzaile bisitarien urtez urteko hazkundea (%)
5.3. Esparru-programako deialdietan edo beste batzuetan lortutako itzulkinen urtez urteko hazkundea (%)
5.4. Irakurritako nazioarteko tesi-kopurua

## A.1-6. HE6. Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko eta ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan

### Adierazleak

6.1. Gizarte-erakundeekin egindako lankidetza-hitzarmenen kopuruaren urtez urteko hazkundea
6.2. Proiektu sozialen kopuruaren urtez urteko hazkundea (%)
6.3. Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren (UGE) Memoria duten unibertsitateen kopurua
6.4. Komunikazio Plana duten unibertsitateen kopurua

## A.1-7. HE7. Ezagutza enpresa-sarera transmititzeko eginkizunean unibertsitatea erreferentziako eragile nagusi bihurtzea

### Adierazleak

7.1. Enpresetarako proiektuak egiten ari diren unibertsitateko ikertzaileen ehunekoa
7.2. Kontratupeko diru-sarreren urtez urteko hazkundea
7.3. Enpresekin lankidetzan egindako tesi-kopurua (enpresa batean egindakoak, enpresak finantzatutakoak eta abar)
7.4. Enpresekin egindako lankidetza-akordio egonkorren kopurua (urte anitzeko iraupena dutenak)
7.5. Norbere titulartasunaz erregistratutako patente-kopuruaren urtez urteko hazkundea
7.6. Spin-off kopuruaren urtez urteko hazkundea

## A.1-8. HE8. Talentu handiko pertsonak prestatu, erakarri eta atxikitzea, ibilbide profesional erakargarria egin ahal izateko baldintza egokiak sortuz, bereziki ikerketaren arloan

### Adierazleak

8.1. EUSek eta haren eragileek sustatutako sentsibilizazio-programetan parte hartzen duen ikastetxeen kopuruaren urtez urteko hazkundea
8.2. Erakarri edo berreskuratutako ikertzaileen kopurua (EUSetik kanpo 2 urtez baino gehiagoz egondakoak)
8.3. Seiurtekoen guztizko kopurua/ILLen guztizko kopurua
8.4. Estatuko batez bestekoaz gaindiko oihartzun-indizea duten ikertzaileen ehunekoa
8.5. Europako batez bestekoaz gaindiko oihartzun-indizea duten ikertzaileen ehunekoa

### A.1-9. HE9. Kalitatezko zerbitzu-eskaintza bermatzea, baliabideak era eraginkor eta gardenean erabiliz eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat eratuz

| Adierazleak |
|---|
| PRESTAKUNTZA ARAUTUA<br>9.1. Audit programaren ebaluazio positiboa lortu duten zentroen ehunekoa<br>9.2. Docentia programan ebaluazio positiboa lortu duten zentroen ehunekoa<br>9.3. Aipamena lortu duten masterren ehunekoa<br>9.4. Aipamena lortu duten doktoregoen ehunekoa |
| IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA<br>9.5. Ikerketa eta transferentzia sustatzeko zerbitzu orokorretan lortutako ziurtagiriak |
| KUDEAKETA<br>9.6. Kontabilitate analitikoa ezarria duten unibertsitateen kopurua |

## A.2. EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAKO UNIBERTSITATEEN PROGRAMA-KONTRATUAK

### A.2.1. Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen baliabideak nabarmen haziko dira 2011-2014 aldian. Hazkunde horren zergatiak hauek dira:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak tresna hori finkatzearen alde egin duen apustua.
- Baliabideak Finantzaketa Arruntaren mekanismotik programa-kontratuetara aldatu izana; azken finean, emaitzen araberako finantzaketari pisu handiagoa eman zaio.

Testuinguru horretan, ikerketako programa-kontratua da baliabide gehien erakarri duena, hain zuzen tresna horren bidez hitzemandako baliabideen erdia baino gehiago. Programa-kontratu horren barruan, pisu handieneko jarduerak ikerketa-taldeen I+G proiektuak eta doktoreen prestakuntza babestera eta biblioteka ikerketa-baliabideez hornitzera zuzendutakoak dira.

Bigarren programa-kontratu garrantzitsuena prestakuntza arautuari buruzkoa da, eta haren helburuak dira irakaskuntzako azpiegiturak (biblioteka, laborategiak eta abar) hobetu eta egokitzea eta gradu zein graduondoko tituluen curriculuma taxutzea. Aurreko planean proposatutako ekimenei jarraipena emanez, honakoan ere sustatuko diren

arloak dira titulu-eskaintza hirueleduna bultzatzeko gaitasunak garatzea, nazioarteko ikasleak erakartzea, irakaskuntzan kalitatea ziurtatzeko jarduerak bideratzea eta bertaratu beharrik gabeko prestakuntzarako tresnak eratzea.

Aurrekari horiekin, Euskal Herriko Unibertsitateko programa-kontratuen aurrekontua honela banaturik dago:

**A.2-1 irudia. Baliabideen banaketa programa-kontratuaren arabera Euskal Herriko Unibertsitatean**

| Programa-kontratuak | 2011 | | 2012 | | 2013 | | 2014 | | 2011-2014 guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % |
| Prestakuntza arautua | 10.616.610 | 34 | 11.450.768 | 33 | 13.235.406 | 35 | 16.475.751 | 37 | 51.778.535 | 35 |
| Arautu gabeko prestakuntza | 220.170 | 1 | 220.170 | 1 | 220.170 | 1 | 220.170 | 1 | 880.680 | 1 |
| Ikerketa | 15.908.880 | 51 | 18.198.511 | 53 | 19.282.136 | 51 | 21.525.914 | 49 | 74.915.441 | 51 |
| Transferentzia | 1.125.000 | 4 | 1.144.000 | 3 | 1.189.417 | 3 | 1.365.300 | 3 | 4.823.717 | 3 |
| Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa | 3.297.656 | 11 | 3.423.649 | 10 | 3.938.829 | 10 | 4.372.539 | 10 | 15.032.673 | 10 |
| **Guztira** | **31.168.316** | **100** | **34.437.098** | **100** | **37.865.958** | **100** | **43.959.674** | **100** | **147.431.046** | **100** |

2007-2010eko Unibertsitate Planeko programa-kontratuen bilakaera aintzat hartuta, 2011-2014ko Unibertsitate Planean Euskal Herriko Unibertsitatearen erronka garrantzitsua da enpresa-sarearekin duen harremana sendotzea. Alde horretatik, bere ikerketa-gaitasunean egindako aurrerabideak eta transferentziarako zenbait azpiegitura abian jarri izanak helburu hori lortzen lagundu beharko lukete.

Jarraian, programa-kontratu bakoitzean jasotako jarduerak, horien finantzaketa eta adierazleak eta urteroko bakoitzerako proposatutako jomugak bildu dira.

# A.2.1.1. Prestakuntza arautua

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. UPV/EHUren irakaskuntza-eredua eta graduko tituluen eskaintza finkatzea | 1.1. Tituluen eskaintza eta ezarpena hobetzea | 400.985 | 400.000 | 400.985 | 400.985 | 1.602.955 |
| | 1.2. Graduko eta graduondoko tituluen curriculuma taxutzea | 763.710 | 709.000 | 654.500 | 700.000 | 2.827.210 |
| | 1.3. Graduko eta graduondoko tituluen jarraipena egitea | 66.775 | 66.000 | 66.775 | 66.775 | 266.325 |
| 2. Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen funtzionamendua hobetzea | 2.1. Bertaratu beharrik gabeko prestakuntzarako zerbitzuen eskaintza bat eratzea: UPV/EHUko Campus Birtuala eta dedikazio partzialeko ikasleak | 500.170 | 500.170 | 500.170 | 500.170 | 2.000.680 |
| | 2.2. Irakaskuntzako azpiegiturak (biblioteka, laborategiak...) hobetu eta egokitzea | 4.724.150 | 4.700.000 | 4.700.000 | 4.715.000 | 18.839.150 |
| | 2.3. Baliabide-zentroa | 266.940 | 266.000 | 266.000 | 266.000 | 1.064.940 |
| | 2.4. Informatikako ekipamendua jartzea | 300.000 | 300.000 | 300.000 | 300.000 | 1.200.000 |
| 3. Graduondoko eskaintza antolatzea eta hobetzea: graduondoko tituluen mapa | | 247.070 | 247.070 | 247.070 | 247.070 | 988.280 |
| 4. Euskarazko irakaskuntza-eskaintza bultzatzeko jarduerak | 4.1. IILen prestakuntza: doktore-tesiak euskaraz egiteko bekak | 383.550 | 383.550 | 390.000 | 400.000 | 1.557.100 |
| | 4.2. Euskarazko aplikazio informatikoak erosi, kokatu eta mantentzea | 66.770 | 66.770 | 66.770 | 66.770 | 267.080 |
| | 4.3. Euskarazko liburuen ekoizpena, itzulpena eta argitalpena bultzatzea | 504.000 | 449.500 | 450.000 | 504.000 | 1.907.500 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 5. Irakaslanaren nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatzea | 5.1. Nazioarteko ikasleak hartzea | 70.000 | 15.500 | 70.000 | 70.000 | 225.500 |
| | 5.2. Nazioarteko unibertsitateekin akordioak lotzea | 26.710 | 26.710 | 26.710 | 26.710 | 106.840 |
| | 5.3. Ingelesezko eskaintza akademikoa bermatzea | 400.660 | 346.160 | 300.000 | 402.000 | 1.448.820 |
| | 5.4. Masterren nazioartekotzea eta doktoregoak egitea bultzatzea (Latinoamerika) | 267.100 | 267.200 | 267.200 | 267.100 | 1.068.600 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 6. IIL eta AZLak prestatzeko plana | 6.1. Neurrira egindako prestakuntza eta online ikastaroen diseinua AZLentzat | 315.340 | 315.340 | 315.340 | 315.340 | 1.261.360 |
| | 6.2. IILen prestakuntza zientifiko eta pedagogikoa bultzatzea | 160.270 | 160.000 | 160.000 | 160.000 | 640.270 |
| | 6.3. IIL eta AZLen euskarazko trebakuntza | 26.710 | 26.710 | 26.710 | 26.710 | 106.840 |
| | 6.4. IIL eta AZLen trebakuntza ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuetan | 166.940 | 166.000 | 166.000 | 166.000 | 664.940 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 7. Irakaskuntzari lotutako kalitate-ziurtagiriak lortzea | 7.1. Audit ziurtagiriak | 66.775 | 66.000 | 66.000 | 66.000 | 264.775 |
| | 7.2. Docentia ziurtagiriak | 66.775 | 66.000 | 66.000 | 66.000 | 264.775 |
| | 7.3. Masterreko programen aipamenak | 647.660 | 645.000 | 647.660 | 647.660 | 2.587.980 |
| | 7.4. Doktoregoko programen aipamenak | 133.550 | 130.000 | 133.550 | 133.550 | 530.650 |
| V. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | | |
| 8. Sartu diren IIL eta AZL berriak | | 44.000 | 1.132.088 | 2.947.966 | 5.961.911 | 10.085.965 |
| **GUZTIRA** | | **10.616.610** | **11.450.768** | **13.235.406** | **16.475.751** | **51.778.535** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Arrakasta-tasa graduko ikasketetan (gainditutako kreditu kop./aurkeztutako kreditu kop.) – (%) | Giza Zientziak | 84,6 | 85,2 | 85,8 | 86,4 | 87,0 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 78,8 | 79,0 | 80,0 | 81,0 | 82,0 |
| | Zientzia Esperimentalak | 92,0 | 92,0 | 92,0 | 92,0 | 92,0 |
| | Osasun Zientziak | 85,7 | 86,2 | 86,8 | 87,4 | 88,0 |
| | Zientzia Teknikoak | 92,1 | 92,1 | 92,1 | 92,1 | 92,1 |
| 2. Arrakasta-tasa masterretan (gainditutako kreditu kop./aurkeztutako kreditu kop.) – (%) | Giza Zientziak | 95,0 | 95,2 | 95,4 | 95,6 | 95,8 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 93,3 | 94,0 | 94,0 | 94,0 | 94,0 |
| | Zientzia Esperimentalak | 96,0 | 96,2 | 96,4 | 96,6 | 96,8 |
| | Osasun Zientziak | 94,0 | 94,2 | 94,4 | 94,6 | 95,0 |
| | Zientzia Teknikoak | 93,2 | 93,2 | 94,0 | 94,2 | 94,8 |
| 2. Eskola uztearen tasa graduko ikasketetan – (%) | Giza Zientziak | 15,0 | 14,6 | 14,2 | 13,9 | 13,5 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 27,0 | 26,2 | 25,4 | 24,7 | 24,0 |
| | Zientzia Esperimentalak | 18,0 | 17,5 | 17,0 | 16,5 | 16,0 |
| | Osasun Zientziak | 29,0 | 28,2 | 27,4 | 26,7 | 26,0 |
| | Zientzia Teknikoak | 35,0 | 34,4 | 33,8 | 33,1 | 32,5 |
| 3. Eskola uztearen tasa masterretan – (%) | Giza Zientziak | 8,0 | 7,8 | 7,7 | 7,5 | 7,2 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 14,0 | 13,8 | 13,4 | 13,2 | 13,0 |
| | Zientzia Esperimentalak | 10,0 | 9,8 | 9,5 | 9,3 | 9,0 |
| | Osasun Zientziak | 14,0 | 13,8 | 13,4 | 13,2 | 13,0 |
| | Zientzia Teknikoak | 16,0 | 15,8 | 15,4 | 15,6 | 15,0 |
| 4. Errendimendu-tasa graduko ikasketetan (gainditutako kreditu kop./aurkeztutako kreditu kop.) – (%) | Giza Zientziak | 70,5 | 71,6 | 72,8 | 74,0 | 75,0 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 57,1 | 58,8 | 60,5 | 62,3 | 64,0 |
| | Zientzia Esperimentalak | 83,9 | 83,9 | 83,9 | 84,0 | 84,0 |
| | Osasun Zientziak | 67,7 | 69,0 | 71,0 | 73,0 | 75,0 |
| | Zientzia Teknikoak | 71,4 | 73,1 | 74,9 | 76,7 | 78,0 |
| 5. Errendimendu-tasa masterretan (gainditutako kreditu kop./aurkeztutako kreditu kop.) – (%) | Giza Zientziak | 68,7 | 70,0 | 71,2 | 73,0 | 75,0 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 84,2 | 85,0 | 86,2 | 87,4 | 88,2 |
| | Zientzia Esperimentalak | 92,2 | 93,0 | 93,2 | 93,4 | 93,6 |
| | Osasun Zientziak | 90,0 | 91,4 | 91,8 | 92,0 | 92,3 |
| | Zientzia Teknikoak | 85,0 | 86,0 | 87,2 | 88,4 | 89,0 |
| 6. Bertaratu beharrik gabeko prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten graduko eta graduondoko ikasleak – (kop.) | | 2.338 | 2.378 | 2.420 | 2.460 | 2.500 |
| 7. Graduko ikasketetan metodologia aktiboez emandako kredituak kredituen guztizkoarekiko – (%) | | 10 | 25 | 60 | 80 | 100 |
| 8. Euskaraz argitaratutako unibertsitateko eskuliburu eta liburuak – (kop.) | | 20 | 20 | 20 | 21 | 21 |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9. Euskaraz eskainitako kredituak (gradua eta masterra) – (%) | | 75 | 76,50 | 78,10 | 79,50 | 81,20 |
| 10. Euskarazko ECTSak masterretan – (kop.) | | 500 | 512 | 525 | 540 | 550 |
| 11. IIL elebidunak – (%) | | 41,20 | 42,40 | 43,70 | 45,00 | 46,30 |
| 12. Ikasleek mailegatutako liburuak – (kop.) | Gradua | 130.000 | 132.000 | 134.000 | 136.000 | 138.000 |
| | Graduondoa | 16.000 | 16.500 | 17.000 | 17.500 | 18.000 |
| 13. Doktoreak IIL elebidunen artean – (%) | | 60,00 | 61,00 | 62,50 | 64,00 | 66,00 |
| 14. Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-zentroentzat prestatutako jarduerak – (kop.) | | 13 | 13 | 14 | 14 | 15 |
| 15. Praktikak egiten ari diren UPV/EHUko ikasleak hartzen dituzten bigarren hezkuntzako zentroak – (kop.) | | 69 | 70 | 95 | 110 | 120 |
| 16. Enpresa eta erakundeetan borondatezko praktikak egiten dituzten ikasleak – (%) | | 20 | 25 | 35 | 40 | 45 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 17. Erasmus ikasleak – (%) | | 1,78 | 1,82 | 1,88 | 1,93 | 1,98 |
| 18. Beste herrialde batzuetatik heldutako graduko eta graduondoko ikasleak – (kop.) | | 646 | 700 | 800 | 875 | 950 |
| 19. Ingelesez eskainitako ECTS edo kredituak tituluen guztizkoarekiko – (%) | Gradua | 4,20 | 4,40 | 4,60 | 4,80 | 5,00 |
| | Masterra | 7,80 | 8,10 | 8,50 | 9,00 | 9,40 |
| 20. Master eta doktoregoko programak Euskampuseko erakunde elkartuekin – (kop.) | | 4 | 5 | 7 | 8 | 10 |
| 21. Nazioarteko edo ingelesez emandako unibertsitate arteko masterrak – (kop.) | | 7 | 8 | 10 | 11 | 12 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 22. Irakasleak prestatu eta birziklatzeko ikastaroak – (kop.) | | 307 | 325 | 350 | 375 | 400 |
| 23. Kalitatezko prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa (metatua) – (%) | | 10 | 20 | 50 | 75 | 90 |
| 24. UPV/EHUren prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen duten AZLak – (kop.) | | 2.056 | 2.260 | 2.480 | 2.700 | 2.950 |
| 25. AZLak hizkuntza-profil egiaztatua duten lanpostuetan – (kop.) | | 795 | 800 | 835 | 870 | 900 |
| 26. Hizkuntza ez-ofizialetan profil egiaztatua duten IILak – (kop.) | | 500 | 525 | 550 | 575 | 600 |
| 27. Hizkuntza ez-ofizialetan profil egiaztatua duten IILak – (%) | | 13 | 15 | 19 | 21 | 23 |
| 28. Doktore-tesiak euskaraz egiteko bekak – (kop.) | | 17 | 24 | 26 | 28 | 30 |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| IV. KALITATEA | | | | | |
| 29. Audit programaren ebaluazio positiboa lortu duten zentroak – (%) | 29 | 35 | 60 | 75 | 90 |
| 30. Docentia ziurtagiriak: ehunekoa IILen guztizkoarekiko – (%) | 15 | 25 | 55 | 70 | 80 |
| 31. Kalitaterantz/bikaintasunerantz aipamena lortu duten doktoregoak – (kop.) | 32 | 32 | 35 | 36 | 38 |
| V. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | |
| Sartu diren IILak urtez urte – (kop.) | | 3 | 4 | 4 | 4 |
| Sartu diren AZLak urtez urte – (kop.) | | 0 | 25 | 30 | 61 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| Tituluen mapa | Egina | Egina | Eguneratua | Eguneratua |
| Ikasleek azpiegiturak hobeto eta gehiago erabiltzeko jardueren bilakaeraren balorazioa | Zehaztu gabe | Zehaztua | Egokia | Egokia |

# A.2.1.2. Arautu gabeko prestakuntza

| JARDUERAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| I. ACTUACIONES INNOVADORAS | | | | | |
| 1. Titulu osagarriak bultzatzeas | 120.000 | 120.000 | 120.000 | 120.000 | 480.000 |
| 2. Euskarri-plataformak eta -tresnak sortzea | 100.170 | 100.170 | 100.170 | 100.170 | 400.680 |
| **GUZTIRA** | **220.170** | **220.170** | **220.170** | **220.170** | **880.680** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espezializazio profesionala sustatzeko etengabeko prestakuntzako titulu eta moduluak – (kop.) | 85 | 85 | 100 | 105 | 110 |

## A.2.1.3. Ikerketa

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Ikerketa-jarduera bultzatzea | 1.1. Zientziaren Plan Gidaria | 1.000.000 | 1.000.000 | 1.000.000 | 1.000.000 | 4.000.000 |
| | 1.2. Zientziaren arloko ikerketa-proiektuak, taldeak eta azpiegitura zientifikoa | 2.284.180 | 2.284.180 | 2.284.180 | 2.285.000 | 9.137.540 |
| | 1.3. Bibliotekaren sustapena eta zabalkundea | 500.000 | 500.000 | 500.000 | 500.000 | 2.000.000 |
| 2. Zientzia eta ikerketarako bokazioak sustatzea | 2.1. Zientzia, Berrikuntza eta Sormenaren Astea antolatzea | 400.000 | 400.000 | 400.000 | 400.000 | 1.600.000 |
| | 2.2. UPV/EHUren ikerketa-jarduera hedatzea | 80.000 | 80.000 | 80.000 | 80.000 | 320.000 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 3. Ikerketa-jarduera nazioartekotzea | 3.1. UPV/EHUko ikertzaileek erreferentziako zentroetan egonaldiak egiteko programak | 110.000 | 110.000 | 110.000 | 110.000 | 440.000 |
| | 3.2. Nazioarteko proiektuen bulegoa. Nazioarteko proiektuetan parte-hartzea sustatzea | 350.000 | 350.000 | 350.000 | 350.000 | 1.400.000 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 4. Gaitasun zientifikoak lantzea | 4.1. Doktorego aurreko laguntzak areagotzea (batez ere doktore gutxi dituzten sailetan) | 4.000.000 | 3.900.000 | 4.000.000 | 4.050.000 | 15.950.000 |
| | 4.2. Doktoreen espezializaziorako laguntzak areagotzea | 2.007.000 | 1.900.000 | 2.000.000 | 2.050.000 | 7.957.000 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 5. Ikerketaren kalitatea ebaluatzea | 5.1. Ikerketa Jardueraren Ebaluazio eta Jarraipenerako Unitate baten sorrera bultzatzea | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 200.000 |
| | 5.2. Ikerketa bultzatzeko zerbitzuen kalitatearen egiaztapena sustatzea | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 200.000 |
| V. BIBLIOTEKARAKO BERARIAZKO EKINTZAK | | | | | | |
| 6. Biblioteka hornitzea | | 4.400.000 | 4.200.000 | 4.200.000 | 4.400.000 | 17.200.000 |
| VI. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | | |
| Sartu diren IIL eta AZL berriak | | 677.700 | 3.374.331 | 4.257.956 | 6.200.914 | 14.510.901 |
| **GUZTIRA** | | **15.908.880** | **18.198.511** | **19.282.136** | **21.525.914** | **74.915.441** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Ikerketa-jardueretan diharduten IILak – (%) | | 72 | 75 | 78 | 81 | 85 |
| 2. Ikertzaileak (LOB) – (kop.) | | 2.386 | 2.420 | 2.460 | 2.500 | 2.550 |
| 3. ISI aldizkarietan argitaratutako artikuluak (JCR) – (kop.) | | 1.586 | 1.700 | 1.800 | 1.900 | 2.000 |
| 4. Ikerketa sustatzeko eskualdeko eta estatuko deialdietan lortutako itzulkinak (euroak, milioitan) | | 20,5 | 20,9 | 22 | 22,7 | 23,1 |
| 5. Kontratatutako ikertzaileak – (kop.) | | 367 | 370 | 382 | 390 | 395 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 6. Koordinatutako europar proiektuen urtez urteko batez bestekoa – (kop.) | | 12 | 12 | 13 | 13 | 14 |
| 7. UPV/EHUko IILen mugikortasun-ekintzak (4 astetik gorako egonaldiak) – (kop.) | | 60 | 60 | 65 | 70 | 75 |
| 8. Esparru-programako deialdietan edo beste batzuetan lortutako itzulkinen urtez urteko hazkundea (euroak, milioitan) | | 8,3 | 8,8 | 10 | 10,2 | 12 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 9. Irakurritako tesiak – (kop.) | | 292 | 319 | 346 | 373 | 400 |
| 10. Prestatzen ari diren ikertzaileak (doktorego aurrekoak) – (kop.) | | 638 | 650 | 690 | 710 | 730 |
| 11. Nazioarteko tesiak – (kop.) | | 49 | 57 | 64 | 72 | 80 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 12. Aipamenen kopuru metatua (1980-Urtea) | | 172.500 | 188.000 | 230.500 | 219.000 | 235.000 |
| 13. UPV/EHUren h indizea | | 108 | 112 | 116 | 120 | 125 |
| 14. Talde bikainak (Eusko Jaurlaritzak katalogatuak) – (kop.) | A MULTZOAN katalogatutako ikerketa-taldeak – (kop.) | 102 | 102 | 102 | 105 | 105 |
| | B MULTZOAN katalogatutako ikerketa-taldeak – (kop.) | 111 | 111 | 111 | 115 | 115 |
| 15. UPV-EHUk katalogatutako taldeak (EJk egindako sailkapenaren osagarria) – (kop.) | | 41 | 41 | 41 | 45 | 45 |
| V. BIBLIOTEKARAKO BERARIAZKO EKINTZAK | | | | | | |
| 16. Ikerketa-aldizkariak – (kop.) | | 7.180 | 7.200 | 7.250 | 7.300 | 7.400 |
| 17. Bilaketak baliabide elektronikoetan – (kop.) | | 575.910 | 587.000 | 598.000 | 610.000 | 625.000 |
| VI. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | | |
| Sartu diren IILak urtez urte – (kop.) | | | 7 | 6 | 6 | 6 |
| Sartu diren AZLak urtez urte – (kop.) | | | 45 | 14 | 12 | 29 |

# A.2.1.4. Transferentzia

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Ezagutza ustiatu eta transmititzeko planaren lanketa sustatzea | | 40.000 | 40.000 | 40.000 | 40.000 | 160.000 |
| 2. Enpresekin batera landutako jarduerak sustatzea | 2.1. UPV/EHUren enpresa-ataria Berrikuntza eta lankidetza egonkorrak sustatzea | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 120.000 |
| | 2.2. Unibertsitateak CTI Sistemako eragileekin landutako proiektuak | 330.000 | 330.000 | 330.000 | 330.000 | 1.320.000 |
| 3. Jabetza industrial eta intelektualari balioa ematea | 3.1. Patenteen bulegoa. Kudeaketa eta balioa ematea | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 200.000 |
| | 3.2. Ikerketako emaitzen babesa sustatzea | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 800.000 |
| 4. Ekintzailetasuna bultzatzea | 4.1. UPV/EHUren ekintzailetasun-programak (Inizia, Avanza, Entreprenari) bultzatzea | 80.000 | 80.000 | 80.000 | 80.000 | 320.000 |
| | 4.2. Enpresa-mintegiak eta enpresen sorrera sustatzea | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 600.000 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 5. Transferentziaren arloko kudeatzaileen prestakuntza | | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 120.000 |
| 6. Doktoregai eta doktoreen prestakuntza bultzatzea enpresetan | 6.1. Doktoregai eta doktoreen egonaldiak enpresetan | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 200.000 |
| | 6.2. Enpresetako profesionalei doktoregoa lortzen laguntzea | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 120.000 |
| III. KALITATEA | | | | | | |
| 7. Kalitate-ziurtagiriak sustatzea: patenteen bulegoa, mintegiak eta parkea, transferentzia bultzatzeko zerbitzuak | | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 240.000 |
| IV. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | | |
| Sartu diren IIL eta AZLak | | 75.000 | 94.000 | 139.417 | 315.300 | 623.717 |
| **GUZTIRA** | | **1.125.000** | **1.144.000** | **1.189.417** | **1.365.300** | **4.823.717** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| 1. Kontratupeko diru-sarrerak (euroak, milioitan) | 12 | 12,5 | 13 | 13,5 | 14 |
| 2. Eskatutako patente nazionalak urtez urte – (kop.) | 49 | 52 | 55 | 58 | 60 |
| 3. Teknologiaren arloko lizentzia-kontratuak – (kop.) | 4 | 4 | 5 | 5 | 5 |
| 4. Sortutako spin-offak – (kop.) | 12 | 12 | 12 | 12 | 12 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | |
| 5. Enpresekin lankidetzan egindako edo enpresek finantzatutako tesiak – (kop.) | 0 | 10 | 20 | 30 | 40 |
| III. KALITATEA | | | | | |
| 6. Kanpoan eskainitako zerbitzu zientifiko-teknikoek eragindako diru-sarrerak (M€) | 0,45 | 0,45 | 0,5 | 0,55 | 0,6 |
| IV. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | |
| Sartu diren IILen kopurua urtez urte | | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Sartu diren AZLak urtez urte – (kop.) | | 1 | 0 | 1 | 3 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| Zerbitzuen katalogoa | Egina | Eguneratua | Eguneratua | Eguneratua |
| Patenteen bulegoa | Sortua | Sortua eta martxan | Sortua eta martxan | Sortua eta martxan |

# A.2.1.5. Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa

| JARDUERAK | JARDUEREN EDUKIAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna sustatzea | 1.1. Berdintasun Plana | 69.000 | 69.000 | 69.000 | 69.000 | 276.000 |
| | 1.2. Iraunkortasunaren Plan Estrategikoa | 62.000 | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 242.000 |
| | 1.3. Ingurumenaren kudeaketa | 304.430 | 192.000 | 192.000 | 200.000 | 888.430 |
| | 1.4. Arauen egokitzapena: irisgarritasuneko eta larrialdietarako planak | 1.702.800 | 1.500.000 | 1.600.000 | 1.700.000 | 6.502.800 |
| | 1.5. Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren memoria egitea | 10.000 | 10.000 | 10.000 | 10.000 | 40.000 |
| 2. Gizarte-erakundeekin lankidetza-akordioak lortzen eta mantentzen laguntzea | | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 80.000 |
| 3. Komunikazio-bideen sorrera eta funtzionamendua bultzatzea | 3.1. UPV/EHUren komunikazio-plana eta irudi korporatiboaren kokapena | 75.000 | 75.000 | 75.000 | 75.000 | 300.000 |
| | 3.2. Web orria berrantolatzea | 66.770 | 66.000 | 66.000 | 70.000 | 268.770 |
| | 3.3. Informazioa eskuragarri jartzea | 304.000 | 304.000 | 304.000 | 304.000 | 1.216.000 |
| 4. Baliabideak modu eraginkor eta gardenean kudeatzea, eta hori gizarteari transmititzea | 4.1. Kontabilitate analitikoa ezartzea | 49.400 | 49.400 | 50.000 | 50.000 | 198.800 |
| | 4.2. e-administrazioa garatzea | 66.700 | 66.700 | 66.700 | 66.700 | 266.800 |
| | 4.3. IKT zerbitzuak etenik gabe eskura egotea | 432.036 | 432.036 | 432.036 | 432.036 | 1.728.144 |
| II. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | | |
| Sartu diren IIL eta AZLak | | 135.520 | 579.513 | 994.093 | 1.315.803 | 3.024.929 |
| **GUZTIRA** | | **3.297.656** | **3.423.649** | **3.938.829** | **4.372.539** | **15.032.673** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| 1. Genero-berdintasuna edo -ikuspegia lantzen duten ikerketa-proiektuak – (kop.) | Landa-lana | Landa-lana | Urtean 1 edo 2 gehiago egin | | |
| 2. Iraunkortasunaren arloan diharduten ikerketa-taldeak – (kop.) | 32 | 35 | 38 | 40 | 43 |
| 3. Iraunkortasunaren inguruan konpromisoak hartzen dituzten zentroak – (%) | 30 | 40 | 60 | 75 | 90 |
| 4. UPV/EHUren web orriko informazioaren eskuragarritasuna – (%) | 60 | 70 | 80 | 85 | 90 |
| 5. Hezkuntza-curriculumean gizarte-erantzukizuna txertatua duten tituluak – (%) | 5 | 7 | 12 | 15 | 18 |
| 6. Gizarte-erantzukizuneko gaietan prestakuntza jaso duten AZL eta IILak: berdintasuna, elkartasuna, energia-efizientzia, arriskuen prebentzioa, ingurumenaren kudeaketa – (%) | 20 | 30 | 50 | 55 | 60 |
| 7. UPV/EHUri buruzko aipamenak EAEko prentsa idatzian – (kop.) | 5.000 | 5.250 | 5.500 | 5.750 | 6.000 |
| 8. Matrikularen %0,7ko gehigarri bat unibertsitatearen garapenerako lankidetza bultzatzeko ematen duten ikasleak – (kop.) | 1.410 | 1.500 | 1.700 | 6.800 | 6.900 |
| 9. Praktikak eta karrera amaierako proiektuak garapenerako lankidetzaren arloan egiten dituzten ikasleak urtez urte – (kop.) | 70 | 75 | 85 | 90 | 95 |
| II. LANGILE BERRIEN SARRERA | | | | | |
| Sartu diren IILak urtez urte – (kop.) | | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Sartu diren AZLak urtez urte – (kop.) | | 4 | 11 | 7 | 7 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| Iraunkortasunaren bulegoa | Sortu gabe | Sortua | Sortua eta martxan | Sortua eta martxan |
| Iraunkortasunaren Plana | Egin gabe | Egina | Egina eta ezartze-bidean | Egina eta ezartze-bidean |
| Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren memoria | Egin gabe | Egina | Eguneratua | Eguneratua |
| Laneko arriskuen prebentzioari, segurtasunari eta higieneari buruzko planak | Egina | Egina | Egina eta ezartze-bidean | Egina eta ezartze-bidean |
| Komunikazio Plana | Egina | Egina eta ezartze-bidean | Ezarria | Ezarria |
| Kontabilitate analitikoa | Diseinatua | Diseinatua eta ezartze-bidean | Ezarria | Ezarria |
| e-administrazioa garatzeko plana | Egina | Egina | Egina eta ezartze-bidean | Ezarria |

# A.2.2. Deustuko Unibertsitatea

## Bilakaera 2007-2010eko Unibertsitate Planeko programa-kontratuekiko

2007-2010eko Unibertsitate Planeko programa kontratuen bilakaera kontuan izanik, Deustuko Unibertsitatearen produktibitate zientifikoa areagotzeko erronka mantendu egin da 2011-2014ko Unibertsitate Planean ere. Horregatik, ikerketako programa-kontratuak baliabideen erdiak baino gehiago erakarri ditu; sailkapen horretan bigarren den prestakuntza arautuko programa-kontratuek, berriz, baliabideen herena jaso dute.

Era berean, eta 2007-2010eko Planeko programa-kontratuen bilakaera logiko moduan, enpresekiko harremanarekin zerikusia duten jomugek indar handiagoa hartu dute, eta enpresekiko transferentzia-jarduera horretan baliabideak jarriko dira kontuan hartuz, arloan diharduten ikertzaileak ez ezik, jarduera horretan lortutako emaitzak. Azkenik, Deustuko Unibertsitateko programa-kontratuen bosgarren atala zuzentasunaren eta arautu gabeko prestakuntzaren ingurukoek osatzen dute.

Unibertsitateko programa-kontratuen aurrekontua honela banaturik dago:

**A.2-2 irudia. Baliabideen banaketa programa-kontratuaren arabera Deustuko Unibertsitatean**

| Programa-kontratuak | 2011 | | 2012 | | 2013 | | 2014 | | 2011-2014 guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % |
| Prestakuntza arautua | 1.310.000 | 29 | 1.775.000 | 30 | 2.450.000 | 31 | 3.075.000 | 31 | 8.610.000 | 30 |
| Arautu gabeko prestakuntza | 250.000 | 6 | 300.000 | 5 | 350.000 | 4 | 450.000 | 4 | 1.350.000 | 5 |
| Ikerketa | 2.350.000 | 52 | 3.175.000 | 53 | 4.150.000 | 52 | 5.225.000 | 52 | 14.900.000 | 52 |
| Transferentzia | 300.000 | 7 | 400.000 | 7 | 600.000 | 7 | 700.000 | 7 | 2.000.000 | 7 |
| Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa | 275.496 | 6 | 340.043 | 6 | 451.570 | 6 | 551.962 | 6 | 1.619.071 | 6 |
| **Guztira** | **4.485.496** | **100** | **5.990.043** | **100** | **8.001.570** | **100** | **10.001.962** | **100** | **28.479.071** | **100** |

Programa-kontratu horiekin, Deustuko Unibertsitateak finkatu egiten du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin duen urte anitzeko harreman-esparrua; izan ere, aurreko planaren azken urtearekin alderatuta, hitzemandako baliabide gehiago lortuko ditu orain.

Jarraian, Deustuko Unibertsitateak 2011-2014 aldirako izenpetu dituen programa-kontratuetako bakoitzean barne hartutako ekintzak eta jomugak aurkezten dira.

## A.2.2.1. Prestakuntza arautua

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | | |
| 1. Deustuko Unibertsitatearen Hezkuntza Eredua (MFUD) gradu eta graduondoko titulu guztietako maila guztietara hedatzea | | 150.000 | 200.000 | 250.000 | 300.000 | 900.000 |
| 2. Ikasle guztien harrera, prestakuntza, motibazioa, orientabide-sistema eta garapen akademiko eta pertsonala | | 150.000 | 200.000 | 250.000 | 300.000 | 900.000 |
| 3. Campus birtual bat taxutu eta abian jartzea: Deusto e-Campus | | 100.000 | 150.000 | 200.000 | 250.000 | 700.000 |
| 4. Azpiegiturak, ekipamenduak eta baliabideak irakaskuntza-ikaskuntza ereduaren beharrizanetara egokitzea | | 0 | 0 | 250.000 | 500.000 | 750.000 |
| 5. Irakaskuntzako eskaintza, produkzio zientifikoa eta kudeaketa- eta komunikazio-prozesu eleanitzak sustatzea | | 150.000 | 175.000 | 200.000 | 225.000 | 750.000 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 6. Irakaskuntza-jardueraren nazioartekotzea bultzatzea | 6.1. DITA- Deusto International Tuning Academy: goi-mailako hezkuntzaren berrikuntza-arloan nazioarteko erreferentziako zentroa | 250.000 | 300.000 | 350.000 | 400.000 | 1.300.000 |
| | 6.2. Nazioarteko unibertsitateekin akordioak lortzea nazioarteko baterako titulazio bikoitzak, gradukoak eta graduondokoak, abian jartzeko | 50.000 | 100.000 | 150.000 | 150.000 | 450.000 |
| | 6.3. Irakasle, AZL eta ikasleen nazioarteko mugikortasuna eta egonaldiak | 100.000 | 150.000 | 200.000 | 250.000 | 700.000 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 7. Irakasleen prestakuntza zientifiko eta pedagogikoa | | 100.000 | 150.000 | 175.000 | 200.000 | 625.000 |
| 8. IIL, AZL eta ikasleak hizkuntza-gaitasunean eta kultura artekoan trebatzeko neurriak | | 160.000 | 200.000 | 250.000 | 300.000 | 910.000 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 9. Irakaskuntzaren kalitatearekin lotutako ziurtagiriak eta aipamenak lortzea (gradua eta graduondoa) | | 100.000 | 150.000 | 175.000 | 200.000 | 625.000 |
| **GUZTIRA** | | **1.310.000** | **1.775.000** | **2.450.000** | **3.075.000** | **8.610.000** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | | |
| Arrakasta-tasa (gainditutako kreditu kop./aurkeztutako kreditu kop.) – (%) | Giza Zientziak | 91,77 | 91,9 | 92 | 92,1 | 92,2 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 92,23 | 92,3 | 92,4 | 92,5 | 92,6 |
| | Zientzia Teknikoak | 86,59 | 86,7 | 86,8 | 86,9 | 87 |
| Eskola uztearen tasa – (%) | Giza Zientziak | 20 | 19,9 | 19,8 | 19,7 | 19,6 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 15 | 14,9 | 14,8 | 14,7 | 14,6 |
| | Zientzia Teknikoak | 23 | 22,9 | 22,8 | 22,7 | 22,6 |
| Errendimendu-tasa – (%) | Giza Zientziak | 83,26 | 83,4 | 83,5 | 83,6 | 83,7 |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 87,21 | 87,3 | 87,4 | 87,5 | 87,6 |
| | Zientzia Teknikoak | 78,01 | 78,1 | 78,2 | 78,3 | 78,4 |
| Bertaratu beharrik gabeko prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten graduko eta graduondoko ikasleak – (%) | Gradua | 10 | 15 | 30 | 50 | 75 |
| | Graduondoa | 15 | 20 | 40 | 65 | 90 |
| Euskaraz/ingelesez eskainitako ECTSak tituluen guztizkoarekiko – (%) | Gradua | 24 / 10 | 30 / 12 | 35 / 15 | 37 / 17 | 40 / 20 |
| | Masterra | 0 / 25 | 0 / 27 | 2 / 29 | 3 / 31 | 4 / 33 |
| | Doktoregoa | 0 / 5 | 0 / 5 | 2 / 7 | 3 / 9 | 4 / 11 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| Mugikortasun- eta truke-programetan parte hartzen duten bertako ikasleak – (%) | Gradua | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| | Masterra | 4 | 7 | 10 | 13 | 16 |
| | Doktoregoa | 1 | 3 | 5 | 7 | 9 |
| Graduko eta graduondoko ikasketak egiten ari diren nazioarteko ikasleak – (%) | Gradua | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| | Masterra | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| | Doktoregoa | 26 | 28 | 29 | 30 | 31 |
| Beste unibertsitate batzuekin egindako mugikortasun-hitzarmenak – (kop.) | | 360 | 365 | 370 | 375 | 380 |
| Titulu bikoitzak edo baterakoak – (kop.) | | 8 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| Europar masterrak – (kop.) | | 8 | 8 | 9 | 9 | 9 |
| Beste unibertsitate batzuekin lankidetzan egindako masterreko eta doktoregoko programak – (kop./%) | Espainiar estatukoak | 3 / 8 | 4 / 12 | 5 / 16 | 6 / 20 | 7 / 24 |
| | Nazioartekoak | 8 / 28 | 8 / 28 | 9 / 32 | 10 / 35 | 11 / 38 |
| Atzerrira joan eta egonaldiak egindako AZLak – (kop./%) | | 10 / 3 | 11 / 3,3 | 12 / 3,6 | 13 / 3,9 | 14 / 4,2 |
| Atzerrira joan eta egonaldiak egindako irakasleak – (kop./%) | | 36 / 11 | 39 / 12 | 42 / 13 | 45 / 14 | 48 / 15 |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| III. TREBAKUNTZA | | | | | |
| Irakasleak prestatu eta birziklatzeko ikastaroak – (kop.) | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| GHEEko irakaskuntza-ikaskuntza eredu berrian prestakuntza-jardueretan parte hartu duten irakasleak – (%) | 70 | 77 | 84 | 91 | 100 |
| Eskola euskaraz/ingelesez emateko gai diren IILak – (%) | 20 / 15 | 22 / 18 | 25 / 23 | 28 / 26 | 30 / 30 |
| Eskola euskaraz/ingelesez ematen duten IILak – (%) | 15 / 8 | 18 / 13 | 20 / 18 | 22 / 22 | 25 / 25 |
| Zerbitzuak euskaraz/ingelesez eskaintzeko gai diren AZLak – (%) | 30 / 25 | 35 / 28 | 40 / 30 | 45 / 33 | 50 / 35 |
| IV. KALITATEA | | | | | |
| Audit ziurtagiriak | 3 | 4 | 4 | 5 | 5 |
| Docentia ziurtagiriak | I labela: graduko 1. eta 2. mailak | I labela: graduko 1. 2. eta 3. mailak | I labela: graduko 1., 2., 3. eta 4. mailak | I labela: graduko 1-4 mailak+I labela: graduondoa+ II labela: graduko 1. eta | I labela: graduko 1-4 mailak+I labela: graduondoa+ II labela: graduko 1., 2. 2. mailak eta 3. mailak |
| Erasmus Mundus aipamena duten masterrak – (kop.) | 7 | 7 | 8 | 8 | 9 |
| Aipamena duten doktoregoak – (kop.) | 0 | 0 | 1 | 2 | 2 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| DITA – Deusto International Tuning Academy | Sorrera | Martxan | Martxan | Martxan |
| Deusto e-Campus | Sorrera | Martxan | Martxan | Martxan |
| Eleaniztasunaren Plan Gidaria | Egina | Lantzen | Lantzen | Lantzen eta ebaluatzen |

## A.2.2.2. Arautu gabeko prestakuntza

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | | |
| 1. Helduen etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko programak lantzea | 1.1. Prestakuntza jarraituaren arloko ekimenak bultzatzea | 100.000 | 100.000 | 150.000 | 150.000 | 500.000 |
| | 1.2. Etengabeko prestakuntzaren arloko ekimenak bultzatzea | 50.000 | 100.000 | 100.000 | 150.000 | 400.000 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 2. Irakasleen prestakuntza zientifiko eta pedagogikoa MFUD[1] ereduaren inguruan: irakaskuntza-ikaskuntza eredua, gaitasunak, balioak, programazioa eta ikasteko gidak, eta abar. | | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 150.000 | 450.000 |
| **GUZTIRA** | | **250.000** | **300.000** | **350.000** | **450.000** | **1.350.000** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| Beste erakunde batzuekin lankidetzan prestakuntza jarraituko programak eskaintzeko lotu diren akordioak – (kop.) | 15 | 20 | 25 | 30 | 35 |
| Beste erakunde batzuekin lotu diren lankidetza-akordioak, etengabeko prestakuntzan dituzten premiei erantzuteko – (kop.) | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| Etengabeko prestakuntzako/prestakuntza jarraituko programak – (kop.) | 20 / 10 | 25 / 11 | 30 / 12 | 35 / 13 | 40 / 14 |
| Etengabeko prestakuntzan/prestakuntza jarraituan parte hartu duten ikasleak – (kop.) | 1.063 / 1.543 | 1.100 / 1.600 | 1.150 / 1.650 | 1.200 / 1.700 | 1.250 / 1.750 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | |
| Etengabeko prestakuntzaren arloko jardueretan parte hartzen duten irakasleak – (%) | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Etengabeko prestakuntzako edo prestakuntza jarraituko programetan eskola ematen duten irakasleak – (%) | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |

1. Deustuko Unibertsitatearen Prestakuntza Eredua

## A.2.2.3. Ikerketa

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | | |
| 1. Ikerketa-jarduera eta produkzio zientifikoa bultzatzea | 1.1 DARC -Deusto Advanced Research Centre (produkzio zientifiko bikaina sustatzeko egiturak, prozesuak eta ekintzak) | 450.000 | 600.000 | 750.000 | 900.000 | 2.700.000 |
| | 1.2 Ikerketako eremu estrategikoak garatzea (ikerketa-taldeei laguntzea) | 1.200.000 | 1.600.000 | 1.900.000 | 2.300.000 | 7.000.000 |
| | 1.3. DIRS - Deusto International Research School doktoregoko nazioarteko eskola sustatzeko egiturak, prozesuak eta ekintzak) | 200.000 | 300.000 | 400.000 | 500.000 | 1.400.000 |
| | 1.4 Askotariko azpiegiturak, ekipamenduak eta baliabideak ikerketako eremu estrategikoen beharrizanetara egokitzea | 0 | 0 | 250.000 | 500.000 | 750.000 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 2. Nazioarteko partzuergo, sare eta egitura egonkorrak sortu, dinamizatu eta mantentzea, eta europar zein nazioarteko programen deialdietan parte hartzea | | 200.000 | 250.000 | 300.000 | 350.000 | 1.100.000 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 3. Doktorego aurreko eta doktorego ondoko prestakuntza bultzatzea | 3.1 Ikerketa-gaitasunak hobetzeko programa | 50.000 | 75.000 | 100.000 | 125.000 | 350.000 |
| | 3.2 Nazioarteko tesiak egin daitezen bultzatzea | 50.000 | 75.000 | 100.000 | 125.000 | 350.000 |
| | 3.3 Ikertzaileen mugikortasunerako programa, ikerketa-zentro entzutetsuetan egonaldiak egin ditzaten | 150.000 | 200.000 | 250.000 | 300.000 | 900.000 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 4. Ikerketa-taldeen egiaztapena | | 50.000 | 75.000 | 100.000 | 125.000 | 350.000 |
| **GUZTIRA** | | **2.350.000** | **3.175.000** | **4.150.000** | **5.225.000** | **14.900.000** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| Ikertzaileak (LOB) – (kop.) | 160 | 175 | 185 | 195 | 205 |
| ISI aldizkarietan eta oihartzuna duten aldizkarietan argitaratutako artikuluak Latindex eta Sindoc) – (kop.) | 25 + 105 | 30+130 | 33+140 | 36+160 | 40+180 |
| Ikerketa sustatzeko eskualdeko deialdietan lortutako itzulkinak (euroak) | 700.000 | 850.000 | 1.100.000 | 1.250.000 | 1.500.000 |
| Ikerketa sustatzeko estatuko deialdietan lortutako itzulkinak (euroak) | 250.000 | 300.000 | 400.000 | 500.000 | 700.000 |
| Ikerketan diharduten IILak (ikerketa-jarduera lanaldi osoaren %20tik gorakoa izatea) – (%) | 66,6 | 69,5 | 72,5 | 74 | 77 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | |
| Unibertsitateak parte hartzen duen nazioarteko sare eta partzuergoak (horietako zenbatetan buru den zehaztuz) – (kop.) | 14 (1) | 15 (2) | 17 (3) | 19 (4) | 21 (5) |
| Nazioarteko tesiak – (kop.) | 2 | 2 | 2 | 3 | 5 |
| Mugikortasun-programetan parte hartzen duten IILak (4 astetik gorako egonaldiak) – (%) | %4 (18) | %4,5 (20) | %5 (22) | %5,5 (24) | %5,75 (28) |
| Nazioarteko ikertzaile bisitariak (4 astetik gorako egonaldiak) – (kop.) | 10 | 10 | 12 | 14 | 16 |
| Esparru-programako deialdietan edo beste batzuetan lortutako itzulkinak (euroak, milioitan) | 0,153 | 0,185 | 0,25 | 0,32 | 0,4 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | |
| Irakurritako tesiak – (kop.) | 31 | 33 | 37 | 42 | 48 |
| Ikertzaileen egonaldiak nazioarteko ospea duten zentroetan – (kop.) | 23 | 20 | 22 | 24 | 26 |
| IV. KALITATEA | | | | | |
| Talde bikainak (Eusko Jaurlaritzak katalogatuak) – (kop.) A MULTZOAN katalogatutako ikerketa-taldeak – (kop.) | 5 | 5 | 5 | 8 | 8 |
| Talde bikainak (Eusko Jaurlaritzak katalogatuak) – (kop.) B MULTZOAN katalogatutako ikerketa-taldeak – (kop.) | 10 | 10 | 10 | 10 | 10 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| DIRS - Deusto International Research School | Sorrera | Martxan | Martxan | Martxan |
| DARC- Deusto Advanced Research Centre | Sorrera | Martxan | Martxan | Martxan |

## A.2.2.4. Transferentzia

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | | |
| 1. Enpresa, instituzio eta gizarte-erakundeekin lankidetza eta ezagutza transmititzeko prozesuak sustatzeko jarduerak | | 50.000 | 75.000 | 100.000 | 125.000 | 350.000 |
| 2. Transferentzia, berrikuntza eta ekintzailetasuna bultzatzeko ekintzak, egiturak eta prozesuak | 2.1 Transferentzia, berrikuntza eta ekintzailetasuna bultzatzeko jarduerak: innogune bat campus bakoitzean eta enpresa-mintegiak sortzea | 100.000 | 130.000 | 200.000 | 230.000 | 660.000 |
| | 2.2 Ekintzailetasunaren aldeko ekintzak bultzatzea | 50.000 | 75.000 | 150.000 | 175.000 | 450.000 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 3. Transferentzia, berrikuntza eta ekintzailetasunaren inguruko prestakuntza-ekintzak | 3.1 Berrikuntza eta ekintzailetasuna garatzeko gaitasunak lantzea | 80.000 | 90.000 | 100.000 | 110.000 | 380.000 |
| | 3.2 Doktoreen prestakuntza bultzatzea enpresa, instituzio eta gizarte-erakundeetan | 20.000 | 30.000 | 50.000 | 60.000 | 160.000 |
| **GUZTIRA** | | **300.000** | **400.000** | **600.000** | **700.000** | **2.000.000** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| Enpresa-munduan lanean diharduten edo enpresetarako proiektuak egiten ari diren ikertzaileak eta unibertsitate-ikertzaileak – (kop.) | 93 | 95 | 98 | 100 | 102 |
| Enpresa-munduan lanean diharduten edo enpresetarako proiektuak egiten ari diren unibertsitateko ikertzaileak (LOB) – (kop.) | 16 | 18 | 21 | 25 | 30 |
| Kontratupeko diru-sarrerak (M€) | 0,95 | 1,3 | 1,5 | 1,8 | 2 |
| Unibertsitatearekin lankidetzan (proiektua, hitzarmena eta abar) aritutako enpresak – (kop.) | 15 | 17 | 19 | 21 | 23 |
| Enpresekin egindako lankidetza-akordio egonkorrak – (kop.) | 12 | 12 | 14 | 16 | 18 |
| Norbere titulartasunaz erregistratutako edo unibertsitateak parte-hartze erabakigarria izandako patenteak edo lizentziak – (kop.) | 1 | +3 | +3 | 4 | 5 |
| Norbere titulartasunaz edo nobere titulartasuna ustiatuz erregistratutako edo unibertsitateak parte-hartze erabakigarria izandako patenteak edo lizentziak – (kop.) | 0 | 0 | 0 | +1 | +1 |
| Sortutako spin-offak – (kop.) | 5 | +3 | +3 | +3 | +3 |
| Mintegi edo parkeetan finkatutako enpresa-kopurua | 5 | 8 | 11 | 14 | 17 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | |
| Berrikuntza eta ekintzailetasunaren inguruko prestakuntza-ekintzak – (kop.) | 2 programa + 12 ekintza | 2+13 | 2+14 | 2+15 | 2+16 |
| Enpresa, instituzio eta gizarte-erakundeek kontratatutako doktoreak – (kop.) | 3 | 5 | 8 | 11 | 15 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| Deusto E-Parque | Sortu gabe | Sorrera | Martxan | Martxan |
| Innoguneak (Bilboko campusa+Donostiako campusa) | Sorrera | Martxan | Martxan | Martxan |
| Enpresa, instituzio eta gizarte-erakundeei eskainitako zerbitzu-katalogoa | Egina | Eguneratua | Eguneratua | Eguneratua |

## A.2.2.5. Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | | |
| 1. Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna sustatzea, arlo hauetan jardunez: iraunkortasuna, irisgarritasuna eta inklusioa, osasuna, genero-berdintasuna, kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetza | | 25.000 | 50.000 | 75.000 | 100.000 | 250.000 |
| 2. Graduko eta graduondoko tituludunen orientabidea, laneratzea, kontratazioa eta autoenplegua sustatzea | | 50.000 | 75.000 | 75.000 | 100.000 | 300.000 |
| 3. Gizarte-proiekzioa eta transferentzia sustatzea | 3.1 Kanpo-komunikazioa, harreman instituzionalak, networkinga eta gizarte-sarea sustatzeko ekintzak | 75.000 | 75.000 | 100.000 | 100.000 | 350.000 |
| | 3.2. Deusto Alumni abian jarri eta garatzea (Deustuko Unibertsitatean tituludun diren pertsonei laguntzeko egitura, prozesuak eta jarduerak) | 75.000 | 75.000 | 100.000 | 100.000 | 350.000 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 4. Nazioarteko unibertsitate-egitura sustatzea: Aristós Campus Mundus unibertsitate-egituraren gobernantzarako ekintzak | | 25.496 | 40.043 | 51.570 | 76.962 | 194.071 |
| III. KALITATEA | | | | | | |
| 5. Unibertsitatearen kalitatea eta bikaintasuna aintzatesteko ekintzak | | 25.000 | 25.000 | 50000 | 75.000 | 175.000 |
| **GUZTIRA** | | **275.496** | **340.043** | **451.570** | **551.962** | **1.619.071** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. BERRIKUNTZA | | | | | |
| Irabazi asmorik gabeko gizarte-erakunde eta -entitateekin lotutako lankidetza-hitzarmenak – (kop.) | 38 | 45 | 50 | 55 | 60 |
| Egindako proiektu sozialak – (kop.) | 119 | 130 | 140 | 150 | 160 |
| Hitzarmen eta proiektu sozialen hedapenean aritutako IIL eta AZLak – (kop.) | 78 | 85 | 90 | 95 | 100 |
| Unibertsitatearen bitartez bideratutako enplegua – (kop.) | 460 | 460 | 480 | 490 | 500 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|
| Plan Gidariak arlo hauetan: iraunkortasuna, irisgarritasuna eta inklusioa, osasuna, genero-berdintasuna, kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetza | Egina | Lantzen | Lantzen | Lantzen eta ebaluatzen |
| Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren urteko memoria | Egina | Egina | Egina | Egina |
| Enpleguaren Plan Gidaria | Egina | Lantzen | Lantzen | Lantzen eta ebaluatzen |
| Komunikazioaren Plan Gidaria | Egina | Lantzen | Lantzen | Lantzen eta ebaluatzen |
| Deusto Alumni zerbitzua | Sorrera | Martxan | Martxan | Martxan |
| Aristós Campus Mundus 2015 proiektua | Egina | Lantzen | Lantzen | Lantzen |

## A.2.3. Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen ahaleginak prestakuntza arautura eta ikerketara joan dira batik bat; izan ere, bien artean, berdinbanatuta, 2011-2014 aldirako baliabideen %80 erakarriko dute.

Prestakuntza arautuaren arloan, programa-kontratuaren bidez 2007-2010 aldian egindako aurrerabidea bermatu eta finkatuko da, hezkuntza-eredua sendotuz, irakasleen gaitasunak hobetuz, bertaratu beharrik gabeko prestakuntza bultzatzeko ekintzak abian jarriz eta abar.

2011-2014ko Unibertsitate Planean, produktibitate zientifikoa areagotzeko erronka mantendu egin da Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuetan. Aurreko planarekin alderatuta, oraingoan asmo handiagoko helburuak ezarri dira, eta adierazle finalistagoak erabili dira, lortutako emaitzak neurtu ahal izateko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin adostutako bost programa-kontratuak osatuz, esleitutako gainerako baliabideak arautu gabeko prestakuntzan, transferentzian eta zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioan jarri dira, hurrenkera horretan kopuruei dagokienez.

Mondragon Unibertsitateko programa-kontratuen aurrekontua honela banaturik dago:

**A.2-3 irudia. Baliabideen banaketa programa-kontratuaren arabera Mondragon Unibertsitatean**

| Programa-kontratuak | 2011 | | 2012 | | 2013 | | 2014 | | 2011-2014 guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % | Euroak | % |
| Prestakuntza arautua | 1.585.602 | 40 | 2.203.986 | 40 | 2.821.103 | 40 | 3.596.906 | 40 | 10.207.597 | 40 |
| Arautu gabeko prestakuntza | 396.400 | 10 | 550.997 | 10 | 705.276 | 10 | 899.227 | 10 | 2.551.900 | 10 |
| Ikerketa | 1.585.602 | 40 | 2.203.986 | 40 | 2.821.103 | 40 | 3.596.906 | 40 | 10.207.597 | 40 |
| Transferentzia | 317.120 | 8 | 440.797 | 8 | 564.220 | 8 | 719.381 | 8 | 2.041.518 | 8 |
| Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa | 79.280 | 2 | 110.200 | 2 | 141.055 | 2 | 179.845 | 2 | 510.380 | 2 |
| **Guztira** | **3.964.004** | **100** | **5.509.966** | **100** | **7.052.757** | **100** | **8.992.265** | **100** | **25.518.992** | **100** |

Jarraian, Mondragon Unibertsitateko programa-kontratu bakoitzean jasotako jarduerak eta horiei lotutako jomugak bildu dira.

# A.2.3.1. Prestakuntza arautuko programa-kontratua

| JARDUERAK | JARDUEREN EDUKIAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Irakaskuntza-eredua eta graduko tituluen eskaintza finkatzea | 1.1. Irakaskuntza-ereduen hobekuntza eta jarraipena | 475.682 | 771.395 | 987.388 | 1.258.918 | 3.493.383 |
| | 1.2. Titulu bikoitzak sustatzea | 79.280 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 510.379 |
| | 1.3. Zeharkako gaitasunak lantzea | 237.840 | 220.399 | 282.110 | 359.691 | 1.100.040 |
| 2. Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen funtzionamendua hobetzea | 2.1. Azpiegiturak eta ekipamenduak egokitzea | 31.712 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 462.811 |
| | 2.2. Hezkuntza-ereduan IKTak erabiltzea: bertaratu beharrik gabeko prestakuntzarako zerbitzu-eskaintza bat prestatzea | 126.848 | 220.399 | 282.110 | 359.691 | 989.048 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 3. Irakaskuntza-jardueraren mugikortasuna eta nazioartekotzea | 3.1. Ikasleak atzerrira bidaltzeko eta atzerritik hartzeko ahalmena sendotzeko egitura egonkorrak eratzea | 158.560 | 220.399 | 282.110 | 359.691 | 1.020.760 |
| | 3.2. Atzerriko unibertsitateekin akordioak lortzea (mugikortasuna, esperientziak trukatzea...) | 47.568 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 220.008 |
| | 3.3. Ingelesezko irakaskuntza-eskaintza bat prestatzea | 47.568 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 220.008 |
| | 3.4. Baterako tituluak sustatzea | 47.568 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 220.008 |
| | 3.5. Europar masterrak eta doktoregoak prestatzea | 47.568 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 220.008 |
| | 3.6. Irakasleen egonaldiak atzerrian | 47.568 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 220.008 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 4. IIL eta AZLen prestakuntza | 4.1. Irakasleen prestakuntza pedagogikoa | 110.992 | 154.276 | 197.477 | 251.783 | 714.528 |
| | 4.2. Trebakuntza ofizialak ez diren hizkuntzetan | 47.568 | 66.120 | 84.633 | 107.907 | 306.228 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 5. Irakaskuntzaren kalitatea egiaztatzeko ziurtagiriak eta aipamenak lortzea: gradua eta graduondoa | 5.1. Audit ziurtagiriak lortzea | 31.712 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 204.152 |
| | 5.2. Docentia ziurtagiriak lortzea | 15.856 | 22.040 | 28.211 | 35.969 | 102.076 |
| | 5.3. Master-programetan kalitate-aipamenak lortzea | 15.856 | 22.040 | 28.211 | 35.969 | 102.076 |
| | 5.4. Doktorego-programetan kalitate-aipamenak lortzea | 15.856 | 22.040 | 28.211 | 35.969 | 102.076 |
| **GUZTIRA** | | **1.585.602** | **2.203.986** | **2.821.103** | **3.596.906** | **10.207.597** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Arrakasta-tasa (gainditutako kreditu kop./aurkeztutako kreditu kop.) – (%) | Giza Zientziak | | | | | |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 86 | 88 | 90 | 92 | 93 |
| | Zientzia Teknikoak | 91 | 92 | 92 | 92 | 92 |
| 2. Eskola uztearen tasa – (%) | Giza Zientziak | | | | | |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 5 | 4 | 4 | 3 | 3 |
| | Zientzia Teknikoak | 16 | 15 | 15 | 15 | 15 |
| 3. Enplegagarritasun-tasa – (%) | Giza Zientziak | | | | | |
| | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | 90 | 91 | 91 | 92 | 92 |
| | Zientzia Teknikoak | 90 | 91 | 91 | 92 | 92 |
| 4. Bertaratu beharrik gabeko prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten graduko eta graduondoko ikasleak – (%) | Gradua | 2 | 3 | 6 | 12 | 15 |
| | Graduondoa | 2 | 3 | 8 | 15 | 20 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 5. Mugikortasun- eta truke-programetan parte hartzen duten bertako ikasleak – (%) | Gradua | 6,4 | 6,5 | 8 | 10 | 12 |
| | Masterra | 2,4 | 3 | 5 | 8 | 12 |
| | Doktoregoa | 0,7 | 2 | 5 | 10 | 20 |
| 6. Graduko, masterreko eta doktoregoko ikasketak egiten ari diren nazioarteko ikasleak – (%) | Gradua | 1,0 | 1,5 | 1,5 | 2 | 2 |
| | Masterra | 5,5 | 8 | 10 | 12 | 15 |
| | Doktoregoa | 8,7 | 10 | 12 | 15 | 18 |
| 7. Beste unibertsitate batzuekin egindako mugikortasun-hitzarmenak – (kop.) | | 56 | 60 | 80 | 100 | 120 |
| 8. Ingelesez eskainitako ECTS edo kredituak tituluen guztizkoarekiko – (%) | Gradua | 6 | 8 | 10 | 15 | 20 |
| | Masterra | 0 | 5 | 7 | 13 | 15 |
| 9. Titulu bikoitzak eta baterakoak (gradua, graduondoa eta doktoregoa) – (kop.) | | 3 | 3 | 4 | 5 | 7 |
| 10. Europar masterrak – (kop./%) | | 0 | 0 | 1 | 2 | 4 |
| 11. Beste unibertsitate batzuekin lankidetzan egindako masterreko eta doktoregoko programak ) – (kop.) | | 3 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 12. Atzerrian egonaldia egindako irakasleak – (%) | | 4,5 | 5 | 5 | 6 | 6 |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| III. TREBAKUNTZA | | | | | |
| 13. Irakasleak prestatu eta birziklatzeko ikastaroak – (kop.) | 31 | 35 | 38 | 42 | 45 |
| 14. Eskola ingelesez emateko gai diren irakasleak – (%) | 20 | 23 | 25 | 27 | 30 |
| 15. Eskola ingelesez ematen duten IILak – (%) | 15 | 17 | 20 | 23 | 25 |
| 16. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten AZLak – (%) | 50 | 52 | 55 | 57 | 60 |
| 17. Prestakuntza zientifiko eta pedagogikoko jardueretan parte hartu duten IILak – (%) | 45 | 48 | 52 | 55 | 60 |
| IV. KALITATEA | | | | | |
| 18. Audit ziurtagiriak | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 |
| 19. Docentia ziurtagiriak edo antzekoak (Docentia beste ziurtagirietatik bereizita) | 0+3 | 0+3 | 0+3 | 1+2 | 2+1 |
| 20.Aipamena duten masterrak – (kop.) | 0 | 0 | 1 | 2 | 6 |
| 21. Aipamena lortu duten doktoregoak – (%) | 0 | 0 | 0 | 30 | 60 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| IILen ibilbide/karrera profesionala | Bidean | %100ean aplikatua | %100ean aplikatua | %100ean aplikatua | %100ean aplikatua |
| AZLen ibilbide/karrera profesionala | Bidean | %100ean aplikatua | %100ean aplikatua | %100ean aplikatua | %100ean aplikatua |
| Ikasleek azpiegiturak hobeto eta gehiago erabiltzeko jardueren bilakaeraren balorazioa | Egokia | Egokia | Egokia | Egokia | Egokia |

## A.2.3.2. Arautu gabeko prestakuntza

| JARDUERAK | JARDUEREN EDUKIAK | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Bizitzan zeharreko prestakuntza bultzatzea | 1.1. Bizitzan zeharreko prestakuntza garatzea hezkuntza-eredu gisa | 79.280 | 55.100 | 70.528 | 89.923 | 294.831 |
| | 1.2. Edukiak eta ikasmaterialak sortzea | 158.560 | 220.399 | 282.110 | 359.691 | 1.020.760 |
| | 1.3. Euskarri-plataformak eta -tresnak sortzea | 39.640 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 470.739 |
| | 1.4. Beste eragile batzuekin egindako lankidetza-jarduerak | 39.640 | 55.100 | 70.528 | 89.923 | 255.191 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 2. Irakasleen prestakuntza | | 79.280 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 510.379 |
| **GUZTIRA** | | **396.400** | **550.997** | **705.276** | **899.227** | **2.551.900** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| 1. Beste erakunde batzuekin lankidetzan bizitzan zeharreko prestakuntza-programak eskaintzeko lotu diren akordioak – (kop.) | 12 | 15 | 18 | 22 | 25 |
| 2. Beste erakunde batzuekin lotutako lankidetza-akordioak, bizitzan zeharreko prestakuntzaren arloan dituzten beharrizanei erantzuteko – (kop.) | 15 | 20 | 25 | 30 | 35 |
| 3. Prestakuntza jarraituko programak – (kop.) | 285 | 290 | 295 | 300 | 310 |
| 4. Etengabeko prestakuntzan edo prestakuntza jarraituan parte hartu duten ikasleak – (kop.) | 4.000 | 4.200 | 4.500 | 4.800 | 5.000 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | |
| 5. Bizitzan zeharreko prestakuntzaren arloko jardueretan parte hartu duten irakasleak – (%) | 15 | 12 | 13 | 14 | 20 |
| 6. Bizitzan zeharreko prestakuntzako programetan eskola ematen duten irakasleak – (%) | 25 | 26 | 27 | 28 | 30 |

# A.2.3.3. Ikerketa

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Ikerketako arlo estrategikoak lantzea | 1.1. Arlo estrategikoetan ezagutzak sortzea | 634.242 | 881.595 | 1.128.442 | 1.438.764 | 4.083.043 |
| | 1.2. Laguntza-azpiegiturak egokitzea | 79.280 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 510.379 |
| | 1.3. Izen handiko kolaboratzaileen sare bat sortzea | 79.280 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 510.379 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | | |
| 2. Ikerketa-jarduera nazioartekotzea | 2.1. Nazioarteko partzuergo eta sare egonkorrak prestatu, dinamizatu eta mantentzea | 31.712 | 44.080 | 56.422 | 71.938 | 204.152 |
| | 2.2. Ikertzaileen mugikortasuna sustatzeko programak | 158.560 | 220.399 | 282.110 | 359.691 | 1.020.760 |
| | 2.3. Europar tesiak egitea | 126.848 | 176.319 | 225.688 | 287.752 | 816.607 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 3. Doktorego aurreko eta doktorego ondoko prestakuntza | | 317.120 | 440.797 | 564.221 | 719.381 | 2.041.519 |
| 4. Egonaldiak izen handiko ikerketa-zentroetan | | 79.280 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 510.379 |
| IV. KALITATEA | | | | | | |
| 5. Ikerketa-taldeen egiaztapena | | 79.280 | 110.199 | 141.055 | 179.845 | 510.379 |
| **GUZTIRA** | | **1.585.602** | **2.203.986** | **2.821.103** | **3.596.906** | **10.207.597** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| 1. Ikertzaileak (LOB) – (kop.) | 110 | 115 | 118 | 123 | 125 |
| 2. Gizarte eta Giza Zientzien arloan ISI aldizkarietan eta baliokideetan (INRECS...) argitaratutako artikuluak – (kop.) | 31 | 35 | 40 | 45 | 50 |
| 3. Ikerketa sustatzeko eskualdeko deialdietan lortutako itzulkinak (euroak) | 3.100.000 | 3.300.000 | 3.450.000 | 3.700.000 | 4.000.000 |
| 4. Ikerketa sustatzeko estatuko deialdietan lortutako itzulkinak (euroak) | 1.400.000 | 1.500.000 | 1.650.000 | 1.800.000 | 2.000.000 |
| 5. Ikerketan dihardutén IILak – (%) | 60 | 61 | 62 | 63 | 65 |
| II. NAZIOARTEKOTZEA | | | | | |
| 6. Unibertsitateak parte hartzen duen nazioarteko sare eta partzuergoak (horietako zenbatetan buru den zehaztuz) – (kop.) | 25 (2) | 29 (3) | 31 (3) | 35 (6) | 38 (7) |
| 7. Nazioarteko tesiak – (kop.) | 2 | 4 | 8 | 10 | 15 |
| 8. Nazioarteko ikertzaile bisitariak (4 astetik gorako egonaldiak) – (kop.) | 3 | 6 | 8 | 10 | 13 |
| 9. Ikertzaileak izen handiko ikerketa-zentroetan – (kop.) | 4 | 5 | 6 | 8 | 10 |
| 10. Esparru-programako deialdietan edo nazioarteko beste deialdi batzuetan lortutako itzulkinak (euroak) | 500.000 | 610.000 | 645.000 | 695.000 | 740.000 |
| III. TREBAKUNTZA | | | | | |
| 11. Irakurritako tesiak – (kop.) | 18 | 22 | 23 | 24 | 35 |
| 12. Mugikortasun-programetan parte hartzen duten IILak (4 astetik gorako egonaldiak) – (%) | 4,5 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| IV. KALITATEA | | | | | |
| Talde bikainak (Eusko Jaurlaritzak katalogatuak) – (kop.) A MULTZOAN katalogatutako ikerketa-taldeak – (kop.) | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| Talde bikainak (Eusko Jaurlaritzak katalogatuak) – (kop.) B MULTZOAN katalogatutako ikerketa-taldeak – (kop.) | 3 | 3 | 3 | 5 | 5 |

# A.2.3.4. Transferentzia

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Transferentzia-jarduerak | 1.1. Lankidetza-akordio egonkorrak enpresekin edo bestelako erakundeekin | 47.568 | 66.120 | 84.633 | 107.907 | 306.228 |
| | 1.2. Ikertzaileen egonaldiak enpresetan edo bestelako erakundeetan | 190.272 | 264.477 | 338.532 | 431.629 | 1.224.910 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | | |
| 2. Doktoreen prestakuntza enpresetan | | 79.280 | 110.200 | 141.055 | 179.845 | 510.380 |
| **GUZTIRA** | | **317.120** | **440.797** | **564.220** | **719.381** | **2.041.518** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | |
| 1. Enpresaren munduan edota beste erakunde publiko edo pribatuetan nahiz horientzat proiektuak eginez lanean diharduten ikertzaileak – (kop.) | 164 | 180 | 200 | 215 | 220 |
| 2. Enpresaren munduan edota beste erakunde publiko edo pribatuetan nahiz horientzat proiektuak eginez lanean diharduten unibertsitateko ikertzaileak (LOB) – (kop.) | 54 | 60 | 65 | 72 | 73 |
| 3. Kontratupeko diru-sarrerak (euroak) | 4.900.000 | 5.000.000 | 5.100.000 | 5.200.000 | 5.300.000 |
| 4. Unibertsitatearekin lankidetzan (proiektua, hitzarmena eta abar) aritutako enpresak – (kop.) | 160 | 170 | 175 | 180 | 185 |
| 5. Eragileak berrikuntza-sisteman, unibertsitatea lankidetzan aritutako enpresak ez diren beste batzuetan (proiektua, hitzarmena eta abar) – (kop.) | 45 | 50 | 53 | 60 | 65 |
| 6. Lankidetza-akordio egonkorrak enpresekin edota bestelako erakunde publiko edo pribatuekin – (kop.) | 12 | 15 | 18 | 20 | 22 |
| 7. Norbere titulartasunaz erregistratutako edo partekatutako nahiz unibertsitateak parte-hartze erabakigarria izandako patenteak edota lizentziak – (kop. metatua) | 7 | 9 | 11 | 12 | 13 |
| 8. Norbere titulartasuna ustiatuz erregistratutako edo partekatutako nahiz unibertsitateak parte-hartze erabakigarria izandako patenteak edo lizentziak – (kop.) | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 |
| 9. Sortutako spin-offak – (kop. metatua) | 10 | 12 | 14 | 16 | 18 |
| II. TREBAKUNTZA | | | | | |
| 10. Irakurritako tesiak enpresetan (enpresek finantzatutako tesiak eta tesia Mondragon Unibertsitatean egiten ari diren enpresako ikertzaileak) – (kop.) | 5 | 6 | 8 | 9 | 12 |
| 11. Enpresek kontratatutako doktoreak – (kop.) | | 6 | 7 | 8 | 9 |

## A.2.3.5. Zuzentasuna, eraginkortasuna eta gizarte-proiekzioa

| JARDUERAK | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. JARDUERA BERRITZAILEAK | | | | | | |
| 1. Iraunkortasunaren eta gizarte-erantzukizunaren inguruko jarduerak | 1.1. Iraunkortasun- eta irisgarritasun-planak egin eta gauzatzea | 19.820 | 27.550 | 35.264 | 44.961 | 127.595 |
| | 1.2. Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren memoria egin eta zehaztea | 19.820 | 27.550 | 35.264 | 44.961 | 127.595 |
| 2. Gizarte-erakundeekin lankidetza-akordioak lortu eta mantentzea | | 39.640 | 55.100 | 70.527 | 89.923 | 255.190 |
| **GUZTIRA** | | **79.280** | **110.200** | **141.055** | **179.845** | **510.380** |

| ADIERAZLEAK ETA JOMUGA KUANTITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Gizarte-erakundeekin egindako lankidetza-hitzarmenak – (kop.) | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 2. Egindako proiektu sozialak – (kop.) | 10 | 11 | 12 | 13 | 15 |
| 3. Hitzarmen eta proiektu sozialen hedapenean aritutako langileak (LOB) – (kop.) | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 |

| ADIERAZLE KUALITATIBOAK | Abiapuntuko datua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| Iraunkortasunaren Plana | Egin gabe | Egin gabe | Plana prestatzea | Plana ezartzeko 1. fasea | Plana ezartzeko 2. fasea |
| Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren memoria | Egin gabe | Egin gabe | Plana prestatzea | Plana ezartzeko 1. fasea | Plana ezartzeko 2. fasea |

# A.3. EKARPEN ARRUNTAREN ETA INBERTSIORAKO URTE ANITZEKO PLANAREN JARRAIPEN-PROZEDURAREN DESKRIBAPENA

2011-2014ko Unibertsitate Planean aurkeztutako Ekarpen Arrunta zehazteko irizpideak maiatzaren 20ko 94/2008 Dekretuan ezarritakoak dira.

Ekarpen arruntak Euskal Herriko Unibertsitatearen beharrizanei erantzun behar die, nahikotasun-printzipioarekin bat etorriz.

2011-2014ko Unibertsitate Planean, atal horretan barne hartu da:

- Ekarpen arrunta bera.
- IILentzako ordainsari osagarrien finantzaketa.
- Lan-kontratudun irakasleen ikerketa-seiurtekoa aplikatzeak eragindako gastua.

Ondorengo taulan, 2011-2014 aldian azalpen horiei esleitutako aurrekontua jaso da:

**A.3-1. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntaren banaketa azalpenen arabera. 2011-2014**

| Azalpena | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Ekarpen Arrunta | | | | | |
| IV. kapitulua | 258.181.708 | 262.312.615 | 269.526.212 | 276.803.420 | 1.066.823.955 |
| VII. kapitulua | 12.500.000 | 13.000.000 | 13.500.000 | 14.000.000 | 53.000.000 |
| IILen ordainsari osagarriak | 17.206.389 | 18.000.000 | 19.000.000 | 20.000.000 | 74.206.389 |
| Lan-kontratudun IILen ikerketa-seiurtekoa | 879.287 | 1.000.000 | 1.300.000 | 1.500.000 | 4.679.287 |
| **GUZTIRA** | **288.767.384** | **294.312.615** | **303.326.212** | **312.303.420** | **1.198.709.631** |

IILen ordainsari osagarrien eta lan-kontratudun IILen ikerketa-seiurtekoen ataletan, prozedura horren jarraipena aurkeztutako fakturen bidez egiten da.

Euskal Herriko Unibertsitateak ordainketen frogagiriak aurkeztean, Eusko Jaurlaritzak gastuak finantzatzen ditu. Ondorengo taulan, bi jardueren adierazleak jaso dira:

### A.3-2. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntaren jarraipen-adierazleak

| Adierazleak |
| --- |
| Ordainsari osagarrien ebaluazioan tarte bat igotzen duten IILen ehunekoa, eskaera egiten duten IILen kopuruarekiko |
| Ordainsari osagarrien ebaluazioan tarte bat igotzen duten IILen ehunekoa, IILen guztizko kopuruarekiko |
| Ikerketa-seiurteko bat lortzen duten lan-kontratudun IILen ehunekoa, eskaera egiten duten IILen kopuruarekiko |
| Ikerketa-seiurteko bat lortzen duten lan-kontratudun IILen ehunekoa, IILen guztizko kopuruarekiko |

Bestalde, Inbertsiorako Urte Anitzeko Planaren jarraipena programa horren jarraipen-batzordeak egiten du. Batzorde horretan, proposatutako helburuak bete diren eta zenbateraino aurrera egin den baloratzen da.

Atal honetako gastuak horien frogagiriak aurkeztean finantzatzen dira, eta Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana neurtzeko adierazleak hauek dira:

- Obren gauzatze-maila ehunekotan, aurrekontuaren arabera.
- Planaren betetze-maila jarduera-plan osoarekiko.

## A.4. AKRONIMOEN ZERRENDA

- **ARWU:** Academic Ranking of World Universities (Shangaiko Unibertsitatearen Munduko Unibertsitateen Ranking Akademikoa)
- **EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa
- **CRUE:** Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia
- **ECTS:** European Credit Transfer System – Kredituen Transferentzia Sistema Europarra
- **LOB:** Lanaldi Osoaren Baliokidea
- **GHEE:** Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua
- **IEE:** Ikerketaren Europako Esparrua European Research Area (ERA)
- **GV/EJ:** Eusko Jaurlaritza
- **I+G:** Ikerketa eta Garapena
- **I+D+b:** Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza
- **GHE:** Goi-mailako Hezkuntza Erakundeak
- **ISI:** Institute for Scientific Information – Informazio Zientifikorako Erakundea
- **MU:** Mondragon Unibertsitatea
- **OTEB:** Oinarri Teknologikoko Enpresak Berriak
- **AZL:** Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak
- **ZTBP:** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana
- **IIL:** Irakasle eta Ikertzaile Langileak
- **BPG:** Barne Produktu Gordina
- **UP:** Unibertsitate Plana
- **SUE:** Espainiako unibertsitate-sistema
- **EUS:** Euskal Unibertsitate Sistema
- **THEs:** Times Higher Education’s World University Ranking (Times egunkariaren Goi-mailako Hezkuntzako Munduko Unibertsitateen Rankinga)
- **UD:** Deustuko Unibertsitatea
- **UPV/EHU:** Euskal Herriko Unibertsitatea
- **UGE:** Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna

# A.5. EUSKO LEGEBILTZARREKO HEZKUNTZA BATZORDEAK ONARTUTAKO EBAZPENAK

Andre agurgarria:

Hezkuntza Batzordeak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, aztergai izan ditu Euskal Unibertsitate Sistemaren 2011-2014 Unibertsitate-Planari buruzko komunikazioa eta aurkeztutako proposamenak, eta, eztabaida egin ondoren, ziurtagiriaren eranskinean doazen ebazpenak onetsi ditu (09\10\08\00\0005).

Horren berri ematen dizut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 19a.

Arantza Quiroga Cia
Legebiltzarreko lehendakaria

**VIRGINIA MÚGICA CONDE and.**
**Koordinaziorako idazkari nagusia**

**NIK, TXARO SARASUA DÍAZEK, HEZKUNTZA BATZORDEKO IDAZKARI NAIZEN HONEK,**

**ZIURTATZEN DUT**

Hezkuntza Batzordeak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, aztergai izan dituela Euskal Unibertsitate Sistemaren 2011-2014 Unibertsitate-Planari buruzko komunikazioa eta aurkeztutako proposamenak, eta, eztabaida egin ondoren, ziurtagiriaren eranskinean doazen ebazpenak onetsi dituela.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut batzordeko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2011ko abenduaren 19an.

BATZORDEKO IDAZKARIA

Txaro Sarasua Díaz

Ontzat emana
BATZORDEKO LEHENDAKARIA

Garbiñe Mendizabal Mendizabal

## A.5.1. Ziurtagiriaren eranskina

### ONETSITAKO EBAZPENAK EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN 2011-2014 UNIBERTSITATE PLANARI BURUZKO KOMUNIKAZIOARI DAGOKIONEZ

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari, Euskal Herriko Unibertsitateari eta Gizarte Kontseiluari eskatzen die, batetik, aitortu eta indartu dezatela unibertsitatearen gizarte-zereginaren garrantzia, eta bestetik, lotura eraginkorra ezarri dezala unibertsitatearen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sisteman (beste unibertsitateak, enpresak, teknologia-zentroak, CIC eta abar) ari diren eragileen artean.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio areagotu dezala aurrekontuek ahalbideratzen duten neurrian UPV/EHUko ikerketa-taldeen finantziazioa, bai eta doktoretza-aurreko eta doktoretza-ondoko bere langile ikertzaileei dagokiena ere, bikaintasuneko ikerketa bultzatze aldera.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio areagotu dezala unibertsitate eta enpresen artean doktoretza-tesiak batera egiteko finantziazioa, halatan non ikertzaileak, doktoretza-titulua eskuratu ondoren, enpresa horietan kontratatuak izan ahal daitezen.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Unibertsitate Planaren beraren misioarekin bat eginez, aipa ditzala planaren testuan Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen bikaintasuneko kanpusak, bereziki Euskal Herriko Unibertsitatearen nazioarteko bikaintasuneko kanpusa den Euskampusen sorrera eta garapena.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio areagotu dezala ahalegina UPV/EHUko AZP/IIP ratioa Estatuko unibertsitateetako batez bestekoarekin orekatzeko.

6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio planeko helburuak bete ahal izateko moduan finantza ditzala programa-kontratuak.

7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gradu, graduondoko eta master eskaintzaren gehitze progresiboa berma dezala hizkuntza ofizial bietan, euskaraz eta gaztelaniaz. Gainera, bermatuko du ingelesezko eskaintza progresiboki gehitzea, helburutzat harturik ikasleek prestakuntza hobea edukitzea Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espazioan eta nazioartean mugitzeko orduan.

8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bana dezala programa-kontratuen finantzazioa Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateen artean, helburu espezifikoen betekuntzara baldintzatuta.

9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, unibertsitate-plan berriaren esparruan, susta dezala Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateen jarduketa bateratua, dela diru-laguntza zuzenen bidez, dela lehiaketa-deialdietan hiru unibertsitateen elkarlana sarituz.

10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, unibertsitate-plan berriaren esparruan, eska diezaiela Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateetako bakoitzari ikasketa-programak beren ikasle guztien dibertsitatera egokitzeko plana, ikasleen arrakasta-indizeak hobetze aldera.

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, unibertsitate-plan berriaren esparruan, eska diezazkiola unibertsitate bakoitzari eskola-porrotaren indizeen arrazoiei buruzko egoera-diagnostiko bat eta porrot hori murrizteko hartuko dituzten neurriak.

12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar dezala ondoko testua 2.3 puntuan:

"Eskualdekoak: Belgikakomunitate flandestarra, Belgikakomunitate frankofonoa, Katalunia eta Madrilgo Erkidegoa. Akitania, Nafarroa".

13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar dezala adierazle berri bat A.1-3. eranskineko HE3 koadroan.

"3.5. Euskararen kultura partekatzen duten beste lurralde batzuetan kokatutako gainerako unibertsitateekin, euskararen erabilera sustatze aldera, sinatutako hitzarmenen kopurua".

14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala lankidetza Jaurlaritzaren plan batzuen eta besteen artean, bereziki 2011-2014 Unibertsitate Planaren eta 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren artean, eta orobat plan horien testuinguruan onartutako politiken ardura duten Jaurlaritzako sailen artean ere.

15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lidergoa har dezala, Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioaren eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen bitartez, herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina bat egiteko, zeinaren helburua izango baita gizarteari kontzientzia harraraztea zientziaren balioaren inguruan, ikerketa- eta garapen-jardueren bidez ezagutza sortzearen eta ezagutza hori gizartera helaraztearen garrantziaren inguruan, eta ondorioz, zientzian inbertitzearen eta herritarren kultura zientifikoa areagotzearen errentagarritasunaren inguruan.

16. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara ditzala beharrezko tresnak eta jarduerak posible izan dadin ebaluazio eta jarraipen egoki bat egitea unibertsitate-planaren urteroko eboluzioari buruz eta bertako helburu eta adierazleen betetze-mailari buruz, bai eta hiru euskal unibertsitateen funtzionamenduari buruz ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak esleitzen dizkion eskumenen barruan.

17. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio behar adinako baliabide ekonomikoak esleitu ditzala urteko aurrekontu bakoitzean, egungo eta etorkizuneko aurrekontu-posibilitateen barruan, halatan non gehitu dadin Jaurlaritzak bai UPV/EHUrako bai Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiak aurkez daitezkeen deialdietarako egiten duen ekarpena, helburua izanik Europako herrialde garatuenetako mailara hurbiltzea, barne-produktu gordinaren ehunekoetan, goi-mailako irakaskuntzaren finantziazioa.

